

JAKIN sorta

GURE

IKASTOLA

J. A. Aduriz	L. Haranburu
I. Aizpurua	J. Intxausti
A. Allur	I. Laspiur
Andereño bat	A. Lertxundi
J. Ansa	E. Osa
S. Ayestaran	M. Pla
M. Errezola	J. M. Satrustegi
C. Esteva	I. Urbieta
F. Garitano	J. Urrutia

EDITORIAL FRANCISCANA ARANZAZU

JAKIN SORTE
GURE
KASTOLA

J. Arizaga
J. Arizaga
J. Arizaga
A. Arizaga
E. Osa
M. Osa
J. M. Arizaga
J. Arizaga
J. Arizaga

J. Arizaga
J. Arizaga
J. Arizaga
A. Arizaga
J. Arizaga
E. Osa
M. Osa
J. M. Arizaga
J. Arizaga
J. Arizaga

E. F. A. (N.º de Registro 1692)

Depósito Legal: S. S. 1972-202

TALLERES GRAFICOS DEL SANTUARIO DE ARANZAZU
OÑATE (GUIPUZCOA)

ESTUDIO GRAFICO ARANZAZU

aurkibidea

Ohar	11
HISTORIA	13
Ikastolen historiarako ikusbide bat (1960-1972):	
<i>Iñaki Aizpurua</i>	15
Ikastolak hiri barnean	16
Herrietako ikastolen sortzea	17
—jaiotorduetako arazoak	18
—ikastolaren bide berriak	19
—Ikastola Batzordeak eta Batzarrak	20
—Andereñoak, irakasleak	21
—Gurasoak, herria	21
Gipuzkoako Ikastolen Federazioa eta Eliza	22
—Legearen babes bila	23
a) Federazioa	24
b) Irakasleen Elkartea	25
d) Eliza	26
Nafarroako ikastolen jokabidea: Jose M^a Satrustegi	29
a) Nondik nora	29

—Ereintza luzea	30
—Oraiko egoera	31
—Etorkizuna	32
b) Zenbait gogoeta	34
—Gurasoen eskubidea	34
—Sinesmena	35
—Eritzi bat	37
—Laburpena	38
Iparraldeko Ikastola: Andereño batek	39
EKILEAK	45
Ikastolak eta Irakasleak: Arantxa Allur	47
“Joanes Etxeberri” Hezitzaileen Eskola	49
Bailaraka	50
Ikastaldiak	51
Aldizkaria	53
“Haurride”	53
Ikastola eta gurasoak: Imanol Laspiur	55
Munduan egunoro gertatzen dena	55
Haurrak hezi	56
Aurrenez gurasoa hezi behar	59
Haurraren heziketa	60
Euskal Ikastola	64
Ikastola, burgesa ote da?	72
Haurrak gurasoenak ala Estaduarenak?	76
Gipuzkoako Ikastola Elkarteak	79
Gurasoek irakasleen bidez ikastolekiko duten bete- beharra	83
ARAZOAK	91
Hizkuntzabitasuna Kultur Antropologiaren arazo:	
<i>Claudi Esteva</i>	93
Zer da Kultur Antropologia	94
Mintzaira eta kultura	96
Etniaren kontzeptua	97
Hizkuntzaren gizarte eginkizuna	99

Hizkuntzabitasunaren begirakera antropologi arazo bezala	101
Hizkuntzabitasuna funtziozko txandaera bezala	105
Hizkuntzabidun gizarte biziera	106
Hizkuntzabitasuna, gizartea, pertsona: Jose A. Aduriz	113
Bilinguismoaren alderdi teorikoa	113
1. Bilinguismoa eta gizartea	113
2. Definizio bila	114
3. Bilinguismo motak	115
4. Bilinguismoaren eratzaille sozialak	116
Bilinguismoa eta pertsona	117
1. Bilinguismoa eta adimen desarroiloa	117
2. Bilinguismoa linguistikatik begiratuta	119
a) Hizkuntza nagusia	119
b) Bi hizkuntzen esanahi desberdina	120
d) Bi hizkuntzen nahasketa	121
Hizkuntzabidun eskola: Maria Pla	123
A) Hizkuntzabidun eskola zer da?	123
B) Zein posibletasun eskaintzen ditu bidegurutze honek?	124
D) Amagandiko mintzairan oinarritutako hizkuntzabidun eskola baten aurre-planeamendu zientifikoak, zer eskatzen du?	125
Hizkuntzabitasuna eta giza-nortasunaren baterakuntza:	
<i>Sabin Ayestaran</i>	127
Pertsonalidadearen baterakuntza	127
Hizkuntzaren bi mailak	128
Hitzak, esperientziaren eratzaille	129
Hizkuntza, sentiberatasunaren hezitzaile	130
Hizkuntzabitasuna eta giza-nortasunaren desbaterakuntza	132
Erdizkako hizkuntzabitasunaren mugapenak ..	133
Erdizkako hizkuntzabitasunaren ondorenak	134
Euskal Herriko hizkuntzabitasunaren arazoa	135

Hizkuntzabitasun osoaren bila	136
Arazoaren irtenbideak	136
Hizkuntzabitasuna Legedi positibuetan: Joseba Urrutia ...	139
Saiakeraren mugaketa	139
1. Hizkuntzabakardun gizarte desberdinak Estatu berean	140
2. Hizkuntzaskodun gizarteak Estatu berean	141
3. Nazio-minorien arazoa	141
4. "Maioria" eta "minoría" hitzak	141
5. Minoriekiko legeen balioa	142
6. Atzerritarren minoriak	143
7. Lanaren azterkizuna	144
8. Lanaren hizkera	144
9. Gizarte-pertsonen dretxoa	144
Finlandia eta sueziar hizkuntza minoría	145
Italia eta Jugoslavia	147
Italia eta Austria	149
Laponiarrak edo Samak	150
Feröe Uharteak	151
Eraskinak	153
Convenio sobre poblaciones indígenas y tribuales ..	153
Convenio sobre lucha contra la discriminación. Enseñanza	155
Ley General de Educación	157
"Libro Blanco"	159
Ikastola eta Espainiako Irakaskintza Legea: Joan Ansa ...	161
Legearen eskakizunak	162
Klasifikazioa dela-ta	163
Lege berriaren eraskinak	164
Aurrera begiratuaz	165
Ikastola, geroaren habe: Luis Haranburu-Altuna	167
Kultura, kontraesan dominant eta eragilea	168
Pedagogia askatzailea	172
Zenbait ondorio	180

Ikastola eta erlijioa: Eusebio Osa	185
I. Ikastola eta katekesia	185
1. Ikastola, haurra kulturatzeko	186
2. <i>Kredo</i> erlijiosoek Katekesi berezi bat behar dute	187
3. Euskaltzaleen Jainkoa eta Bibliako Jainkoa	188
II. Fedearen zenbait memento	191
1. Praxis mementoa	192
2. Interpretazio mementoa	193
3. Sistematizazio mementoa	194
4. Trazendentzi mementoa	194
5. Ospaketa mementoa	195
6. Ikastola eta Katekesiaren berezketa	195
III. Eliza eta ikastolak	197
1. Eliza, askatasun bide?	197
2. Eliza, mundu aparte bat?	199
Ikastolako erlijio arazoak: Felix Garitano	203
Ikastola eta erlijio dimentsioa	204
Zer da heziketa	204
Hurraren askatasuna	205
Ikastola publikoa, ikastola pribatua	210
Heziketa, gizartearen eginkizun	210
Heziketarako familiaren lehenengotasuna	210
Ikastola, familia, parrokia	214
Bukatzeko	216
Artea ikastolan: Anjel Lertxundi eta Imanol Urbiet	219
Irakaslea eta arte-ekintza	220
Eragozpenak	224
Metodua	228
Literatura eta euskal irakaskintza: Joseba Intxausti	231
I. Poesiaren bideetatik	232
II. Irakas metoduak	239
A) Edermenaren heziketarako hiru helburu	239
B) Hiru irakasbide	240
a. Edermenaren iratzarbidea	240

—mugarriak	241
—saiakera bat: “Begiratu dot...”	241
—irakurri	241
—ulertarazi	242
—sorbide	242
—birrirakuri	244
b. Ederraren teknikabidea	244
—mugarriak	244
—saiakera bat: “Ura zan gizona, ura!”	246
—irakurri	246
—atalaren nondiakoa	247
—muinaren bila	247
—barne-moldadura	247
—formaren azterketa	247
—ondorenak	251
d. Izadian barna	251
D) Beste zenbait irakasbide	253
III. Nor irakasle?	255
Luzagarri: Izkribu gaietarako olerkiak	257
ERASKINAK	259
I. Kondairarako dokumendua.	
1937 aurreko ikastolen edestirako jakingarriak:	
<i>Errezola'tar Mikele</i>	261
Euskal Batzaldiak (1918...)	261
“Euskal Ikastetxea” (1917)	264
Zuzendaritza ta Irakasleak	264
Ikasleak	264
Irakaskintza	264
Agindutako izkuntza	265
Ikas-liburuak	265
Ikasleen diru-elkargoa	265
Itunben ezeztapena	265
“Koru'ko Andre Maria'ren Ikastetxea” (1924)	266
Iru Ikastetxeak	266

Gau ikastaldiak eta beste	267
Loiola kaleko Ikastola	268
Antiguoan	268
Bergara'ko ikastola	269
Tolosa'ko ikastola	270
Errenderi'ko ikastola	271
Beste zenbait erritakoak	271
Oñati'n	271
Segura'n	273
Irun'en	273
Arrasate'n	273
Irura'n	274
Andoain'en	274
II. Hizkuntzabitasunaz inkestagaiak: Joseba Intxausti	275
El bilingüismo desde la Antropología Cultural	276
El bilingüismo desde la Pedagogía	276
El bilingüismo desde la Lingüística	276
El bilingüismo desde la Psicología	277

Hilabete asko joan da lan hau hasi eta burutu dugun arte, asko eta guk nahi genuen baino gehiago. Eta, esan beharko, aldapa gora franko ere izan dugu, ez da lana beti atsegina eta samurra gertatu. Hala ere, hasiera batetan uste izan genuen baino eramangarriagoa izan dela ere aitortu behar.

Eginkizun honi zertarako ekin genion? Beste edozer baino lehenago, ikastolaren arduradunek jendaurrean eta guzientzat hitzegin zezaten. Beharbada, gehiegi nahi genuen hori eskatzean. Hala ere, iritziak eta asmoak eman eta jorratzean, norbaitek uste zezakeen baino areago ere ez ote dira heldu gure lankideok. Hala balitz, ez litzake gurea lan alferra: pozik izango gara, honela, euskaldunon arteko ezaupide onari lagundu baldin badiogu. Entsegu hau nahiko ordaindua genuke orduantxe.

Hasieratik eskatu zaigu, guk geuk ere iritzia emateko; ager genezala hemen, alegia, iritzi desberdinen arteko gure iritzi ezpataduna. Baina, behingoz behintzat, nahiago izan dugu isilik entzun, honela, lankide bakoitzak eskaini digun lanari zor genion itzala gordeaz.

Horregatixe, JAKINek ez du bere gain lankideon iritzirik hartzen. Ez gara gu mintzo, norbera da hemen bere iritziaren jabe bakarra eta leiala. Izan ere, iritzi horiek desberdinak dira, desberdinak eta, maiz, elkarren kontraesaka agertzen direnak.

Nolabait esateko, antologia bat da hau; handik eta hemendik jasoaz egina, ba. Espresuki ez dugu inor kanpotik utzi nahi izan. Hutsuneak badira, bai, baina eginahalak egin ditugu denek beren egokiera ona ukan zezaten. Behin baino gehiagotan, zabaltasun honen zerbitzuan, lanetarako epeak luzatzen joan gara. Hala ere, nahi genuen zenbait idazki ez da gudanaino iritsi.

Euskeraren aldetik, betikoa egin da: lankideak jakinaren gainean zirela, guzien berdintasunerako zuzenketatxo batzu egin ditu idazkaritzak, betidanik daramagun ohiturari jarraituaz. Norbaitek bestelakorik eskatu duenean, lana bere horretan utzi diogu.

Liburu honek euskaldunon elkarrizketarako urrats bat izan nahi luke. Asmo horrekintxe jaio da, batez ere. Hala ere, badugu dudaren bat: jasaten dugun giro zitalak ez ote digu gure ahalegina desegingo?

JAKINen lan honek apaltasunez betea izan nahi luke: deus guti erabakiko du; pentsarazi egin dezaiguke, ordea. Lanak hutsuneak ditu; batzutan, ikutu ditugunetan ere, ez gara azken bururaino heldu. Hori bai: elkarrizketarako eta ondorengo eginahaletarako atari egokia gerta liteke, agian, oraingo hau. Eta itxaropen honekintxe ekin zitzaion lanari. Har beza, beraz, irakurleak gogoan: Gure Ikastola ataurre bat da.

Liburua ez dugu egin irakurtzeko, pentsatzeko baizik: ausnartzeko, gonbaratzeko, hautatzeko egin da. Eta, hortik, ikas dezala irakurleak berak behar lukeena aukeratzen. Askotan, lagunartean egin beharko da aukera hori, mahain inguru batetan elkarrizketara joaz. Eztabaidagai aski badu, izan ere, liburuak.

JAKIN

historia

IKASTOLEN HISTORiarAKO IKUSBIDE BAT (1960-1972)

iñaki aizpurua

Egia esan historia zehatza baino nahiago izan dugu hamabi urte hauetan ikastolen inguruan sortu diren korapilu nagusienak, gaur egun ere bizi-bizirik dirautenak, agerrarazi. Historia, korapilu horien testu-inguru den heinean bakarrik dugu ematen, zenbait gertakizunen explika-bide soila.

Gaiak dituen arriskutik begiratzeko, epe honetako gertakizunak kronika antzean, xehetasun guzietan ematea izan zezakeen agian, egokien. Bainan hainbeste dato pilatzea ez zaigu posible izan batetik, eta bestetik horretarako egin ditugun ahaleginak ez dute askotan erantzunik izan.

Dena den, 1960 urtedanik abiatuko gara gure lan hau mami-tzen, eta handik honat ikastolek jarraitu duten prozesuak ukan dituen datorik berezienak argitara emanaz, beroiek aztertu eta interpretatzen ahaleginduko gara.

1.—IKASTOLAK HIRI BARNEAN

Gerla ondorengo ikastolen bizimoldea Donostiako edo Bilbaoko hirietan behar da ikusi, hemen eman bait zuten beren lehen urratsa. Hala nola, haziak ezkutuan iragan behar izaten du maiz neguko ekaitzaldiaren beltza. Ezkutuan eta isilpean sortu eta hartu zuten, bada, gorputz ikastolek.

Zenbait pertsonen lehiari, eta zenbait esaten dugu, bereziki, bakar bat edo beste ez aipatzearren, zor diogu ikastolek emaniko lehen urrats hau. Ez zitekeen legez ikastolarik eraiki. Orduan zer, ez zen deus egiten ahal? Ez zuten inolako moduan horrela pentsatu, bederen pertsona hauek, isil-isilean bait zioten ekin bidearen urratzeari.

Ikastolak, lehenik, akademia gisa arizan ziren, hizkuntzaren akademia soilak bailira, eta kasu honetan, euskeraren irakasteko akademiak bezala. Horretarako legearen baimenik behar ez zenez gero, ez zen hein batetan gauza zaila, baina neguko egun beltzen berri dakienak, ongi daki ere ez dela hain erraza izan.

Akademia moldeetan bizitzeko ez zitekeen hamabi hurreko multzoa baino handiagorik har eta eduki, ez eta eguneko bi ordu eta erdi baizik. Beraz, edozein etxe-bizitzetako gelak balio zuen ikastoletarako. Bestalde, aisa antolatzen ahal zen gela, eta itxuraz, tresna askoren beharrik ez bazen ere (mahain, aulki, liburu...) ikastola zen egin behar zena funtsean, eta zinez esan, hor ziren komediak. Akademia ageri, ikastola egin; hots, euskera bitarteko delarik, haurra eskolatu: horra guzia.

Andereñoak hamabiko bizpahiru haur-multzo har zezakeen egunaren buruan eta aldiko hamabi hartzea, talde bildua zenez, ez zen besterik baino makurragoko sistema, hobe baizik. Bada alde ederrik sasoin hartako beste edozein eskolarekin konparatzen badugu, zeren eta nonahi aurki bait zitekeen 50-60ko multzoa mai-

su edo maistra bakarrarentzat. Ondorioz, bistan da, haurra lantzeko, bat-banaka lantzeko alegia, bide egokia dela talde ttipietan har-tzea.

Orduko ikastolen bigarren berezitasuna (eguneko bi ordu eta erdiko saioak ematea, alegia), ez da berez, pedagogi eta sikologi aldetik ikusirik behintzat, limitazio bat. Denborak baino, metodo-logiak edo esan dezagun pedagogiak, hainitz gehiago esan nahi du. Eta badirudi, pedagogi aldetik aurrerakoiak izan zirela oso hirietako ikastolak. Bestela ezin daiteke uler hain denbora la-burrean ematen zuten programa zabala betetzea, zeren eta ohiko gaiez kanpo jolasa, kantua, eskulana etab., ematen bait ziren.

Esan dugunez gain eta beren lehen-sasoinean bizi ukan duten egoera konprenituz, zenbait hutsune edo limitazio nabari da, ba-tikpat garaiari, lekuari eta inguruari dagozkienak. Besteak beste, ez da harritzekoa, erdi-mailako gizarte jendeari erantzuten bazio-ten bereziki, edo-ta, gero eta gehiago herrian xertatu orde, ghettoen itxura zerbait hartu bazuten beren baitan bilduaz.

2.—HERRIETAKO IKASTOLEN SORTZEA

Herrietako jendea hasia zen ohartzen ikastolez guti edo gehia-go. Arestian aipatu dugunez, ikastolak sortzea minoria baten lana izan bazen ere, ez zen hain minoria ikastolen ezagupidea zuena. Hala nola, iloba bat bazuen zenbaitek Donostiako edo Bilbaoko ikastolaren batetan, edo-eta bertzenaz ere biziki hedatzen zihoan ikastolekiko giro ona.

Halatan bada, herrietako zenbait gurasoren buruan loraturik zen amets bat bezala-edo, baina posible zen ideia zenez, aisa ekin zitzaion ikastolen eraikitzeari. Hernaniko, Elgoibar, Algorta, Laz-kao, Andoain, Errenderia, Pasaia, Donostiako Lizeo zaharra, etab., orduan sorturikoak dira.

Zer egin ikastola bat herri mailan eraikitzeko? Hau zen galdea. Erantzunak bazuen, halere, praktikan, gero aletuko dugun bezala, lanik asko.

Jaiotorduetako arazoak

Lehenik, eta guziaren gaindik, andereñoa behar zen, eta... andereñorik ez zen inon edo guziz konta ahala ziren, ez bait zen euskal neskatxarrik maistra karrerarik ikasten ari.

Bestalde, zuhurki jokatu behar zen. Herri batetan ikastola martxan ipiniz gero, ez bait zen hiri barnean bezala akademia itxuran eraman ahal, eta hala izanik ere, akademiak berekin zituen moldeak herstuegiak ziren langile haurrentzat. Hamabiko taldeak, eta bi ordu eta erditan eskola emanaz jarraitzea, ez zen inola posible ikusten.

Horregatik ikastolak eskolaren moldea behar zuen hartu derriorki nolabait ere herrietan. Andereñoaz aparte lekuaz behar zuten arduratu gurasoek, eta gainera, haur multzo egoki bat bilatu behar zen.

Lekua eta haurrak biltzea ez-baina, andereñoaren arazoa zen zailena. Eta nola konpondu hori kasik andereñorik ez bazen? Hori alde batetik. Eta bestalde, zer adinetako haurrekin hasi behar zen ikastola herrian? Bospasei urtez goitiko haurrekin hasiz gero, eta adin horretako haurrik gehienak beste eskoletan zebiltzala ohartuz gero, ez ote jokabide lotsagabea horietarik biltzea? Bederen, egoera haretan hala uste zen, hots, nabarmenkeriarik gabe jokatu behar zela. Horregatik, 3-4 urtetako haur ttipiekin hasi ziren ikastolak herririk gehienetan, eta gero, konfiantza hartu heinean, joan ziren hazten eta handitzenago.

Jokabide honek berak beste zertxobait ere erakutsi zuen. Jolas eta kantuaren bidez hartu behar bait ziren haurrak, herriko neskatxa

“sorgin” eta haur maitea zen bat aski zela horretarako, zenbait hila-beteren buruan praktikak andereño batekin eginik gero.

Hona nola sortu ziren andereño laguntzaileak edo egun “ttipien andereño” deitzen ditugunak, eta beraz, horiekin batera herrietako ikastolak.

Ikastolaren bide berriak

Pondu honetan galdera interesante bat egin dezakegu: herrietako ikastolen sortzea, hirietakoen hedapen bezala konsidera genezake, hots, haien zabalkunde fenomeno soil bezala, ikastola molde berri bateri hasiera eman zitzaion? Hauzia gehiegi sakondu baino lehenagotik, bistan da, ikastola berri hauek, hirietakoekin harremanik gabe hasi zirela lanean, planifikatze bateragilerik gabe. Agian besterik eskatzea une haretan, anakronismo hutsa izan daiteke gaur egun. Hala ere, kondaira bortxatzeko arriskuan, hipotesia bat eraiki dezakegu, gaur eguneko zenbait problema argitu dezakeen ustean: ez ote zilegi pentsatzea hirietakoen eta herrietakoen gizarte-kondizionamendu eta (behar bada) pentsamolde diferenteak izan zirela desberdintasunaren eta batasun ezaren kausa nagusienak? Hipotesiaren baliagarri dato indikatzaile bi ematen ditugu:

—Herrietako ikastolak gizarte base zabalagoa zuten beren inguruan: guti gora behera, herri bat osatzen duten gizarte-maila orotarik eta batikpat horien arteko indarririk bizenak. Ohar besterik guraso, sozio-laguntzaile, gazte eta elizgizonek bere zer-nola parte hartu zuten ikastolaren organizatzen. Herri giroan integratzen ziren ikastolak, gizarte maila bakar baten molde hertsietatik at.

—Lekutzat ikasgela normal bat zuten. Orduak, edozein

eskolatakoak bezala; eta taldea, 20-30eko haur multzoak osatzen zuen.

Ikastola Batzordeak eta Batzarrak

Luza gabe, eta gehienbat beharrak eraginik, noski, han-hemenka sorturik ziren ikastolak elkarrengana hurbiltzen ziren hasi. Nola gurasoek beren artean, hala andereñoek, berezko harremanak batekoek bestekoekin hasiak zituzten, ikastolak zerbait hedatzen ari zirenez geroztik.

Lehenik, herri mailan, gurasoek bederen, beren arteko jendearekin batzorde bat egin zuten "Gurasoen Ikastola-Batzordea" deitzen zena. Batzorde hau zen, bada, arduratzen, beste gurasoen izenean, nahiz andereñoaz, nahiz lekuaz edo behar zen dirua sortu eta ikastolaren organizatzeko. Batzordea lehendabizian gizonezkoek osatzen zuten, baina laster ikusi zen emakumezkoek ere tartean behar zutela, bidezko zenez, zeren-eta amak ez bait du aitak baino zer-ikusi gutiago haurraren heziketan.

Gurasoen batzordea herri mailan osatu bazen ere lehenengoz, herri mailako batzordea osatu zen berehala, eta geroago herriak eta bailarak moldatzen zihoazen heinean, sortu zen, aldiz, "Batzorde Nagusia" delakoa, euskal-lurraren eskualde guzietarik bailara bakoitzeko arduradunetz eta andereñoen izeneko bizpahiru ordezkarekin osaturik.

Zer eginkizun edo zer kriteriorekin jokutzen zen? Laburki esateko: lehenik, elkarren berri jakiteko edo jakitearren sortu zen. Honek berak ez zuen gurasoen eginkizuna guti moldatu. Bazen beldurrik asko, ikastolek noiz arte iraungo zuten kezka bait zerabilen, eta elkarren babes hau aurrerabidea urratzeko laguntza ona izan zela, lan horretan ibilia den edonork badaki. Ez zen inoiz goitikako organizazio-loturarik onartzen. Egia, ikastolek gaurregun duten hedadurarik ez zutela ere. Horiek oro, kriterio bat

zen argitzaile eta agitz lagundu zuen arduradunen jokabidea moldatzen: "Herri bakoitzean konpon daitekeen problemaz ez da bailarako batzordea zertan arduraturik, eta hala berean, ez Batzorde Nagusia ere bailara-mailan konpon daitekeenaz". Horra zertan oinarritua zen ikastolen organizazio erakundea.

Andereñoak ere han ziren herriko batzordean, eta nahiz bailarakoan nahiz Batzorde Nagusian bazituzten ikastola arazoez hobekiago jabetzeko. Esan beharrik, andereñoak beren aldetik beren gisako batzar eta ikasketak bazituztela; eta bereziki, garrantzia handia ematen zioten eskualde guzietariko andereñoen udako batzar-egunei, alegia, "Udako Ikastaldia" delakoari, beren lana aztertu eta gai berriak elkarrekin ikasteko.

Andereñoak, irakasleak

Andereño berrien premia hastetik xantzetakoa ez bazen, gero eta larriago bihurtu zelarik, problema bihurrieneratariko bat gertatu zen. Honek eraginik, orduan sorturikoa da "Andereñoen Residencia" delakoa Donostian, bere gutian ere, apalki, hainbat eta hainbat andereño berri herriaren giroan arnasturik eman dituen.

Ikastolek beren eboluzioan eman zuten bigarren urrats hau behar bezala maiseatzeko, derriorreko da alde onak bezalaxe txarrak ere ikustea.

Gurasoa, herria

Herrietan ikastola sortzeak herria zuen mugitu, ez du esan nahi giroa lehendanik sortua ez zenik, baina herriak, bereziki gurasoek, ausarki parte hartu zuten ikastolaren antolamenduan. Zenbat bilkura, zenbat ibili, lekua, andereñoa, dirua, hurrak biltzeko! Anartean, andereñoen baitan zegoen osoki ikastolaren ardura eta

hilabete oro berebat ordainduz gero, gauza erraza zen gurasoen-tzat ikastola egitea andereñoak egiten bait zuen dena.

Orain, aitzitik, gurasoak sartu ziren ikastolaren antolatzen eta buru-belarri sartu ere, guziaren ardura bait zuten bere gain hartua, salbu-eta ikastola barrukoa, hots, pedagogiaren gora-behera andereñoaren baitan galditzen zelarik.

Zenbait parroki eta komentuk eskaini zuen laguntzaz kanpo, lekuari buruz gehienak, eta Aurrezki Kutxak jalkitzen hasi ziren diru apurraz gainera, ezin dezakegu esan erakunde ofizialek funtsezko laguntza eman zutenik.

Herriaren dinamika ikusteko, ordea, ez zen besteren beharrik izan: guraso batzordeen (langile arruntez osatuak gehienik) eta andereño laguntzaileen kemena eta ekintza ikusi baizik. Hasierako giro hura esperantzaz anpusturik zegoen. Bainan hau ere esan beharra dago, egin zen apurrak eginaren fruitua baino eginkizunaren ikuspegia argiroago erakutsi zuen.

Bigaren sasoin hau judikatzean pondu honetan agertzen da akats eta hutsegiterik nabariena. Behar zituen pertsona batzuek ongi mentalizaturik eta pentsamolde bereziarekin jantzirik pres-tatu, eta ez zituen prestatu, gero sortu ziren eztabaidetan ardu-radunen jokabideek aski garbi erakutsi zuten bezala.

3.—GIPUZKOAKO IKASTOLEN FEDERAZIOA ETA ELIZA

Bospasei urtetan ikastolak arrakasta handiz ziren ugaldtu, ez bakarrik berriak eraikitzen zihoazelako, baita herri bakoitzean haurrak gehiagotzen zihoazelako ere.

Lehenbizian ez zen hainbat kezka guraso artean, baina sei urtetara haurra hurbiltzen zelarik, delako "kartilla" dohatsuaren premia ikusten edo erakusten zen. Nolanahi ere ikastolek ez zuten baitaezpadako indarra hartu, eta, praktikan bederen, tolerantzia

batera ziren heldu legearen aldetik. Inork ezin zuen, beraz, uka irabazia zuten nortasuna.

Halarik ere, behar beharreko zen "kartilla" haurrarentzat, baldin-eta batxiler eginen bazuen. Hau errealdadean, hainitz gurasuren kezka zen, eta bistan zen guraso artean zerabilan giro gaiztoa ere; iduri zuen gero-eta herstuago gertatzen ari zela.

Esan gabe doa, Batzorde Nagusiarentzat buruhauste pisua zela eta jendea lehen baino areago asaldatu gabe konpondu behar zela uste zuen. Honela bada, lege gizonak bisitatu eta zer egin ezin asma zebilen. Ez zen inola ere gauza erraza.

Honetan, Donostia aldetik talde batek araudi bat idatzirik ekarri zuen, eta Ikastolen Federazio bat, legezkoa, Gipuzkoako ikastola orori proposatuaz. Giro haretan, normala zen bezala, behalakoan bildu ziren lau-bost herri haien asmo eta xedeetara.

Legearen babes bila

Hala-hala etorri zen 68ko uda eta denok ezagun ditugun gertakizunen artean, guri bereziki doakiguna: Gipuzkoako Gobernariaren manua alegia, ikastolak epe zuhur baten buruan legalizatu ala hertsu eginen zirela esanaz. Orduan bai ez zela beste erremediorik, handik edo hemendik legearen bidean sartu baino.

Nola legalizatu edo zer formularen pean? Hor zegoen gakoa. Azkenik, konfiantzarik gehienekoa Elizaren babesa jotzen zelarik, Elizaren babesean, nahiz parrokia, nahiz erlijiosoen ardurapean legalizatu ziren gehienak edo behinik behin paperak eginik baimena erdiesteko bidean jarri. Hori zen orduko beharrena eta gisa honetan, hein batetan behintzat, gauditua zen egoerak sortu zuen kenka larria.

Besterik zen, ordea, hurrengo udan berriro Gobernariak emaniko manua, hots, ttipien ikastola oro edo, berdin dena, sei urtez azpiko haurren ikastolak ere behar zirela ixtantean legalizatu.

Honek, jakina, are herstura handiagoa sortu zuen, zeren-eta ez bait zen inolako modurik ttipien ikastolak legepean sartzeko ikusten. Inoiz bada-eta orain bai zela beharrezko Elizaren babesera.

Halatan, bada, jo ziren ateak berriro Donostiako Apezpikuegian eta han zenbait harat-honak ibili ondoan, parroki bakoitzaren ardurapean-edo, Katekesiaren itxura emanik, Elizak bere gain hartzen zituelazko erabakia baietsi zen.

a) *Federazioa*.—Nehork ez du ukatzen Federazio bat egiteko ideia ona izan ez zenik. Ona ez-ezik, mementoak eskatzen zuen beharrezko erakunde bat zen: ikastolak hainbat ugaltu eta hedatu zirelarik, zalantzan bait zerabilzkien egoeraren hersturak. Hargatik, noski federatze baten ideia zen hain ongi jausi jendearen artean. Beraz, sortzaileek, egia esan, ideia eta menetoaren egokitasuna ikusteko aski adimen argia ukan zuten. Halaber, Elizaren babesera bildu eta Ikastolek lehendanik zuten organizazioa bazterreratzeko. Hau guzia ez zen orduan hain gaizki ikusia izan, zeren-eta ikastolak, esaterako, ur aparra bezala etorri zirenez, ez bait zen lan erraza guziak taxuz koordinatzea, eta beraz, aski nekaturik ziren lehengo arduradunak.

Idea ez bada inoiz ere hauzitan ipini, ez da orobat gertatu Federazioa erne zuen taldearekin eta honen jokabide eta taktikarekin. Eztabaidari bere garraztasun eta bihotz-garra kentzearen, Federazioari leporatu zaizkion kritika-pondurik nagusienak emanen ditugu hemen, besterik gabe:

- Batzorde Nagusiak zuen herri giro eta ordezkotasunik eza.
- Federazioa sortu zuen taldearen burokrazi eta legalismokeriak.
- Gehiegizko zentralismoa: aurreko organizazioekin kontatzeke aurrez pentsaturiko plan teoriko bat ezarri nahirik azaldu omen ziren, eginik zegoena kontuan

harturik gabe eta bailarek zuten nortasuna gutxituaz.
—Irakasle taldearen garrantziaz ez ohartzea edo gutxiestea. Hain zuzen ere hemen ikusi nahi da irakasle eta Federazioaren artean izan zen etendura.

Hauek dira Federazioari buruz eztabaidatzen diren pondurik nabarmenenak. Guk ez dugu hemen balorezko iritzirik ematen.

b) *Irakasleen Elkartea*.—Lehendanik zuten andereñoek organizazio gisako zenbait harreman elkarrekiko; lotura gehiegi gabe baina eskualde guzietariko jendea elkarretratzen zuelarik zenbait ekintzetan. Halere, Federazioak ezarri dio Irakasleen Elkarteari inoiz ukan duen eraginik handiena, bere jokabideak mugitu bait ditu gehienik. Federazioak mementoan aski lan bazuelako edo, gisa horretako organizazio bat josteko andereñoek duten garrantziaz sobera ohartu ez zelako edo... baina nolana ere Federazioak bere estruktura moldatzean andereñoak haintzat hartu gabe jokatu zuen, edo behintzat andereñoek hala iritzi zuten. Gerora, hontaz ohartu zelarik, noski, bildu nahi ukan zituen bere altzora; agitz berandu zen, ordea.

Ordurako andereño eta irakasle talde handi batek hartua zuen postura zehatz bat Federazioari buruz, honen zenbait jokabide duda-mudakoak iritzi. Geroztik batasunerako eman diren pausu guziak alperrikakoak izan dira.

Eztabaida honen inguruan, zalantzarik gabe, borroka ideologiko bat dabil edo guttienez, heziketaren bi ideia desberdinak. Zenbateraino, postura bi hok, kontrakoak direnentz jakitea ez da gauza erraza, ez bait daude erabat definiturik nola bata ez bestea. Dena-den kasu guzietarako berdin daiteke hala izatea, erabat kontrako jotzen direnez gero.

Gaurregun, Irakasleen Elkarteak irakasle oro bereganatzea ez badu helburu ere, organizazio bat sortzen ari dela bistan den gauza da. Dena den, Irakasleen Elkartea erakunde bilakatzen ari

da: eskualde guzietariko arduradunak aste oro batzartzen dira, materialaren zerbitzua antolatuz dute, aldizkari ttar bat ere bai, artxibo eta liburutegi baten antolamenduak berdin, hasirik dituzte aspaldian. Bere gutian zerbait badela esaten ahal da, eta are, inondikako laguntzarik gabe diharduela ohartzuz gero.

d) *Eliza*.—Hau da esan beharra guziaren aurretik: Elizak ez duela zerikusirik handirik ukan ikastolen sortzean, Estatuak edo beste zernahi erakunde ofizialek ukan ez duen bezalaxe. Halere, uste da zenbait eliz-gizonen aldetik begi onez ikusia izan zela ikastolen sortzeko gertakizun hau.

Gorago aipatu dugun 68-69 udetako egoera txar hartan zerbitzu bat eskatu zitzaion, eta egiari zor zaionez, ongi erantzun zuela esan behar; bestalde, lehen esanik dugun bezala, egin behar zuena baino gehiagorik ez zuela egin esango genuke.

Dena den, on da zer gisatako eskea luzatu zitzaion oroit dezagun. Laburki emanen dugu orduan Elizari zuzenduriko iskribua. Lehenik, lehen-mailako irakaskintzari buruz den Lege Nagusi baten (1.945-ko Uztailaren 18-koaren) aipamena egiten du, Elizaren eskolak zer-nola eta zer kondiziotan eraikiak izan ohi diren zertuaz.

Gero Vatikanoko II.a aipatzen da: “Honela, gizarte bakoitzak behar du erdietsi kulturazko desarroilo osoa bere izakera eta ohitura-moldeen arabera” (G.S. 60), eta honen oinarri bezala Joan XXIIIaren “Pacem in terris” delako enziklika. Ondoren, Ikastolen herstura larriari begi emanaz, Elizak bere eskolatzat har ditzan eskatzen da. Hona dagoen dagoenean eskakizunean esaten dena:

Gure ikastolak legez Elizaren eskolatzat gelditu daitezkeen eskatzen dugu. Ez da soilki lege babesa baizik eskatzen dena, eta halere, Ikastolen martxan ez doakio Elizari ez ekonomiaren zamarik ez-eta pedagogiaren edo

organizazioaren ardurarik; beti ere politika arazoez kanpo iraungo duten segurtasunarekin.

Eta bukatzeko dio:

Hau da soilki eskatzen duguna, guti-asko Elizaren erakundeek sekularrei Bigarren Errepublika garaian eskatu ziena: lege babesa. Eta sekularrek ez zioten ukatu Elizari. Ez diogu deus esijitzen. Bere laguntza eskatzen da, eta... itxaro dugu zinez.

Elizak, aldiz, bere babesa eman zuen eskatu bezala, eta sobera zehaztu gabeko zenbait kondizio ezarriaz gainera:

...ahalik ugarien irakatsiko zaie haurrei Kristau-Dotrina.

Inolako politikarik ez, inongo politika-alderdietara makurtu ez.

Gaur indar duten lege-arauei (ofizialei alegia) lotuko zaizkie Parroki-Ikastola guziak.

Diru eskuratze-erabiltzetan Parroki-Ikastolak bere esku eta jabe izango dira oso eta oro, Parroki eta Eliz-Barruti eta Eliz-Erakunde guzietatik aske.

Orain arte esan dugun hau aski garbiro dago, nahiz-eta oraino zenbait xehetasunen beharrea izan. Inola ere argiro ez dagoena bostgarren kondizio bat da, eta sasoin haretan jendea gehiegi jabetu ez zena:

Halaz ere, Erretore Jauna Parroki-Ikastolako Batzarkide izango da "iure pleno" eta berebat, Parroki-Ikastola Elizaren mendea dagoen naurrian eta mailan, azken erantzun beharra duena ere bai.

Azken-pondu hau dela-ta ez dakigu Eliza zer eta zein eskubiderekin gelditu zen funtsean. Agian, Ikastolekiko Elizak dituen eskubideen oinarria hemen izanen da, pondu honetan berean. Guk ez dugu beste heldugarririk ukan dezakeenik ikusten.

Hau horrela izanik, ordea, aski oinarri pobrea eta eskasa, esku-bideei, legezko eskubideei atxiki behar bazaizkio. Legearen aurrean ikastolak, gehienak behintzat, Elizaren Eskola bait dira. Horretan ez dago zer esanik. Legearen oinarria nahi badu Elizak, (esan nahi bait da, zenbait elizgizonek) hor dute osoki, eta ondorioz, ikastolak ere bere dituzte.

Baina edonork daki ere ikastolek berez duten nortasuna alde batetik, eta legeari buruz duten nortasun ofiziala bestetik ez direla inola ere gauza bera. Ez sortzez, ez organizazioz (dela ekonomia-aren aldetik, dela pedagogia-aren aldetik) izan dira inoiz Elizarenak.

Ikastolek, bederen Gipuzkoan, Elizari zor diote beren nortasun ofiziala; ez ordea, berez dagokien nortasun jatorra, gorago aipatu dugun bezala.

Horregatik, bidezko da ordainez-edo Elizak bere ikastoletan kristau-heziketa segurta dadin, eskatzea. Besterik litzake halere, zer den gaur egun erlijioaren mamia pedagogia-aren moldeetara iraulirik jakitea, nork eman, non eta zer-nolaren zenbait xehetasun konpontzea. Praktikan, gure ustez, Elizarekiko harremanen gakoa hemen dadukate ikastolek eta pondu honetan saiatu ere saiatu behar dute gogotik aurrerabidea taxuz urra ahal izateko. Gainera, arazoa, gisa honetan planteaturik, ez dirudi konpon ezina denik, baldin-eta Kristau-Katekesiaren eginkizuna alde batetik, eta ikastolarena bestetik berezten baditugu behintzat.

NAFARROAKO IKASTOLEN JOKABIDEA

jose maria satrustegi

A) NONDIK NORA

Denok dakigunez Nafarroako euskal giroa asko piztu da azken urte hauetan. Esnatze hau ez da bat bateko lana izan, urte batzutako ereintza ixilaren ondorea baizik. Urratsez urrats etorri dira gauzak. Gogoan dut 1967-an euskal irakaskintzari buruz Diputazioan hartutako erabakia: *lehen mailako haurrei ordu erdi bateko ikastaroak eskoletan sartzea* on hartu zuen. Askorentzat ez zen gauza haundia izan; guk berriz ofizialtasunaren bidetik joaten asteari garrantzi haundia ematen genion. Eta hauxe da Nafarroako jokabidearen oinarria. Irakaskintzako lurrak irauli beharrak zeuden; bakoitzak alde batetik jotzen zuen, ahal zen bidetik esan nahi da, ez beti egokienetik. Eta guk hontan ikusi ginuen gure etorkizuna. Gutxi edo asko, euskeraren deiari eskolako atariak ideki nahi genizkion.

Lehentxoago idekia zen Iruñen ikastola bat. Ez nondik eta ez nola, hiru lau hurrekin hasitako gauza urtetik urtera goraka

zijoan. Ez zuen Diputazioko erabakiarekin zer ikusirik. Bakar-kako saio edo bihotzkada baten sorkaria bezala izan zen.

1967 erabakiak, hala ere, ematen zuena baino, geroko eskeintzen zuena gehiago zen. Nafarroako irakaskintza guzia Diputazioaren eskutan dago. Elkargo Nagusia (*Junta Superior de Educación de Navarra*) zen, maila guzitako eskoletan sartzeko bide bakarra eta alde hortatik ez ginuen sarbide haundirik ikusten. Ordu arte behintzat ez zen Elkargo hau euskal gazetaz asko kezkatzen.

Beste alde Diputazioak bazuen euskeraren zaintzeko talde berexi bat; baina, irakaskintzan sartzerik ez. Nola bien egin-kizunak batu? Bi bide: Irakaskintzako Elkargo Nagusian euskeraren ardura sortu; edo Euskeraren Sailako Batzordeari irakaskintzako eskubidea zabaldu. Eta hauxe da, hain zuzen, erabaki hartan lortzen zena. Hona zer dioen hirugarren ponduak.

Baita ere, beste eskolatxo eta berek eskatutako jende haundien ikastolak sortzeko eskubidea ematen dakio "Principe de Viana" Elkargoari. Pondu honetatik sortutako gastuen berri emango du; eta, era berean, Alkate jaunei egin behar zaizkien gora beheretan Diputaziora joko da. (Ikus "Principe de Viana", 12 gn. zenbakia).

Ordu erdi bateko eskola ematea baino garrantzi haundiagoa ez al zuen Euskal Batzordeari irakaskintzako atariak idekitzeak? Leitze, Altsasu eta Etxarri Aranaz-en hasi genituen mutil koskoren ikastaroak.

Ereintza luzea

Gertakizun hau bera ez zen berezko tipula izan. Izerdi askorekin landutako baratzean zetorren. Hamar urte haietan, eta beti Diputazioaren izenean, Nafarroako haur eskualdun guziak sari-

tuak izan ziren. Herri askotan, euskerak ezertarako balio zuenik ez ziren ordu arte konturatu; eta orai saria ekartzen zien etxera. Gutxi bada gutxi, Diputazioarengandik zerbait eskuratzea ez da beste edozeinek emana bezala; eta oztopo asko kentzen zuen garai hartan. Ez zen herri bat bakarrik festarik gabe gelditu. Aspaldi-ko urtetan erdoiak hartuta zegoen tresna baten oliastatzea izan zela, esango nuke.

Euskal aldizkari baten beharretan ginen. Gure jendeek ez zekiten euskeraz irakurtzen, eta nola ikasiko zuten ez bazitzaien irakurgairik ematen? Bigarren urratsa 1966garren urtearekin batera eman zen: Nafarroako euskaldun guzientzat aldizkari bat egin nahi ginuen. Gaur, seigarren urtean, Nafarroan euskeraz irakurtzen da. Lur iraultze hontan dator eskoletan sartu nahia. Hari piru mehez besterik ez bazen ere, bat bestez loturik egon da gure artean euskeraren aldeko ekintza guzia. Eta zer esanik ez, Agintarien laguntza osoa izan dugu, eskatu diegun neurrian. Babes hori gabe ez ginuen bide hontatik ezer egiterik izango.

Orainko egoera

Ordu erdiko lehen mailako neska mutilen ikastaroak utziak ditugu. Eta ez ondore onik ekarri ez digutelakotz; egia da ordu erdi bat ez dela asko; garaia ere ez zen askotan hoberena; nekaturik eta asper asperra eginik zetozen batzutan euskera ikastera; ez zuten, gero, jarraipenik goragoko ikas mailetan izaten. Non dago beraz saio haien alde ona?

Erantzuna ez da beti erreixa. Nola nahi dela kezka bat sortu da gure herritan. *Euskera zertarako?* esaten ziguten hasieran. *Zaila da ta ordu erdi batez ezin da ikasi*, zioten gero. *Txikitatik ikasten ez bada alperrik ibiltzea da*, entzuten dugu orai. Zerbait esan nahi du. Ez hori bakarrik: gero ta gehiago dira ikastolak ideki nahian heldu zaizkigunak. Batzutan asarraturik joaten dira

herri giro gehiagoa sortu beharko luketela adierazten badiegu. Lehen bultzaka bezala, gaur bultzatuak. Bai; ordu erdiko ikastaroak berea egin du. Eskolako atariak ideki eta euskera irakatsi behar litzakelako kezka sortzea, ondore oso ona bezala jo daike.

Lanean ari diren ikastolak hauek ditugu: Altsasu, Etxarri Aranaz, Elizondo, Lakuntza, Lekunberri, Leitze ta Olazti. Beste alde, Aoitze, Lizarra (Estella), eta Tafallakoa. Hiru edo lau herrian ideki nahian dabiltz aspaldian eta etorriko zaie beren garaia.

Hasieran aipatu dugun Iruñeko ikastola bere buruz baliatu izan da beti eta ongi joan zen lehenbizian. 1969-70 ikastaroan zitzaizkion gauzak makurtu. Nonbaiteko itzalak bazituela ta argitu nahian zebiltzen bateon batzuk. Iskanbilla latza sortu, eta erdibiturik gelditu zen. Ez dakit nik haundi-mina edo erdi beharra izan zen. Nola nahi dela, lehenbizikoaren jokabidea garbi gelditu da:

- a) Gurasoena da Ikastola.
- b) Fededunen heziketa emango zaie haurrei.
- d) Gaur eguneko irakaskintza moldeak erabiliko dira.

Igazko ikastaroan biak ideki zituzten beren atariak: *San Fermin ikastolak*, Zizur Txikin, hirurehun bat haurrekin; eta *Paz de Zigandak* ehunen batekin. Aberasgarri gertatu zen, beraz, aurreko urteko istillu negargarria. Aurten bostehun haurretik gora badute Iruñeko ikastolak.

Etorkizuna

Geroari buruz legeztatzeak ematen ditu lanak. Iruñeko biak legez on-hartuak izan dira; herritakoekin ez da ezer egin. Eta badira lehen ikastaroko mailan sartuak direnak: Olazti, Etxarri eta Leitze.

Denak irakaskintza ofizialaren mailan sartzea izango litzake-la hoberena, esan zitzaigun noizbait. Beste eskola guzieren mailan,

alegia, hizkuntza bitariko heziketan. Ez dugu uste Diputazioaren aldetik eragozpenik izango litzakenik. Buru hauste asko aizatuko lirake, eta legezkoak laizke denak. Hola esanik gauza polita dirudi.

Halare, baditu bere alderdi txarrak. Euskeraren aldeko Elkartek ikastolak bere eskutik uzten baditu, ez al gera berriz ere lehengo putzuan eroriko? Bitariko izenarekin ez al da erdal heziketa hutsean geldituko? Eragozpen larriena irakasleena izango da: ez dugu maisu euskaldunik. Nahi izanik ere, beraz, erdalunen eskuetan erori behar. Eta herri agintarien aldetik bigarren traba: ez bai dute euskaldungoari asko begiratzen maisu berriak izendatzean.

Herri agintariak esatean, herri bakoitzeko alkate ta udal etxeko laguntzaleak ditugu gogoan. Nafarroan, izan ere, berek dute maisu eta irakasleen aukeratzeko eskubide bakarra. Herri ikasi eta kezkatu batentzat gauza haundia bezala, gizajo askoren eskutan galgarri gerta laikegu.

Ekaitz beltzaren laino adarrak urrutira ikusi ta Ikastolen Elkargo bat sortu dugu *Príncipe de Viana* delakoaren euskal sailan. Elkargo honen berezko lendakari, Diputazioan buru egiten duena izango da. Lendakari ordezeko, Irakaskintzakoan buru dena. Arduradun, edo lankide, *Príncipe de Viana* Elkargoko Diputado Jauna; *P. de V.*-ren zuzendaria; Euskeraren mailako batzarkideak eta Nafarroako Irakaskintza guzirako zuzendaria. Inspektore delakoren bat barne izatea komeni litzake eta Diputazioak berak zuzenduko die eskabidea.

Elkargo hau on hartua izan da, nahiz ez den Boletin Ofizialean agertu. Berriz ere, irakaskintza bide batetik joan beharko luken edo ekintza bakarraren bi beso izan laizken galdetzen da. Bide bakarretik joatekotan zer hartu-eman izango luke Irakaskintzako batzordeak gure euskal mailakoarekin? Baten lankide bat bestearen barnean egon behar ote luke; edo euskal problema den herritako erabakiak elkarrekin hartu?

Ez da bidea ongi zelaitua ikusten. Nola nahi dela, hainbeste neke ta kezkarakin sortutako euskal irakaskintzako giroa ezin dugu arinkeriaz galtzeko arriskuan utzi.

Hasieran esan bezala, eskualde bakoitzak bere jokabide berexia badu ikastola arazoan. Nik ez dut bat bestea baino hobea denik esaten. Joera bakarra ez zen hain aberasgarri izango. Ofizialtasunak ez duen gurasoen arduratze sakona baduke besteak; eta giro txepelean iraupena izan dezake agintarien babesean egiten den lanak. Baliatu ditzagun elkarren gauza onak: ardura ta kezka sutuarekin iraupena, eta iraupenarekin besteak.

B) ZENBAIT GOGOETA

Nafarroako ikastolen jokabideaz argi izpi bat eskatu zitzaidan hasieran. Ahal zen bezala arte bat bilatu ta lerro batzuk egin ondoan, "JAKIN-en" zuzendariari ez zaio aski: "zergatik ez eman, artikulua batean, erabaki horiek barnetik duten filosofia? Hauzia Nafarroan nola ikusten den emango luke horrek", —erantzun zidan.

Egia esan, nere filosofia kontua aspaldi baztartuxea da; egunoroko ekintza estuan lotuegi gabiltz, gertakizunen harian barnegi sartzeko. Eta, batez ere, nere eritzia napar baten eritzi soila izango da; eta ez du beste askorenarekin zer ikusirik izango.

Gurasoen eskubidea

Gure ikastolak gurasoengandik datoz. Berek sortu dituzte, eta berek ordaintzen gastuak; berek bialtzen dituzte haurrak eta berena den gauza baten eskubiderik ez dute galdu nahi. Halare, komeni da Hiri buruko eta herritako ikastolen egoera berextea.

Nafarroako lehenbiziko ikastola Iruñekoa izan zen, lehen esan den bezala. Talde txikia, baina kezkatua zen guraso haiena; zer nahi zuten ez zekitela esaterik ez zegon. Gizamaila osoari dago-kion heziketa jator baten bila zetozen; euskera hasiera baizik ez zen. Euskerarekin, gure nortasun, herri jakintza, eta gure gauzen-ganako maite-mina sortu nahi zuten *beren haurretan*, beste maila batzutara heltzeko oinarri bezala. Orduko taldetxoa, ugaritu eta sendotuz joan da, baina helburua ez da aldatu. Ikastola, beraz, gurasoena da.

Herritako gurasoen jakintza ez da beti hain egokia eta ez zuten, behar bada, helburu hori argi ikusten; baina, *zer ez zuten nahi* bazekiten. Hutsune hura betetzeko *P. de V.*-ren laguntza berekin dute; eta bigarren arloan ez dira lokartzen.

Sinesmena

Gurasoenak badira ikastolak, heziketa horren giroa berek nahi dutena izango da; ez dut uste eskubide hau aita-ama batzuei kentzen ahal zaienik. Ikastetxe batera edo bestera haurrak erama-tea bakoitzak bere esku daukan bitartean, era guzitako pentsa-bideak badira munduan eta denetarako errentasunak eman behar dira. Askatasunaren izenean, beraz, utzi bakean beste guziei be-zala. Egin beza bakoitzak egoki iduritzen dakiona; eta gogokorik ez balu, sortu beza atsegin zaion bat. Hau da berek egin dutena.

Ikastola hauetan Jainkoz mintzatzen da. Ez dut esaten sines-tea ematen denik, ez belarritatik sartzen; sinestea Goikoarengan-dik dator eta bakoitzak bere bizian emango dion barne giroan datza. Jakintza bat ez baino, izakera sakon bat da. Halare, jainkozaletasuna heziketaren bidez girotuz joan laike, eta hori da guraso hoiek nahi dutena. Bere udaberrian txertatu faltan, ez dedin beren haurren baratzean hutsune horrenik izan. Sinestea ez bada ere, lurraren prestaketa izan daitela.

Ez omen da joku garbia. Haurrari ez omen zaio halakorik erakutsi behar berak askatasun osoan aukeratzeko bidea izan dezan. Garai bateko monjatxoek kezka ez ziren hain hari mehez apaintzen; urre garbia ematen du esaera horrek. Ez, ez da haurra berak aukeratuko ez luken aldera bultzatu behar. Zertarako, orduan, matematika eta geografia ikasgaitzetan erreazi bere burutxo biguina? Ez al dira aita amak beren haurtxoak ikastetxetara bialtzen dituztenak?; ez lukete inoiz beren buruz eskolako bidea hartuko, ez eta erakusten zaizkien gai mordoilo asko irentsiko. Baina, gure sasi-igerleak ez dira hortaraino heltzen: jainkozaletasunean bakarrik behar luke haurrak askatasuna...

Gurasoen galdera hauxe izan ohi da: jatorra al da esaten dutena? Eta hori jakiteko, berek nola jokutzen duten ikusi behar. Gure aurrelari hauetako baten hitzak ekarriko ditut orai: *astakeria bat eta denbora galtze negargarria bat egiten ari gara, euskalduntzearekin batera pertsonagintza egiten ere ahalegintzen ez bagera.* (Anaitasuna, 223). Haurrari, beraz, beste zerbait eman behar zaiola diote; euskalduntzea ez aski. Pertsonagintza egiten ahalegindu behar...

Eta zer da hitz honekin esan nahi dena? Politika sartu behar dela. Entzun edo ikus honako hontan esaten dena: *besterik da, euskara aseptiko, apolitiko eta forma hutsezko bat irakatsi nahi izatea. Mihingaina jazteaz konforme dira batzuk. Pertsona (ez gorputza) biluzik uzteak ez ditu kezkatzen. Euskararen konzepzio mekanizista edo magiko batek eraginik edo, euskarakeria batetan, hizkuntzaren absolutizazio merke batetan erortzen dira. (Euskera "mantxatua" behar dogu, dio idazleak; hizkuntza aldetik behintzat lortu duela ezin da ukatu). Eta gero: *Uste dut, orain beste mantxa batzuei zaiela beldur gehiago, gizarte klase baten aldetik behintzat. Kontradizioz eta zapalketaz beteriko Herri honetan, euskara sakratua mantxarik gabeko neutralitatearen erreinuan erein nahi da. Aingerukeria eta ihesbidea ez ote zaio deitzen**

horri? Ez dut besterik ekarriko. (Anaitasuna, 223. zenbakian, 14 orrialdean).

Hitz bitan esateko, haurrari askatasun osoa ematekotan, ez zaio sinesmen gaietaz hitzik egin behar; bere askatasun ikutu-ezina bortxatzea da. Politika bai; *astakeria bat eta denbora galtze negargarria egiten ari gera, euskalduntzearekin batera pertsonagintza (hori) egiten ahalegintzen ez bagera*. Askatasuna.

Eritzi bat

Nerea, jakina. Haur txikien jokabidea ikusten dut nik hontan. Ikurrin jokua. Erdi-aroan balio zuen; gaur ez. Jauntxo baten mendeko gizonak ez zuten guda egiteko beste arrazoirik, haren ikurrina baizik: esanera zeuden. Jakintza mailan oso apal zeudelako marka. Artalde kutsua. Egia da gaur ere gure herria ez dela oso gora; telebistako esamesez bizitzen hasia da; sal-erosketako joan-etorrien mendean dago. Artalde antza ikusten zaio. Baina, bai ta ere egia da, hortaz konturatu ta kezkatzen dijoan talde indartsua badatorrela gure artean. Pentsatzen hasiak gera; ardiak bagina bezala zaintzeko eskubiderik ez dago.

Iraultzea da gaurko gazte batzuen ikurrina. Zer esan nahi du? Politika egitea; baina, berena. Euskal Herriari dagokiona? Horrek ez du ajola haundirik; ez da galdetu ere egiten. Euskera, euskalduna eta Euskal Herria bigarren mailako gauzak dira iraultze hortan.

Ez gaude politikaren aurka. Gizonaren eskubidea da. Baina, politika jendetasunik ez dagon herrian basa-pistien borroka bihurtzen da eta, herri horrek bere burua urkatzeko baizik ez du balio. Anai arteko heriotza. Jendetasunik badagon jakiteko elkarrenganako errespetoari begiratzen zaio. Eta zer esan, iraultze baten aitzakian Euskal Herrian orai arte ezagutu diren burubide

guzien aurka agertzen den taldetxoaz? Hauek jasoko dute gure herria? Bai; zerura, fededunon hizkuntzan.

Ikastolan politikarik ez sartzea, behar beharrezkoa da garai hontan. Gutxi gera eta, sakabanaturik ikusi nahi gaituztenen poza izango litzake. Esan ere omen du norbaitek, euskaldunen hauzia hauzi txikia dela agintarientzat, geurok banatuak gabiltzelako. Ahaztu al dira banatze horrek ekarri zizkigun ondoreak?

Aingerukeria eta iheskeria omen da... Elkarrenganako errespetoaren bidez herri jator bat sortzea, edo heriotzera eramatea; zer da aingerukeria? Horrek ez du apolitiko izan behar denik esan nahi. Izan beza bakoitzak bere joera, nortasunaren sail bat da; baina, besteenganako begiramendu haundi batekin, hortan datza-ta bakoitzaren jendetasuna.

Laburpena

Gaur Euskal Herriak gehienik behar duena, giza-mailako heziketa on bat da. Berdin eskuinekoak nola ezkerak, zuriak eta gorriak oso gaizki gabiltz jakintza hontan. Ikastolen eginkizun nagusia, beraz, hori da. Lehenik gizon eta nahi dena, gero.

Ahotan ibili ohi den askatasuna, besteak zapaltzeko hartu nahi izaten den eskubide bat besterik ez da. Askatasuna bereztat, besteendako makila.

Sinesteak ez luke oztopo izan behar gure artean; fededunak beren bidez, eta besteak eurenez, euskaltzaletasuna izango litzake gure herri osoaren lokarri. Hori bera esan laike politikaz.

Ezin dena ongi hartu, maltzurkeria eta gezurra. Esan txuriari txuri eta beltzari, beltz. Gezurretik datoz gure nahigabe guziak. Ez gera batzuk bestetaz fida. Egiak askatuko gaitu.

IPAR-ALDEKO IKASTOLA

ipar-aldeko andereño batek

Frantziako erresumak 1901ean emandako legean aurkitu du *Seaska*-k, (ipar-aldeko ikastoletako eratzaillea, geroago argituko dudan bezala), elkarte bat osatzeko oinarria. Lege horren bidez, alegia, hiru lagun bilduz gero, hemengo *zuzendari gubernamendalek* zuzenean eman beharra dute elkarte hori eratzeko baimena, batere trabarik ezarri gabe. Zenbaitetan saiatu dira geroztik lege demokratiko hori behera botatzen; orain artio alferrik, ordea.

Honi lotuta batetik, eta hemen haurrak 5 urte eta 9 hilabete artio eskolará joateko behartuta ez egotea bestetik, euskal ikastolak bide egoki bat har zezakeela ikusi zuten *Seaskako* arduradunek, alderdi honetako haurrak euskeraz jabetuz gain, giroa bera euskalduntzeko familia barnetik hasita.

Legeak eta eskola ofizialen programak eman dezateken erraztasun horiei lotu behar honek, izua edo mezpretxuzko irriparra atera dezaioke ego-aldeko irakurlari. Ez dugu ahaztu behar, ordea, bi giro eta bi pentsakera ezberdinenpean daudela ipar eta hego-áldean.

Herralde honetan, gure klasikoen sorterria izanagatik ere (Lizarraga, Etxepare, Atsular, Oihenarte), ez zegoen ikastolarik eta ez euskal kulturaren tradizioz batere, bizirik. Frantses mintzairaren *axolak* eta *ederrak* zeharo liluratuta, nekez menperatzen du ipar euskaldunak (euskaldun *xeheaz* ari naiz beti) kulturari dagokionez morroin-kutsu hori.

Gehienetan, abertzaletasunak eraginda edo ondo azaldu ezin daitezkeen zenbait sendimenduk bultzatuta (alegia, frantses chauvinismoaren kontrako erantzun gisa, joanaren poesiak hunkituta edo bidegabekeriak gogaituta) iristen dira batzuk beren egiazko nortasuna ikustera.

Hau oso zaila da, gazte jendeak kanpora joan behar bait du lan bila; eta zaharrek ez bait dute ikasi beren hizkuntza gutxies-ten eta mezipretxatzen baizik...

Indar horiek, beraz, gorago esan dudan bezala, oso jende guti mogitzen dute oraindik. Hego-aldeko euskaldunen burruka ez da alferrikakoa izan esnatze-giro berri honetan; hau esan beharra dago. Baina *legetasunean* murgiltze hau, zeharo beharrezkoa du *Seaskak*, aintzina joango bada.

Saiakera moduan hasi zen hemengo ikastola bat orain dela hiru urte. Lehendabizi, Gipuzkoako andereño batekin, bizpahiru familiaren haurrak, Baionako apartamendu batetara bildurik; Biarritzen geroxeago, eta Arrangoitzen finkaturik bi urte delarik. Ikastola honek hogeitau haur ditu orain.

Lehenengo ikastola horrez gainera, 1970-71 ikastaroan beste bi ireki ziren: bata, Baionan 14 haurrekin; eta bestea, Donibane Lohitzunen, 25ekin.

1971-72an, berriz, bertze zenbait: Donapaleun, Senperen, Ziburun eta Hendaian (Hemen *Seaskakoaz* gain, bertze bat iriki

dute). Hazparnen, tokia eta diru biltzeak eratzen ari dira bertako gurasoak, heldu den ikastarorako.

Hontaz gainera, badira bertze lau andereño-ikasle Gipuzkoako zenbait herritan, datorren urtean ikastola batez arduratzeko presatzen ari. Han, Pedagogia, gure Herriko historia eta hizkuntza ikasiko dute bederatzi hilabetez.

Ugaritze hau dela-ta, lehenengo Biltzar Nagusia eratu zen Abuztuaren 28an, ikastola bakoitzeko gurasoen arduradunak, andereño guziak eta *Seaskako* zuzendariak bildurik. Pedagogia, alfabetatze, ikastola-berri eta ekonomiari buruzko talde bereziak eratu dira guraso eta andereñoekin, nor bere lanari lotuta, bultzada berri hau bide zuzenetik eramateko. Seaska lagunartek, koordinazio lana du bere gain, eta diru aldetik *segurantzia* bat ikastola guzietarako. Herri bakoitzak, ordea, askatasun osoa atxikitzen du bere problema bereziak zuzentzeko.

Eta anitz da zuzendu beharra ipar-aldeko ikastolan. Haurrak altxatzeko, hezitzeke era jatorra (geure geurea eta era berean gizatarrak) aurkitzea da, ene ustez, larriena eta iristen zailena. Inguruko edo urrungo herrien pedagogia hartu eta bere hartan emateari errazena deritzat, ez ordea, egokiena. Eta norainokoa behar duen izan egokiera hori jakitea... Ez dugu haur *hibridorik* nahi; erderaren gaintetik (esateko era bat da) euskera ezarri eta gure eginbeharra egina dela ez dugu uste. Honetan ari diren hegoaldeko taldeekin hartu-eman hestutan derrigor behar dugu lan egin, gure artean ez bait dugu inor honetarako eratu eta euskal ikastolak batasun batean eraman behar direla sinetsita bait gara.

Batasun hau dela-ta, beste hutsune bat ikusten dugu: programa-oinarri baten falta ikastola guzietarako. Honetan zerbaitxo egina dugu aurtengo ikastaroari begira. Baditugu gai nagusiak ondo berezita: esku-lan, obserbazio-joko, elkar-hizketa, margotza, bara-

tzagintza, abere-zaintza, ritmo eta kanta, soinu-jotze, gimnastika, ikerketa eta honi buruzko ariketa, matematika, irakurketa, etab.

Pedagogi taldeak, sortu berria, ez du goi-mailarako nahirik, eta norberaren esperientzia soila dugu gidari, baina egiazko talde baliotsua izango garelakoan gara. Aurten hasiak ditugu Freinet-en Pedagogia frantsez jarraitzaileekin biltzarrak. Hilero, ikastola ala "école" batean biltzen gara, pondu berezi batez mintzatzeko. Frantsez herrientsek gurekiko atsegin eta izpiritu zabalez jokutzen dute.

Trabarik ez zaigu falta. Esate baterako Donapaleun edo Hazparnen edo Arrangoitzen edo non-nahiko ikastolatan, Gipuzkoa edo Bizkaiko haur kantak besterik ez erakusteak dakarren koska... bertako prestatu bitartean behintzat. Eta Lapurdiko itsas ertzeko herri bateko zenbait gurasoek *Sarako* hizkuntza duen andereño bat hertsiki galdegin ondoren, baxenabartar bat onartzea, honen hizkera gipuztar batena baino bertago delakoan (egia ez dena), hau *español*-la dela-ta... Eta gure andereño batek, heletarra bera, Bilbora ikastera joana igaz eta ia zipitzik ez ulertzea hango ikastoletan... hauek guziak euskeraren batasunik ez dugulako.

Alfabetakuntza mailan ere badugu hemen beste problema bat. Ikastolak, lehen irakaskintza, alegia *enseignement primaire* osatu dezakeenik ez zaie hemengo gurasoei burutik ere pasa, alderdi honetako mentalidadea dela-ta, lehen esan dudana bezala. Honetara iritsiko ote garen nehoiz, geroak erranen du.

Baina orain, sei urtetik gorako haurrentzako, euskaldun eta euskera ikasi nahi dutenentzako, astean behin, ortzegun arratsaldeetan, klaseak eratzen ditugu. Egia esan, ez dugu sobe-bera espero haur horiengandik. Jolasera joan beharrean, pesta eguneko ordu horiek ikastolan pasa beharrak, ez ditu gure alde jartzen, baina jolas eta ikasgaien sistema atseginez gehienak gureganatzen ditugu. Ihaz, Arrangoitze eta Donibane Lohitzunen

artean, berrogeiren bat haur bildu ziren. Honetarako gaurdaino ez dugu programa berezirik, eta andereño bakoitzaren eskutan utzi dugu klase-eratzea.

Bestetik ere, gure ttipien ikastoletatik, 6 urtetan ateratzen diren horiek, ezin ditugu zeharo esku artetik utzi. Hau argi ikusten dugu. Heldu diren urtetarako gau klase-edo nola antolatu ikusi beharra dugu. Frantsesetik hartuko duten hizkuntza ikasi hori, euskeraz ere eman behar zaie derrigor, eta hizkuntzaz bertze, gizatartu eta geure nortasunaz jabetu egin behar. Eta hau guzia, nola? Eta nola egin, bestetik, hilean behin izango den gurasoen batzarra ikastola bakoitzean? Hona ikertze-lan serio bat eskatzen duen zenbait problema.

Diru gora-beherak ematen dizkie, noski, buruauste ez tipiak *Seaskako* adiskideei. Hilero 20 libera ordaindu behar da familiako, haur bat, bi edo hiru igorritz gero ikastolara. Eta hau, ahal dutelarik (zenbaitek gehiago ere ematen du). Esan beharrik ez da, honela biltzen den dirua ez dela aski gastuak ordaintzeko. Igaz lehen aldiz izan zuten Konseilu Jeneralaren (hego aldeko Diputazioko antzeko bat) laguntza. Eta honez gainera, sustengaitzaile eta ikastolen festetan biltzen denari esker mantentzen dira gure ikastolak orain arte. Halere, ezin dugu ahaztu, *marathon* gogor honetan irauteko badutela *Seaskakoek* asmamenari eragiteko beharra.

Hontaz gainera eta *Seaskako* ikastolak gure ustez herria euskalduntzeko bide zuzena daramatenak izanarren, badugu iparaldean helburu bera duten lankiderik. *Itinérante* izeneko 2 edo 3 errientsa euskaldunak dira horietakoak. Hauek frantses erresumak ordainduta dira, "Ikas" izeneko Asoziazioan biltzen dira, eta astean hirutan, ordubetez egiten dute ikasgaia *écoles maternelles* delakoetan. *C.E.S.*etan (11 urtetatik gorako Lizeoak) nahi duten ikasleek hartzen ahal dute euskal eskola, astean behin.

Ezin dugu errientsa hauen lana gutietsi, beren haurrak, denak utzita, euskal ikastolara igortzeko gauza ez diren gurasoentzako erdi bide bat dugu-ta. Euskaldun diren haurrak mintzairari eutsiko diote agian, baina erdaldunak euskalduntzeko modu bezala dai-teke hau onar.

Era honetara euskal ikasgaiak ematea, sasi-euskaltzaleak la-saitzeko bide bat besterik ez dela pentsatzen dutenak ere badira. Ez zaie, behar bada, arrazoirik falta.

Ez dut lan hau bukatu nahi, frantses errientsa Mm. Lartigan delakoaren errespetu gabeko jokaera atzerakoia salatu gabe: Amikutzeko bere ikastolan, Oihergi-Labetze herrietan, haurrak zi-gortzen ditu euskeraz egiten duten bakoitzean. Aintzakotzat har-tzekoa dugu hau. Baita beste hau ere: *Euskal Herriko* frantses-gobernamenduko *Irakasleen Sindikatak* (S.N.I.) orain dela bi urte, eske bat egin dio Gobernamenduari euskera eta bearnesa debekatua dagoela eskoletan oroitaraziz.

Bi berri hauek gureganaino heldu dira. Zenbat azpilan ez ote dagoen...

ekileak

IKASTOLAK ETA IRAKASLEAK

arantxa allur

Poliki eta astiro bederen, herriz-herri eta bertako indarren arnaspean, Ikastolak sortzen eta gehiagotzen joan dira. Izan ere, herriaren egoera oso larria zen eta honek zuen jendea Ikastolak jartzerat eta zerbait egiterat bultza.

Gure haurren eguneroko bizitza erdal giroak menperatu izan du: bai familian, kalean, lagunartean, irakurgaietan eta zer-esanik ez telebisio eta zineko programetan ere. Giro hau aski ez bazen... haur hauek erdal eskoletara joatera beharturik ziren, hau bait zuten ikasketa leku bakarra. Esan beharrik ez da eskola hau haurrarentzat arrotza gertatzen zela, nahiz hizkuntza eta pedagogia mailan ere. Eskola hauetan "haurra" goitik behera eraturiko programa baten betetzailerik zen. Heziketa lana buru lanean oinarritzen zen eta hau dela medio haurraren nortasuna eta gaitasuna guziz mugatuak eta zapalduak gertatzen ziren. Hau ikustean, erraz konturatzen gara heziketa molde honen ardatza "sistema" dela eta ez "nor den haurra".

Gertakizun honen aurrean, badu bai Ikastolak zer-eginik asko eta gizagintza ukatzen duen heziketari ezezkoa emanaz, ahal duen

hein batetan lanean hasia da. Heziketaren ardatza "haurra" izanik, herrian oinarrituriko pedagogia berria erabiliaz, haurraren nortasunaren alde lan egingen du. Honela, haurra bere ahalmen neurrian, pentsatze, sortze, aukeratze, eta ekitearen askatasunaren jabe izaterat hel dadin.

Hainbeste Ikastola berri sortzean, irakasle eza zen arazo handienetariko bat. Ez bait zen behar hainbat maixtra euskaldun, baina arazoa nolabait konpondu behar zen eta Ikastolagintzarako zenbait gaitasun edo prestaketa harturik prezixo titulurik izan gabe ere lan hau egin zitekeela eta lanari ekiten zitzaion. Egun maila diferentzia dela-eta egin da gure artean zenbait mugaketa edo, alegia, batzuk besteen laguntzaile bezala izendatuaz, haur ttipiekiko lana denbora pasatze bat bezala hartuaz eta irakasle honen lana ere hala joaz... Esan beharrik ez da maila hontan lanean ari den irakaslearen lana talde bati dagokionez erresponsabilidade osokoa dela; berak zuzendu eta aztertu behar dituela haur horien arazo, gertakizun eta aurrera-bideak ere. Talde baten arduradun denez gero, honen irakaslea da eta ez beste baten laguntzailea. Ttipien mailan egiten den lana gerokoaren oinarria da eta beraz ahal den osatuena eman behar da.

Haurraren gorputz haziera kontuan izan ohi dugun bezala, heziera ere hala bagenu, laster konturatuko ginake "haurra" ez dela neurri ttipiko gizon bat, bere izate berexia duen "nor" baik. Baditu bere kezak, sortzaile eta egile ere bada eta honela ingurua ere oso atsegin zaiolarik besteekiko harremanek asko aberasten dute honen nortasuna.

Ikusten denez, haurraren heziketak bai maila batetan eta bai bestetan ere garrantzi handia du. Maila bakoitzean sortzen den eginkizuna betetzea da bai irakaslearen betebeharrekoa eta ahal den egokien egiteko, talde lan arekin moldatuko da irakasle artean.

JOANES ETXEBERRI HEZITZAILEEN ESKOLA

Lehen esan bezala, Ikastola ez da programa baten arabera ordu jakin batzuk igarotzen diren lekua; ez da hain modan dagoen pedagogia berriaren izenean teknika batzuk eribiliaz jendea oso pozik edukitzea; ez da haurra hain ttipia denean eta beste ikas-etxe batetara joan bitartean, euskaraz jolastuz denbora igaroko duen lekua; ez eta ere etxeakoak arduratu gabe erlijio formula batzuk emanen zaizkion eskola. Bai ordea, kidesun, askatasun, zuzentasun eta maitasun giroan heziaz nor izaten lagunduko dion bizitza eskola.

Heziketaren aurrera-bidean irakasleen prestaketak zer-ikusi handia du. Karrera bat ikasi duen jendeak, urte sail bat ikasten igaro badu ere, guziok dakigu ikasketa horiek ez direla gure herriko irakaskintzari erantzuteko eratuak edo moldatuak izan.

Ikastolaren zer-egin handia ikusi ondoan, euskal irakasle-gaiekin zerbait egitea pentsatu zen. Honela, bada, dela zortzi urte-edo, Donostian hezitzaileen eskola sortu zen. Eskola honek lehenik irakasle izanen ziren ikasle berriak bilatzea zuen helburu eta gero hauek ikastolagintzarako gaitzea berriz.

Eskola hontan lantzen diren gaiak batik bat hauek dira: *euskal kultura*: hizkuntza, geografia, kondaira, literatura. *Sikologia eta pedagogia didaktika gaiak*, berriz: heziketa metodu berriak, Ikastola barruko esperientziak, matematika, musika, izadi jakintza, esku-lanak, espresio bide guziak eta besterik.

Egun Ikastoletan diren irakasle gehienak eskola hontan bizituak dira. Azken ikastaro hontan ere ikasle sail handi bat dago eta gaurtik biziki arduratzen dira Ikastolagintzak duen garrantziaz eta bidezko jotzen dute Ikastolarekiko harreman herstuak izatea: lan-era, eraketa, helburu, arazo eta gaurko gertakizun guzien jabe izan nahi dute. Honetan bada irakasleak ikasleekin eta ikas-

leek beren artean lan eginen dute, alde batetik urte guziko ikasketa dela medio eta bestetik aldian behin egiten diren ikastaldi laburretan parte hartuaz.

BAILARAKA

Aipaturiko pedagogia berriak, egunoroko lanen esperientziak bildu eta azertuaz lan egitea eskatzen digu. Irakaslea, haurren kideko izanen da, ezin beraz burutik pasa ere haurraren aginte oro duenik, eta hau gertako balitz, ez du honek "hezitzaile" izenik ere merezi. Aldi askotan haurra bera da irakasle; Haurrak emandakoa hartzen jakitea eta hau aztertzen jakitea litzake gure lanaren egoera ezagutu eta bide berriak markatzen lagunduko diguna.

Heziketa ekintza muga gabeko lan bat dela ikusten dugu, eta honek egunoro prestatzen joatea eskatzen digu. Behin edo behin ikasiarekin ez daiteke irakaskintza lan jator bat eraman. Teknika berri batzuek ikasi eta horiekin ibiltzea ez da nahikoa. Egun heziketak duen garrantziaz konturatzeko eta prestatzeko geldi gabeko ikasketa lanean jardutea beharrezkoa da.

Ikastolagintzaren gakoa elkarrekiko lanean datza, eta hau baloratzen da gehienik. Irakasle bakoitzaren esperientziak bildu eta taldean aztertzen diren heinean bakoitzarentzat oso aberasgarri gertatzen dira. Maila bateko eta bestekoekin lanean ari den bakoitzak behar ditu bere lanak bildu, eta hauetaz, beste irakasleekin batean bai programa, gurasoekiko eta Ikastolari dagokion zenbait arazo ere azertu eta zuzendu. Esan beharrik ez da, lan hau, lehenik herri edo Ikastola bakoitzean egin behar dela eta gero bailara mailan, baina kontuan izanaz lehenengo dela bigarrenaren oinarria.

Ikastola bakoitzean elkarrekiko lan bat egin ondoan, bertako zenbait arazo ikusirik ikasketa premia sortu dute eta hemen sortzen dira bailara batzutan eraturik dauden ikasketa eta talde lanak: liburu aztertze; gai baten sakontzea; ikastaldi laburrak; hitzaldiak; material sortzea; bailara mailan gurasoekiko lanak, etab. Hontaz aparte, bailaran informazio, material zabaltze eta erabakiak hartzea ere bai noski. Bailara mailako harremanak bakoitzaren ikastolatik at dagoen egoeraz kontura arazten gaitu.

IKASTALDIAK

Gure Ikastolak ugaritzen ari zirelarik eta bertako arazoei erantzuteko asmoz, duela 7-8 urte udako ikastaldiak sortu ziren. Ikastaldi hauetan urte guziko programaren aztertze eta beste zenbait gai ikasiaz lan egiten zen. Aldi berean, ikastaro berrirako konpromisoak hartzen zirelarik lan-era berriak moldatzen joaten zen. Ikastaldi hauek urteoro egin izan ditugu, baina, 68-an guziok hain ezagun ditugun gertaera haiek heldu zirenean, lan guziaz prestaturik bazen ere, ikastaldia egin gabe gelditu zen. Horrez gero jarraitu dugu ikastaldi hauekin eta bistan da irakasle artean gero eta indar handiagoa dutela. Alegia, elkartze eta lantze premia guzior burutan dagoela. Ez da gutti!

68-ko udan beste ikastaldi molde baten berria zabaltzen da. Hauek kanpotik eratuak ziren, baina egin zen propagandak eraginik edo, alde guzietariko jendea bildu zuen. Ikastaldi honek lehen urtean oso harrera ona izan zuen izan ere. Hurrengo urtean ere izan zuen honek bere jarraipena, eta eraketan irakasleok parte hartzea eskatzen zitzaigun. Eskakizun hori ontzat emanik ikastaldia prestatzen hasi ginen eta hara aurreko urteko kritika gogoan izanaz zer eskatzen zen gure aldetik: Ikastaldiaren pro-

grama gure beharrei erantzuteko eraturikoa izanen da, eta ez gure partizipazio gaberik goitik behera eraturikoa. Ematen diren gaiak oso jakingarriak izan arren lanean ari den jendeak parte bizirik hartzen ez badu benetako heziketaren aurka doa. Hitzaldi eder batzuk entzun ondoan urte guziko bakea eginik delakoan gelditzerik ez dugu onartzen, eta goitik eratzeak hori dakar berekin. Zenbait gurasoren aurrean garrantzia izanen zuen titulu bat ateratzeagatik joatea eta gure eginkizuna hontan bukatzerik ez dugu nahi. Ez eta ikastaldi batetara edo bestera joatea inork behartzerik.

Gure ikastaldiak urte guziko lanaren frutua edo ondorioa behar du izan. Ikastaro osoan zehar egin diren talde-lan eta esperimentuak azaldu eta bilduz programa berdin batetara helgai-teske. Bestalde, gure beharrak agintzen diguten arabera teoriako ikasketak ere eman behar dira. Honela prestatzen diren ikastaldiak, alegia lanean ari den jendeak eskatzen duen arabera benetako interesa izanen dute.

Urtean behingo ikastaldi hontan hainbeste aldetako irakasleek elkartzean eta lehengo urteko lanari jorratu bat ematean aurrera begira ere zenbait konpromiso hartu eta programa berri behar dira. Lanerako irakasle gehiago eta indar berri batzuen emaitza behar du izan ikastaldi honek. Argi dago beraz, egunoroko lanetik at ikastaldira doanak ezer gutti egin dezakeela han, entzule bakarrik izanen litzake eta hau ez da bidea talde lanari buruz ari garen garaian. Bakoitzak badu bere eginkizuna eta hor erantzun behar du, baina ez ikastaldi barruan nolabait parte hartuaz bakarrik, ikastaro osoan lan eginaz baizik. Hauxe da gure ikastaldiaz ikusten duguna: irakasle bakoitzaren aportazio eta lanaren heinean izanen dira ikastaldi hauek probetxugarriak.

ALDIZKARIA

Heziketa arloan aipatu ditugun hainbeste eginkizun moldatzeko eskuarteko zenbait tresna edo osatzen ari gara. Hauek egunoroko lanaren bitarteko eta laguntza besterik ez dira. Guzia hasiera batean dagoenez gero, ezin burrunda handirik aterako duen kanpairik jo, baina guziak ere irakasleen lan eta erantzukizunez osatuak dira.

Aldizkariak, egunoroko lanean egiten diren oserbazio, esperimentzia, azterketa gertakizun eta erabakien berri ematen du. Heziketari buruzko lan sakonak eta euskeraturiko beste lanek ere osatzen dute.

Egun, heziketa berria dela-eta hiztegi berdintsu bat erabiltzen badugu ere, gure arteko lan-erak ezberdinak direla ageri da. Gure aldizkariak, beraz, gure lanen lokarri izan behar du eta oraingoz hortan saiatzen da. Aldizkari honen jarraitzea eta hobeago-zea ere irakasleen esku dago eta bere serbitzua lanean ari den jendearen parte hartzeak hobeagotuko du.

HAURRIDE

Hutsaren hotsak eraginda edo, pedagogia berriaren arrastoa jarraitu nahirik, Ikastolagintzarako gai zen materialaren bila hasi ginen. Egun, hezi jostailu, esku-lan, eta material didaktikoz osaturiko denda bat dugu eta lehenik Ikastolen sarbitzua du helburu baina beste eskolekin ere baditu harremanak.

Nahiz hezi jostailu eta esku-lanak ere haurren izate eta adinari dagokionez eratuak dira. Bere eginkizun jotzen du denda honek irakasleekin harreman batzuk izatea eta Ikastola barruko

lanaren osagarri izanen den zenbait ideia eta laguntza ematea. Irakasleekin bezala gurasoekin ere zertxobait egin daitekeela ikusten da. Oraingoz Olentzaro aldian "errege kanpaina" egin dugu eta esperientzia interesgarria gertatu da. Garbi ikusi da irakasle eta gurasoen arteko harreman herstuen beharra. Bai batak eta besteak elkarrekin behar dugu jokatu heziketaren haria benetakoa izan dadin. Honela, gurasoak haurrari opari bat egitean on da haurraren behar eta premia kontura dadin eta ez bere gogoz jokatzea. Hain garrantzi guttiko gauza ematen badu ere bere sailean badu zer-ikusia eta egoki da gurasoa konturatzea opariaren sentidu eta frutuaz, hauxe da haurra helburu bezala hartzeko bidea, bere beharretan pentsatzen jartzea.

Materialaz hitzegitean, liburu kontua ere aipa beharko genuke. Heziketa euskaraz emanen badugu nahita nahiezko dugu liburuak prestatzen joatea. Oraingoz gai berexi batzuekin hasia da Ikastola Liburutegia deitzen den sorta eta irakasleen Liburutegia deitzen dena ere bai. Denbora asko baino lehen esku artean izanen ditugula uste dugu.

Lan honen bidez ematen den informazio hau oso laburra dela esan behar, baina hauxe da gure inguruan mugitzen den lana eta herritarrentzat jakingarri izan daitekeela uste izan dugulako azaldu dugu.

IKASTOLA ETA GURASOAK

imanol laspiur

Zail da gaur ikastoletaz ezer sakon ezagutze eta azalpen objektibu bat egitea.

Prolema aski nahastua dugu eta, bihotz berorik gabe hotz, ahal denik eta hotzen eman nahi nuke ikastola arazoetan gurasook dadukagun bete-beharraren iritzi ta azterketa hau.

Guraso naizenez, guraso nahimen eta interesek mendera nintzakete, baina horren bildur ere naizenez gero, eta ikastola bat —haurra erdi puntu izanik—, guraso, irakasle ta zenbait bultzatzaile eta laguntzailek osatzen dugularik, guraso izatetik at euskaldun herrizale gisan ere ikusi nahi dut prolematika honen muina.

Munduan egunoro gertatzen dena

Gaur munduan zer-nahi izateko beti ikasi beharra dugu. Edozer gauzatan espezializatu nahi badugu, lehenbizi ikasi egin behar. Nola nahiko gauzarik erraz eta ximpleenetan ere berdin gertatzen zaigu: zerbaitetara heltzeko beti ikasi egin behar; mekaniku izateko mekanika ikasi behar; maisu izateko maisutza

lehenik ikasi behar; sendagile izateko, midikuntza ikasketak aurrenez zenbait urtetan egin behar; zer-nahi izateko, okin, jostun, zapatari, edo-ta kiroletan ere berdin, pelotari, futbolari, ajedrezlari, beti beti aurrenez bakoitzari dagozkion lege ta teknikak ikasi behar.

Hara baina, bada gure bizitzan egiten dugun gauzarik sako-nenetan eta garrantzi haundiena duen zerbait horretan inolazko ikasketarik egiten ez dugun *karrera* gaitza: HAURRAK MUNDU-RA EKARRI ETA HAURRAK HEZI.

Haurrak hezi

Hau bai benetako arrazoigabekeria dela: Guraso izateko aski da neska-mutilek elkar maite izatea. Elkar maitatze honek ezkon arazi egiten gaitu geroago, eta ondoren hauxe: UMEAK EKARRI. Eta umeok edukatzeko ez dugu inon ofiziorik ikasi.

Ez da hau gogorrena ordea. Guraso izateko ez da inon ezer ikasten. Guraso izateko ez da akademia bitartez gertatzerik. Gu-raso izateko behar lizateken ikasketarik ez da inongo eskolan egiten. Guraso izateko nahikoa da elkar maite izatea (giza-ema-kumeeek noski) eta haurrak ekarri mundura.

Eta UME bat mundura ekartzean, zer da dakarguna? Duda-rik ez dago, munduan den izaki konplejoen eta garrantzitsuena dakargula: Mundura dakargun izaki hau *pertsona* da, munduko gauza guztien gainez jartzen den *pertsona*; materia menderatuko duen izakia, aurrerapenak eratuko dituena, guduak eta bakeak sortuko dituena, maitasunak eta gorrotoak, justiziak eta injusti-ziak, kondairaren ibilia egingo duena, hitz batetan, ludian den izakirik sakonena eta konplikatuen, gero *gizon* nahi genuen gaurko umea, *pertsona* osoa.

Umea ekarri dugu mundura eta, zer? Nola hezi edo edukatu? Non eta zer ikasi dugu haur hori behar bezala hezitzeko? Ba

ahal dakigu zein bide den ume hau edo beste hori hezitzeko egokiena? Nongo eta noizko ikasketek ematen digute ume hori zer nolataz edukatu behar dugunaren giltza hori? Ez bait dugu ikasketarik egin!!!

Nola-nahi dela ere, geure uste-izate hoberenez, edo alditan aldiz horrela izango dela-ta, hor ari izaten gara geure umeak hezitzen, sarritan halaz moduz. Maiz geure gurasoek nola edukatu gintuzten gogoraturik, beren antzera eginaz; edo gure gurasoengandik jaso dukegun heziketa, atzerakoia dela pentsaturik, bide hobe bati heldu nahian, ez dakit zelako liburuak erosi ta irakurtzen ari, edo nolabaiteko kursiloetan parte hartuaz, haurren heziketaren ikasketa zintzo baten egarri izan ohi gara.

Izan ere, bai zaila, bai gaitza dela haurra behar bezala hezitzea. Eta hau gurasoek dakite ondoen. Ume bat bera, ez da berdin egun guztietan: batetan era batetara portatzen zaigu eta bestetan beste batetara. *A zer nolako izaki konplikatua den gizona, pertsona!* Horrela, sarritan, gurasoak arnasa ere galduta agertzen dira: zein da umea edukatzeko biderik hoberena, baina zein da bidea bera, ume bat bera beti ezberdin agertzen baldin bazaigu? Eta zer esan lau-bost-sei-zortzi ume dituzten gurasoetaz? Gainera, ume bat beti ezberdinki ere portatzen bazaigu bere bizitzaren burruka gogorrean, sarritan gizon helduok portatzen garen eran, zer pentsa ume ezberdin multzo bat badadukagu? Areago.

Gurasoek ez dakigu sarritan nola jokatu eta zer bide erabili. Logikak ere huts egiten digu. Idazteko makina bati "I" letraren botoiari ematen badiogu, "I" letra emango digu paperean. Baina umeari ez zaio beti letra bera ateratzen nahiz eta gure ustez benetako botoi egokia jo, umea ez bait da idazteko makina, ezta ere kalkuladore bat. Umea ulertzeko, ezagutzeko eta bere heziketa egokia egiteko psikologia eta pedagogia dira gai, eta psikologia eta pedagogia ez dira matematikak.

Ez dago, ordea, desesperatu beharrik, ezta ere prolema alde

batetara uzterik. *HAURRA* edo *UMEA* guk gurasook ekarri dugu eta geuk dadukagu bere alde eman behar dugun erantzuna, eta beti erantzun hoberena eman behar gainera. Behingoz esan dezagun gurasoak direla haurraren lehen hezitzaileak.

Umeak ez daduka ezeren errurik. Umea errugabea da. Umeak ez du eskatu mundura etortzerik. Ez zaio horretarako botorik eskatu. Aita-amen maite-elkartasunak umea mundura ekarri du, mundura *bota* egin du eta hemen dadukagu, geure aurrean, eman dezaiokegun heziera onenari itxadoten. Gure haurra, geroko *gizona*, geroko *gizon* edo *emakume* hori guk eman behar diogun heziketa zintzo, on eta aberatsaren zai dadukagu.

Gurasoen beharra eta betebeharra ikaragarria da umearen aurrean: Ahal denik eta heziera osoena eman behar zaio; ahal denik eta gizatasun sakonez beteriko heziera hoberena. Gure umea, geroko *gizon* horrek benetako *gizona* izan behar du, eta hori lor dezan gurasoa dago *bide*, gurasoa eta irakaslea, baina ez dezagun ahaz gurasoa dela lehen hezitzaile.

Beraz, gogora dezagun umeak dadukan lehenengo irakaslea gurasoa dela. Gero eskolan eta ikastolan sartuko da eta irakasleen eskuetan jartzen da gehien bat bere heziketa.

Hala ere ez dira horiek bakarrik izango gure haurrak heziko dituen bideak. Gurasoa lehenik; irakasle edo andereñoa ikastola bitartez, baina baita ere gizartea bera inguru dituen ahalmen guztiz: liburuak, aldizkariak, irakurgai zenbait, zinea, telebista, lantegia, unibertsidadea, kafe eta dantza tokiak, atzerrirat ibilaldiak eta abar.

Begira zer-nolako ingurua duen gure haurrak geroko gizon-tza bidean abiatzeko. Inguru guzti horrek, nahi-ta-nahi-ez, kondizionatu egingo du gure haurra.

Horregatik, nola edukatu gure umea? Bai psikologiak eta bai pedagogiak aurrerakada ikaragarria egin dute azken urte hauetan,

eta beretaz jabetu beharrean gara ahal dugun neurrian gurasook ere. Ez gaitzke ez okerki ez baldarki ibil geure haurren heziketan. Ez gaitzke ere, gauza alde batetara utzirik, irakasleen eskuetan soilki jarriaz gure haurren heziketa, lasai egon. Gurasoen heziketa, haurrenganakoa alegia, irakasleen osagarri izango da, baina hau beste puntu batetan aztertuko dugu.

Aurrenez gurasoa hezi behar

Esan dugun denaren ondoren hauxe datorkigu egoki: Umea ganoraz hezi ahal izateko, aurrenik gurasoa behar bezala hezita egon behar, gurasoa bera bait da haurraren lehen hezitzaile eta, zalantzarik ez, gurasoa hezi gabe baldin bada, nekez hezi dezake haurra.

Baina, nola hezi haurra, beraz, lehenbizi gurasoak behar bezala hezi gabe baldin badira? Sokologi gaietan ezaguna da, umeak gurasoen espilu bihurtzen direla, edo, nolako guraso halako seme-alaba. Baina lehen hainbeste baldin bazen ere gaur egun ez da horrenbeste, gurasoengandiko heziketa murriztu egin bait da, eta kanpotiko giroak gero eta indartsuago eraten bait du gure gaztedia. Hara baina, umeen formazio on bat izan dezagun, lehenik gurasoena izan dezagula.

Bere izenaz gogoratzen ez naizen amerikar sikologilari aipatu batek honela esaten zuen: *Zazpi haurtxo eman zaizkidazue eta zazpi gizon berdin egingo ditut*. Sikologo horrek badaki hau ezina dela, baina esaten zuenarekin hauxe adiarazi nahi zuen: gaur egun sikologiak izan duen aurrerapena ikusirik, hezi-bide ikaragarria bihurtu dela, eta behar bezala erabiliez gero, uste ezineko lorketak eskura ditzakegula gizakien heziketan.

Gaurko aurrerapenak, gaur munduak gizonari eskatzen dion erantzupidea, teknika aldetik, zientzia aldetik, gizarte harremanetan dela, gizartearen bizitza bat, pertsonaren integritasun eta

abar guzti hauek, gero ta gehiago eskatzen diote gazteari, umea-ri eta gizonari; gero ta hobeto preparatua egon behar, gero ta gehiago ikasi behar, gero ta gehiago saiatu behar. Herrien arteko burrukaldi hauetan ere badu umeak zer bide aukera, izan litekeen ikasbide horretan. Gehien bat ere, beti EGIAREN BILA joan da-din. Hori da bide bat: Jakituria, baina egia baten jokabidez, justizia garbi baten jokabidez.

Gaurko umeak eta gazteak guzti hori egoki ta zintzo lordezan, guk gurasook eta irakasle guztiak, edukatzaileak oro, *bide* besterik ez gara, umearen geroko nagusitasun oso horretara heltzeko *bide* besterik ez gara.

Umea, berez, egia zale da beti. Gurasoa egiaren bidetik ez badoakio, umeak aldamenetik alde egingo dio eta bere iritziz EGIA-bidea dela uste duen horri heldurik bizi izango da. Eguneroko bizikera aldatzen doakigu eta gutako bakoitza aldaketa horren bideetan barrena abiatu behar, baina geure nortasuna galdu barik, geure nortasunaren hildoa zehar aldaketa hauek aurrera eramanez. Gizadiaren aldaketak geure aldaketa eskatzen du: jakituria berriak, gertakizun berriak, iritzi ta teori berriak, haurrak nola egokien hezi izango liratekeen bide berri, garbi ta zintzoei helduaz. Desegoki diratekeen molde zaharrak puskatu beharra baldin badago puska ditzagun eta gaurkotasunak eskatzen digun mailan jantzi ditzagun geure buruak.

Esan dugunaren ondoren garbi ikusten da umearen lehen hezitzailea gurasoa izanik, eta umea behar bezala hezi ahal izateko, aurrenez gurasoen heziketa on, sakon eta zabal baten beharrean garela, eta horri heldu beharrean gaudela gurasook.

Haurraren heziketa

Haurraren heziketa aztertu nahi dugunean nahi ta nahiezko datorkigu galde multzo hau: Zer-nolako heziera eman behar diogu

umeari? Zer-nolako kontzientzia sar-arazi behar genioke, edo-ta diogu? Zelako heziera premia daduka umeak eta nola merezi du? Bihar edo etzi nolako pertsona heldua izan behar du gaurko gure haurrak?

Haur bakoitzak jaio ordukoxe geroago izango duen nortasunaren kimua dakar. Ume jaio berri guztiak ez dira, noski, berdinak, benetan sinpleak badirudite ere. Horrexegatik, esan genezake, bai, haur bakoitzak bera markatuko duen nortasunaren hazia dakarrela jaio berritan. Gero, izango duen heziketak eta inguratzen duen bizi moldeak itxuratuko du, eratu, moldatu, egin, osotu bere nortasuna.

Haur bakoitzak badu, beraz, berebiziko nortasuna eta izateko era bat. Baina haurraren izakera eta adimena argizaria bezain moldagarri biguina denez, era batera edo bestera hezi dezakegu, eta heziketa hau jaio ordukoxe hasi ere egin beharko dugu. Geroago, gaur ume den horrek, nagusitu ahala, eskura ditzakeen bideak harturik kontzienteki eratu ta osotu dezake bere heziketa, baina baita ere gerta daiteke, geroago hori egiteko ahalmenik ez izatea pertsona horrek, ez bait du dohairik edo ez bait diogu gaztaroan horretarako egokitasunik eman.

Beraz, oraingoz, haurra haurra da, den bezalakoa, jaio ordukoxe munduratze honek markatu duen lakoa. Gaur jakintsuek diotenez, feto garaian bertan ere hasten omen da haur baten izakera berezia, baina ez da hau gaurko gure hauzia. Haurra, haur bezala den lakoa baldin bada, geron eskuetan dago bera nola izan behar luken heziketa. Argizaria modelatuko genukeen antzera bere nortasuna modelatuz joango gara hezikera integral bat emanaz.

Haurra hor dago. Gurasoek jaio dute, ez bait da bera jaio. Geuk *bota* dugu mundura. Horregatik, gugandik hezikera hobereena eskatzeko eskubide osoan da. Benetan merezimenduz berea den hezikera hoberenaren zai dadukagu. Gu horretara beharturik,

eman dizaiokegun heziketaren zai. Bera, *bera* da, ta ni, hezitzai-lea, ni naiz. Ez dezagun ahaz bera ez dela ni eta ni ez naizela bera. Ez nago epelkeriak esaten, gauza sakona baizik.

Bera *bera* denez, eta ez ni, bere-bere den nortasuna hezi behar dut. Utz ditzagun alde batetara *ni bezalakoa izan dadila* ta horrelako astakeriak; bazter ditzagun *nire antzekoa izan behar luke* ta horrelako harrokeria hutsak. Gizonarengan den iraun nahi-ko usnak edo instintoak egoismoz betetzen gaitu, eta urkoaren heziketan, baina batez ere geure haurraren heziketan, gure kide egin nahiaren okerra betetzen dugu.

Haurra bere nortasun bidean hezi behar dugu eta ez *neronenean*. Hor dago irakasle ta hezitzaile bikainaren lana: haurrak duen nortasun kimua bera bideratu, indartu, aberastu, osotu.

Sarritan, gurasoen iraun nahiko usna horrek eraginik, beti-kotasun egarria sortzen zaigularik, gure izate molde osoa geure haurrengan, geure haurren bitartez, jarraitu nahi izaten dugu. Ez da hau giza-heziketan bide zuzena. Ez dezagun ahaz, ni nerau banaiz, haurra *bera* dela, beste bat, ez ni, eta berari dagokion heziketa eman behar diogula.

Dudarik ez dago haurrak hezitzailearen influentziak ukanik honen itxurak hartuko dituela zenbait gauzatan. Iran ere, haurra, imitatzaile ikaragarria da, eta irakaslearengan edo hezitzailearengan atsegin zaizkion izakerak bereganatuko ditu, nahiz izakera onak izan, nahiz txarrak. Horrexegatik da hain interesgarri hezitzailearen funtzioa ta betebeharra.

Bai gurasoa bai nor-nahi hezitzaile haurraren heziketa-bide da, *bide*, bai, umea gizarte barruan pertsona dina izan dadin, kontzientziaduna, egia zalea, zintzoa, osoa.

Umeak berez du egi-zaletasuna ta justizi-zaletasuna. Baita ere, umeak beti haundi ta nagusi izan nahi du. Horregatik bere ustetako haundikeria zintzoak egiten ari izaten da. Etxean bertan gurasoen arteko eztabaida bat somatzen badu, bere ustez arrazoia

non dagoen haren alde aterako da, egiaren alde ta justiziaren alde jokatzeko duela agertuaz. Gurasook oker bagabiltza, bizkor esango digu: *Atzo honela esan zenuten eta gaur beste era honetara egiten ari zarate; zergatik bada?*

Ez gaitezke gezurretan ere ibil haurren artean. Haurrak egia maite du, eta inoiz gezurrak esaten baditu ere, bere txikitasun ta indargetasunaren defentsa bat besterik ez da. Izan ere, haurrak indartsu eta haundi izan nahi badu ere, ingurukoak benetan indartsuak eta haundiak ikusten ditu. Aita bera, Jaungoikoa bezain haundi ta indartsu zaio, nahiz eta geroago horrela ez dela ikasten joan.

Haurrak txiki ikusten du bere burua, eta txiki bere ahalmenak. Mundu hau ikaragarria iruditzen zaio; dena menderatu nahi luke; nagusiak bezain nagusi eta indartsuak bezain indartsu ere izan nahi luke. Baina ttipia da, eta ttipitasun hori gaintzeko bere fantasiak eta ttipitasunak eraginiko trakamalak asmatuko dizkigu, eta okerra dela esango dugu sarritan, edo bihurrikeriak dagizkiela. Baina ez dezagun ahaz, guzti hori bere defentsa bat besterik ez dela, bere ttipitasun horrek dadukan haundi-nahiko egarriak eratutako defentsa. Dadukan fantasia bera, errealidadean ez duen zer-nahiaren erantzuna da berarentzat.

Izan ere, hain zuzen, haurra itsaso ikaragarri batetan igerian bezala, edo gizartean ukabilka bidea eginaz dator mundua menderatzen. Olatu ikaragarriak itsasoan eta jiganteak munduan edo gizartean aurkitzen ditu, bere bizi-bidean alegia.

Baina, haurra egi zale eta justizi zale baldin bada, aprobeitza dezagun dakarren dohai zoragarri hori eta bide zuzen horretatik abia dezagun. Haurrak *bere* bidea aurkitu behar du ta izan behar du. Baina horretarako gu gurasook eta irakasle zenbait izango gara bere izatearen bide ta mundu hori lor dezan lagunduko diogunak. Laguntza horretan beti bere nortasuna eratuko dugu:

zuzena izaten irakatsiko diogu, premian denari laguntzen, urkoaren anaia, gizon denok izaki bezala berdinak garela, herriak anaitu ta elkartu beharrean direla, egia zale ta benetako justizi zale izaten, gorroto ez izaten; arduradun eta erresponsable, diratekeen prolemen aurrean; langiletasun zentzua sar-araziaz; urkoarenganako errespetua, askatasun zalea, aberri maitale izaten, mundu osoaren maitale ere, langile burukatua, estudio zalea, norbere huts eta okerrak aitortzen, Euskalerrikoa izanik euskalduntasuna maitatzen eta euskaltzalea izaten, besteen izate ezberdina ulertzen, norbere betebeharrak on-hartzen, bestearen eskubideak errespetatzen. . . gizaki izanik, pentsatzaile ta aztertzaile ere izaten.

Guzti horretarako ez da nahiko izango edukatzaileak hau edo hori esatea. Edukatzaileak, nornahi dela, nahiz guraso nahiz irakasle, bere irakaskintzan beti exenplo ona eman beharko du.

Euskal Ikastola

Orain arte haurra zer den, gutti-gora-behera, eman dugu, nola hezi eta heziketa horretan gurasoek dadukaten bete-beharra. Baina, esana dugunez, haurraren lehen hezitzailea gurasoak baldin badira, orain Ikastola den ikastokia datorkigu, haurra heziko duen beste *bide* hau, bide interesgarri hau.

Gurasoek haurra hezitzen dute, baina ikastolak indartsu heziko du ere haur hori. Bai gurasoa, bai ikastola, baina batez ere ikastola honen bidez irakaslea, haurra heziko duten *bide* dira denok. Heziketa eta irakaskintza horretan elkarren osagarri dira *hezi-bide* guzti horiek.

Eskola zer den adiarazi dezagun. Batasunaren Kutxari begiratzen badiogu honela agertzen digu: *ESKOLA. Ikastokia, haurrak edo ikasleak ikastera doazen lekua.*

Besterik gabe ontzat eman dezagun azalpen hau, nahiz eta geroxeago gehiago zehaztu beharrean baldin bagara ere.

Eman dugun adiarazpenak haurrak edo ikasleak ikastera doazen *toki* baten zentzua eman digu. Hau toki edo lekuari buruz, baina Eskola, eta berdin Ikastola, tokia baino zerbait gehiago da, noski.

Ikas-toki honen zentzuari jarraiturik, Ikastola euskal eskola dela esan dezakegu.

Halabaina, eskola bat *leku* bat baino zerbait gehiago baldin bada, *Diccionario Durvan de la Lengua Española* konsulta dezagun eta honela ematen digu eskolaren esan-nahia, hots, adiarazte bereizkuntza baten tartean: *Conjunto de profesores y alumnos de una misma enseñanza.*

Beraz, hona hemen, eskola dela-ta zerbait zehatzago den argitasuna emana. Baina ikastola euskal-eskolatzat dadukagunez gero, ikastola inguru erabil dezagun aurrerakoan geure esan-nahia.

Ikastola ikastokia da. Areago: Ikastola, irakasleek eta hurrek edo ikasleek elkarrekin osatzen duten gorputza da, ezpaitago haurrik gabeko ikastolarik, baina ezta ere —ez bait dezakegu uler— irakasle gabekorik.

Ikastolaren definizio hori garbi samar dakusagula dirudi. Halere, gaur egun irakaskintza arazo ta ardurak eskatzen digun gaurkotasunak hobeto zehaztu beharrean jartzen gaitu. Eta bildurrik gabe ager genezake, Ikastola arazo oso bat zati hauek osatzen dutela: Haurra, irakaslea, tokia, gurasoa eta bultzatzaile ta eragile datekeen zenbait pertsona eta instituziok. Zein lehenago jartze honek ez du adiarazten bakoitzaren garrantzi mailarik.

Dudarik ez dago Ikastola denona dela. Ez da gurasoena, ezta ere irakasleena. Ez lizateke ere izan behar alderdi batarena edo besterena. Ikastola denona da, herriarena, gizarte oso batena, Euskal-Herriarena, mundu osoko gizartearena, mundu osoaren gizarte zati bait gara euskalgizartea.

Ikastolak gizartearen serbitzuan behar du izan, euskal gizartearen serbitzuan bereziki, baina gizartea bera —gure euskal gi-

zartea bederen—, ikastolaren serbitzuan. Interes bakarrik bada-
teke, ikastolaren interes bakarra haurraren heziketa da.

Ikastolak zertarako dira, bada? Aspaldi batean, beren sor-
kunean, euskaraz ikasteko, euskaraz aritzeko soilki zirela esan
genezake. Baina gaur euskal haurrak hezitzeko daduzkagu, eta
euskal haurrak direnez gero, euskaldunki hezi behar ditugu geure
umeok. Euskaldunki hezitze honetan, euskara sustrai-hizkuntza
delarik bederen, euskerea expresioaren zimentarri izanik, euskal-
dun kontzientzia sendo bat haurrengan sar-araziaz.

Gure Ikastolaren bete-beharra hauxe behar lizateke izan:
Haurra ahal denik eta osokien hezi. Giza-heziketa sendo bat
eman. Mundu osoan pertsona bete izango den gaurko haurra hezi;
gizon eta emakume heldu, baina gizatasunez izango den pertsona
betea, ez hutsa, ez erdia, osoa baizik, kontzientziaz betea, ardura-
duna, prolemetaz kezkatua, bake zale, justizi zale, egi zale, bide
zuzenak eta okerrak bereizten jakingo duena; euskaldunki eratua,
euskaldunki mundua ta bizitza osoa ulertu ta sentituko duen per-
tsona, euskaldun kontzientziduna, mundu maitalea, baina aberri-
zalea: abertzalea.

Honeraino heldu garelarik, osotu dezagun gure azalpena:
Ikastola ez da geroko ogi-bide edo karrera bati heltzeko izan
daitekeen oinarri-heziera soil. Materitasun alderdi hontatik ba-
karrik begiratuki, ez genuke gaur gizarteak egarri duen pertso-
narik eratuko. Zientziak aurrera, bai; teknikak aurrera, bai; ka-
rrera ta tituluak aurrera, bai. Baina *jantzi* horien barnean pertsona
sakonik ez badugu, materitasun ta zenbait materikeria aldetik
robot bezala diratekeen arima gabedun izaki tristeak eratuko
ditugu, pertsona izan beharrean nortasunik gabeko *makina* hotzak.
Sor-arazi dezagun haurraren barruan benetako gizatasuna.

Herri bakoitzak, mundu osoan noski, bere moldez eta taxu
bereziz eratzen du pertsona. Horrexegatik du herri batetako giza-

kiak berari dagokion nortasun berezia. Esan dezagun ere, Euskal Herriko gizarteak berari dagokion euskal nortasun horri eutsi beharra duela eta ahalegin osoan indartu. Euskalduna zabala ta irekia izan bedi, munduko gizarte osoaren prolema-kezka izan beza; internazionaltza senti ta maite beza bere kolkoan, eta ludi osoa bere aberri zabaltzat eduki dezala. Horretaraino heltzeko, euskaldun edo euskal nortasun sendo berezi bat izan beza, gero pertsona heldua izango den gaurko gure haurrak. Horrela, ikastolaren bideak gizarte osoaren interesak jarraituko baditu ere, lehenik Euskal-Herriarenak bederen.

Haurra heitzeko orainarte aipatu ditugun hezi-gai denak *bide* besterik ez dira: Haurra heitzeko *bidea* da ikastola; irakaslea *bide* da; gurasoa bera *bide* da; gizartea ere bere ahalmen guztiekin *bide* da. Nolako guraso, nolako irakasle, nolako gizarte... haurraren halako heziketa izango dugu. Heziketa horren balioa ta sakontasuna, haurrarekikoa alegia, irakasleen eta gurasoen jakituria ta hezieraren araberazkoa izango dugu. Guraso ta irakasle txarrengandik ez dezakegu haur baliotsu ta ikasirik lor.

Beraz, besterik gabe, Ikastola ez da lau horma-tarte soil bat. *Ekintza* bat da Ikastola; gure haurrak heziko dituen *ekintza*; erdal eskoletan umeak izan ez lezakeen heziketa, heziera ta irakaskintza izateko *ekintza* sakona. Euskal kultura ta mundu kultura ere emango duen *ekintza*: euskal nortasun sendo bat lor arazteko, gizona *gizon* eratzeko, taxutzeko, moldezteko.

Sikologia ta pedagogia aldetik gaur-egun munduan izan daitezkeen arau ta biderik aurreratuenak izan behar ditu gure ikastolako *ekintza* horrek. Bai irakaskintza aldetik eta bai heziketa zenbait aldetik, arau eta biderik hoberenak izan behar dituzke gure ikastolaren EKINTZAK.

Ikastola, *ekintza* da, beraz: pertsona ikasia ta jantzia lor-arazteko, *pertsona* osokia eratzeko, mundu pertsona eragiteko,

gizon eta emakumea Euskal Herriari dagokion *nortasunez* bideratzeko: EUSKAL GIZARTE bortitza egiteko EKINTZA.

* * *

Ikastolako irakaskintzak politika haizerik gabea izan behar omen du.

Hau zaila da erabakitzea, politikarik ez egitea bera politika bait da. Baina, zer da politika egitea? Ezer politika gaberik zer gizaheziera eta kontzientzia lor genezake umearengan?

Hona hemen, berriz ere, nola kondizionatzen dugun haurraren heziketa. Politika egiten baldin bada, politika horren kutsuz moldatuko da gaztea. Politika horren alderakoak ondo dagoela esango dute, eta bere aurka daudenek benetan gaizki dela. Betiko leloa.

Politikarik ezer egiten ez baldin bada, ordea, pertsona ezer era-gabedun edo amorfoak eskuratzeko arriskuan garateke. Beraz, behin eta berriz, hemen ere, alde honetatik haurra kondizionatua. Politika egiten balitz haurra kondizionatu, eta egiten ez balitz berdin, baina bestaldera. Zer da okerren? Zalantzarik ez, *ezer eza* dela txarren, ezer eza hori horixe baita: EZER EZA.

Muga ezineko arloa. Prolema zaila gaur egun Euskal Herriak bizi duen giro politikoa ikusirik. Baina dena dela, ikastola bat gurasoek nahi duten erakoa izan behar omen da. Areago: Gurasoek omen dute batik-bat beren haurren heziketa bidea aukeratzeko eskubidea. Baina, gurasook geure buruen heziketa eta formazio kaxkarra badugu, zer egin? Horrexegatik, ahin zuzen, zenbait eta formazio hobea izan gurasoengan, eta noski baino noskiago irakasleengan ere, hainbat eta fruitu ongarriagoa izango dugu haurrengan. Kontzientzia gabedun irakasle ta gurasoengandik ez dezakegu gauza askorik espero. Zalantzarik ez dago, behintzat, justizia eta egiaren alderako irakaskintza zabal eta sakona

eman behar zaiola haurrari: Txarrena zera da, bakoitzak begi zulo desberdinetatik ikusten ditugula balore horiek.

Ikastola bat ez du klase batek menperatu behar, Ikastola Herri osoarena da-ta. Baina sozial klase batak edo alderdi batak ikastola bere mende jarri nahi balu, beretzako ikastola sor beza, bere antzeko eratua izan bedi, baina alderdi horrek zabalki azaldu eta aitortu behar luke zein den bere helburua, horrela inor engaina ez dadin eta bertara bere haurrak bidali nahi lituzketen gurasoek zer-nahiko kontzientzia garbia izanik, haurrak nora eta zertara bidaltzen dituzten jakin dezaten.

Honek beste puntu batetara garamazki: libreak izan behar lukete ikastolak. Ikastola pluralistaren premian da Euskal Herria, baina denak euskaldunak izanik, euskara gabeko ikastola erdal eskola datekelako Euskal Herriaren eskubideen aurrean. Ez dago zergatik indar batak edo alderdi batak ikastola monopolizatu nahi izatea.

Gaur egun ikastolak era askotako gurasoen hurrek osatzen dute. Guraso batzuek era batetako ikastola nahi lukete eta beste batzuek beste era batetakoa. Baina, Gipuzkoan behintzat, gehien bat *Ikastola Elkarte* bakar baten barruan eratuak dira, eta elkar konpon ezinik bezala ari gara geure uste-izate ezberdinak tarte direla: Euskara batua bai, euskara batua ez; "h" bai eta "h" ez; erlijio katolikoa bai eta erlijio katolikorik ez, eta abar.

Nola nahi dela ere, zalantzarik ez, ikastolek aurrerakoiak izan behar lukete. Euskara bateratua hartu beharra dago, Euskal Herri osoko ikastolek irakasbide eta mintzabide berdinak izan ditzaten, eta bai alde bateko eta besteko hurrek euskal-hizkuntza honen hizkera eta idazkera berdin batez elkar uler dezaten. Horrela egiten ez bada, zatituak jarraituko dugu eta gure Herria ttipitua eta murriztua.

Langiletasuna ere irakatsi beharra dago. Ez dezakegu on-har aberatsen eta kapitalisten haurrentzako bakarrik izango den ikas-

tolarik. Ez dago zergatik ikastola batetan kapitalista *estilu* bat edo izate bat erabili. Kapitalista baten eta proletario baten se-meeek elkarren alboan eseri behar dute, eta irakaslearengandik berdinki ikasi zer den gizartean dadukagun justizia eta injusti-ziaren zentzu argi eta garbia. Haurrek oro, guztiek, aukera ber-dineko ikasketak ukan behar dituzte. Tamalgarria da benetan, diruz heldu ezin den zenbaitek bere haurrak ikastolara ezin bidal izatea. Inoiz ikastolak libreak, dohakoak eta pluralistak izatera heltzen direnean, orduan sor dezake bakoitzak bere eradun ikas-tola pribatua. Gaur eta beti, haurrek *aukera* eta eskubide berdi-nak dituzte eta ukan behar dituzte irakaskintzan.

Noizbait Euskal Herriak zerbait eskubide izan dezakeenean bidera daitezke problema hauek, baina bitartean erabaki ezineko arazo latza dadukagunik ezin uka.

Ditugun sozial-klase mailak berdin bide batetan zuzendu beharrak ditugu. Haurrak garbi ikusi behar du gizona gizon bezala *valor absolutoa* dela, eta pribilejio guztien gainez esku-bide eta betebeharrak berdinak dituztela gizakiak oro. Ez du ezagu-tuko *bat* beste *bat* baino gehiago denik, bere gizatasunean eta giza-jokabidean ez ezik.

Ikastola, haurra heziko duen bidea denez gero, astakeria da zenbait gurasok egiten duen zera: haurra hiru urtekin ikastolan sartu eta bost edo sei urtekin erdal eskola batetan sartzeko atera. Egite honekin ez daki gurasoak zer gaitz egiten dion bere haurrari.

Gurasoak garbi jakin behar du, bost sei urtekin, hasi ere, haurraren ikas-adin garrantzitsuena hasten dela. Maila honetan has-ten da haurraren nortasuna tinkotzen, eta hortik aurrera du ikas-garairik egokiena. Honetan ere badatza gurasoek beren buruak jantzi beharra. Zoritzarreko uste bihurri eta prejuizio franko dadukagu oraindik ere gurasoen artean, eta edozer atxakia har-turik horietariko desegokititasunean erortzen dira.

Gurasoak sakon gogoan har beza, zenbait eta luzaroago ikas-tolako urte mailak zehar bere haurrak erabili, orduan eta umeen gertaketa sakonagoa eta osoagoa lortuko duela. Zalantzarik ez, noski, benetan ongi gertatutako andereño edo irakasle beharko duela ukan. Zorionekoa Euskal Herria, irakaskintza aldetik, oinarri-hezierako irakaskintza maila denak eta batxilerra bera euskara bidez irakatsia izan daitekeenean. Orduan lor ditzakegu euskal nortasuna sendoa izango duketen lagunak eta beren bidez gaur Euskal Herriak eskubidez berea dukeen etorkizuna.

Berriz ere andereño eta irakasleen egitekoa ez da makala ekintza honetan. Euskal Herriaren kondaira irakatsi beharra dago. Haurrak jakin beharra daduka gaurdainoko euskaldunen ibil-bidea zein izan dan, historiaren zein puntutan gauden eta zein etorbide den geurea munduko herri guztien, eta batez ere Europako herrien arteko elkartasunean. Unibertsalki aitortuak diren eskubidetasunak irakatsi beharra ere dago: gizartearen demokrazia zintzoa, gizon eta herrien askatasun eskubidea, inperialismoen txarkeria.

Haurrek jakin behar dute ere, Euskal Herria ez dela ibai bateko mugatan bukatzen, harago ere badaudela euskaldunak. Euskaldun haurrak euskara bere hizkuntza bezala ezagutu behar du eta Euskal lurra bere sorterritzat, baina ikastolak horretaratzen ez badu, ez du honek ikastolari beharrezko dagokionik betetzen.

Handik eta hemendik beti haurraren heziera *oso* ta *betea* aipatzen ibili ohi gara. Zein da, bada, heziera integral hori? Osoa noski, betea, ahal denik eta bete eta zabal-sakonena. Baina hala ere lehen hainan gelditzen gara frogatzen ez den bitartean.

Haurrak bere nortasuna ahal denik eta potentzia osoenean eratu behar du. Berdinki bere kontzientzia eta jakituria ere. Guraso batzuentzat beharrezko da erlijioa irakastea; areago: erlijio katolikoa. Beste batzuentzat ez da beharrezko, edo beste erlijio mota bat egokiago nahi lukete, edo erlijio humanista bat, edo

bat ere ez. Ez genekike guztientzat bakar izango lizatekeen neurkina nola eratu, bakoitzak bere aburua bait du. Baina gizonaren askatasunari begiratuki (gutierrez bere askatasunari) bere haurrak nolako heziketa izan behar lukeenaren jabe da gurasoa. Okerrean izan daiteke, edo zuzenean, baina horretarako jabetasunik ez badu, ez dezakegu sinets inolazko gizonaren askatasun eraketaz. Dena dela, zalantzarik ez dago, bide bataren edo bestearen ondorena haurrak izango duela, haur indarge eta biguina kondizionatua geldituko delako gurasoak eta ikastolak ematen dion irakaskintzapean. Gutierrez, haurraren heziketa, bide zabaletan zehar eratu izan behar, gero pertsona heldua denean erosoki hauta ahal izan dezan egoki iruritzen zaion pentsa-bide eta joka-bidea. Gizonak beti behar du izan horretarako askatasuna.

Ikastolak librea izan behar luke, eta, berriz ere, ikastola pluralizatza batek erlijio problemak ere erabakiko lituzke. Gaur egun Eliza babesak trukez eskatzen dion ordaina, erlijio irakaskintza eragitea da ikastoletan, eta gaurko beste biderik ez dagoenez gero, demokraziaren azken erantzunak gehien batzuen borondate eta nahiak irabazten du. Ikastola Elizaren eskuetan da, baina guraso gehienek horrela nahi badute, zer egin besteok? Ikastolek ez lukete ez Elizaren eskuetan ez bere menpeko egon behar, gurasoen eta herriaren eskuetan baizik. Cesar-ari Cesarrena dena eta Jaungoikoari Jaungoikoarena, baina ez da gai hau niri eskatu didatena. Beraz, buka dezadan.

Ikastola, burgesa ote da?

Alde batetik eta bestetik gehiegi entzuten ari gara: *Ikastolak burgesak dira, burges mugimendu batek eragina. Guraso burgesek ikastola burgesa eratu dute. Burges hitza ia mito da.*

Horrelakoak entzun izan ditugunean, garbi samar ikusi dugu

beren sarritako iturburua: Euskal Herriak euskeraren bitartez behar lukeen nortasuna birrindu nahiko interesa. Kontuan hartzea da, ondo ezagutu eta nor diren jakin. Klasifikazio hori erraza da, nahiz eta zenbait ideologi ezberdinetakoak izan, denek berdina nahi dute: euskera hil eta Euskal Herria erdaldun bihurtu. Horrela jokatzeko dutenak euskararen eta Euskal Herriaren etsai dira, eta zabalki esateko bildurrik ez dugu ukan behar.

Beren politika ta ideologiaren jomugak nahi duena justifikatu die, baina euskararen eta ikastolen alde ezer frogatzen ez duten bitartean Euskal Herriaren etsai dira.

Alde batetatik arrazoia dago, noski; eta hauxe da beren azterketa: Ikastolako irakaskintza garesti ordaintzen omen du gurasoak. Edozeinek ez omen du ordainketa hori betetzeko hainbat diru, eta ezin bere haurrik ikastolara bidal; beraz, haurra ikastolara bidal dezaketenak dirudunak dira eta, horregatik, edo kapitalistak eta burgesak hain xuxen.

Azterketa hori dagien asko kontraesan ikaragarrian erortzen da: Ez du ikastolarik nahi, eta ikastola ordaindu ezinaren arrazoiz baliatzen da.

Zintzoki aztertzen dutenek, ordea, arrazoia dute. Egia garrantza da ikastola ordaindu ezin dutenek, nahi badute ere, erdal eskoletara bidali behar izaten dituztela beren umeak, baina egia da horietan ere majo hezitzen dituztela haurrak prejuizioz eta uste txar eta bihurritz kutsuturik diren gurasoek.

Zoritxarrez ez dadukagu oraingoz inoren laguntzarik, eta andereño eta irakasle zenbaiten buruak ordaintzeko behar dena ordaindu behar. Ikastola hori ordaindu ezinaren errua ez da gurea, ordaindu nahi lukeenaren gehiago ez irabaztea baizik, baina hori beste hari bat da. Dena den, honetan ere esango digute, soluzio bidean jartzeko gaurko *sistema* puskatu ondoren legokeela erabakia. Baina ikastoletan marxismo irakasbiderik ez delako,

ikastola *burgesa* dela esaten bada, hori besterik da, eta horretan datza zihurraski denaren giltza eta korapiloa.

Hala ere, makina bat aldiz entzuna da: "Euskara lanketa, euskararen ardura eta, beraz, euskal ikastolak burges mugimenduak dira, euskeraren aldeko mugimendu gehienak burgesek eraginak izan dira-ta, baina areago, euskaldun kapitalistek euskera bidez historiaren une berezietan langilea eta herria zanpatzen dute".

Hori horrela bada, gaztelaniera ere bazter dezagun eta proletargoaren hizkuntza eta hizkera berria sor dezagun. Txinako haundiki eta goi mailako klaseek komunismoaren aurretik txinoera erabiltzen bazuten ere, ez du Maok ez txinoera ofiziala ez bestelako hizkelgiak madarikatu eta baztertu. Ezta ere Castrok, Batistak erabili zuen hizkuntza beste batekin trukatu. Haundikiek, kapitalistek eta burgesek erabili zuten hizkuntza bera darabilte. Izan ere hizkuntza bat herri baten hizkera da, ez klase batena edo bestena.

Euskara Euskal Herriaren hizkuntza da, herri batena, ez klase batena edo bestena, euskal herriarena baizik. Ez dadukagu urrutiegi joan beharrik fenomeno hau ikusteko: Euskara goitik behera erori da, hau da, kapitalistengandik herri xeharenganaino. Gaur bertan, Euskal Herriko kapitalista haundienek erdera darabilte beren eginkizunetan, negozio arazoetan, beren poltsak diruz majo betetzeko bideetan, baita ere beren bizitzako etxe-barru gauzetan.

Hizkuntza, herri baten hizkera denez, jatorriz euskara dagokigu. Uka ezineko hauzia, beste herri batzuek berena duten eran. Baina euskaldunon borondatea Euskal Herria euskalduna izatekotan badatza, horretarako eskubide osoa dadukagu, eta horren kontra jartzen dena indarkerian ari da, herri eskubidetan aurka, herri-izate berezien aurka. Berdinki euskal ikastolen aurka jartzen dena etnozida da, herri hiltzaile, inperialista. Ez

dizaigutela internazionaltzarik aipa, hori herri zanpaketa bait lizateke.

Ikastolak sakrifizio gogorrez eta nekez bultzatzen ari gara. Inoren laguntzarik gabe eta trabak bai sendo. Hau, ondoen, ikastoletako haurren gurasook dakigu: Ikastola arazoa herri baten borondateak eragina da.

Dudarik ez, noski, horrela behar genuke, gure ikastoletan halako demokrazi zentzu zabal eta sakona irakatsi behar dela, justiziaren alde, giza elkartasun bidea emanaz, komunidadek behar dukeen berdintasuna irakatsiaz, klase mailak berdinduaz, herrien arteko maitasuna ta elkartasuna emanaz, eta, nola ez? sozialgintza eraginaz.

Ikastola zerbaitetan burgesa baldin bada, burgeskeria hori kentzen saia gaitezen, ikastola herri osoarena izan dadin. Ikastola aurrerakoia behar dugu, baina euskalduna. Erraza da marmarikatzea. Sarritan kafeterietan burges antzera bizi direnek, arrastaka lanean ezertarako astirik gabe ari garenoi burgesak garela esango digute. Ez gaitezen harritu, zozoak beleari ipurbeltz deitu bait zion. Ikastolan denetarikoa dago agian, denetarikoa, *Jaunaren mahastegian antzo*.

Euskaldun gurasook debaldeko irakaskintza ez dugun bitartean, irakasleek merezi duten dena ordaindu behar geuk. Harelere, irakasleek merezi duten hainbat ezin irabazi dute; gehiago behar dute eta gehiago merezi ere, beren eskuetan bait dago gure haurren heziketa, eta haurren heziketa on bat ez da txantxetako gauza.

Ikastolak ez daude oraindik guk gurasook nahi genukeen eran, ez noski. Baina bien bitartean alaz moduz aurrera jo behar. Eta marmarikatzen gaituztenak ikastolako ordaintza merkeago bat edo ta dohakoa egiteko gertu eta gai badira, betoz gure haurren irakaskintza guk behar bezala xoxik irabazi gabe egitera,

ea behingoz *burgeskera* hori bazterreratzen dugun; orduan izango dira ikastolak guztien eskuetan.

Bukatzeko: Ikastola denona da. Denona izan behar du; euskaldunki bere haurrak hezi nahi duenaren guztiona, eta diru faltagatik hortaratzeko guraso askoren haurrak baldin badaude, noski baino noskiago herri osoko haurrak hezi ahal izateko erabide bat eskuratzen saiatu behar dugu guztiok, ez marmarikatzen ordea, elkar laguntzen baizik.

Haurrak gurasoenak ala Estaduarenak?

Problema hau ere jarria digute gurasoei. Haurrak gurasoenak ez-ezik Estaduarenak direla esan omen dute norbaitzuk, eta beste norbaitzuk benetan izutuak dira. Ez dago izutu beharrik.

Haurrak gizartearenak dira, ez dago dudarik; herriarenak. Baita gurasoenak ere. Beraz, bai gurasoenak bai gizartearenak, denok gara-ta gizarte eta herri batenak.

Haurra jaiotzen denean, gurasoek ekarri dutelako da; bere zorionerako edo zoritxarrerako, baina gurasoek ekarria. Halere ez da haurra gurasoentzat jaiotzen, gerok ekartzen badugu ere. Haurra jaiotzean gizarte batera zuzendua da, eta gizarte horretan, era batera edo bestera, lotua izango dugu. Bildurrik gabe esan genezakeela uste dut, haurra potentzian gizartearen pertsona dela, gizarte horrena ez izatekotan basamortuan animala artean bizi beharko bait luke, edo ilargian, edo jaio ez hobe.

Gizona jaiotzean, gizon erresponsablea izan dadila nahi genuke, eta erresponsabletasun horrexek gizarteko senti-araziko dio. Lehenago esana dugunez, *gurasoa "bide" da* bere umea gizarte barruan pertsona DINA izan dadin; kontzientziaduna; egia zalea; zintzoa; osoa. Beraz gurasoa haurra munduratzeko bidea da, hezi-bide ere bai.

Astakeria lizateke gurasoek haurra berentzat ekartzen dutela

pentsatzea. Halere, haurrak lehenbizi ezagutzen duen maitasuna eta beharra gurasoekikoa da. Izan ere, bai sikologi aldetik, bai biologi aldetik, bai maitasun samur-bera aldetik haurrak gurasoak behar ditu inguru, beren premian da, eta oraindik ez dago honen aurka ezer frogaturik. Haurrak bere amaren bular eta irribarrea zentzu gozo batetan lotzen ditu. *Ama-bularra* eta elika-gozamena bat da berarentzat. Ama-bularrez elikatzea elika-barren da oraindik ere haur-sendagile jakintsuen ustez. Bestalde, haurrak alaiki maite duen familia-giro gozoaren beharrean ere bada, noski.

Hortan, zer? Haurrak derriorez behar ote du guraso ingurua bere lehen bizitzan? Derriorez ez bada ere, hobeena eta beharrezkoena badela dirudi behintzat. On-har dezagun, besterik gabe, haurrak gurasoengandik hasitako egoki duen familia giroa behar duela. Haur-etxe aurreratuen batetan baino zoriontsuagoak dira beti bere familia giro egoki batetan hazitako umeak. Beraz, haurrak gurasoenak ere badira; ez dezakegu uka.

Behin batean, hitzaldi batean, gurasoen eta haurren heziketari buruz ari nintzelarik, ikastolak hezi-bide aztertu nituen. Gazte bat atera zitzaidan eta ez nuela *kibutzik* aipatu agertu zidan, kibutzetako komunitate bizitzak eta elkarrekin ari duten haurren heziketa benetan onuragarria zela adiaraziz. Arrazoia eman nion. Baina txalogarria bada ere esperientzia hori, ez dut urretik ezagutzen eta aztertu beharra legoke. Dena dela, gaurkoz, kontuan hartu bakarrik egingo dugu.

Haurra gurasoena ere bada. Baina ez da bere *objeto* bezala, ezta ere jabetasun osoz giza-lege bete batetan bere heziketa ez badarama. Gurasoak haurrarenganako duen dohain guztia bere onerako jarri behar du. Gizon batek bere erloju bat bizi osoan beretzat eduki dezake, baina ez bere haurra, bere haur hori ez baita bere *gauza* bat.

Haurra haur den bitartean gurasoena dela esan dezagun, baina gizartera zuzendurik dagoenez, gizartearena ere bai. Zalan-

tzarik ez, gizarte antolaketa hori gizon aske edo librez onartua izango dela, bestela indarkeria bat nagusi izanik, bai haur bai gizaki helduk menpetasun horren presotza izango lukete.

Haurra gizon-gai denez gero aske da. Baina bere heziketan gidariak behar ditu, eta lehen gidari eta hezle bere gurasoak dira. Haurrak ahal denik eta gutxien kondizionatua izan behar du. Ez daduka haurrak zergatik bere gurasoak bezala sentitu eta pentsa, ez filosofia zenbait aldetatik, ez erlijio aldetik, ez politika pentsaketa ta ideologi aldetik. Haurrak dena aztertzeko ahalmen eta dohainak ukan behar lituzke eta bere ustez egia non dagoen hari heldurik bizi, nahiz bere gurasoen pentsa-moldeen aurka izan, nahiz irakasleenena.

Umea ume da, gurasoekin bizi da; honela dela pentsa dezagun. Baina ume hori hazi egingo da, nagusitu, eta orduan bere bidea hartuaz gurasoengandik at bizi izatera jarriko da: bere bizi-bidea hartuko du, bere ikusmen bereziak izango ditu eta, bere gurasoak maite izan arren, bere buruaren *jabe* izatera iritxiko da.

Umea den bitartean eta gurasoen beharra izanik, umea gurasoena da, baina pertsona heldua izatera iristen denean, orduan bere buruaren jabe da. Hortan da, bai gurasoek bai irakasleek umeari lagundu behar diotena: *bere buruaren jabe izaten.*

Pertsona librea izan arren, bere buruaren jabe izan arren, ez da noski guztiz aske, ezta ere guztiz bere buruaren jabe. Gizarteak jartzen dizkion lege batzuk bete beharko ditu, eta hortik at ibiltzeak ez luke gizon ordenatua egingo.

Gizona gizartearen ale bat da. Gizon eta emakumeen artean *gizartea* osatzen dugu. Horregatixe, hain zuzen ere, pertsona gizartearen ale bat da, eta gizarte horrek demokratikoki eratuak izango lituzkeen lege eta bete-beharrei lotua ere izan beharko du.

Denok garateke Estaduarenak, gizarteak nahi ta nahi ez behar bait du Estaduaren ordenamendu eta legeria. Baina zer-nolataz eratutako Estadurenak? Ez dezakegu onar goitik behera

indarrez eratutako Estadurik, behetik gora eta demokrazi zentzu osoz eratutako gizarte gidaritza bat, gidaritza zintzo bat baizik, benetan herriaren eta gizartearen serbitzuan izango lizatekeena.

Puntu honetara heldurik, Ludian herri libre guztiak onartua behar luketen legeriari begiratuki, dadukagun araudia gogora bekik: *giza-eskubidegai guzien aitorkizuna*. Hogeitaseigarren artikulua hiru garren atalean honela dio: "Haurren heziketa auke-ratzeko, beren gurasoek dadukate bereziki horretarako eskubi-dea".

Horra ba hor garbiki, gurasoak behintzat direla nagusi beren haurren heziketa eta heziara hautatzeko.

Jabetasun aldetik begiratuez gero, Estatu batek badu nola-baiteko jabetasuna, baina baita gurasoek ere, bakoitzak bere neurri ta araez. Haurrak gurasoenak dira, eta baita ere herriarenak, edo-ta bestaldera.

Gipuzkoako Ikastola Elkarte

Gipuzkoako Ikastola Elkarte. Penagarria da horrela izenda-tzea, baina horrelaxe da: Gipuzkoa, ez Euskal Herri osokoa.

Gaur egun Gipuzkoan dadukagun Elkarte edo Federazio hau Loiolan sortua da 1969. Hazilaren 9.an. Sortze hori nola izan zenaren berri denok dakigu.

Bada Federazio horrek eratua duen araudia ere. Honela da bere izena: GIPUZKOAKO IKASTOLEN ALKARTE-BATZAREN ARAUDIA.

Ordutik honera zenbait zuzenketa eta gehitze ukan du, baina funtsean lehengo ber-bera da. Araudi horrek ez du esaten zerk eta nortzuek osatzen duten Ikastola, baina bere bigarren eta hiru-garren arau ataletan garbi azaltzen du bere helburua: *Kristau-erlijioan umeak ezitzea eta euskal irakaskintza eragitea*, alegia, direla beste batzuen tartean puntu nagusiak. Asko esaten badu

ere, ez du agian gehiegirik esaten. Definizio sendoagoa behar luke, nire ustez.

Elkarte honek ba du *Bateragile* izendun batzorde bat. Batzorde hau Gipuzkoako Federaziopean dauden ikastola guztien ordezkari da, eta baita ikastola arazoei dagozkien lanen koordinatzaile ta eragile ere.

1971. urte honetan bertan Araudi hori azterketa bidean jarria izan delarik, *Bateragileak* izendatutako batzorde berezi bat ari izan da azterketa hori egiten. Atzerago esan dudanez, funtsean lehen bezala geldituko bide da araudia, baina ikastolaren adiera zehatzago bat eman nahian, Ikastola bat zati hauek osatzen dutela proposatzea erabaki da: Guraso, irakasle eta zenbait laguntzaile edo eragile elkarrekin izanik osa dezaketela ikastola-mahai eta ekintza bera. Batzorde berezi horrek proposatuko du ere *Bateragilean*, "ELKARTE BATZA" ez dela guraso elkargo bat, IKASTOLA Elkarte baizik. Onartu edo ez, Ikastola zentzu edo hitzaren definitze zehatz baten premian izango gara.

Dena dela, jende askok *guraso elkarte*a deritza Ikastola elkarte honi. Irakasleek ere *guraso elkarte*a deritzate, eta hori gertatzen delarik, zergatika horri bere erantzuna eman beharrean gara. Hau erabaki beharra dugu: Zer da Elkarte hau, Ikastolena ala Gurasoena?

Hona hemen zer dion Jose Lasa jaunak EUSKAL ERRIA ETA IKASTOLA izendun bere liburuaren 51-garren orri-aldean: "FEDERAZIOA GURASOAK OSATZEN DUTE SOIL SOILKI". Eta ni ez nago konforme. Edo gurasoena da eta garbi gelditzen da, edo ta ikastolena. Horregatik eman dut edo nahi izan dut agertu ikastolaren definizioa. Eta Araudiak ez dio gurasoena denik, guttiago *soil soilik* denik.

Baina, zer arrazoi, praktikan ere gurasoen elkarte bezala huts hutsik ari bait gara? Zergatik ez daude irakasleak ere bertan?

Ez ote dute egon behar? Egon behar badute, zerk daduzka kanporaturik? Zergatik dira beren bide berezian aldameraturik?

Elkarte hau, edo gurasoena da edo ikastolena, baina erabaki beharra dago. Ez gaitezke kontradizioetan eror, ezta ere hitz jokoetan ari izan. Irakasle eta guraso federatu hauen artean etena dago. Eta irakasleek ez dute Elkarte horretan parte hartu nahi, edo ta gurasoek ez dute beren artean federaturik irakasleak hartu nahi, federaturik esatean zerbait eskubidez adiarazi nahi dut, noski. Baina *pribatu eskolak* gurasoenak badira, eta Elkarte honek horrela izan behar badu, orduan zuzenketa egin beharra dago Araudian eta garbi jarri *gurasoen elkarte* dela. Orduan bi elkarte garbi izango genituzke: alde batetik gurasoena eta bestetik irakasleena.

Ikastola arazoa denona delarik, eta haurraren heziketa guztion interesa, nahi ta nahi ez nolabaiteko elkartasun bat behar dute gorputz zati bi horiek. Alde batetik irakasleen ordezkariak eta bestetik gurasoenak bildurik, ikastola arazoa elkarrekin erabaki ta aurrera eramane beharrean gara. Ez dezagun ahaz, guraso edo irakasle ez lizatekeen zenbait laguntzaile ere tartean behar lizatekeela.

Nola nahi dela ere, Elkarte honen jomugak urrutiago behar luke egon. Horretarako, berriz ere, tamalgarria da Gipuzkoakoa bakarrik izatea. Gure Herria Euskal-Herri osoa da eta ez Gipuzkoa. Euskal Herriko haur guztiak dituzte eskubide berdinak, eta beren interesak geureak ere dira. Ez gaitezen gipuzkoarkeria batetan eror. Eliza babesak mugatzen gaituelako, obispaduak alegia, Gipuzkoa barruan mugatuak gaude: obispadu muga noraino, gure elkarte haraino. Beraz, eliza babes hori gehiegizko lotura bihurtzen ez ote zaigun agertzen da. Zergatik ez zabalagoak izan? Zergatik ez ikastola ekintza hau edatsua? Euskal Herri osokoa alegia?

Euskara: Euskara aldetik ere ba dago zer esanik. Euskal

Herriak gaur bizi duen euskara batasunaren abiada horretatik kanpora dago *Ikastola Elkarte*a, eta kanpora baldin badago, batasun hori planteatzeko bildurra edo dagoelako, edo nolabaiteko alderdikeria baten giroak gipuzkera hutsean iraun arazten duelako. Zergatik zorioneko "h" horri ere horrenbeste bildur? Zergatik batak edo bestek euskara batasunaren premia agertu duenean, bai Bateragilean, bai Loiolako Batzar Nagusian, halako euskeraren jabe bakar balizko *indar* batek irentsi du? Zein da euskeraren jabe? Alderdi bata bat edo ordea? Zergatik, behingoz, hori erabakitzeko beta eman eta Federaturik diren guztien artean arrazoi-pean jarri ez? Edo, zer dela-ta, guttienez, Euskaltzaindiak berak *begi onez* ikusiko lituzkeela esana duen idazkera eta arauak ontzat eman ez? Besterik da aditz joko, horretaz ez baitago oraindik enbor bakarrik erabakita, baina gainontzeko zerak bai ordea. Euskaltzaindiaren esanak aurrera ez daramazkigun bitartean *aita-santukerietan* ari gara.

Euskara batasuna planteatuta dago Euskal Herrian. Ikastoletako irakasleek onartua dute gehien gehienek. Baina *gurasoen* elkarte horretan lehenean darraigu. Batzuek diotenez, ez omen da hori agertzeko garaia; geure arteko zatiketa omen letorke; *Euskaltzaindia ez bait da gaur "nor" bide hori markatzeko...* eta horietariko zenbait arrazoi itxura nahiko entzun dut Bateragileko batzarrean bertan. Ez dut politika hori onartzen; ez dirudi bide zuzena denik. Zergatik darrai batzu-batzuen nahiak? Zergatik planteaketa baten bidez euskara batasuna nahi dutenei beta bat eman nahi ez hori? Une horrek heldu beharra du, eta talde bietako arrazoiak azterturik, Loiolako Batzar Nagusiak edo erabaki behar luke. Euskal Herria batasun baten egarri delako. Euskarak nahi ta nahiezko bait du, biziko bada, batasun hori. Euskaltzaindiak bere urratsa eman ere egin du-ta. Ikastoletako irakasleen elkarteak ere, zorionean, bereganatua daduka batasun hori.

Euskara dela-ta, pedagogia aldetik ez gabilza ongi. Alde

batetatik irakasle gehienek euskara batasuna hartua dutenez gero, eta bide horretatik haurrak heziko dituztelarik, ez gaitzke gurasook beste era batetako euskara idatzi ezberdin batez ari. Ba dirudi *gurasoen elkarte*a itsasoko uhinen aurka ari dela, itsas gorak duen indarraren kontra. Aitor dezagun gurasook geron buruak jazteko premia larrian garela.

* * *

Erljio aldetik, kondiziotzat du Elkarte honen Araudiak erlijio katoliko irakaskintza. Beraz, Elkarte hau konfesional deklaratu da. Elizaren eskuetan dago. Ez luke horrela izan behar, Euskal Herrian ezberdinki pentsatzen duten gurasoen ikastola-elkarteak pluralista bidean behar bait luke izan. Baina horrela ez bada, lehen aipatu dugun Lasa jaunaren bere liburuan honela dio: *Eliza ez da joan Ikastolen bila, ikastolak joan ziran Elizaren bila*. Ez dago bueltarik eta eztabaidatzerik. Beste bide eta eraketa hobegorik eskura ez dezagun bitartean, gurasoek horrela erabaki bazuten, gustora edo ez, baina horrela egin bazen, sar dezagun orain kalabazan.

Gurasoek irakasleen bidez ikastolekiko duten bete-beharra

Haurraren lehen hezitzailea gurasoa dela esan dugu. Baina badago gero andereño eta maisu den hezitzaile garrantzitsua.

Haurra ikastolan sar dadinean, irakasleen eskuetan jarriko da osoki, eta etxean ikusi eta ikasi ez dituen gauza eta bizi-bide berrien esperientziaz moldatzen joango zaio bere nortasuna eta bere heziera.

Haurra ikastolan dadinean, bere lehen gizarte-bizitza ttipi horren giro interesgarriak oratuko du bere izakera: lagun multzoa, elkar errespetatu beharra, zintzotasun bidea, okerren zigorra, ikasi beharra, orduak errespetatzea, guztientzako lege eta bete-

behar berdinak, garbi izatea, andereñoaren nagusitza eta indarra eta jakituria...

Haurrak mundu berri bat idoro du. Haurrak heziketa bikoitza daduka orain: etxekoa eta ikastolakoa. Etxean hezitzaile batzuk ditu eta ikastolan beste batzuk. Bien arteko erabide egoki batek hezi dezake ondoen haurra. Ez genezake uler alde bi hauetako heziketa, elkarren kontra egon daitekeenik, elkarren osagarri izan baizik.

Behar beharrezko zaigu, beraz, gurasoengandiko heziketa eta ikastolakoa elkarren kideko eta osagarri izango direla. Ikastolan pedagogia aldetik ematen diren bizi-arauak ez ditzakegu guk gurasook, gero, etxean, heziketa baldar baten bidez deuseztu. Ikastolako irakaskintzak, hezierak alegia, eta etxekoak elkarren arteko armonia egokia ukan behar dute, biak elkarren osagarri izanaz.

Horretarako, gurasook benetan kezkatu eta arduratu beharra dugu ikastoletako arazo guztietaz. Ez dadukagu bizkarra emanik bizi izaterik. Ikastolako ardura eta interesa geure haurren ardura eta interesak dira. Hauxe da gurasoen benetako erantzupidea. Gurasoek irakasleekin kolaboratu behar dute: ikastolako prolemak zeintzuk diren jakin eta erabaki bidean jarri; haurren heziketa nola doan ikasi; holako edo halako umeak zer problema dituen jakin; *nire* haurrak zertan sufritzen du edo zertan da zoriontsu?, zertan ari da nekez, zein da bere joera, zer gaitz-sentimendu edo konplejo daduka, nola hezi behar genuke etxean bertan, sarri ikastolan agertzen bait du guk gurasook ikusten ez diogun nabarmenkeria edo izate-akatsa? Zertan da trebe eta zertan ez? Nola portatzen da bere lagunekin...? Guzti hau beti irakaslearekingo harremanetan jakingo dugu ondoen, baina, horretarako, ikastolarekin benetan bat eginin egonaz.

Zenbait herri aurreratutan irakasleen eta gurasoen arteko lan-kidetza hau badagite. Izan ere, haurraren alderako fruturik hobe-

rena eskuratzeko ez dago mota ezberdineko hezitzaile bi hauen arteko lan elkartua bezalakorik.

Hots, baina! Gurasoa irakaslearen laguntzaile izango da eta ez trabagarri. Ez dezagun ahaz irakaslea irakaskintzaren tekniko dela; ikasi duen eta ikasten ari den pedagogia ariketaren tekniko ere. Horregatik, ikastola-irakaskintzan datekeen pedagogia eragiketaren jabe irakaslea dela. Hala ere hurbilki jarraitu behar diogu gurasook egintza horri.

Gurasoak bere iritzia ager dezake, bere uste izateak eman ditzake, eta irakaslearekin izango dituen harremanetan elkarrizketa samur bitartez lagunduko du bere haurren heziketa. Baina pedagogia aldetik ezer aztertu nahi duenean, tekniko bezala egin dezake, ez guraso bezala, pedagogiaren tekniko irakaslea bait da. Horregatik, gurasoa benetan pedagogian jantzita dago edo ikasi egin behar, edo guttienez bakean utzi irakaslearen lanari.

Ikastola bateko pedagogia-arazoa irakasleari dagokio, andereñoari edo maisuari. Esan beharra dago, bestalde, gurasoen aldetik irakasleak ahal denik eta sakonen preparatuak izan daitezen eskatzeko eskubidean garelara. Benetan jantziak eta ongi gertatuak behar ditugu.

Ez gaitezen harritu, pedagogia aldetik zenbait irakaskintza bide berri sartzen ari diren irakasleek ikastolan ikusten badugu ere. Esana dugu pedagogiak eta psikologiak aurrerakada haundiak egiten ari direla, eta ikastetxeetako irakaskintzan sartzen ari zaizkigun hezibide berriak ez-ezagunak direla zenbait gurasoontzat. Gurasoa ez bait dago ikasia, ez bait dago gertatua. Geron buruak gaurkotasunez jantzi beharrak ditugu.

Irakasleen erakunderik bada, eta bestalde gurasoen elkarterik, ikastoletako arazo guztiak nolabait elkarturik landu behar lituzkete, hau da, erakundetik erakundera begiratuki elkarren ekin-tza oso batez, edo elkarte oso batek biltzen dituelarik. Baina hortik at, badago ere bakarki eta pertsonalki gurasoek irakasleekin

erabiliko duten zenbait egiteko zehatz. Sarrikako mahai batzarrak izan behar dituzte, eta bakarkiro aztertzeo gauzetan ere irakasle bat haur baten edo batzuen gurasoekin bildurik, problema konkretuen eta heziketaren martxa aztertu behar lizateke, nahiz ikastolan bertan, nahiz irakaslea gurasoen etxera afaltzera eramanaz. Nola nahi dela ere, harremanak ukan, elkarketak, elkarrizketak, elkar-laguntze. Hori ez dugun bitartean, oker-joana dugu geure bidean.

Zenbat eta hobeto guraso-irakasle bikote honek elkaturik lan egin, orduan eta onura gehiago izango da umeen heziketan. Beraz, ezin da gurasoa axolagabe bere umea nola doan jakin barik bizi. Gurasoek ikastolaren eta haurren heziketa-ardura eta kezka bizia izan behar dute. Andereño eta maisuekin hestu-hestu lan egin behar dugu gurasook.

Gurasoek etxean izango duten haurrenganako heziketa, ikastolakoaren jarraipen da; jarraipen eta osagarri. Heziketa honen hezierak ez dute, inolaz ere, elkarren kontrako izan behar, kideko eta osagarri baizik.

Sarritan, ikastolan era batetako irakaskintza izanarren, etxean alderantzizko beste bat eman ohi zaio umeari, eta hau benetan kaltegarri da haurren heziketan. Irakasleak irakasbide berri eta aurreratuak ikasten, aztertzen eta gertatzen ari diren bitartean, guk gurasook ez gaitzke oker-bidezko egite batez ari haurren heziketan. Irakasleak benetan lanpetuak eta emanak ari zaizkigu gure haurren heziera egokien irakaskintza gertatzen. Txalogarria da beren lana. Erakunde goi mailan, batik-bat, marazki lanean ari den taldea dakusagu. Irakaslearen benetako lagun izan gaitzen.

Goi maila horretan, irakasleek beti ari dira ikasbide berriak atontzen, gero irakaskintzan egoki dezaten ikasten: testo berriak hautatu, esku-lanak aztertu, ikastola giro berriak ikasi, irakaskera berriak ezarri, herri aurreratuagoetan darabilzkiten metodoak nor-

bereganatu eta abar eta abar. Nork uka dezake hau? Geure begien bistan dago horretarako duten gogoia, borondatea eta trebetasuna.

Pedagogia, irakasleei profesionalki dagokien ekintza teknikoa da bereziki. Ez dezaiegun trabarik jarri eta bai ordea lagundu, kolaboratu.

Besterik da zenbait tokitan nabaritu dugun akatsa: andereño honek edo harek ez duela gertutasunik, ez dela buru jantzia, ez duela ikastola arazoetan kezkarik eta arretarik, edo ez dela lanari lotua eta emana, ikastola-ekintza arinki harturik beti kaleratzeko orduen zai izan ohi dela; edo ardura gutikoa izaki ez da kursi-loetan eta zenbait ikas-ekintzatan saiatzen, edo pedagogia aldetiko gehiago jakin behar horretan ez digu adorerik jartzen; euskara hizkuntzaz sakon jabetze lan batetan ere murgildu beharrez, ez du ezer barne indarrik jartzen, agian benetan euskara xar eta baldarra ere darabil... hainbat akats!

Huts eta eskasia horretan benetan asko eskatu beharra dugu gurasook andereñoengandik. Benetan trebeak behar ditugu hauek.

Baina gurasoengana berriz itzulirik, zer esan euskara aldetik? Zenbait gurasok haurra ikastolara bidaltzen du eta hor-konpon! Gurasoak izanik ere, beren etxeetan erderaz egiten badute, *ikaragarrizko injustizia egiten ari dira*. Ez da aski ikastolako euskara giroa. Euskaraz dakiten gurasoek beti euskaraz egin behar dute etxean, baina ez hurrari bakarrik, aita-amek elkarren artean ere beti ta beti baizik. Umea justizia zalea eta egia zalea agertu dugu aurreko atal batetan, beraz, umeari euskaraz hitzegin behar dela agindu eta erderaz dagiten gurasoek injustizia haundi bat dagite. Ez da nahikoa haurra ikastolan izatea eta hezitzea. Ikastolako heziketaren jarraipen etxekoa dela esan dugu, eta euskararen aldetik berdin, ikastolan haurrak dukeen euskal giroaren benetako euskal giro zintzo eta normala aurkitu behar du etxean. Ez dago makilaka ibili beharrik. Etxean euskal giro normala baldin badago, haurren euskal heziketa askoz ere sendoagoa izango da.

Bestela, gerta liteke ere, gurasoek beren artean erderaz ari baldin badira, jokabide hori pipa-jotzea dela ikusirik, haurrak ez du seriotasunez euskararenganako zaletasunik agertuko. Izan ere, si-kologia aldetik ere, haurrak beti pertsona haundi eta nagusia izan nahirik, erdera pertsona helduena dela ikusten badu eta euskera zakurrari eta umeari eragiten zaiola, orduan berak ere *nagusien hizkera* bereganatu nahi izango du, hau da, erdera, eta euskara baztertu.

Gurasoek sakon kontzientziatu beharra dugu. Ez gaude txan-txetan eta txatxukerietan ibiltzeko, geure haurra ahal denik eta heziketa hoberen bidean jartzeko baizik, eta gaurko haurren heziketa bidez geroko Euskal Herriak behar izango duen gizartea eratzeko baino. Gizarte hau, ez dugu beste biderik onartzen, euskalduna izan behar, Euskal Herriak horretarako eskubide osoa bait du.

Andereño eta euskal maisuetaz hainbeste esan dezakegu: Ikaragarriz kaltegarri lizateke, ikastola barruan euskaraz ari izango balira ere, gero kalean barra-barra erderaz egingo balute beren artean. Hurrek garbiki somatzen duñe nahasmengarri den jokabide baldar hori eta, hau ere injustizia denez gero, euskal haurren heziera osoaren aurka doa. Zaindu ditzagun irakasleak ere bide horretan. Hainbeste eskatzeko eskubide dugu.

Euskaraz dakigun etxeetan ez dago *bitara* mintzatzerik. Zenbait gurasok esaten du: *Bai, guk inoizka erderaz egiten dugu, baina euskaraz ere bai*. Hau euskal kontzientzia falta da, haundia gainera, eta horrela ez dela uste duenak bere kolkoan garbi sar beza. Euskaldun etxeetan ez dadukagu *bi-eletasun* edo horrelakorik egiterik, gutiago oraindik geron haurrak ikastolara bidaltzen baditugu. Gure Herriaren egoera ez dago horretarako, euskara oldarki zabaltzeko, goratzeko eta indartzeko baizik.

Gaur ez dago erdera ikaste aldetik problemarik. Ikastolako umeak berdinki daki euskara eta erdera. Bi-hizkuntzatasun alde-

tiko irakaskintza, geroko ikas-mailak eskatzen digun neurrian eta arauera izango da, baina ez gehiago. Ikastolak euskal ikastola izan behar dute, eta horretarako euskara bidez irakasten diren tokiak eta ekintzak. Baina, berriz ere, etxeko heziera ikastolakoarenaren jarraipen denez gero, euskaraz egingo dugu geure etxe-bizitza eta haurren heziketa. Etsaiek eta azpijorraz ari direnek ez dezai-gutela esan *chauvinismokerian* ari garenik. Gure haurren heziketa, eta Euskal Herriaren geroko gizartearena, errealidadea da, eta aurrera jo behar dugu. Hori da gure borondatea eta nahia. Ez dezagun ahaz: *gure haurrek euskaldun izateko eskubide osoa dadukate*, eta horren aurka jartzen dena herri-hiltzaile da, giza-zapaltzaile, kultura hiltzaile ere. Gure kulturak eta gure gizartearen kondairak aurrera jo behar du. Honera heldurik, Bertil Malmberg-en hitz hauek datozkit burura: *Hizkuntzaren historiak, gizartearenak eta kulturarenak batera izan behar dute*. Edo Saussure-ren beste hauek: "Hizkuntza ez daiteke gizarte bat osatzen duten sozial arau eta egitura batetatik kanpora atera".

Beraz, geroko gure gizartearen kondaira eta kultura, sozial bizitza baten barna delarik ere, gaurko gure hizkuntzaren bidez berarenganaino eramana izan bedi. Geroko gizaldiek gure euskararen bidez jaso bitzate balore horiek. Baina horretarako, gaurko gure ekintzak du erantzuna, kultura eta Herri-kontzientzia aldetik bederen, gure euskal ikastolak zimendarri izanaz, eta hortik gure euskal lanketaren frutuak emango duen ondorena biharko gizartearen lokarritzat jarriaz. Bide hortatik zehar, gure Herriak Euskal Herria izaten iraun lezake, J. Migel Barandiaran jaunak egokiro esango eta esaten digunez: "Hizkuntzaren bitartez herriaren iza-kerak eta hezikerak iraun lezakete. Beraz, edozein herrik bere hizkuntzari eusteko eskubidea badugu: eskubidea eta beharra".

Zergatik euskerari hainbeste garrantzi? Zergatik beti zulo ber-bertan erortzen gara? Euskal Herria egoera anormal batetan bizi delako, eta ia-ia geure nortasuna ere ukatzen zaigulako. Ez

dago hemen gure aurrera jo nahiean, inondiko *chauvinismorik* eta indarkeriarik, geurea den izate bati eutsi nahi izatea baizik, eta mundu zabalean zehar zenbaitek horretarako eskubidea baldin badu, hainbeste dugu gerok ere, ez gutiago.

Ez dut gehiagorik. Bukatu egin behar. Gurasoek ikastolekin duten betebeharra etenik gabea da. Lan eta lan. Problema franko izango dugu, baina lan eta lan da gure lema; horrek emango digu emaitza. Gerok lan egin eta beste batzuk ere lanean jarri; denok elkar erresponsabilizatu beharra dugu. Gauzak birresaten ere ibili banaiz, inoiz gehiegi ez delako eta sakon geron buruetan sartu beharra dadukagulako. Hala ere otarre zulatuan eroriko da zenbait gauza.

Kezka, ardura, lana, erresponsabilidadea, etenik gabeko ekin-tza, itzaropena, saiaketa... hori dena da ikastolei buruz gurasook geure haurren heziketan dadukagun zeregina, eguneroko zeregina.

arazoak

HIZKUNTZABITASUNA.
KULTUR ANTROPOLOGIAREN ARAZO
claudi esteva

Claudi Esteva i Fabregat jauna Kultur Antropologiako katedratiko da Barcelonako Ikastetxe Nagusian, eta bertako CSIC-an Peninsulako Etnologi Etxearen (eta ETHNICA bere aldizkariaren) zuzendari.

Mexicon lortu zuen Antropologi Zientzietan Maitutza, eta Amerikaren Historian dugu Doktore Madriluko Unibersidadez.

Zuzendari izana da Madrilen Nazioko Etnologi Museuan eta Antropologi Ikasketen Eskolan.

Afrika Ameriketara eta Espainian ibilia duzu kanpo lanetan (Ekoadorreko Ginea, Mexico, Ecuador, Peru, Sayago eta Aragoi Garai).

Itzulpen oharra: Egilearen arira, beti ez bada ere, nahita jaregin diet esaldiei luze, pentsakera landuak maiz ekartzen duen tankeran nonbait. Ahal dela —hemen zalantza—, euskeraz ere zergatik ez horrela?

Bada honetan hamaika salatze idazlearen abstrazio maila ahalik eta leialen gordetzeko. Irakurtzea zailtzen dueia? Baita erderaz ere; berez edo oraingoz, euskeraz gehiago, jakina. Ez dugu ordea amets Jakintza goletara iristea? Bidea hortik omen.

izango du irakurle ausartak nik itzultzen haina lan. Irtenbide hobeak asma-raziko ahal dizkio.

Nazioko eta atzerriko aldizkari eta entziklopedietan argitara emandako lan espezializatuak ehun eta gehiago ditu; hogeitartik gora oraintxe argitara zorian. Liburua: "Función y Funcionalismo en las Ciencias Sociales" (CSIC, Soziologiako Balmes Institutoa).

Ondorengo lan hau JAKINEk eskatuta egina du.

Hizkuntzabitasun arazoa aztertzeko Kultur Antropologiatik abiatzen bagara, beharrezko da ezartzea, lehenengo, zer den eta zertaz ari den Kultur Antropologia. Hemengo jardunbidean ezin begizta daitezke, ezta eskemazko agerpen batean ere, gure zientziadar honek besarkatzen dituen jakingai guztiak.

1. Zer da Kultur Antropologia

Merezi du oharraraztea Kultur Antropologia, funtsean, zientzi klase bat dela kulturen barrutian giza jokaeraren ikasketa parekatuaz diharduena.

Gure giza motak Lurreko toki ezberdinak beteala, eta bertan adaptatze ezberdinak egin dituen ginoan, garbi geratzen da giza taldeek ez dutela homogeneitasunik aurkezten. Honek idarokitzen du haien haziera historikoak bide ezberdinak hartu dituela. Planeta honetako ekologi barrutietan gure motaren iza-kera besberdin hau, kulturazko egokiera baten ondore gehiago da biologiazkoarena baino. Hortik dator, bi gizaki arrazaz antzeko izan daitezkeelarik, kulturaz osteraz ezberdin izan daitezkeela.

Antropologari batentzat bere ikasketaren berezgarriena, bada,

bilingüismo: hizkuntzabitasun
contexto: jardunbide

giza kultura da, hau antolatzeko eta gizarte edo etnia talde baten kideei ondorez lagatzeko era. Gainera, antropologiari batentzat esanguratsu da, nortasun estrukturan eta talde bateko kideek elkarrengana egokitzean gertatzen diren egina edo ondoreak ikastea, kulturazko era instituziotuak azterkatu, eta honelako izan ezarren, hala ere gizarte integratzea ukitzen duten beste era haiek arakatzea.

Honen arabera, Kultur Antropologiak gizakietako kultur ke- ren adaptatzea ikasten du, eta horiek, berarizko erantzunen bidez, giza taldeen kultur iza-kerak aldatzeko darabilten gisa ere bai. Horiek horrela, Kultur Antropologiaren jomugak giza taldeen kulturazko monografi eredu formulatzean daude, esate baterako eta esenplu bezala, euskal kulturaren, kataluniar, gaztelar, galiziar, portugaldar eta Iberia Peninsulako beste kulturen formulatzean.

Jomuga horiei so, kultur-historiazko bir-eraikitze ikasketak sarrerazten dira, hau da, deskribio eta teoriak formulatzen dira kultura baten iraganaldiko bizikeraz, eta hipotesiak jartzen dira, gero antropologiari bakoitzak ikerlan zehatzez horiek egiztatzan saiatzen delarik. Bi esenplu etor dakizkiguke egoki dioguna gar- biro ulertzeko.

Antropologiari batek, monogami familia nuklearra ea zenba- teraino den orokar galdetzen duenean, eta noraino hartaratzan duen ekonomiak ezkonkera hau, giza taldeen ekonomia ezberdinak elkarrekin alderatzera jotzen du, hortik ondore bat ateratzeko, ekonomi ezberdinak izan daitezkeela elkarterraz egituraz antzeko

homogeneidad: homogeneitasun
desarrollo: haziera
adaptación: egokiera
miembro: kide
significativo: esanguratsu
institucionalizar: instituziotu
compatible: elkarretaz
primitivo: zahartankerako

den ezkonkera batekin. Herririk zahartankerakoena dira, esate baterako, monogamu, eta herririk oraingoena edo mendebalekoak ere halaxe dira.

Arazoak aparteko egiztapenen bat eskatzen badu, joaten da antropologia inkognita hori erabakitzen laguntzeko aukerak dituen herri batera, eta bertan dagoela bere begiz ikasten du hauz hau, ondo argituarte. Horri kanpo lan deritza, eta problema garbitzeko lankerari metodu esperimentalak. Hautemaniko kultur kerei buruz egiten duen deskribio sailkatuari etnografi eredu deritza, eta etnografia oinarri honen araberrako fenomenuen azalpena antropologi begirakera izendatzen da.

Horrela, antropologi teoria, antonomasiak, kulturaren gizarte teoria da. Talde bateko kide guzietan dagokien gizarte egintzako sistema bezala hartzen da. Jokabide programa bat bezala da giza izakien elkarte batek ontzat emana, eta haren balotasuna hiru elementuz osaturiko funtzio bilduma batekin dago erlaziotan: noiza-nuna- kultura. Era honetara, Kultur Antropologiak giza sailen kultura ikasten badu, nabari da orduan kultura honek jokaera baten berri ematen duela, bizikera bera daramaten gizakiena bakarrena edo haiei berarizko zaiena.

2. Mintzaira eta kultura

Mintzaira kulturaren atal bat da, eta funtzio bidez dago giza izakien jokabidearekin erlazionatua. Aitatu jokabidea taxutua dagoenez eta belaunaldiz belaunaldi ikasi eta hurrengoenganatzen denez gero, hizkuntzak eta kulturak jokaera konbentzioak ageriarazten dituzte giza sail baten kideek isilbidez ontzat emanak.

enfoque: begirakera

complejo fucional: funtzio bilduma

espacio, tiempo: nuna, noiza

funcionalmente: funtzio bidez

tácitamente: isilbidez (implícitamente: besterenbarne)

Horren arabera, mintzaira berrisail taxutua besterenganatzeko modu bat da. Pentsamoldea da, eta herri baten hizkuntza beste batenaren ezberdin bada, bere kulturaren atal batzuk bederen hala izanen dira. Whorf-ek dioenez, hizkera ezberdinak errealidade kera ezberdinen pareko dira.

Honela herrien psikologia hizkuntza bidez iker daiteke, hots, gogo kategoriak zeinetara kodestutzen diren, bide horretatik. Antropologiari batentzat, beraz, mintzaira aztertzea kultur ikasketaren alde bat da: ez bakarrik hiztegiek gizasail baten barrenean aurki ditzakegun gauza eta ideien zerrenda ekartzen digutelako, gramatikak berriz horiek elkar-aditze sailean dadukaten taxumoldea; baizik eta hizkuntza gizarte egintzaren elementu dinamiko ere badelako: gizakiari ahalbide eta txandabideak eskuetaritzen dizkio besteengana nola zuzendu behar duen, horrela ondoerantzuna izan dadin.

Pertsona ezberdinen artean batbihurtze osoa eragiteko modu bakarra, kide guziei dagokien hizkera bederaren bidezkoa da; eta haiek egintza komun batean sarrarazteko era, kultura bategara nolako osotasunez egokituak dauden izango da.

3. Etniaren kontzeptua

Kulturaren ikasketa barrenean Kultur Antropologiaren helburuak behin ezarriz gero, gainera daiteke, hau beste elkarte

información (contenido): berrisail
transmitir: hurrengoenganatu (besteren-)
codificar: kodestatu
comunicación: elkar-aditze (komunikaera...)
modo de organización: taxumolde
posibilidad: ahalbide
alternativa: txandabide
identificación: batbihurtze

batzutatik kultur homogeneitasunez bereizten den gizarte elkargo baten pareko dela. Hala, etnia bat kultur lagunarte batekin da konparagarri, alegia, kultur era bat erabili eta garatzen duen jendesail batekin. Era honetara, eta oroz esaki, etnia delakoa gizateri batasun bat da, eta horren kideek kondaira komun bat eukitzeaz bategiten dute beren artean, besteen aurrean berriz bestelako kultura bat osatzen dutelako. Etnia, horretara, gure giza motaren kultura suerte bat da.

Batzuetan, gehienetan ez bada ere, halako etnia beste enda suerte bat gertatzen da ugartetua iraun duen neurrian, baina nekez aurkitzen ditugu iraganaldietan zehar beren bizikera bereziak aldatzeke gorde dituzten etniak. Era honetan, kondairaldetik inungo etniarik besteengandik aldentuta egon ez den bezalaxe, berdin baieza daiteke ez dela mintzairarik izan inoizko harremanik gabe.

Etnia, kultura ta mintzaira, bada, adikizun dinamikoak dira: horien osagaiak aldagarri dira noizean eta nunean, herri desberdinen harreman ondorioz batik bat, eta beraz horien bizikeretan jazotzen diren aldakuntza historikoen ondore bezala. Kondairari so, etniak aldatu egiten dira, gizakiak ere bai, eta horiek direla-ta, kultura.

Orain mende batzuk etnia batek erabili hiztegia aztertzen badugu eta gaur horren kideek darabiltenarekin erkatu, berorren zati dezente bat aldatu egin dela ikusiko dugu, taldearen bizikera ere aldatu bada. Horrelakotan uste izan daiteke, hizkeraren osagai iraunkorrenak besteen aldean fonetika eta gramatika diratekela, hemen —etnia taldearen beste kultur ikusalde batzuetako hitzez esateko— ekonomi sinboluen sistema nahiz ahaidetasun sistema izan daitekeenaren pareko osagaiak.

históricamente: kondairaldetik, kondairari so (...)
concepto: adikizun

4. Hizkuntzaren gizarte eginkizuna

Kultur Antropologiaren barrenean mintzairak komunikazio taxutuzko sistema esan nahi du, eta horren bitartez burutzen dituzte gizarte sail bateko gizakiek beren helburuetan haintzat daduzkaten pertsonarteko harremanak. Pentsatzen dut, adibidez, hizkuntza jende talde batentzat, kultura bat erdiesteko lanabes hainean adiera sistema bat ere baldin bada, garbi dagoela orduan zera, edozein sistema hizkuntzatiar denominatzaile komun antzera dela eta horri begiratzen diotela, elkar ulertzeko, kulturazko lagunarte baten kideek. Lagunarte hau sozializazio prozesoez, hots, gizarte jokaera egokiaren ikazteaz barnelotzen da estu.

On da hizkuntzaren ikasketa, talde baten kultura —bere baliokak barne— nola jokatzen den zehazteko. Bere aukerarik funtziozkoenetan, hizkuntzak zeinetan nola, eragotzi nahiz alda egin dezake egintza, inork honelako edo halako ez duela esan behar pentsatzen duenean esate baterako, era honetan solaskidearen haserrea saiestearren. Hizkeraren bitartez jasotzen ditugu gu nola portatu lehenengo ideiak, eta horretara etengabe apailatzen ditugu horiek kontzeptu berrien hatzimateaz nahiz lantzeaz. Hizkuntza, hala, ingurumariari egokitzeko bidea da eta kultura baten taxuera sistemaren barrenean kokatzeko modua. Etnia talde bakoitzak bere bizitzari damaion zentzua islatzen du, bada. Ikuskera honetatik, Kultur Antropologiarentzat etnia, talde baten mintzaira aldaketentzat sistema ireki izan, haren kultura ere hala den neurrian da sistema ireki.

Horregatik hain zuzen hartzen du esku mintzaira bakoitzak gizakiaren heziera arloan. Batberaren taldean erdiesten da eta

lingüístico: hizkuntzatiar

denominador común: denominatzaile komun (komun denominatzaile?)

cohesionar: estu barnelotu

medio ambiente: ingurumari

gizaki batek besteekin bategiteko modu bat da. Hizkuntza baten haziera, honela, kulturaren hazieratik bereziezina da, biak, mintzairak eta kulturak, islatzen bait dute elkar erarik lotuenean. Lehenengoari gerta dakiona gertatu izango zaio besteari ere. Horien gorabeherak aldi berekoak izango dira, eta zerezko fenomenuak barneramango dituzte, erdiespen, eraketa, bilakaera, adaptatze ta bir-taxuera fenomenuak; hori horrela, ezin mintzairarik izan daiteke kultura baten laguntzarik gabe.

Bestalde, jatorrian bat izandako hizkerak lengusu ager ba-daitezke ere ez dira derriorez berdinak izango beren historiako haziera une jakin batean horiek hizketatzen dituzten herri edo etnien bizikerak. Hau oso argi dago zenbait etnia eta naziotan pentsatzen badugu, herri indoeuropar izenpean biltzen diren horietan, nahiz atapaskano deiturapean, Iparramerikako zenbait leinu indijaiori gagozkiolarik.

Arrazoi hauen harira, Kultur Antropologiak giza talde baten mintzaira, haren kulturaren adierazpen garbitzat ikasten du. Hau besteratzten bada, gizarte egokierak ere besteratu eginen dira, eta hauekin hizkuntza bera, behin esan, gizaki talde baten pentsamoldea aldatuko da. Aldatze honek dakar berekin hizkuntza eta kultura elkarren eragile direla; horretara gizon batek munduaz ukan dezan ideia, bere hizkeran eta bere egintzan islatua egongo da. Halakotan, hiztegiak kultura bateko erdikideen gizarte esperientziari dagozkion ikusalde eta zergauzak nabari araziko ditu.

Zentzu honetan, etnia baten mintzairak bere kulturak harre-razten dion histori mugimendua daduka, berea nahiz besterena izan lehenekina; horrela asmakari berri bat agertzen bada, edo

reorganización: bir-taxuera
indígena: indijaio
causas mutuas: elkar eragile
aspecto: ikusalde
objeto: zergauza
iniciativa: lehenekin

industriola berri bat, edo politika instituzio berri bat, mintzairak hiztegiaren ugaritzea errekistatuko du, eta erabiltzen ez direlako, makina zaharrak izkutatzen badira, beroiekin batera izkutatuko dira legezkatzen zituzten hiztegiak. Hauzia, ikusten dugunez, kultur kontzeptuen histori funtzionaltasun erlatibuzko bat besterik ez da.

5. Hizkuntzabitasunaren begirakera antropologi arazo bezala

Une honetara helduaz gero, zer zina dezake hizkuntzabitasunak kondairaldetik ezberdintzat definituriko kultur edo etnia kontestu batean, beste etnia baten edo batzuen kontestuekin alderatzen badugu?

Funtsean, hizkuntzabitasuna zenbait ertzetatik ikas daitekeela onar daiteke, beste batzuen artean, fonologi, semantika nahiz estruktura ikusgunetatik, baina baita gizarte kultur aldaketaren ikusgunetik ere, eta sikologiaren edo nortasun estrukturaren gain dituen eraginei dagokienetik. Eta politika ikusgunetik bertatik ere bai, honek halako mintzairak beste baten gain dagien bortxa instituziotua idaroki dezakeen bezanbatean, hizkera bat bestearen onetan menderatzeko, kentzeko nahiz ahultzeko politikei jarraiki.

Hizkuntzabitasun bezala, politika eta gizarte kontestu baten barrenean bi mintzairaren txandazko erabiltzea hartzen dugu, harek kultura biren nahiz gehiagoren guti edo asko elkar trukagarri den esperientzia barne duelarik. Hizkuntzabitasun honek esan nahi du bi kulturetatik bat duela hiztunak berea edo jatorrizkoa, eta horretatik bestea politika gertakari batek ezarria duela. Kasu horretan,

instalación industrial: industriola

registrar: errekistatu

funcionalidad histórica relativa: histori funtsionaltasun erlatibu

significar: zinatu

punto de vista: ikusgune

intercambiable: elkar trukagarri

hizkuntzabitasuna funtziozko erdiespen bat da, balio duela alegia komunikabidetarako, elkar aditu ahal izateko hizkuntzabidun izan behar duten —etnia talde batek behinik behin— kulturetako giza-kien artean. Zentzu honetan bi hizkuntzetako bat politika paper nagusia jokatzeko duen kulturarena da.

Beste hizkuntzabitasun gisa bat eskoladunen edo unibertsidade giroko taldeetan erabiltzen dena da, hedadura kaskar eta nazioartean entzute txikiko mintzairak dituzten gizarteetako talde horietan erabilia. Hauxe gertatzen da Eskandinabiar herrietan, haietan usu bait da guziz hizkuntzabitasuna, oinarri bezala nazio mintzaira edukiaz eta nazioarteko harremanetan txandazko, ingeles, frantses nahiz aleman hizkera. Honelakoan, hizkuntzabitasunak etnia baten irudia damaigu, hala nahirik eta hitzal handiko izateaz bat jotzen duelako, atzerri mintzaira baten beharra beretzen duen etniaren irudia.

Hau, zentzu pragmatikoan, tresnazko hizkuntzabitasuna da, onartzen dutenen gizarte eta ondorioz kultur komunikaeraren barrutia zabalagotu egiten bait du. Baina ez darama berekin, kasu horretan, hizkuntzabitasuna harrerazten diharduen beste etnia bat han izatea, eta honela ez dago halako egoeretan politika liskarrik. Hizkuntzabitasunaren egitura, horrela, bakezkoa da. Nahi izate eta egokitasun bereziak ditu berekin tresna betebeharreran.

Inork, bere hizkuntzaz gainera, beste mintzaira bat beretzen duenean, instituzioturiko bortxa bategatik edota etnia bi edo gehiagoren artean batek norbere kulturarentzat kanpotar den agintaritzan oinarritutako politika paper nagusia jokatzeko duelako, horrelakotan hizkuntzabitasunak liskar antza dakar, bere hastape-

bilinüismo instrumental: tresnazko hizkuntzab.
conflicto: liskar
en función instrumental: tresna betebeharreran

nean menderatze jokabide baten ondore bait da mintzaira bietako bat darabilen etniaren aldetik.

Beste egoera bat, kulturantzindun lurralde baten barrenean mintzaira ezberdinak hizketatzen dituzten etnia batzuen izan daiteke, bide batez bateratua dagoelarik ordea lurralde hori, ez guneko kultura baten inguruan bakarrik, baizik eta hizkera komun baten inguruan ere bai. Hau gertatzen da USA Laterri Batuetan, haietan etnia desberdintasun handia aurkitzen bait dugu bakoitza bere jatorrizko mintzairarekin, beste batzuren artean esaterako, italiara, polakera, espainera, japoiera, alemanera, txinera eta beste hainbat etnia minorien gainerako ordezkariak, beren bizitza lurralde hartan zertu eta oinarritzko edo angloamerikar nazio kulturak irentsirik bukatzen direnak.

Zentzu honetan hizkuntzabitasunak, gero eta haratutako etnia minorien antzeratze handiagoa agertzen du angloamerikar kulturarekin, eta bestalde elkar adierazbide bat esan nahi du, gizarte erabilizko mintzaira baten erdiespena beharrezko den neurrian. Kasu horretan, ingles hizkeraren erabiltzea ez da angloamerikar kulturaren antzeko bihurtzea bakarrik suertatzen, baizik eta Iparramerikako gizartearen barrenean kokabide ere suertatzen da, eta horrek inguratzen dizkio gizaki eta etnia talde inmigratuari gizartean norbere izaera burutzeko aukerak.

Beste era batean daude Laterri Batuetako indiarrak, hizkuntzabitasun arazo hau menderatze politika gertakariaren argitan ikustatzen dugunean. Laterri Batuetako indiar talde bereziek beren hizkerak dituzte, eta hauek angloamerikar kulturaren formez bes-telako bizikera batzuen haziera historikoari dagozkio. Ez dago zalantzarik harek honen gain duen teknologi eta zientzi nagusitasunaz, eta ingleseraren aurrez aurre hizkera indijaio baten jabe

pluricultural: kulturantzindun

idioma de circulación social: gizarte erabilizko mintzaira

medio de integración: -an kokabide

izateak gizakiari gizarte mugimendurako damaion nolabaiteko gaitasuna ikusi nahi bada, zera ezin zalantza daiteke, aitatu nagusitasun hori jakintzazko izateaz gainera gizartezkoa ere badela. Baina ezta ez dago dudarik indijaiotako etnia bakoitzak baduela angloamerikar etnia nagusiaren aurrez aurre moral jauntasun bat, haren bizia europarrak tarteko aurkitu bait da potegina bere haziera eta baieztatzean.

Laterri Batuetako indiarrek hizkuntzabitasuna hartzea, menderazio egintza bati —kulturazkoa bederen— oneriztea haina gertatzen da haientzat, hizkuntzabidun izateak Iparramerikako nazio kulturaren aldetik indijaioen apurkako iruntsitzea berekin dakarren neurrian. Indiarrek inglesera onartu eta hizkuntzabidun izateak esan nahi du berenaren bestelako mintzaira bat hartzen dutela arrazoi zenbaitegatik: a) horren itzal handiagatik, b) gizarte ibilirako gaitasun handiagoa eskuratzen duelako, eta d) kultura nagusienak status igotzea ernarazten duelako.

Hizkuntzabatasunetik bitasunera igarotze zoriak, kasu honetan, honelako zerbaite edo agerrarazten du: haziera ahalbiderik ez duen, bere egin ahaletan okildurik dagoen kultura batetatik, kondaira une honetan, horren aldean ahalbiderik handienak daduzkan beste kultura batetara igarotzea. Ideiainguru honetan, hizkuntzabitasuna onartzerakoan indijaiok ordaintzen duten prezioa, beren kultura eta geroari begira etnia baieztapena gutxika izkutatzea haina da.

Bestelakoa izango litzake gertaera, indiarren kultur haziera maila anglotarrenaren parekoa nahiz goragokoa balitz. Honela izanaz gero, anglohiztunen zenbaki handiagoa ez litzake faktore erabakitzaile izango, prestijio faktorearen nagusitasunak buru emango bait lioke, nor beretara joaz eta bere kultur sistemare-

contexto (de ideas): ideiainguru
hablante: hiztun

kiko konfiantzak gizakiari eta taldeari damaion autobaiezteko gaitasuna aukeratuaz.

6. Hizkuntzabitasuna funtziozko txandaera bezala

Perspektiba honetatik, hizkuntzabitasunak zenbait txandaera eta funtzio idarokitzen duen fenomeno bat adiarazten du. Hauetamen uztai edo kondairaz ezberdin diren egitura abaniku baten barrenean dago sartua. Zalantza ezinekoa da gertakari historiko berezia osatzen duela eta konbinazio desberdinak dituzten variableen ondore bezala tratatu izan behar duela. Ez dago ezbairik, hala ere, gizaki eta herri ezberdinen artean gero eta handiago diren gizarte harremanen arabera, hizkuntzabitasuna premia bat bihurtu dela hautaera sail baten barrenean ase beharrekoa, eta hautaera horien erabaki hartzea gizakiari eta gizarte taldeei dagokiela, beroien nahiari eta kultur beharrei jarraiki.

Korapiloa zerean datza, politika baldintzak hala nahitako hautamena egitea laketzen duten ala ez. Erabakia libreki hartzen bada edo komunikazio-, informazio- eta gizarte-zirkulazio maila handiagoa adiarazten duten kultur interesen arabera hartuz gero, orduan hizkuntzabitasunak ez du liskar gogorrik berekin, onartu duen talde edo gizakiarentzat; baina politika istituzio bidez ezarria bada, orduan problemasail berezia azaltzen da: agintaritzaren eta kontzientzia asaldatuaren arteko liskarrei datxekena. Hemendik sortzen da gizarte beharraren aurrez aurre moral zilegitasunaren galdera. Hori dela-eta, liskarra azaltzen da kultura biren artean: bere burua alienatuztat eta pot egindakotzat dadukan kulturaren, eta kondairakiko eginkizun eta batasun mistikak zuzeneztatu ustetan diharduen beste kulturaren artean.

autoafirmarse: autobaieztu

alternativa: txandaera

problemática: problemasail

conciencia resistente: kontzientzi asaldatu

Liskar hau are ta gogorrago da, zenbat eta argiago izan zer honen kontzientzia, norbere kulturak ezer gutxi duela ikasi edo hartzekorik, zein kulturaren mintzaira harrerazi nahi den, haretatik. Horrelakotan prestijio zer horiek paper garrantzitsuagoa jokatzen dute, bi etnien artean gizarte elkar-aditzea errazteko premiak berak baino. Etnia hauek antagoniko bihurtuala, hizkuntzabitasuna bortxazko esperientzia bilakatzen da istiluan dabilten gizaki eta etnia taldeentzat.

Dena dela, hizkuntzabitasunak berekin bi etnia edo kulturen izatea dakarrenean politika, ekonomi eta gizarte berdintasunezko arako muga batzuen barrenean elkarrekin bizi direlarik, ezin har daiteke hori garrantzizko arazo bezala liskarraren ikusgunetik. Hala da ordea, aurretiko bezala ordainezko kontrapartidarik ez dadukan menderazio egintza bat duenean. Orduan hizkuntzabizko egokiera bortxaren agerbide gertatzen da, eta honek kontraegiteko ohituren eta adimen ohitura konpongaitzen sortzera eramán dezake, eta batez ere esistentzi dikotomien agertzera.

7. Hizkuntzabidun gizarte biziera

Hizkuntzabitasunari, adimen esperientzia denez, norñasunaren aberasgarri eritzi dakiok, honek aldearez bere izaera zermugatu ahal izan duenean eta estu barnelotu edo era konpongarriz baieztatu denean, hau da, bere hazieran beste kultura baten egitaraua tartekatu ez denean. Orduan esperientzia aberasgarria da, beste hizkera baten erdiesteak —gizakiak kulturaz osaturiko norñasun bat mamitu ondoren— konfiantza emateko balio duen neu-

dentro de relativos límites: arako muga batzuen barrenean
antecedente: aurretiko
incoherente: konpongaitz (elkar?)
definir: zermugatu
coherente: konpongarrri (elkar?)

rian, goratu egiten duela eta informazio maila eta zabalagotu komunikaziorako eta beraz giza bizitza ulertzeko gaitasuna.

Esperientzia aberastzaile honek esanahi txikiagoa ez duen beste alde bat ere eskaintzen digu: beste mintzaira bat lortzeko batek jarraitu duen bidea, kulturatze prozesuaren pareko dela, hots, nortasuna egokitzeko sisteman aldaketen gertatzea. suposatzen duela. Eta horrela, kasu batzuetan aberasgarritzat har daitekeenak, beste batzuetan anomiarra eraman dezake, batez ere honako gertakari hau hautematen badugu, gizakiak nortasun bikoitz baten onartzera bultzatua ikus dezakeela bere burua, elkarren artean kontzeptu ezberdinen tankeran gurutzatu eta elkar joaz diharduen bi kultura desberdinek agertzen duten nortasunaren onartzera.

Dramatikoago gerta daiteke hori, gizakia eta horren taldea beren kultura zernolarik gabe nahastu beharrez aurkitzen direnean mintzairazko erdiespen eta instituzio egokiera formalen antzpean, horiek gizakiari bere taldean nahiz beste batzuetan lekutzeko gaitasuna gutxitzen diotelarik. Behin esan, nortasuna hizkuntzabizko esperientziaz aberasten bada ere, nahaspilatu egiten da ordea, esperientzia hau goizegi eta bortxaz, hots, haurtzaroan datorkionean, artean bere adaptazio loturak, munduarekin konpangarri den era batez inoratzen lagunduko dioten horiek, zertzen diharduelarik.

Formalki instituzioturiko edo bortxazko integratze gisa hau gizakiaren ohinarrizko nortasun egiturarekin behatzen da, hau da, norbere familia eta etnia sozializatze prozesuan zehar eraikia izan den harekin, prozesu hori beraz instituzio egitura formaletatik ezartzen zaiolarik. Anomia bi kultura gurutzatuen kide ardizka izatean datzake, eta horien estruktura edo elkarketa

proceso de aculturación: kulturatze prozesu (?)
incoherentemente: zernolarik gabe
orientarse: inoratu

ardo eta olio osagaiez eginiko irudi baten antzeko izan daitezke, beren nolatasunetan berezi elkar irauin, baina aldi berean unidade askatuz, autonomuz nahi bada, jardun, beren izakera erdigaldua berriro osorik hartzeko saiatsen direla. Irudi hontaz aditzera eman nahi da kultura bakoitzaren erdizkako biziera bat ikustafzen dugula, horietatik alegia ezeinek ere ez duela osoki bere izaera baieztatuko.

Alabaina haren funtzionamenduaren bidegabetasun hau bere jokaeran islatua agertuko da berebat: olio eta ardo orbanak, beren artean bananduz gero, metastasi baten osagai bezala azalduko dira, metastasi horren luzapena, beste tasun kontrario batzuk tarteko, etenda aurkitzen delarik. Bi kultura gurutzatu, bada, bi pentsamolde gurutzaturen pareko dira, pentsamolde harremanik gabeak komunzki, norabideratzean eta segurantzian senean zalantzazko nortasun antzez agertzea berezitasun dutenak. Kulturin-guru bereiztaile honen barrenean gertatuko da, norbaitek beste hizkuntza bat hartzen duen bitartean, beste jarkera eta jokabide batzuk ere hartzen dituela.

Beste mintzaira bat hartzetik jaiotako arazoek gizakiaren nahiz taldearen larritasun maila desberdinak isla ditzakete:

- 1) Atzerazia izango ote den bildurra; onartuko ez ote duten bildurra; bere burua huts egina ikusiko ote duen bildurra.
- 2) Nahigabea, nortasuna erdibituta eta gaizki osatua egoteak dituen alde txarreatatik; txandaka bi kulturez, edo berdina dena, bi mintzairerik baliatzea beharra legetariko bortxa sistema baten barrenean; norta-

cualidad: nolatasun

incoherencia: bidegabetasun (konpongaiztasun?)

orientación: norabideratze

contexto (cultural) diferencial: kulturinguru bereiztaile

sistema de coacción formal: legetariko bortxa sistema
acomplejarse: okildu

sunaren okiltzea, formal egoeretan gezurrez eta itxuraz integratetik datorren segurantzi ezagatik; aukerazalekeriaren ugaritzea, gizarte eginbide bezala.

- 3) Ohartuzko eta ohargabeko erresuminak edozein agintaren aurka, desiratu edo aukeratu ez den kultura nahiz hizkuntza bati egokitu beharrak gizakiari matxinada lehia indartsu bat emateko balio duelako; jarkera eta santimendu maltzurren hazibidea, beste kulturarekiko abegion zentzua galtzea haina direnak, *statu quo* hura itxuretan onartuaz; eta bihotz mugidaz lehenera itzultzeko gurari sakonaren bizkortzea, hura berez oraingoa baino behezagoko kultur eredu bada ere.

Horrela, kultura nahasi edo gurutzatu baten eratzeak halako nortasun baten haziera ekartzen du gizarte iheskeriarako tresna indartsuz hornitua; horien artean sartzen da norbere egokiera bideetan konfiantza galtzea, bai eta gauzez izate sentimendutik eta nork bere inguruaren kontrolbideak aski menderatzen ez dituelako ustetatik bizi diren jarkera batzuen haziera. Izatez eta egitez, horrelakoetan zera gertatzen da, *ni*-a integrazio ezaz dela min, edo oinarrizko ahuleria baten inguruan osatzen dela; ahuleria horrek gertakari hau du iturri: batberaren etnia taldeko kulturaren sozializatzeko kale egin diola, hura beste kulturaren gizartekotzeko ere huts egin duen bezalaxe.

Ustel gertatze hori beste kulturaren sistemazko interferentzien agertzean etzanik izango da ezarrizko instituzio eran azaltzen delarik, eta horien artean hizkuntza izango da adimen-indar hon-

oportunismo: aukerazalekeria
consciente, inconsciente: ohartuzko, ohargabe
medio de evasión social: gizarte iheskeriarako tresna

datzaile ta bide batez, beste kulturaren gaitasun bereziei beti egokitzen ez den informazio. Beste potegitea, egunoro aldi berean bi kulturez baliatzen datorren eragozpenean datzake, bietako ezinetan zeharo lekutu ezin daitekeelarik.

Baldintza horiekin, adaptazio adimenaren hazierak beti gaituko du adimen sortzailearen haziera. Baldintza horietan, bestalde, nortasunaren egitura bi hautapenen artean kulunkatuko da, agintaritzaren aurka jeiki ala hari gezurrez menperatu. Baina edozein eratarata ere, nortasun egitura barne-ezaguera batek zapaldua egon daiteke, indarberritzeko aukerarik gabe porrokatua izan delako ezaguerak.

Hizkuntzabitasuna, hortaz, eta zein histori heinetan agertzen den, aberasgarri da nahiz porrokatzaile; eta kultura modernu orotan gizakiak, bere gizarte komunikaera eta mugikortasun barrutia zabalagotzearen, bereaz gainera beste mintzaira bat erabili behar izatez aparte, badaezpadako gertatzen da egokiera prozesua beste oinarrizko hura burutu baino lehen: batberaren kultura erdietsi.

Horrelako zirkunstantzian hizkuntzabitasuna nortasunaren txirotzaile azaltzen da, nortasun hori honetara begiratzen dugunean, ez dela osoki garatu bere erreferentziazko pondu edo kultur lokarri berezko dituen haietan. Hizkuntzabitasuna, horrela, ispilu aurpegi aldatzaile baten antzeko bilakatzen da, inor izkuta dadin balio duelarik ere, ostera badaezpadako eta liskar biztzaile baita da norbere izaera osatzeko erabaki aldetik. Era honetara, onuragarri suertatzen dena ez da beti nortasunarentzat homeostasis

frustración: potegite (huts eman, kale egin...)

integrarse: -an lekutu, kokatu

situación: hein

movilidad: mugikortasun

problemático: badaezpadako

conflictivo: liskar piztzaile

gertatzen dena. Hauzia zerean egongo da beti erdiratua, hizkuntzabitasunaren nolakoan, noizean eta zergatian.

Euskeratzaile: **jose luis zurutuza**

Bibliografia: ikus daitezke

ANDERSON, N.: 1969 *Studies in multilingualism*. Leiden, E. J. Brill.

FISHMAN, Joshua A., y Otros: 1966 *Language loyalty in the United States*. The Hague, Mouton.

HOUIS, Maurice: 1971 *Antropologie linguistique de la Afrique noire*, Paris, P.U.F.

WEINREICH, U.: 1963 *Languages in contact*. The Hague, Mouton.

centrar: erdiratu
incluir: barneraman

HIZKUNTZABITASUNA, GIZARTEA, PERTSONA

jose a. aduriz

Bilinguismoaz aritzekoan (1), ohartarazi beharra dago estudio zientifiko orokar baten gabezia. Baina psikologiari edo pedagogiari bilinguismoak planteatzen dizkien problemak gaurkotasun eta interes bizi-biziak dituzte. Saiakera hau ez dator problema horiek garbitzera, prablema horien nondinorakoa agertzera baizik. Lehenik, hizkuntzabitasunaren alderdi teorikoa aztertu nahi du eta, gero, fenomenu hori pertsonarengan nola zertzen den ikusi.

BILINGUISMOAREN ALDERDI TEORIKOA

1. Bilinguismoa eta gizartea

Hizkuntzak funtzio bikoitz bat betetzen du giza bizitzan: pentsamenduaren eta barne bizitzaren oihartzun da batetik eta, bestetik, pertsonaren izaera soziala posibletzen du.

(1) Lan honen iturria Miguel Siguan Barcelona-ko katedratikoaren txosten argitaragabe bat da. Laburpena eta itzulpena Jose A. Aduriz-enak dira, eta berai da hemen esaten direnen erantzule (Zuz. Oharra).

Baina giza harreman hauek eskatzen duten betetasuna lortzeko ez da aski hitzegitea, hizkuntza berdinez baliatzea behar da: hizkuntza kidetasuna nahitaezko da gizarte kidetasunerako. Honek gizadi osoa hizkuntza batez mintzatzea eskatzen du... Errealidadea horrela ez doalarik, gizarteak zatikatua behar luke egon...

Hizkuntzabitasunari esker, ordea, orainarteko eskema eraberritu egiten da. Hizkuntzabidunak, bi hizkuntza dakizkielako, posibletzen du elkartu ezineko bi pertsona, edo bi giza talde, elkar lotzea.

2. Definizio bila

Baina, zer esan nahi du *hizkuntzabidun* edo *bilingue* hitzak? Labur esan, hizkuntza arrotz bat ulertu eta erabili ahal izatea, eta, bereziki, gauza bera bi hizkuntzatan *pentsatu* ahal izatea: mezu bat bera kodigu desberdinetan ager dezakeen pertsona, alegia.

Ikus daitekeenez, mezua hizkuntzarekin bateratu gabe daduka hizkuntzabidunak; pentsamendua eta hizkuntza ongi bereziak dira, beraz. Nahiko problematikoa da arazo hau, eta itzulpenaren zailtasunari begiratzea aski da hontaz konturatzeko: hizkuntzabidunak posibletzen du itzulpena, baita honen mugak azaldu ere; egin ahal daiteke erabateko itzulpen lan bat, ala guti gora beherako zerbait da beti? Hizkuntza, izan ere, ez bait da logika hutsa: kultura baten gurdia da, nortasunaren, harreman pertsonalen eta gizarte integrazioaren oinarria.

Hizkuntzak, beraz, zerikusi handia du pertsonalidatearen haziketan eta estrukturatzean. Nola gertatzen da hau hizkuntzabidun batengan? Hizkuntzabitasunak nola ukitzen du pertsonalidatea? Hona, erantzutea psikologiari —inori izatekotan— dagokion galdera garrantza...

Hizkuntzabiduna, hizkuntzabakardunari kontrajarriaz definitu

behar da, hortakoz. Hizkuntzabakarduna hizkuntza bakarra ezagutzen duena da eta egoera guzitan bakar hori erabiltzen duena. (Honek ez du esan nahi osoki ezagutzen duenik, bere premitarako aski duela baizik).

Hizkuntzabidunak, berriz, bi hizkuntza ezagutzen ditu eta *edozein egoeratan erraztasun berdinez* erabiltzen. Definizio hau, noski, muga bat da (“bilinguismo akabatua”) eta ez da sekula egiztatzten: hizkuntzaren bat nagusitzen da beti. Honen kontrako muga, berea ez beste hizkuntza bat ezagutzen duen hizkuntzabakarduna da: beste hizkuntza hori eskolan ikasia du, ez harreman pertsonalen baitan, eta egoera zehatz edo jakinetan erabiltzen du: irakurterakoan, bulegoan, etab.

3. Bilinguismo motak

Aipatu berriak ditugun bi muga horien artean mailadi luze bat dago. Mailak zehazterakoan, koantidadeaz nahiz koalidadeaz balia gaitzke. Koantidadezko berezkuntzak (hizkuntza bakoitza zenbat ezagutzen den eta zein proportzotan erabiltzen den) intergarriak izanik ere, motx samar geratzen dira. Askoz baliagarriagoa da tipologia bat aurkitzen saiatzea, nahiz-eta tipologia orokarra ezinezkoa dela jakin.

—**Gizabanakoa (edo familia) hizkuntza testoiinguru arrotzean:** adibidez, Alemanian bizi den euskal familia bat: han jarraituko badu, alemanera ikasteari esker —hots, bilingue gertatzeari esker— jarraituko du.

—**Taldea hizkuntza testoiinguru arrotzean:** euskal familia hori beste euskaldunekin topa daiteke, eta elkarrekin talde berezi bat osa dezakete: bilinguismo egoera bat sortzen da inguru sozial monolingue batetan.

—**Gizarte inguru hizkuntzabiduna:** New York-en bizi den puertoricotar taldeak, aurrera nahi badu, ingelera ikasi beharra daduka;aldi berean, den multzoagatik bakarrik, inguruko hizkuntza-jokaera aldaerazi egiten du. (Gaur eguneko exenplu bat da hau,

baina historia honelako nahastez horniturik dago, eta nahaste horien fruitu da Canadako, Suizako, Beljikako, etab. bilinguismoa).

—**Familiako hizkuntzabitasuna:** orain arte familia, batasun bat bezala aipatu dugu, gizabanakoaren pareko; baina familia bera ere hizkuntzabiduna izan daiteke eta, areago, bilinguismoaren sortzailer: aitak eta amak, esaterako, hizkuntza desberdinak erabiltzen dituztenean.

4. Bilinguismoaren eratzaille sozialak

Adiarazi dugunez, eskualde batetik bestera asko alda daiteke bilinguismoa. Baina, gizabanakoei buruz esan dugun bezalaxe, klasifikazioa ezin da kantidadeaz bakarrik egin.

Lurralde hizkuntzabidun batetan, situazio bakoitzean, hizkuntza bat ala bestea erabiltzeko joera nabari da. Aukera honen funtsa ez datza beti pertsonarengan; gizarteak ere agintzen du zenbaitetan, hizkuntza bakoitzari betebeharrakinak, itzal desberdinak emanaz: hierarkia zehatz bat osatuaz, alegia.

Bilinguismoen arteko desberdintasunaren eragile nagusiak (ez denak, noski) hauk dirake:

Eragile politikoa: inperialismo eta kolonialismo mota guzietan bilinguismo bat sortarazi dute, kolonizatzaileen hizkuntza kolonizatuenaren gain ezarriaz. Kolonizazioaz kanpo, aspaldidaniko hizkuntzabidun erresumatan ere, hizkuntza batek eraman ohi du abantaila, erresumaren politika joerarekin bat datorren hizkuntzak, noski. Erresuma guzietan gertatzen da nolabait zentralismo linguistiko hau. Horrela, bilinguismoaren exenplurik arruntena, hizkuntza ofizial batek eta eskualde-hizkuntza batek osatzen dutena bilakatu da.

Eragile ekonomikoa: Mailaketa ekonomiko-sozialak, kasta sistema bat eratzeraino iristen ez bada ere, gizona baldintzapeturik daduka. Politika aldetik ahulen agertzen den taldea, sozialki ere apartatua, segregatua ageri da edo, behintzat, maila apalago batetan. Ikus, esaterako, indioak Ipar Ameriketara, eskualdetako hiz-

kuntzak mintzaira ofizialaren aurrean eta, argiago, emigranteen egoera...

Eragile kulturalak: normalki, lurralde batean bizi diren bi hizkuntzek ez dute kultura aldetik oihartzun berdina. Ez da kulturalki aberatsena beti nagusi izaten, baina beti dago halako tentsio bat bien artean.

Agertu dugun liskar egoera hau adiarazteko *disglosia* hitza erabili ohi da, bilinguismo akabatuari kontrajariaz. Bilinguismo akabatu hau utopia hutsa da, Siguan-en ustez; eta bi hizkuntza elkarrekin bizi direnean, beti agertzen da nolabaiteko borrokaren bat.

BILINGUISMOA ETA PERTSONA

1. Bilinguismoa eta adimen desarroiloa

Bilinguismoak, adimen haziketarik so, oinarri hau du: haurra, hizkuntza bat ikasteko behar duen aldi berean, beste bat ikasteko gauza da; hasieratik, gauza berdinak izendatzeko hiztegi bikoitz bat ikasteko kapaz da, baita hitzak erlazionatzeko oinarri estruktura desberdinen jabe izateko ere. Eta guzi hau, hizketan hasteko atzerapenik nabarmentzeke.

Honek zera adiarazten du; bi hizkuntzatan mintzatzen moldatzeak ez duela haurraren aparteko entelegurik eskatzen, ez hasiera batetan eta ez gerorako desarroiloan.

1920. hamarrekoan —artean gaur baino harrera epelagoa zuen bilinguismoak— hizkuntzabidun haurren adimena hizkuntzabakardunena baino makalagoa zela frogatzen zuten esperimenduatze batzuk oso ezagunak ziren: Gales-tar haur hizkuntzabidunak ingelera-zko hizkuntza bakarrekoak baino enteleguz ahulagoak zirela jakinarazten zuten test batzuek altxatako erbia zen han zebilena. Gaur, ordea, beste era batera irakurtzen ditugu atze haiek berak.

Alegia, adimen test hauek gaitasun hutsa neurtzen dutela suposatzeko joera nabari bada ere, sozial eta kultura aldetik baldintzatuak daudela. (Eta joera hau zen nagusi test haiek arakatzera-koan). Egia, horregatik, besterik da: Gales-tar haurrak ez ziren adimen apalagokoak, beren nekazaritza egoerak eratzen zuen kultura eta ingeleraren ezagupen motxagokoak, baizik.

Test haiek altxatako hauzia bere ponduan uzteko —eta gure arrazonamendua ez gehiegitzarren—, konklusio hau presta daiteke: ez dago frogaturik bilinguismoak adimen desarroiloa atzeratzen duenik.

Gaur egun, kontrako gannua indar hartzen ari dela dirudi: haurrek, tipi-tipitatik, atzerritar hizkuntzaren bat ikastea eragin nahi da, saiatze lanak adimen haziketari mesede egiten diola-ta. Baina, hemen ere, zientziak lehenagoko erantzun bera damaigu: frogatzeko dago. Halare, zihur gara tipitandiko hizkuntzabidun haurrek ez luketela inolako atzerapenik ukanen beren adimen haziketan; eta, areago, diferentziarik gertatuko balitz, nolabaiteko aurrerapena izanen litzakela.

Honek ez du esan nahi hizkuntzabitasunak giza desarroiloari ondoriorik ez dakarkionik, ez eta hauek negatibuak izan ez daitezkeenik. Hona horietako batzuk:

- Bilinguismoak adimen desarroiloa mugatzen ez badu, heziketa linguistikoa aldatzen du, eta gehienetan kaltetarako.
- Ikasketa guziak hizkuntza batean oinarritzen direlarik, bilinguismoak edozein ikasketa kaltetarako molda dezake.
- Bilinguismoak, eta honen sortarazleek (familia, gizartea, kultura) partehartzen dute pertsonaren heziketan, zalantzarik gabe, eta kalte iturri izan daitezke.
- Esan dugunaren arabera, haurraren enteleguak bi hizkuntza ikas ditzake batera; gerta daiteke, ordea, haur bat adimen motxekoa izatea (**débil mental**) eta bilinguismoak adimen hori heretsidura batetaratzeara...

2. Bilinguismoa linguistikatik begiratuta

Haurrak bi hizkuntza behingoan aisa ikas ditzakela esatea, ez da hizkuntza horietako bakoitza hizkuntzabakardun batek bezain ongi ezagutzen duela esatea. Hizkuntzabakardun hau ala hizkuntzabidun hura den abantailagarriago gizarateak erabakitzen duke. Diferentzia ez bait datza hizkuntzaren ezagutze mailan, besteek ezagun dezan espero duten mailan baizik.

Baina aintzin ohar honek adiarazten duen problema —eta polemika— agertu besterik egin gabe, bilinguismoa mugatu eta honen ondorio linguistikoak ateratzen saiatu nahi dugu.

Bilinguismoak, sorrerari so, bi mota ezagutzen ditu: segun hasieratik eta batera ala bata bestearen ondoren ikasten diren hizkuntzok. Edozeinetara, bi hizkuntzek referentzia koadro desberdinak ukanen dituzte, pertsona edo inguru desberdinei lotuak egonen dira: esaterako, bata amari eta bestea aitari, edo bata familiari eta bestea gizarte bizitzari. Beraz, testoinguru berezietan ikasiak izan dira, egoera desberdinetan erabiltzen dira, eta sarritasun eta sakontasun desberdinez...

Guzi honi argi ikus daitezkeen ondorioak darraizkio, linguistikaren ikusguneetik. Hona batzuk.

a) Hizkuntza nagusia

Pertsona batek, hizkuntza bat erabiltzen ohitu ondoren, beste bat ikasten duenean, bigarren hizkuntza honen berezetasunak lehenengoarekin erlazionatuz —nahiz bien arteko antzez nahiz osteratasunez— ikasten du. Baina lehen hizkuntza haren “abantaila” ez da gramatikara mugatzen: hitzagin ez-ezik, haurrak haren bidez pentsatzen du. Honela, lehen hizkuntza nortasunaren hizkuntza da; eta bigarren hizkuntzaren usoa nagusitzen denean, lehen hizkuntzaren eginkizun berezia galtzeko arriskuan aurkitzen da.

Batzutan, izan ere, aldaketa hori gertatu egiten da. Hizkuntza nagusia ez da, beraz, lehenen ikasi —*amarengandikoa*— bizitza guzira. Askotariko zoriak direla-ta, hizkuntza nagusia trukatzan duenik bada, Trukaketa haroa nahitaez geldia da, eta prozesoa zehar erdi-bideak aurki daiteke. Bilinguismo jator edo akabatu horren erdi-bideak aurki daitezke, baita, hizkuntzaz aldatzeke, beste hizkuntza bat berea haina erabili beharrean tokatzen den pertsonarengan: bi hizkuntza noiznahi eta erraztasun berekin erabil ditzakeenarengan, alegia. Dena den, kasu hauk espezio dira nabariki, eta ohikoena hizkuntza baten nagusigoa da, bai giza harremanetarako, bai pentsatzeko eta —zer esanik ez— afektibu bizitzaren egoera zuzenerako.

Honela, hizkuntza nagusia pertsonalidadearen hizkuntza da, aisa uler daitekeenez. Hori dela-ta, bi hizkuntzak objetibuki neurri berean ezagutu eta erabili arren, ez dute garrantzi berdina pertsonarengan: ohar, gorago aipatuari jarraiki, hitzak esanahi logiko edo konzeptuala baino zabalagoa duenaz.

b) Bi hizkuntzen esanahi desberdina

Hizkuntzabiduna —logikoki— hizkuntza batetik bestera itzultzeko kapaz da, horretarako behar dituen hitz-joku eta espresioen jabe delako. Baina bi hizkuntzonen “itzulgarritasuna” ez da erabatekoa; eta hori, ez bakarrik elkar xeheki trukaezinak direlako, horietako bakoitzaren esperentzia pertsonala diferentea delako ere. Ikastaroan, ez inguru berdinean eta ez harrera berdinarekin ikasi ditu-ta.

Hizkuntzabidunak hiztegi bikoitz bat baldin badu ere, honen alderdi bat bestea baino gehiago erabiliko du, eta alderdi bakoitzean zati bat bestea baino areago. Diferentzia, ordea, ez da koantitatibua bakarrik, koalitativua ere bada: usu zabalagoak familiaritasuna eta esanahi aberastasuna damaio hitzari. Diferen-

tzia, gainera, erabiltearen situazioei kateiatua dago.

Exenplu batez esateko: “aita”, “ama”, “anaia” hitzen gaztelaniar itzulpena (padre, madre, hermano) oso tipitandik ezagun ditzake euskal haurrak; baina, familian euskeraz eta beste non-bait gaztelaniaz erabilirik, esanahi arras diferentea dute honentzat.

Olerkariak-eta —hots, hizkuntza biziki sentitzen dutenak— izan dira guzi hau gehien azpimarkatu dutenak. Egun, horiek ez-ezik, analisi-teknika psikologikoez ere berauxe adiarazten digute, objetibuki adiarazi ere.

d) Bi hizkuntzen nahasketa

Hizkuntza batetik bestera iragaiteko ahalmenak definitzen du hizkuntzabiduna: nahasi ez, berezi baino egiten duela esan nahi du honek. Halare, bistan dago nahasketarik badela, nahiz hizkuntza nagusiak bigarrena itxuragabetuaz, nahiz bigarrenak nagusia kaskailduaz. Hiru mailatan jazo daiteke nahasketa hau:

Fonetika mailan: lehen hizkuntzak ez dituen bigarrenaren soinu-ordez lehenengoaren soinuak —edo hauen aldaketak— erabiltzen dira. Haurrak fonemak oso azkar beregantzen eta finkatzen dituelarik, lehen hizkuntza nagusitu ohi zaio bigarrenari.

Gramatika mailan: hizkuntza batean bestearen gramatika arauak aplikatzen direnean, edo baten arau bereziak, bestearengan parekorik ez dutelako, baztertu egiten direnean gertatzen da eragipen hau. Hemen, amarengandiko hizkuntzak ez du inolako abantailarik, bietan gehien erabiliak, gehien ezagutuak edo aberatsenak baizik.

Semantika mailan: hitz eta espresio funtsezkoenak dira, hizkuntzen harremanetan, aisaen nahasi eta aldatzen direnak. Gaztelaniaz ari denean, euskal haurrak mila hitz euskaldun darabilzki gaztelaniazko gramatikaren arabera deklinatu edo konjugatuak, nahiz gaztelerez ez dakien hitz baten hutsunea betetzeko, nahiz, jakinarren, baztertuaz.

A) Hizkuntzabidun eskola zer da?

Hizkuntzabitasunaren esanahiaren definizio argi eta egoki batetik hasita, hizkuntzabidun eskolak zer diren esaten saiatuko gara. Izan ere, problematika honek hizkera berezi eta propioa duten Espainiako eskualde guztiak kezkatuak daduzka. Zenbait haur, eskola-bidean hasterakoan, amagandik jasotako hizkuntzarekin beste gabe etortzen da; eskolaketa, ordea, beste hizkuntza batetan ematen zaio, Estaduak ofizialtasunez izendatutako hizkuntzan hain zuzen.

Hizkuntzabidun eskola baten estruktura era askotakoa izan daiteke. Hala ere, pondu batetan datoz denak bat: bi hizkuntza hauek ez dituzte haurrek batera inoiz ikasiko. Bietako batek, eskolan ezarritakoari urte batzuen aurrea daramakio. Hizkuntzabitasun hau da, hain zuzen, bigarren mailako edo hizkuntzabitasun goiztarra deitu daitekeena, hau da *eskolako hizkuntzabitasuna* (1).

(1) TABOURET-KELLER, ANDRÉE: *Études sur le langage de l'enfant*. Paris, 1962, 173 horr.

Basian dugun problema aztertzean, zenbait eskola-estrukturatarara jo genezake:

1. Estaduan minoria den talde bati bere hizkuntzan irakatsi.
2. Minoria bati bere hizkuntza eta gehientasunarena ere irakatsi.
3. Beren hizkuntza egiten duten minoriei gehienek hizkuntza irakatsi (gure eskualde hizkuntzabidunetako egoera, hain zuzen).

B) Zein posibilitasun eskaintzen ditu bidegurutze honek?

Hiru estruktura horietako bakoitzak, beste lan-hipotesi askotara eramango gaitu, honela lehenaz gain problematika ugarituz eta nahastuz doakigu:

- hiru eskola-bide izanen ditugu?
- hiru programazio?
- hiru psikolinguistika?
- hiru soziolinguistika?

Europari begira ari garela, hizkuntzabidunen eskolaz mintzatzean, 1. eskolamotaz jardutea izango da. Hauetan, minorien hizkuntza da nagusi, eta heziketaren oinarri. Lurraldeko hizkuntza ofiziala ez da sartzen arik eta lehenengo hizkuntza ongi finkatu arte. Eta hau, zortzi edo bederatzi urtetara arte ez da lortzen, lehen mailako heziketa on bat beren hizkuntzan hartzen ari direnen haurrengan.

Edozein jokaera hartzen dela ere, *mintzaera-borroka oinarritzat* duen hizkuntzabidun eskola beti da sesio-bide eta konfliktibua; bizi den girotik bertatik sortua da, eta *disglosikoa* deiua izan da zientifikoaren artean. Honelakotan, zera gertatzen da:

Bi hizkuntza, edo bi hizkuntza-mota, gain-jarriak ditugu hor. Bata, goi-mailakoa (A) indar eta itzal handiagokoa, erlazio ofizialetan (bizitza publikoan, irakas-kintzan, etab.) erabilia. Eta bestea (B), behe-mailakoa, ia sukaldean eta familia giroan bakarrik mintzatua (2).

Gure hizkuntzabidun eskolak, beraz, aurrez-aurre eta zenbaitetan batak bestea irentsi eta elkar suntsitzeko grinaz bizi diren bi hizkuntzen gizarte giroan sortzen dira:

DISGLOSIA—»HIZKUNTZABITASUNA—»HIZKUNTZEN BORROKA
(inguru-giroa) (eskola) (haurrak—»gizartea)

D) Amagandiko mintzairam oinarritutako hizkuntzabidun eskola baten aurre-planeamendu zientifikoak, zer eskatzen du?

Hizkuntzabidun eskola onak aurre-antolatzea, egokiro eta aurrez egiztaturiko lan-hipotesitik hastea izango da:

Haur bati amagandik edoskitako hizkuntzan behar bezala erakusten bazaio, beste bigarren hizkuntza batetara ere trasferentzia positibu bat egin lezake.

Amagandiko hizkuntza egokiro irakasteak, hizkuntza hau minoriena denean, problema asko sortzen ditu, eta serioki aztertu beharreko arazoak gainera.

Ekonomi aldetik hizkuntzen handizabaltzea eta erakunde-handitzea eskatzen du hizkuntzabitasun horrek. Izan ere, nazio-barneko migrazio mogimenduak hizkuntza bakardun taldeen dendua eta ekilibrioa hautsi egiten dute, eta, honegatik, haur eskolaratu guzengan ez dugu aurkitzen hizkuntza-dominantzia bat-bera.

Haurrak kriterio honekin klasifikatzeak, hizkuntzen dominan-

(2) NINYOLES, RAFAEL LUIS: *Idioma i prejudici*, Ed. Moll, Palma de Mallorca, 1971, 40 horr.

tziaren arabera alegia, aurre-planeamenduak egiteak eta haurrak eskola-geletan neurri hari dagokionez banatzeak asko eskatzen du. Gainera, linguistika berezitasun horiek egokiro eraman ditzakeen maisu-talde bat beharko da. Honelako eskolak, hizkuntzabakardun ikastolak baino irakasle gehiago eskatzen ditu.

Azkenik, beharrezkoa zaio eskolari, hartu behar dituen hizkuntzabidun haurrentzat zein bide urratu behar duen galdetzea, onartu den ideologia zientifikoki planifikatuz; eta, onenean, bai eskualdeko, bai kanpotik etorritako talde tipiak errespetatuz. Antolamendu burutsu eta zientifiko batekin bi arrisku baztertuko ditugu: denbora guti barru sor daitezkeen heziketa politiko anormalak, eta lotsagarriagoa izango litzakeena, bi hizkuntzetan haurrak analfabetatzea, hau da, haurrak analfabeto bihurtzea.

Itzultzaile: j. j. iturriotz

HIZKUNTZABITASUNA
ETA
GIZA-NORTASUNAREN BATERAKUNTZA
Sabin Ayestaran
Psikologian Lizentziatua

Ondorengo lan hau, lan zientifiko bat baino gehiago da saiakera bat: problema aurkezten du, baina zientzi irtenbide bat eskaini gabe. Bilinguismoaz psikologian ezer guti eman da, balio zientifikorik duenik behintzat, eta hemen darabilkidan hontaz (*hizkuntzabitasuna eta giza-nortasunaren baterakuntzaz*, alegia) ez dut beste lanik ezagutzen (1).

PERTSONALIDADEAREN BATERAKUNTZA

Baterakuntza hitzarekin *integrazioa* esan nahi da. *Integrazio* hitza neurologian erabili izan da lehenik. Sherrington-ek zainzurizko sistemaren (*sistema nervioso*) betekizun fontzionalak adia-

(1) *azpikuntza*=represión; *baterakuntza*=integración; *bateratu, batetataratu*=integrar; *bizipen*=vivencia; *desbaterakuntza*=desintegración; *deskontzientzia*=inconsciente; *egitura*=estructura; *egituratu*=estructurar; *egingailu*=órgano; *egongarritasun*=estabilidad; *erakunde*=organización; *eratu*=organizar; *erlatibatu*=relativizar; *esker-erantzun*=gratificación; *hitzetataratu*=verbalizar; *hizkuntzabitasun*=bilingüismo; *jarrera*=postura; *multzo*=conjunto; *nortasun*=personalidad; *oharpen*=percepción; *oldar*=impulso; *osaki*=elemento; *sentibera*=afectivo; *sentiberatasun*=afectividad.

razteko erabili zuen, eta hitz horrekin aipatzen zituen berak giza-banakoaren ekintzatasunaren agerbideak eta organismoak ekin-tzarako duen batasuna. Gerora, *integrazione* hitza psikologi alorrera zabaldu da.

Baterakuntza delako horrek zera esan nahi du psikologian: sujetu batengan daduzkagun oldar, fontzio eta egingailu-multzoek duten azken helbururako, eginkizun batetarako, joera bakarra. Nortasun desbateratu bat, pertsonalitate hautsia da, orainaldian eta lehenaldian zaikatuta: alde batetik, borondatezko *niak* orainaldira egokitu nahi du bere burua; bestaldetik, arrazoin-kanpoko indarrek lehealdiari loturik dadukate sujetua.

Hizkuntzaren bi mailak

Hizkuntzabitasunaren eta nortasun baterakuntzaren erlazioa aztertzeke, has gaitezen gertaera soil batetik: ez dago ongi haurra sehaskan, eta *amari* deitzen dio. Honek kasu egin eta behar dituenak ematean, haurrak atsedean sentipen bat sumatzen du. Haur berak, gose denean *amari* deitzen dio, eta honek ase egiten du. Noizbait arrisku batetan aurkitzen bada, *amari* deitzen dio berriz ere, eta amak babesa ematen dio. Egunaren buruan, hilak joan eta urteak etorri, haurrak ukan du *amarekiko* hamaikatxo esperientzia.

Gertabide horri esker, *ama* hitza berrituezineko bizipenez bete eta bete doa. Honela, hitz hori haurrarena berarena bakarrik bilakatzen da, eta *ama* hori aberasten, zuzentzen, antzaldatzen ari da haurraren kontzientzian. Hau esatean adiarazi nahi dena zera da: hitz-kontzeptu bakoitzean *esanahi logiko* bat dadukagu, eta *esanahi* hau hizkuntza batbera darabilgun guzientzat berdina da; baina hitz-kontzeptu horrengan bada beste *esanahi psikolo-giko* bat ere, eta bigarren *esanahi* hau aldagarria da sujetu batetik bestera, eta sujetu batengan ere adin batetik bestera.

Logikarentzat, kontzeptuek esanahi orokorra dute: kontzeptuak objektu-mota oso bat definitzen du, eta harek dakarren esanahia era berean eta betean ezartzen zaie mota horretako objektu guzietan, eta bakoitzari. Psikologiarentzat ez da hitzekin gauza bera gertatzen: hitza, logikak dioen baino askoz aberatsago da. Psikologiarentzat, *oharpenak dakazkigunak eratu eta azaltzeko daduzkagun erantzun-sistemak dira kontzeptuak*. Eta erantzun-sistema horiek (hitzenak, esan nahi da), kanpotiko zirikadatik aparte ere, giza-jokabideagan eragin bat dute, eta honela hitzek posibletzen dute igaroaldiak eman digun esperientziaren geroko aplikapen automatikoa. Lehenaldia orainaldiko egoeretan murgiltzen dute hitzek, beraz. Lehenaren eta orainaren lokarri da hitza giza-psikologiaren barnean.

Hitzak, esperientziaren eratzaila

Ama hitzak ehundaka esperientzia elkar-lotu ditu, eta hitz horrengan esperientzia horiek elkar zuzentzen eta osatzen joan dira, eta bertantxe egin dute batasun bat; hitzarekin, *ama* hitzaren inguruan, egestura sentibera (*afectivo*) bat jaio da; amarekiko nere harremana moldatzen duen egitura bat hazitzen da *ama* hitzarekin batera.

Nere sentiberatasunaren moldatzea, —eta beste era batera esateko: gauza eta pertsonekin ditudan erlazioen erakundea— ez da giza-senei, instintuei, dagokienez bakarrik egiten, baizik eta hizkuntza bidez ematen zaidan kulturaren arabera ere. Kulturak sendiko heziera ere gidatu egiten du: heziera agintarizalea, heziera demokratikoa, zigor-heziera, esker-erantzunaren (*gratificación*) heziera, etab. Gurasoen eta seme-alaben arteko harreman jakin batzutan moldatzen da sendian ematen zaigun heziera, eta erlazio haiztekin ematen diete, hain zuzen, esanahi psikologiko bat *aita*, *ama*, *familia*, *bekatua*, eta gainerako hitzei.

Mintzairari esker doaz bizitzako esperientziak pertsonen eta gauzen inguruan eratzen. Honek zer esan nahi duen? Laburki adiarazteko, hauxe: inguruaren aurrean egoera batzu hartzen ari naizela, eta jarrera hauek nere sentiberatasuna eratu eta antolatu egiten dutela. Mintzaira da, ohartu gabe, inguruaren mamitzaile gure izpirituan.

Hizkuntza, sentiberatasunaren hezitzaile

Sailka biziaren ari garen esperientzien munduan, gure sentiberatasuna egituratuko, estrukturatuko, duen antolamendu bat sortzen dute hitzek. Honela, pertsona eta gauzeekin ditugun harremanei egongarritasuna eta iraupena ematen zaizkie. Baina, bide batez, hitzak sentibera gertatzen zaizkigu, eta sarritan haien esanahi logikoari ez legokiokeen esanahi psikologikoa txertatzen zaio.

Hitzek duten esanahiezko bitasun honen medioz —hau da: hitzaren esanahi logiko eta esanahi sentibera horien bitasun honen bidez—, hel gaitezke freudiar deskontzientzia konprenitzera. Guziok darabilzkigun hitzen esanahi logikoei dagokienez pentsa eta asma dezakegu gizonok gure etorkizuna, eta honelakotan denoi dagokigun oinarrietan finkatzen dugu gure geroa. Baina, gure aurre-asmoak gorabehera, baliteke sentipen eta ekintzari heltzean hitzen esanahi sentiberari erantzunaz jardutea.

Egia da, hitzek neretzat duten esanahi sentibera hau nere kontzientziaren argitan egon daiteke maiz, jendaurrean mintzatzearan gogoan ez baldin badut ere. Halanola, egin dezagun *aita* hitzak nere barrunbean oihartzun negatibua duela, nik lehendik dakazkidan *aitarekiko* oroitzapenak iguingarriak ditudalako; holakoetan, ingurukoaren aurrean “nere” *aitaren* esanahi psikologikoa neuretzat gordeaz, *aitaren* esanahi logikoaz bakarrik mintza nai-

teke. Hau da, hitzaren esanahi sentibera ez dago beti deskontzientzian galdua.

Baina psikologiak esan digunez, gurasoekiko barne-irudiak biziki arriskutsuak ager daitezke giza-kontzientziarentzat, eta berdin irudi horiei dagokien zenbait sentimendu. Honelakorik denean, barneko defentsa indarrak lanean hasten dira, sentimendu arriskutsu haiek, gurasoekiko irudiak ematen dituzten hitzetatik apartatzeko. Bide honetatik, hitz hauen esanahi psikologikoa, erdizka bada ere, kontzientzipera joan da: hitza eta hasera batetan berekin zituen sentimenduak elkarrengandik banandu egin dira.

Giza-psikismoaren jokabide honek badiu bere ondorenak. Deskontzientzia nahiz kontzientzipea zabaltzen doan neurrian, kontzientziak galdu egiten du gogoaren ilunbean isiltzen diren bizipenekin behar lukeen harremana. Honela, hitzak narrutu egiten ditugu, hitzon sentiberatasuna kontzientzipera bidaliaz, eta bide batez gure mintzaira geroz eta hotzagoa, hilagoa, bilakatzen da; hizkuntza despertsonatu egiten zaigu. Faktu hau garrantzizkoa da, izan ere gertakizun horrek sujetuari komunikaezinen halako susmo bat ematen bait dio. Bai, hizkuntzak balio du oraindik ingurukoekin lan egiteko, baina ez pertsonazko komunikapen batetarako. Mintzaira sentiberagabetu horrek bakardadearen sentipena bizten du gure baitan, maitasunaren ezina, bizitzaren asperra eta gogaipena; honetara garamazki gizonok, hitzaren eta sujetuaren bizipenen arteko etendurak.

Sendaketarako, giza-psikologiak orain artean egin duen bidea ur-kontra egin beharko du, hau da, sentiberatasuna galdu duen hizkuntzari bihurtu egin behar zaio sentiberatasun hura. Hitzak sentipenaren aberastasunez jantzi behar dira berriz ere. Sujetutasunaren libertatea, neurri handi batetan, barne-bizipenak hitzez eman ahal izatetik jaiotzen da. Gure golkoa hitzaren moldetan mamitzen dugun neurrian irabazten dugu gure askatasuna: barne-bizipenak hitzetaratu (*verbalizar*) egin behar dira, giza-psikis-

moan askatasunik ukan dezagun. Honela, berriro ere bizipen horien mundua eratu eta egituratu egiten ditu gizonak: bizipenei izen bat ematen zaie, eta, bide batez, konprenitu egiten dira eta automatikoki erlatibatu.

Erlatibatze horrek zer esan nahi duen jakiteko, gogora dezagun zera. Hitzetaratu ez ditugun igarotako bizipenek, halako balio magiko bat daramate itsatsita, sentiberatasunak eman zien balioa hain zuzen. Eta bizipenok hitzetarutzen ditugunean, galdu egiten dute balio magiko hura, eta gure kontzientziak beren balio juxtua ematen die bakarrik, eta areago oraindik: esperientzia berriek mugatu, neurtu eta neutraldu egiten dituzte bizipen zahar haiek.

Ikus daitekeenez, hizkuntza gure sentiberatasuna estrukturatze honetan tresnarik baliozkoen eta oinarrizkoenetako bat bezala agertzen zaigu. Giza-nortasuna batetaratzean, hizkuntzak bate-tarutzen, egituratzen eta eratzen dizkigu igarotako esperientziak. Mintzaira, lehenaldiaren eta orainaldiaren elkartzaile da. Hizkuntza, bizitzaren sintesia da.

HIZKUNTZABITASUNA

ETA GIZA-NORTASUNAREN DESBATERAKUNTZA

Hemen erdizkako hizkuntzabitasun bati buruz ari naiz, hau da, etxean erabat euskeraz eta eskolan erderaz bakarrik dihardutenei begira. Egoera honetan, etxean beren bizipen ugari eta garrantzizkoak euskeraz, euskal hitzekin, egituratu dituzten haurrek, eskolara iristean, halako lur-ikara bat jasan behar dute beren hizkuntzan, izan ere esanahi logikoz argi, baina esanahi psikologikoz urri eta pobre den hizkuntza bat erabiltzera bor-txatzen bait ditu eskolak batbatean.

Erdizkako hizkuntzabitasunaren mugapenak

Aitortu beharra dago noski hizkuntza berria ere aberasten joango dela. Oinarrizko ikaskizun denak, eta bigarren eta goi mailakoak ere, erderaz ematen baldin badira, esperientzia berriak erderaz bizi izanak gertatuko zaizkigu, eta, honela, arian-arian bigarren hizkuntza ere bizipen berriz beteko da, pubertaroa eta pubertaurrekoa erderaz bizi izanak direlako.

Erdal hitzek badute, hala ere, hutsune nabarmen bat: hitz horiek ez dute haurtzaroko bizipenik jaso. Eta egoera honetan haur-bizipenen oihartzuna kontzientzipera lerratzeko joera sortuko da berehalakoan. Erdal hitzek ez dezakete haurtzaro haren girorik iratzar, eta denboraren eta erdera horren indarrek estali eginen dute hura kontzientzipean itotzeraino.

Hezibide honetan nortasunaren dinamika eten egiten da, eta dinamika horren urbidetik elkarren jarraian etorri ohi diren esperientziek ez dute elkar-loturarik ukanen. Areago oraindik: loturaezak, isilarazi egingo du esperientzia horiek elkarri ezarri behar lioketen interpretapena. Eta gogoan har dezagun: lehendik dakazkigun esperientziek ondorengoei ematen dieten interpretapenak ematen dio giza-nortasunari bere historikotasuna; honela gertatzen da giza-bizitza gertakizun historiko, giza-iraupenaren kontzientzidun. Bizipenen elkar-lotze honek ematen dio, denbora zehar, giza-nortasunari batasun-ardatz bat.

Aipatzen dudan erdizkako hizkuntzabitasunean, ba, ez da asmazio bat giza-nortasunaren dinamikaren eten hori. Gauzak, esan dugun erara gertatu ohi direla jakiteko aski da esperimendu bat. Har dezagun norberaren baitara begiratzeko ohiturarik ez duenetako bat, eta tipitatik, beste askok bezala, bere haur-esperientziak euskeraz bizi izan dituen eta geroago eskola-unibersidadeetan irakaskintza eta heziketa erderaz eman zaizkiona. Eskain dezaizkiogun honako honi hogeitaz hitz beste hoinbeste kartoitxotan

idatziak. Hautatu ditugunak batzuk erderazkoak dira, besteak euskerazkoak; baina denak dira haurtzaroari begira garrantzi handia dutenak, hain zuzen haurtzaro haretako bizipen aberatse-nak jaso dituztelako. Hitz horietan bostek gauza bera-edo adiarazi nahi dute, bai erderaz eta bai euskeraz. Hiztegian esanahi berdi-nekoak ditugu; gainerako beste hamar hitzak —bost euskaldunak eta bost erdaldunak— esanahi desberdinekoak ditugu.

Egingo den esperimendua hau da: aurrean dugun pertsona horri, hitzek barnean iratzartzen eta bizten dizkioten barne-irudiak eta sentimenduak ager dezaizkigula eskatuko diogu. Ondorena ezaguna da egin diren esperimenduetatik: hitz berak —hizkuntza desberdinetan ematen baldin badira— barne irudi ezberdinak ematen dizkigute. Honelako kristau batengan, euskal hitzek sortu dituzten irudiak haurtzaroari lotuago aurkitzen ditugu. Eta erdal eta euskal hitzen arteko aldea handiagoa da oraindik euskal giroa beranduago utzi duten haurrengan. Hau da, 10 urtetaraino-edo euskal giroan hezi direnengan nabarmenago ikusten da hizkuntza bateko eta besteko hiztegien esanahi psikologiko desberdina.

Erdizkako hizkuntzabitasunaren ondorenak

Zein ondoren ditu giza-nortasunaren mamitzean erdizkako hizkuntzabitasunak? Hauxe, ba, erantzun ez dezakedan galdera, ez bait daduzkagu beharko genituzkeen istudio empirikoak. Hone-gatik teoriatik erantzunaz, zera esan liteke:

Erdizkako hizkuntzabitasunak nik hitzetaratzten dudan barne-esperientzia zatitu, erdibitu, egiten du, hesparru bateko esperien-tzia euskeraz eta bestea erderaz ematen bait du. Erdizkako hiz-kuntzabitasunak zaildu egiten du pertsonalidadeak nahi duen barne-batasuna. Hau entenitzeko goazen lehengora, berriz ere. Hizkuntza, gure sentiberatasunaren bateratzaile bezala agertzen

da, harek elkar-lotzen ditu gure esperientzien lehena eta oraina; lehenaldiaren eta orainaldiaren sintesia da.

Erdizkako hizkuntzabitasunak zaildu egiten du sentiberatasunaren estrukturatzea, eta, bestalde, erraztu egiten du haurtzaroko bizipen saminezkoen azpiratzea (*represión*). Eta esandakoak berekin dakartzi arriskuak: haurraren barne-tentsioak bizkortu egiten ditu, inguruarekin halako sokatira bat sortzen da (inguru hori erdalduna nahiz euskalduna izan). Eta pertsona-arteko harremanak zitaldu egiten dira, norberaren baitan —erdizkako hizkuntzabitasunaren eraginez— bizipen asko bait da azpiratua izan dena.

Baina goazen aurrera: bilinguismoak bakarrik ez du berehala hoinbesteko ezbeharririk sortuko. Izan ere, haur euskalduna erdera ikasten hasten denean, bere golkoan erdera euskeratik itzultzen hasten bait da. Ikasbide honek bi hizkuntzen artean komunikabide bat irekitzen du: euskal bizipenezko hitzen esanahi psikologikoa, osorik ez bada ere, erderaren hitzetara igarotzen da.

Hala ere, nortasunaren estrukturatzean, haziera-dinamikaren harian zailtasun bat sor daiteke hizkuntzabitasunarekin. Bukatze-ko hau esan liteke hizkuntzabitasunaz: *pertsonazkoago diren bes-telako eragipen eta arrazoirik denean*, bilinguismoak ere pertsonatasunaren desbateratzea ekar dezake. Ez da noski hizkuntzabitasun hutsa honelako ondoren larria ekar dezakeena, gizarte-inguruak horretaraino eramaten duenean baizik.

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZABITASUNAREN ARAZOA

Euskal Herrian, hegoaldean bezalatsu iparraldean, eta batez ere baserri eta basetxeetan, *benetako erdizkako hizkuntzabitasun* bat bizi izan da. Baina, azken urteotan, egoera nahiko aldatu zaigu, eta hau bi arrazoiengatik bereziki:

- Alde batetik, irratiak, telebistak eta haurren heziketak erdera sartu egin dute euskal sendiaren bizitzan.
- Bestetik, ikastolak familiarik jasotako euskerari luzabide bat eman dio.

Hizkuntzabitasun osoaren bila

Ikusten denez, Euskal Herrian *hizkuntzabitasun oso* batera goaz, haurrek laster beretzen bait dituzte hizkuntza biak. Bide honetatik zerbait onik izango dugu: norberaren zenbait esperientzia gure nortasun osotik itzaltzeko arrisku hura nahiko baztertzen da. Baina, kontuz, arrisku bera beste nonbaitetik ere ager liteke, euskera bizipen jakin batzuetarako bakarrik gordetzen baldin badugu, eta erdera beste batzuetarako bakarrik erabiltzen, honela bizitzaren batasun legea hautsi egingo da. Bizitzako egoera guzietan, hizkuntza biak nolana eta berdin darabilzkienarengan nekez sortuko du hizkuntzabitasunak psikologi ondoezik. Gizarteak eta haurraren ingurukoek bi hizkuntzak zuzen erabiltzen baldin badituzte, ez daiteke esan haurrarentzat egoera hori kaltegarri gertatuko denik, ez adimena hezitzean eta ez haren sentiberatasunean ere.

Arazoaren irtenbideak

Euskal gizartearen gaurko egoeran, badirudi irtenbide bakarra *hizkuntzabitasun oso* batena dela. Eta hola pentsatzen dut, nahiz eta bide hau sasiz betea izan, gauzak dauden horretantxe begiratzen baldin baditugu. Edozein hizkuntzabidun gizartetan, hizkuntza bat da oinarrizko hizkuntza, eta bestea bigarren mailako bezala gelditzen da. Oinarrizko hizkuntzak aseko lituzke herriaren funtsezko beharrianak: halanola, kultur beharrak, gi-

zartearrekiko harremanenak, atsedentokiak, sendiko betebeharrak, laneko eginbeharrak.

Euskal Herrian euskerak bere tokia gordeko baldin badu, gure *gizarterako euskal bizi-egiturak* sortu behar dira. Honek aldaketa handiak ekarriko lituzke irakaskintzan, lantegietan, informabideetan, atsedentokietan (zinema, telebista, etab.). Beljikak honelako zerbait egin du flamanderari erraztasunak emanaz. Ez da samurra gertatu; baina legeria aldatuaz posible gertatu da hizkuntzaren salbabidea.

Itzulpena: j.i.

Hizkuntzabitasunaz psikologiako zenbait liburu

Report of an International Seminar on Bilingualism in Education, Aberystwyth, Wales, H.M.S.O., London, 1965.

MACNAMRA, J. (ed.): **Problems of Bilingualism**, Journal of Social Issues, XXIII (1967) Abril.

ARSENIAN, S.: **Bilingualism and Mental Development**, Columbia University, New York, 1937.

WIECZERKOWSKI, W.: **Frühe Zweisprachigkeit**, Hueber, München, 1965.

TAILLON, L.: "Causes profondes de la nocivité de certain bilinguisme scolaire" in **Diversité des langues et bilinguisme**, Les Editions de l'Atelier, Montreal, 1967.

HIZKUNTZABITASUNA
LEGEDI POSITIBUETAN
joseba urrutia

SAIAKERAREN MUGAKETA

Ez daukagu begiak asko zabaldu beharrik, hizkuntza-geografia eta politika-geografia ez datozela bat ikusteko. Bestela esan, zenbait Estadutan, eta ez dira guti, bi hizkuntza edo gehiago mintzatzen da.

Hala ere, gizarte errealdade ukaezin honi dagokionez, ez daramate gobernu guziek jokaera berdina. Jokaera ezberdinen klasifikatzeak zientifiko baino didaktiko balio gehiago du eskuarki. Horregatik, nahiago dugu, deretxo gonbaratutik hartutako zenbait etsenplu irakurleari eskaintzea. Berau oinarri bat izan dakiok, gure ustez, 1970-III-4an Espainian emandako Hezibide Lege Orokarrean hizkuntzabitasunaz ezartzen den lege araudia berekasa epai dezan.

1. Hizkuntzabakardun gizarte desberdinak Estadu berean.

Nahiz-eta eremu linguistikoak lurrez guti asko mugatuak egon, hizkuntzabitasunak edo hizkuntzaskotasunak Estaduairen baitan problemak sortzen dituela, gauza jakina da. Egunerokoei begiratu bat ematea aski dugu, **Beljikan** hau horrela gertatzen dela ikusteko. **Canadari** dagokionez, (Ch. de Gaulle General zenak herri honetara egin zuen agertaldi ofizialaren egunetan, nazioarteko prentsak zabaldu zuen hemengo zenbait problema), saiakera interesgarri bat irakur daiteke **The Review of Politics**-ean (1). Ez da, beraz, kasualidade bat, Politika Zientzien Nazioarteko Elkarteak, **Hizkuntzabitasunari** buruzko Inbestigazioen Nazioarteko Erakundearekin bat harturik, **Elkarrizketa** bat eratzea, Québec-en, 1972ko martxoaren 27-tik 31-ra ospatzeko. Jardungai hau da: **Hizkuntzaskodun Estaduak: problemak eta erantzunak**. Elkarrizketa honek 25 bat espezialista bilduko ditu. Canadak, Ipar Amerikako Estadu Batuek eta beste herriek (Espainia ere hauen artean aurkitzen da) proportio beretsuan hartuko dute parte. Erdiak, guti gora behera, politika gaietan espezialistak dira. Gainontzekoak, filologian, soziolinguistikian, psiko-linguistikian, geografian... maisutzat begiratuak daude.

Suizak berak ere, hizkuntzaskotasuna dela-ta, problemak izan ditu, eta egun ere baditu. Honi gagozkiola, argigarria da, **Hizkuntza Lurraldearen irizpidea (criterio de territorialidad lingüística)** zehazten zuen Tribunal Federalaren 1931-ko agiri ezaguna. Kriterio hau, ordea, **hizkuntzabakardun** eskualdeetan soilik aplika daiteke egiazki.

Halaz ere, kasu hauetan, eta aipa dezakegun beste zenbaitetan, planteatzen diren problemak ez dira gehienbat juridikoak: soziologikoak, psikologikoak eta, batez ere, politikoak baino. Lehen aipaturiko **Quebec and the future of Canada** (2) estudioan irakurtzen denez, frantsesez mintzo direnak, beren buruez iritzi hauek ematen dituzte: **bigarren mailako herritarrek** (18 horr.), **zuri-beltzak** edo **Canadako beltzak gara gu** (22 horr.). Eta frantses minoria-engan, **1867-ko Of the British North America legea ez letraz eta**

(1) *The Review of Politics*: 27 lib., 1965-ko urtarrila. 1 zenb., 17. eta hurr. horr.

(2) *Ib.*

ez izpirituz gorde dela ohartarazten dute (17 horr.). Gorabehera hauek, gertaera guzi horiei aparteko kasurik ez egitera behartzen gaituzte.

2. Hizkuntzaskodun gizarteak Estadu berean

Bestalde, gure saiakeran, lurralde tipi batean (Herria, Probinzia, Eskualdea) bi hizkuntza edo gehiago elkarrekin bizi direneko egoeraz mintzatuko gara batez ere. Hauxe da, hain zuzen, Espainiaren egoera ere: hizkuntza bat maioriarena (ez noski lekuz-leku begiraturik, Estadua bat-batean eta osorik harturik baizik), eta bestea jaiotzatikoa edo **Minorías Lingüísticas** deritzaten talde tipiek mintzatzen dutena.

3. Nazio-minorien arazoa

Gure saiakera honek, nahi-ta-ez laburra izan behar duenez, **Minorías Nacionales** direlakoen problema bihurria alde batera uzten du. Gai hontaz Mariano Aguilar Navarro (3) eta Antoni Truyol i Serra (4) maisuen lanak bereziki irakurgarriak dira; hala-ber **Pacem in Terris** eskutitzari eginiko komentarioak (BAC, 1963), 94-97 zenbakiez ari den estudioan.

4. "Maioria" eta "minoria" hitzak

Hala eta guziz ere, gure alor juridikoan argi eta garbi utzi behar dugu hau: "gehienetan, maioria eta minoria egiazki horrela direlarik ere, koantitatibu baino koalitatibuagoak dira kontzeptuok, minoria bat gerta bait daiteke Estaduaren baitan elemendurik nagusiena, Estaduarekin bat datorrena eta bere kutsua ematen diona, alegia. Hau gertatzen zen, adibidez, austro-hungariar monarkian (hots, germaniar eta magiar elemendua besteen gain); jatorri koloniala duten gizarteetan ikusi izan da, eta egun ere ikus daiteke (zuria, indigena nahiz beltzen aurrean Erdi eta Hego Ameriketan,

(3) "El Estatuto Internacional de los países descolonizados". *Comentarios Universitarios a la "Pacem in Terris"*. Ed. Tecnos, Madrid, 1964. 271 eta hurr. horr.

(4) "Las minorías en la "Pacem in Terris". Aip. lib., 293 eta hurr. horr.

Hego Afrikar Batasunean, eta metropoli-biztanlego urria duten europear Estaduen afrikar lurraldeetan”.

5. Minoriekiko legeen balioa

Hizkuntza minoriei buruz Estaduaren edozein jokaera juridikoki kalifikatzeko eta baloratzeko gure ikuspondua, hizkuntza (bat nahiz gehiago) ofizialaren arauketarekin gonbaratzea da. Eta hau arrazoin bigatik: a) hizkuntza ofizialari ezar dakiokkeen lege araua delako, gure ustetan, haren iraupenaz, desarroiloaz eta hobetzeaz, normalki, gehien arduratuko dena; b) eta hizkuntza minoriei dagokienaz, lege horretatik kentzen den orok, diskriminazioa sortu ez-ezik, gizarteko elkarbizitzaren printzipio oinarritzkoenak —hots, berdintasuna eta ekidadea— urratzen ditu:

Eskubide guzi hauetan —dio Truyol i Serra mai-suak (5)—, minoriaren hizkuntzaz baliatzekoa eta irakaspeneren bidez hizkuntza hori iraunaraztekoa, lehen maila batetan dagoela jakiteak ez gaitu harritu behar; izan ere, ama-hizkuntzarekiko maitasuna giza naturalezaren barne muinean idatzirik bait dago. Famili giroan jasotako hizkuntza eta inguruko munduarekin harremanetan lehenbizikoz jarri gintuena ez da begiramen eta beneragarritasun tipiagokoa, gehientasunarena edo Estaduaren hizkuntza ofiziala ez izan arren. Eta, guti asko agiriko zokoratzeak, minoriari ez-ezik, Estadu osoari egiten dio kalte; izan ere, zapaltzeak berez aurkako kontra-ekintza sortzen duela kontutan hartzeke, minoriaren jaiotzizkuntzari buruzko gizonaren hozte linguistikoak (emigranteen edo antzekoen egoera ez bada, behintzat; hauek atzerrira betirako joaten direlarik, belau-naldi berriek iraganarekiko haustura bat sortzen dute piskanaka, eta giro berrian kokatzen dira) ez dio maioriaren hizkuntzari itsasten derrior lagunduko; eta hau gizarte osoaren, eta ez soilik maioriaren, ona den guzion onaren kaltetan.

(5) Aip. lib., 326 horr.

6. Atzerritarren minoriak

Kontutan har beza irakurleak, Estadu bateko lurraldean finaturiko atzerritar lagunarte ugari eta batu samar batek ez dadukala zer ikusirik hizkuntza aldetiko minoriekin. Hizkuntza minoria baten ezaugarri nabarmena zera da: bere Estaduaren baitan, maioria nagusi baten ondoan, talde bat berezia osatzea. Minori lagunek, Estaduaren menpeko direnez gero, ez dadukate, printzipioz, beren Estaduak ematen dien babes juridikoa besterik. Atzerritar biztanleek, ordea, beren lurraldeko legediari lotuak jarraitzen dute, eta haren babesa dadukate, bizilekukoarengandik at. Egun atzerritartasunaren nazioarteko deretxo bat badago: honek ez du eskatzen atzerrikoen eta aberrikoen berdinketa bat osoa, baizik eta, aberrikoen gain agintzen duen legeditik aparte, premiazko lege araudi labur baten baimena.

Dioguna egiztatzeko, 1971-VII-21eko **Emigrazio Legearen** (6) aipamena eginen dugu. Izan ere, Espainiako Estaduek emigranteei buruz duen ardura argi eta garbi agertzen bait da haren arau ataletan zehar. Adibidetzat, 16 Art. aipatuko dugu. **Asistencia educativa y de formación profesional** deritzan III Kapituluaren (III Tituluaren) kokatua dago. Eta honela dio:

1. El Estado proporcionará al emigrante y a sus familiares las máximas oportunidades de carácter educativo, de acuerdo con lo establecido en la Ley General de Educación.

2. El Ministerio de Educación y Ciencia, de acuerdo con lo establecido en la citada Ley, prestará especial atención a la educación de los emigrantes y de sus hijos en todos los niveles, ciclos y modalidades educativas. A estos efectos, dicho Ministerio, de acuerdo con los de Asuntos Exteriores y de Trabajo, creará y dotará los Centros docentes estatales necesarios, y los Cursos y modalidades de enseñanza adaptados a las circunstancias especiales que plantee la emigración, y establecerá un sistema adecuado de becas que haga posible recibir dichas enseñanzas dentro o fuera de España...

(6) B. O. E., 1971-VIII-23.

3. Para el cumplimiento de lo previsto en este artículo, el Instituto español de Emigración, oído el Ministerio de Asuntos Exteriores y la Organización Sindical, elevará anualmente ante el Ministerio de E. y C., a través del de Trabajo, un programa de necesidades educativas de acuerdo con la distribución y condiciones de la población emigrante, e intervendrá directamente en la acción coordinada que se establezca.

Liburu Zuriak 312-314 zenbakietan dioena ere esanen dugu, hau da, Hezibide eta Zientzi Ministerioaren babespean, gaur egun (1969an) Erdi Mailako hiru Instituto ari direla atzerrian, 172 Lehen Mailako Eskola eta bi Kultur Ikastetxe (**Centro**), Estatu hauetan banatuak: Principat d' Andorra, Belgika, Frantzia, Ingalterra, Italia, Marruecos eta Portugal-en.

7. Lanaren azterkizuna

Bestalde, hizkuntzabitasunaren edo hizkuntzaskotasunaren komenentzia ez da dudatan jartzen, ezta hauen beharra ere, bai elkarrekin bizitzera deituak dauden giza talde bereziak elkar hobeto aditzeko eta konpontzeko, bai kultura aberasteko iturritzat harturik. Gure asmoa hauxe agertzea da bakar-bakarrik: **amagandiko edo jaiotzetiko hizkuntza bi edo gehiago hitzegiten diren Estatu bateko giza errealidade ukaezin honi zer nolako harrera egiten zaion gaur egun zenbait Ordenamendu Juridikotan**, eta, justiziaren eskakizun oinarrizkoenei erantzunaz, nola arduratzen den haien iraupenaz eta desarrolloaz.

8. Lanaren hizkera

Agertuko dugun legediari buruzko argitasun oro, ahal bezain laburki emanen dugu, eta iturri juridikoez nahiz lege iturriek erabiltzen duten hizkuntza gordeko dugu, hauen mamiaz eta norainokoaz irakurlea erraz jabetuko delakoan.

9. Gizarte-pertsonen dretxoa

Osagarri bezala esanen dugu, Joan XXIIIaren trebetasunak

jasotako etxearen baitan —hau da, Egia, Justizia, Maitasuna eta Askatasuna pilarritzat dituen, eta ataurrean **Giza-Pertsonaren** ikurrina zabaltzen duen etxearen baitan—, **gizarte pertsonen** (eta hauen artean nahitaez aipatu behar herriak, probintziak, eskualdeak) eskubide-alorrek azpimarkatzen direla; eta alor hauen artean, bakoitzaren nortasunaren (hots, gizona holako nahiz halako egiten duen era haren) babestea eta indartzea da aurren aurreneko egitekoea. Gauzak horrela, ba ahal dago beren idiosinkrasiak, beren arimak, hizkuntzak baino egokiago definituko dituenik?

Hastera goazen saiakeran, beste irizpide guziak bazterturik, minori hizkuntzen zaintzea legetzat hartzen duten Konstituzioak dituzten herriak aukeratu ditugu bakar-bakarrik, Espainiari dago-kiona azkenerako utziaz.

FINLANDIA ETA SUEZIAR HIZKUNTZA MINORIA

Sueziar garaiaren aztarna den zenbait gizatalde daduka *Finlandiak* bere lur barnean: mendebaldean *Kokkola* eta *Vaasa* artean, hegoaldean *Turku* eta *Helsinki* artean, baita *Aaland* izeneko Uhartarian ere: 1900ean 350 mila zirenak, 1960an ez ziren 331 mila goitik. Finlandiar eta sueziar herriak gonbaratuaz eginiko estudio batetik datu hauk aurkez daitezke: sueziarrak, 1860an, bizilagun denetarik % 14 ziren; 1950ean, berriz, jaiotza guti ukanik, % 8,6-taraino eta 1960an % 7,4taraino gutitu ziren.

Finlandia, sueziarren eta finlandiarren guzien Estadu da. Hain zuzen, ikus Konstituzioak zer dioen:

14. Art.: Finlandera eta sueziera dira Errepublikako hizkuntza nazionalak.

Beraz, inolako berezketarik gabe baliatzen dira serbitzu publikoez, adibidez: irakaskintza, irratia, telebista...

Sueziarrek, 200dik 14 aulki dituzte Parlamenduan (1962ko Otsaileko bozemateetan). Numeroz duten ezberdintasun hau eta

finlandiar Estaduaren egitura bateratua (*unitario*) federalismo pertsonal moduko batek zuzentzen ditu nolabait. Sueziarrek badute Finlandian Ganbara Konsultibu bat. Beren organo nagusia dutelarik, bere iritzia ematen du eta berari entzuten zaio sueziar gizataldeari dagozkion arazoetan.

Udalak, hizkuntzabakardun eta hizkuntzabidunetan klasifikatuak daude, sueziar minoritari bereziki laguntzen dion sistema baten arabera: udaletxeak, bizilagun denetarik % 12-ko minorien bat azaltzen den bezain laister, hizkuntzabidun egitura bati ematen dio leku, eta egitura hau ahalik eta minoria hori % 8 besterik izateraino jeisten ez den artean gordetzen du.

1953an 438 finlandiar munizipio zenbatzen ziren, 47 sueziar eta 44 bietariko; hauetatiko 32-tan majoria sueziarrek ukanik. 1962-XI-25ean, sueziarrek eskaturik, zuzenketa bat onartu zen: hizkuntzabitasuna gorde dadila, lekuetako ehunekoari begiratzeke, minoria gutienez 5 mila pertsonak osatzen duten orotan.

Udalaren egitura linguistiko hau Departamendu serbitzuei ere ezartzen zaie.

Aaland uharteriaren defentsak, muga jakin eta zehatzak ezartzen dizkio Finlandian finlandiar hizkuntza eta inmigrazioari: ez Estadu *Batasuna* Printzipiotik atera zitezkeen inolako arazoiek, ezta bizilekua nonnahi ezartzeko askatasunari darizkionek, ez dute botererik ukan, ahalmenik izan sueziar minoria zaindu nahiaren kontra. *Aaland* Uharteek, 1920-V-7ko legeak onikusiriko Estatuto Berezia duen Departamendu bat eratzen dute. Barne erakuntzan, printzipioz lege emateko eskubide duen *Dieta* batez baliatzen dira; *Helsinki*ko Parlamenduak ez du eskurik sartzan zenbait arazotan ez bada, nola diren: gaztigu legedia, familia, ondorengotza, askatasun publikoak.

Errepublikaren Lehendakaria bera da, Gorte Nagusiarekin ados delarik, Uhartein *gordetzaitetzaren* kargu dagoena. Departamendu legeek kompetentzien banaketa eta Estaduaren barne eta

kanpoko seguridadearen eskakizunak errespetatu dituzten begirale da Lehendakaria. *Dietak* hautatzen du lekuko Ejekutibua, Estatuaren interes goragokoen zaintzaile den Prefektoaren izendatzeari baiezkota ematen eta honen presupostua bozaz (botoz) erabakitzen. Estatuak irabazien zati bat Departamenduaren alde ematen du, eta honen ordezkariak erdibana hautatuak —hau da, Ministroen Kontseiluak eta *Dietak* erdibana izendatzen dituzten lauk— erabakitzen du haren zenbatekoa urteoro ezartzen duena.

Estatutoak babeskuntza imitagarri batez gordetzen du sueziar minoria alor guzietan, kultura alorretan bereziki: honela % 96 biztanlek sueziar irauten du.

ITALIA ETA JUGOSLABIA

Italiako Konstituzioak honela dio:

Art. 6: La Republica tutela con apposite norme le minorenze linguistiche.

Honen argitan irakurri eta interpretatu behar da, London-en 1954-X-5ean, *Italia*, eta *Jugoslabiako* Gobernuen artean izenpe-
turiko *Trieste* herrialdeari buruzko Akordioaren Memorandum delakoa (7).

Italiako eta Jugoslabiako Gobernuak, II Eraskinean aurkitzen den Estatuto berezia batearaztea erabakitzen dute. Honela dio:

Italiako eta Jugoslabiako Gobernuak, beren administraziopean daduzkaten lurraldeetan, giza-eskubideen eta funtsezko askatasunen ondasuna —enda-, kultura-, sexo-, hizkuntza- eta erlijio-berezketarik gabe— garrantzitzeko helburu bera dutela gogoemanaz, Akordioaren Memorandum honen bidez, zera erabakitzen dute:

IV. Italiar administraziopean dagoen lurraldean, jugoslabiari etniaren enda ariurria eta kultur hezibide

(7) UNO: *Yearbook on Human Rights, 1954*. 396 horr. *United Kingdom Command Paper*, 9288. *Miscellaneous*, n° 20, 1954.

librea gordeko dira; era berean, jugoslabiari administratziopon dagoen lurraldean, italiar etniaren enda ariurria eta kultur hezibide librea.

a) Bi taldeok beren ama-hizkuntzan argitalpenak ateratzeko eskubidea ukanen dute.

b) Bi taldeon hezibide-, kultur-, gizarte- eta sport-antolamendu batzarrek libreki lan egiterik ahal ukanen dute, legearen arabera. Taxu honetako erakundeek, antzeko beste antolamendu batzarrei beren lurraldeetan eman ohi zaien tratu bera ukanen dute, batez ere hirietxe (**edificios públicos**) eta Irrati-zabalkundeaz baliatzeari dagokionez, baita Estadu dirutik ematen den laguntzei buruz ere...

d) Bi taldeok, irakaskintza ama-hizkuntzaz emanen duten haurtzaroko, lehen mailako, bigarren mailako eta profesio eskolak eduki beharko dituzte. Eskola hauek, jugoslabiari etniako haurrak dauden italiar administratziopon lurraldeko herri guzietan jardungo dute, eta italiar etniako haurrak dauden jugoslabiari administratziopon lurraldeko herri guzietan...

Italiak eta Jugoslabiak administraturiko lurraldeetan kideko dituzten gainontzeko eskolen tratu bera jasanen dute, eskola liburu, leku eta beste irakaskintza tresneriaren hornidurari (**suministro**) dagokionez, baita irakasleen eta diploma aitorenaren kopuru eta egoerari dagokionez ere. Eskola horietan ematen den irakaskintza ikasleen ama-hizkuntza bera duten irakasleen esku egon dadin, ahal den guzian saiatuko dira italiar eta jugoslabiari agintariak...

V. Italiak administraturiko lurraldeko jugoslabiari etniako pertsonak, eta Jugoslabiak administraturiko lurraldeko italiar etniako pertsonak, bi lurraldeotako administratziopon eta juzgu-agintarietarako harreman pribatu ofizialeetan, bakoitzak bere hizkuntzaz libreki baliatu ahal ukanen dute. Agintarietarako hizkuntza berean erantzun dezaieten eskubide ukanen dute, bai zuzenean bai interprete baten bidez, erantzunak ahoz eman daitezkeen kasuan...

Etnia hauetako pertsoneri dagozkien ariurri ofizialeko dokumentuek, nahiz hauzi epaiak izan, haien hizkuntzara eginiko itzulpen batekin azaldu behar dute. Berdin jokatu da oharpen ofizialetan, baita aldarrikatze (**proclamaciones**) eta argitalpenetan ere. Italiar administraziopeko lurraldean, hirietxeetako izkribuak (**inscripciones**) eta herri eta karriken izenak jugoslabiartaldearen hizkuntzaz eta administrazio agintariaren hizkuntzaz agertuko dira...; italiar etniak biztanlegoaren zati nabari (gogoangarri) bat (lautatik bat, gutienez) osatzen duen jugoslabiartaldeko administraziopeko hauzoetan, aipaturiko izkribu eta izenak italieraz eta administrazio agintariaren hizkuntzaz agertuko dira.

ITALIA ETA AUSTRIA

Bi erresuma huen artean 1946-IX-5ean Akordio bat izenpetuzen (8):

1. **Bolzano** herrialdean eta **Trento** herrialdearen inguruko hizkuntzabidun lurraldeetan alemaneraz mintzatzen diren bizilagunek, italieraz mintzatzen diren biztanleen eskubide berdinen jabe izatea segurtatua ukanen dute...

Bereziki, eman edo emateko den legediaren arabera, alemaneraz mintzatzen diren biztanle horiei, zera garrantzizakoa zaie:

a) Lehen eta Bigarren mailako ikastaroak beren ama-hizkuntzaz;

b) Alemaniar eta italiar hizkuntzen koofizialtasuna herri bulego eta dokumentu ofizialetan, baita hizkuntzabidun toponimian ere;

d) Azken urteetan italieratu ziren aleman abizenak birrezartzeko eskubidea.

.....

(8) IV Eraskina Italiarekiko Bake Tratatuan, 1947-I-10. United Nations Treaty Series, 49 lib., 184-185.

3. Austria eta Italiaren artean hauzo harreman zuzenak sendotu bidetan, Italiar Gobernuak, Austriar Gobernuarekin ados eta Agiri hau izenpetu ondorengo urtearen buruan, zera agintzen du:

b) Batak bestearen unibertsitario maila eta diploma zenbait onartzeari buruz akordio batetara heltzea.

LAPONIARRAK EDO SAMAK

Eskandinabiaren azken bazterretako lurraldeetan banakaturik bizi dira hauek: 62 paralerroaren iparraldean *Noruega* eta *Suezian*, eta *Finlandian* 68 paralerroaren iparraldean. Baita Sobiet Batasunaren jarraiko lurraldeetan eta *Kola* uharte erdian ere bizi dira.

Oso guti dira gaur: 2.500 *Finlandian*; 10.200 *Suezian*; 20.000 *Noruegan*. Gainontzekoak *SSSReko* Iparraldean.

Egun, *Sama* izenez ezagutzen ditugu —*Samik* laponiar hitzetik—, zeren *laponiar* hitzak erdeinu zentzu bat jaso bait du lurralde haietan.

1953an jadanik *Jokkomokken*, Sueziako laponiar lurraldean Iparreko Laponiar Batzaldia ospatu zen lehenengoz. Bigarrena *Noruegan* bildu zen 1956an, *Karasjoken*; han bertan sortu zen Ipar Laponiar Kontseilua, 12 lagunek osatua, laponiarrak gehienak: bost noruegar, lau sueziar eta hiru finlandiar. Erakunde honen egitekoa, Hiru Estaduen arteko *Laponiar* politikaren koordinazio egokienari begiratzea da. Ipar Kontseiluaren eskakizunak jasoaz, *Finlandiar* Gobernuak *Laponiar Ordezkaritza* bat sortu du, *Rovaniemi*-ko Prefektoaren Agintaritzapean hiru laponiar jakitun eta honetan bereziki arduratzen diren Ministerioen —hots, *Nekazaritza*, *Hezibide* eta *Justizi* Ministerioen— hiru ordeko biltzen dituelarik. 1949az geroztik baditu *Finlandiak* laponiar arazoetan espezializaturiko batzordeak; *Noruegan* 1956az geroztik dagite,

eta *Sueziak* —beste bi herrialdeek batera baino laponiar gehiago du— batzorde franko badu.

Laponiar senipartea (*patrimonio*) salbatu nahi duen ekinaldi elkartu honek ondore mamitsurik eman du dagoeneko: *Helsinki* Unibertsidadean Ipar Hizkuntzen irakasle den M. Erkki *Itkonen* eraginez, *Sama hizkuntza bateratu* baten sortzea lortu da, oso ezberdin ziren dialektoetatik hasiarren. 1934az geroztik *Finlandian Submelas* —Laponiarra— egunerokoa argitaratzen da. *Lapin Siivistysseura* erakundeak, jadanik hamabi bat obra baduen Bilduma bat argitaratzen du laponieraz. Hauen literatura erlijio liburuen itzulpenek osatzen dute gehienbat; eta gainontzerakoan, literatura herrikoa da, olerki liriko eta eresi mitiko-heroikoz egina.

Misiolariek gazteriarentzako *Eskolak* eta herri Unibertsidade bat eraiki zituzten *Karasjoken* 1936an, *Jokkomoken* 1942az geroztik, Laponiarrek bigarren herri Unibertsidade bat dadukate *Inatin*.

Ipar lurraldeetako ekonomi desarroiloa —ikusgarria bereziki Suezian eta Noruegan— Laponiarrei onuragarri bilakatuko zaie, eta haietarik asko da egungo ekonomiaren neurrira jarri dena. Baina ekonomia honen eskakizunetara inkorporatzea erabatekoa izan dadin, bada Estatu babesleetan talde hain urri eta bakan baten kultura heziketarekiko egunetik egunera hazten doan kezka bat (9).

FEROE UHARTEAK

Eskozia eta Islandiaren artean, 62 paralerroaren parean, aur-

(9) HERAUD, G.: *L'Europe des Ethnies*. Titre III. "Les minorités nationales et linguistiques d'Europe". Ch. I. Section I. "Les lapons". KROHN, K.: *Lappische Beiträge zur germanischen Mythologie*. VI lib. Helsingfors, 1906. *Enciclopedia Universal Ilustrada*. Espasa. Barcelona. 29 lib.: "Laponia". *Grand Larousse Encyclopédique* Libr. Larousse, VI lib.: "Lapon"-e.

kitzen den sumendizko zenbait Uhartek (10) osatzen du Uharteria hau. Honen biztanleak oro 36.000 bat dira (11).

Feröetarrak, antzina zaleak direnez, harro dira beren hizkuntzaz; honek, oso eskandinabiarrak izan arren, dinamarkaerarengandik bereztasun funtsezkorik badu: morfologiari dagokionez, beren izpiritu kontserbakorraren nahasketa nabari du, bereziki aditz era nabarmenetan mugatzen diren sinplifikatze batzuk ez beste fonetika aldaketak galaraziaz. Bataio eta ezkontza egunetan abesten dituzten balada herrikoi arloan literatura aberatsa dute.

Nahiz eta 1850etik Copenhageko Parlamentuan diputadu bat hautatu ahal ukan (1953-ko dinamarkar Konstituzioaz gero, bi dira urrineko Uharteak Folketing-ean errepresentatzen ditutaduek), nahiz eta 1852an *Lagting* organu konsultibua sortu, Feröetar gehienak ez zeuden batere konforme Dinamarkarekin zuten egoera juridiko-politikoari dagokionez. Tirabira honek bazuen zenbait zergati:

1) Dirudienaz feröetarrak, egungo toki honetan XV mende aldera kokaturik, urte askotan izan ziren askatasunaren jabe;

2) Dinamarkarekiko menpekotasuna XIX mendearen bigarren erdian eta XXaren hasieraz geroz eta gogorragotzen joan zen. Menpekotasun handiagotze honen seinale bezala hona hemen gertakizun batzu: a) 1856an feröetar ikurrina galarazia izan zen; b) 1901etik 1906ra eskoletan eta administrazioan bertako topnimia eta *Feröetar Hizkuntza* baztertuak izan ziren.

Reakzioa nahiko gogorra izan zen: Copenhageko gobernuak, hartutako jokabideari amor eman eta 1912an irakaskintzan *Feröetar hizkuntza* dinamarkaeraren baldintza berdinetan legetu beharra ukan zuen (12).

(10) HERAUD, G.: alp. lib., Ch. I. Sect. II: 18 direla dio. *Gran Enciclopedia del Mundo*, Ed. Durvan, Bilbao, 8 lib.: Feröe, eta *Larousse*-n IV lib., "Feröe": 22 uharte alpatzen dira.

(11) HERAUD, G.: alp. lib., alp. lek.: 36.000 jartzen dira. *Gran Enciclopedia del Mundo*-k, berriz, 34.000 ematen ditu 1955-erako. *Larousse*-k, 34.200.

(12) *Larousse*-n "Feröien-ene".

Ez da, ba, harritzekoa feröetar askok, Bigarren Mundu Ger-laren bukaeran, dinamarkar jabetasunari agertu zion aurkakoa. Eta harek herri bozemate, plebistzitu, bat onartu beharra ukan zuen.

Hemen aipatzeak axolarik ez duen gorabehera batzuen ondo-ren, Dinamarkako Parlamenduak eta Feröeko Biltzar bilakatu zen *Lagtingek*, Uharteriari bere buruaren jabetasuna aitortzen dion 1948-III-23ko legea afrogatu zuten.

Lagting, 30 lagunek osaturiko benetako Parlamendu bat da; ministrok eta lehendakari batek osaturiko Ekintza-agintedun hirukote bat bere barnetik hautatu eta kontrolatzen du. Goberna-riaren orde, bere ahalmenak ondo neurtuak dituen herri gizon Nagusi bat dago. Erreinuari eta honen departamendu autonomuari dagozkien kompetentzi eskueratik, *Thorshavn*-i (Uharteriaren hiri burua da hau) hauek geratzen zaizkio: Komerzioa, industria, eko-nomia, eramanekarriak, aduanak, eta zerga arazoak. Gizarte ara-zoak, *Hezibidea* eta osasunbidea elkarren artean zuzentzen dira denen berdintasun osoz. Atzerriekiko arazoak, defentsa, polizia, kultura eta korreoak Copenhagek beretzat gordetzen ditu.

Ordezkarri Nagusiak, Feröe-ko Parlamenduan berari dagoz-kion gaiak aztertzen direnean, bertan parte hartzeko ahalmena daduka. Feröe Uhartetako ikurrina ofizialki onartu izan da. Eta Uharteriako Araudiak *Feröetar Hizkuntza* birrezartzen du, eskola nahiz administrazio eskubide guziekin birrezarri ere.

Metropoliak laguntza bat eskainia dio Uharteriari, Feröetar Hizkuntzan argitaratzen diren lanentzat (13).

I ERASKINA: Convenio sobre poblaciones indígenas y tribuales (26-VI-1957).

Jatorrizko (**indigena**) herri eta tribuaren zaintze eta integra-tzearekin —nahiz hauen alderdi jeneralean, nahiz jaiotizkuntzei

(13) HERAUD, G.: aip. lek. ANDERSEN: *Faeröerne, 1600-1700*. Copenhagen, 1895. ANNADALE: *The Feröes and Ireland*. Oxford, 1905. Enciclopedia Espasa: "Feröe".

buruz ari dela— zerikusirik duten artikuluetatik zenbait jaso besterik ez dugu eginen hemen (14).

Art. 4.—Al aplicar las disposiciones del presente CONVENIO relativas a la integración de las poblaciones en cuestión se deberá:...

b) Tener presente el peligro que puede resultar del quebrantamiento de los valores y de las instituciones de dichas poblaciones, a menos que puedan ser reemplazados adecuadamente y con el CONSENTIMIENTO de los grupos interesados...

Art. 5.—Al aplicar las disposiciones del presente CONVENIO relativas a la protección e integración de las poblaciones en cuestión, los Gobiernos deberán...

b) Ofrecer a dichas poblaciones oportunidad para el pleno desarrollo de sus iniciativas;

c) Estimular por todos los medios posibles entre dichas poblaciones el desarrollo de las libertades cívicas y el establecimiento de instituciones electivas, o la participación en tales instituciones.

Art. 22.—Los programas de EDUCACION destinados a las poblaciones en cuestión deberán adaptarse, en lo que se refiere a métodos y técnicas, a la etapa alcanzada por estas poblaciones en el proceso de integración social, económica y cultural en la colectividad nacional.

La formación de dichos programas deberá ser precedida normalmente de estudios etnológicos.

Art. 23.—1. Se deberá enseñar a los niños de las poblaciones en cuestión a leer y escribir en su LENGUA MATERNA o, cuando ello no sea posible, en la LENGUA que más comunmente se hable en el grupo a que pertenezcan.

2. Se deberá asegurar la transición progresiva de la lengua materna o vernácula a la lengua nacional o a una de las lenguas oficiales del país.

(14) *Actas de la Conferencia Internacional del Trabajo*, Reunión 40. N° 107. Ginebra, 1958. 793 horr.

3. Deberán adoptarse, en la medida de lo posible, disposiciones adecuadas para conservar el Idioma Materno o la lengua vernácula.

Art. 26.—1. Los gobiernos deberán adoptar medidas adecuadas a las características sociales y naturales de las poblaciones en cuestión a fin de darles a conocer sus derechos y obligaciones...

2. A este fin se utilizarán, si fuere necesario, traducciones escritas e informaciones ampliamente divulgadas en las lenguas de dichas poblaciones...

II ERASKINA: Convenio sobre lucha contra la discriminación.

Enseñanza (15-XII-1960. Aceptación española: 20-VIII-1969 B.O.E. 1-XI-1969. Aranz. 1969, nº 2.004. Entrada en vigor para España: 20-XI-1969).

Abenikoaren mami guzia interesgarri bada ere, hizkuntzabitasun edo hizkuntzaskotasunaren ikuspegitik garrantzitsuen iduritzen zaizkigun zatiak agertzeraz mugatuko gara, aurreko ataletako irizpide bereri atxikiaz:

Considerando que las discriminaciones en la esfera de la Enseñanza constituyen una violación de los derechos enunciados en la Declaración Universal de los Derechos Humanos;

Consciente (La Conferencia General de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura, en su reunión XI, celebrada en PARIS del 14-XI-al 15-XII-1960) de que... incumbe a las Naciones Unidas para la Educación, Ciencia y Cultura, con el debido respeto a la diversidad de sistemas educativos nacionales, no sólo proscribir todas las discriminaciones en la esfera de la Enseñanza, sino también procurar la IGUALDAD de posibilidades y de TRATO para todas las personas en esa esfera; ...Aprueba hoy, 14-XII-1960, la presente CONVENCION.

Art. 1.—1. A los efectos de la presente Convención se entiende por discriminación toda distinción, exclusión, limitación o preferencia fundada en la raza, color, sexo, idioma, religión, opiniones políticas o de cualquier

otra índole, origen nacional, posición económica o nacimiento, que tenga por finalidad o por efecto destruir o alterar la IGUALDAD de trato en la esfera de la Enseñanza y, en especial:

a) Excluir a una persona o un grupo del acceso a los diversos grados y tipos de Enseñanza.

b) Limitar a un nivel inferior la educación de una persona o de un grupo.

Art. 3.—A fin de eliminar o prevenir cualquier discriminación en el sentido que se da a esta palabra en el presente Convenio, los Estados Partes se comprometen a:

a) Derogar todas las disposiciones legislativas y administrativas y abandonar todas las prácticas administrativas que entrañen discriminación en la esfera de la Enseñanza.

b) Adoptar las medidas necesarias, inclusive disposiciones legislativas, para que no se haga discriminación alguna en la admisión de los alumnos en establecimientos de Enseñanza...

Art. 4.—Los Estados Partes en la presente Convención se comprometen además, a formular, desarrollar y aplicar una política nacional encaminada a promover por métodos adecuados a las circunstancias y las prácticas nacionales, la IGUALDAD de posibilidades y de trato en la esfera de la Enseñanza y, en especial, a:

a) Hacer obligatoria y gratuita la Enseñanza primaria, generalizar y hacer accesible a todos, en condiciones de IGUALDAD TOTAL y según la capacidad de cada uno, la Enseñanza superior,...

d) Velar porque en la preparación para la profesión docente no existan discriminaciones.

Art. 5.—1. Los Estados Partes en la presente Convención:...

c) En que debe reconocerse a los miembros de las minorías nacionales el derecho a ejercer las actividades docentes que les sean propias, entre ellas la de estable-

cer y mantener Escuelas y... emplear y enseñar su propio Idioma, siempre y cuando:

.....

I) Este derecho no se ejerza de manera que impida a los miembros de las minorías comprender la cultura y el idioma del conjunto de la colectividad y tomar parte en sus actividades...

II) El nivel de Enseñanza en estas Escuelas no sea inferior al nivel general prescrito o aprobado por las autoridades competentes; y

III) La asistencia a tales clases sea facultativa.

2. Los Estados Partes en la presente Convención se comprometen a tomar todas las disposiciones necesarias para garantizar la aplicación de los principios enunciados en el pár. I) de este artículo.

Art. 9.—No se admitirá ninguna reserva a la presente Convención.

III ERASKINA: Ley General de Educación (4-VIII-1970. B.O.E. 6-VIII-1970. Aranz. 1970, nº 1287).

Azterketa gonbaratuz arakutzen dut gaia orain, horrela **Hezi-bide Lege Orokarrak** ematen duen ikusbide nahiko osatu bat irakurleari aurkeztearren, eta —orainarte jarraitu dugun haritik zertxobait aldenduaz bada ere— kritika lana erraztearren; gaiari zuzenki loturiko artikulua eskaintzen ditugu lehenik, eta gero, erreformaren norainokoa juzgatzeko, kontutan eduki behar dela uste dugun beste zenbait lege testu erantsiko dugu.

Areago oraindik: irakurleak eraberritze hau behar bezala neurtu nahi badu, bi gauza hauek ez ahaztera dei egiten diogu:

a) **Liburu Zuriak** ama-hizkuntzei dagokienez dioena eta Espainiak 1969-VIII-20an onarturiko **Abenikotik** jaso duguna;

b) Lege hau argitara arterainoko egoera, gaztelania ofiziala ez beste hizkuntzen esistentzia bera ere desezagutzea, alegia (15); eta hori, hizkuntzaok nahasletzat eta beharrezko batasunaren desegiletzat jotzen ez direnean (16).

TITULO PRIMERO.—Sistema Educativo.

(15) *Ley de Enseñanza Primaria*: art. 7 eta hurr. *Ley de Enseñanza Secundaria*.

(16) 00 1938-V-18, 1938-V-21, 1940-V-16, 1945-I-11, etab.

CAPITULO II.—Niveles educativos.

SECCION PRIMERA.—Educación preescolar.

Art. 14.—1. La Educación Preescolar comprende juegos, actividades de lenguaje, incluidas en su caso las LENGUAS NATIVAS, expresión rítmica y plástica, observaciones de la naturaleza, ejercicios lógicos y prenuméricos, desarrollo del sentido comunitario, principios religiosos y actitudes morales.

2. Los métodos serán predominantemente activos, para lograr el desarrollo de la espontaneidad, la creatividad y la responsabilidad.

SECCION SEGUNDA.—Educación general básica.

Art. 17.—1. Las áreas de actividad educativa en este nivel comprenderán: el dominio del lenguaje mediante el estudio de la lengua nacional, el aprendizaje de una lengua extranjera y el CULTIVO, en su caso, de la LENGUA NATIVA; los fundamentos de la cultura religiosa; el conocimiento de la realidad del mundo social y cultural especialmente referido a España; las nociones acerca del mundo físico, mecánico y matemático; las actividades domésticas y cuantas otras permitan el paso al Bachillerato,...

TITULO PRELIMINAR.—

Art. 1.—Son FINES de la educación en todos sus niveles y modalidades:

3. La incorporación de las peculiaridades regionales, que enriquecen la unidad y el patrimonio cultural de España, así como el fomento del espíritu de comprensión y de cooperación internacional.

TITULO PRIMERO. Capítulo II. SECCION TERCERA.—Bachillerato.

Art. 23.—1. El Plan de bachillerato deberá comprender:

a) Materias comunes que habrán de ser cursadas por todos los alumnos.

b) Materias **optativas**, de entre las cuales todos los

alumnos habrán de elegir un número determinado, de acuerdo con sus peculiares aptitudes y bajo la tutela del profesorado.

c) Enseñanzas y actividades técnico-profesionales...

Art. 25.—2. Cada Centro de Bachillerato, previa consulta con el respectivo Instituto de Ciencias de la Educación, concretará, dentro de las materias **optativas** establecidas por el Ministerio de Educación y Ciencia, las que vaya a impartir de acuerdo con sus posibilidades.

3. Las enseñanzas que con carácter optativa imparta cada Centro serán, al menos, el doble de las que los alumnos tengan que elegir, de acuerdo con lo que al efecto se disponga.

VI ERASKINA: Libro Blanco.

Liburu Zuriak, Batxileratuaren mamiaz ari delarik, zera dio alde linguistikoaz:

Podrán incluirse las **lenguas vernáculas** como **materias opcionales**. (Bachillerato, 215 eta hurr. horr.).

Eta esaldi batzuek aurrerago:

Eta esaldi batzuk aurrerago:

Todo programa de trabajo escolar ofrecerá TRES tipos de **CONTENIDOS**:

—Uno básico de cada sector cultural, obligatorio para cada estudiante.

—Un contenido totalmente **libre**, del que los estudiantes podrán seleccionar la parte que prefieran...

TITULO SEGUNDO.—Centros docentes.

CAPITULO I.—Disposiciones generales.

Art. 56.—Dentro de lo dispuesto en la presente Ley y en las normas que la desarrollen, los Centros docentes gozarán de la autonomía necesaria para establecer materias y actividades **optativas**, adaptar los programas a las características y necesidades del medio en que están emplazados, ensayar y adoptar nuevos métodos de enseñanza y establecer sistemas peculiares de gobierno y administración.

CAPITULO II.—Centros docentes estatales.

Sección Tercera.—Centro de Educación Universitaria.

Subsección Primera.—Normas generales.

Art. 64.—1. Las Universidades gozarán de autonomía y determinarán por sí mismas los procedimientos de control y verificación de conocimientos, el cuadro y sistema de sus programas y su régimen de docencia e investigación, dentro de las disposiciones de la presente Ley y de las normas que se dicten para su desarrollo.

Datu hauek dira irakurlearentzat komenigarri iduritu zaizkigunak, Minoria linguistikoen bizitza eta desarroiloa finkatzen dituzten Ordenamendu juridiko bilakaturiko egungo hildo ideologikoez ideiaren bat osa dezan.

Asmatu izango ahal dugu gure eginkizuna betetzen, bai irakurleek eta bai ama-hizkuntzek hain merezia duten errespetoz, eta ama-hizkuntzadun direnei eta berau lantzeko eskubidea eta —bizitza legez— herentzia hain baliotsuaren jabe izatera deituak daudenei zor zaien itzalez —hizkuntzadunok guti nahiz urri izan— erabiliko ahal genuen gure lan honen gaia.

IKASTOLAK ETA ESPAINIAKO IRAKASKINTZA LEGEA

joan ansa

Orain urte guti direla, *Ministerio de Educación y Ciencia* delakoak Espainiako Irakaskintzaren eraberritzeari ekin zion irmoki: zaharturik zetorren erakunde hura berritu eta martxan jarri zen. Honetarako, Lege bidea urratuaz, 1970-VIII-4eko Hezibidearen Lege Orokorra eskaini zen.

Lege berri honek orain arteko irakaskintza osoa astintzen du, eta batez ere, sei urtetik hamalau urte bitarteko haurrak izaten zuten heziera aldatzen du, Oinarri Hezibidea jarriaz.

Aldakuntza hau bi aldetara zuzentzen da: batetik, hezibideari begiratuaz, haur denak irakaskintza berdina izan beharko dute. Horretarako, lehen ziren Lehen Irakaskintza eta *Bachillerato Elemental* hura batu egiten dira, sei urtetik hamalau urte bitarteko hezibidea osoki hartuaz eta haur denentzat berdina eta beharrezko bezala emanaz. Bestetik, irakaskintzaren maila hau, hutsean, doan eskaintzeko agindua ematen da.

LEGEAREN ESKAKIZUNAK

Asmo horiek ikastola bete betean hartzen dutela esan beharrik ez dago. Aipatu dugun lege hau dela-ta, irakaskintzan urte asko daramaten ikastetxe pribatuak zeharo kezkatuak ditugu. Eta hori, aspaldidanik etxeok, esperientzia, antolamendua, etab. dituztelarik.

Ikastolak berriz jai berriak ditugu, oraindik indartu gabeak, alde guzietatik problemek zirikatzen dituztela bizi dira. Berehala ikusten zen Lege Berriak Ikastola asko zintzilik utziko zuela.

Problema latza zetorrela ikusiaz, Ikastolen Elkarte ahal zuen argia eskaintzen arduratu zen. Ikastolen eginbeharra, seitik hamalau urte bitarteko horretan ikusten da, batez ere: hau da, Ikastolak Oinarri Hezibidea emateko antolatu behar dira.

Legea aztertzen hasitakoan hiru pondu azaltzen ziren nagusiki:

- 1) 1972-VII-1erako klasifikazioa eskatu behar da (hau da, Oinarri Hezibiderako ikastetxearen bihurtzea).
- 2) 1974-75 kursoaren hasierarako legeak agintzen duen eran antolatu behar dira ikastetxeak.
- 3) Legeak emandako epean (hamar urte), irakaskintza hutsaren truke eman beharko da.

Lehenengo eta bigarren ponduak elkarrekin josita hartzekoak ziren, eta gure indarrekin bakar bakarrik erantzutekoak agertzen ziren.

Hirugarren pondua betetzeko, Legeak *Concierto* deritzana asmatzen du. Honen bidez, Ikastetxe bakoitzak bere irakaskintza debalde eskaini ahal izan dezan. Estaduak irakaskintzaren ekonomia zamari eusteko asmoa agertzen du; baina, zein kondizio jarriko duen, hau da, ikastetxe bakoitzaren autonomia nola geldi-

tuko den ez dakigu. Gerora ikusteko problema bezala azaltzen denez gero, oraingoz baztertua izan da.

KLASIFIKAZIOA DELA-TA

Gure ikastolen artean, batzuk legalizatuak, hau da, Ministerioak onartuak, eta besteak legalizatu gabeak ditugu. Klasifikazioa, legalizatuta dagozen ikastolei dagokien gauza da. Legalizatu gabe dagozenek, berriro ikastetxe berri bat sortzeko bidea hartu beharko dute, eta hau egiteko oso kondizio gogorrek bete behar dira (ikus B. O. del E. nº 44): ikasle bakoitzeko 4,3 m² jaso behar dira; gainera, Oinarri Hezibiderako ikastetxe txikien neurria osatzeko, urtero urtero 35-40 ikasle berri behar dira. Ikastola asko dugu neurri hori, ikasleena alegia, bete ahal izango ez duena.

Arazo hauek aztertu ondoren eta ikastola guzietan elkarren berri eta asmoak jakin zitzaten, Ikastola Elkarteak Plan bat antolatatu zuen. Lehendabiziko eginbeharra honela ikusten zen:

Legalizatuta ez dagozen ikastolek edo urtero 40 neska-mutiko berri osatu ezin ditzaketenek, nahiz eta legalizatuta egon, inguruko herrietako beste ikastolekin elkartu beharko lukete, edo gutienez, beren herriko beste ikastetxe batekin. Urtero behar diren berrogei haur berri horiek esango digute zenbat ikastolek elkar-tu beharko duen, Oinarri Hezibiderako Ikastetxe bat bere nortasunarekin antolatzeko.

Problema hau aztertzeko Ikastola Batzar berezi bat antolatua izan zen ondorengo eginbeharrekin:

- a) Osatu zen informazioa zabaldu.
- b) Bailara bakoitzean, elkartzeko ikusten zen beharra azaldu.

- d) Zein ikastola elkartuta gelditzen ziren eta zein aurrera egiteko posibilitaderek gabe azaltzen ziren erabaki (?).
- e) Ikastolei laguntza eskaintzeko arazo horietan, komisio berezi bat izendatu: klasifikazioa eskatzerakoan eta etxe berriak antolatzerakoan behar diren diruak osatzeko bide egokienak bilatzeko (1).

LEGE BERRIAREN ERASKINAK

B. O. del E., 20-2-1971

Oinarri Hezibiderako ikastetxe berriek izan beharko dituzten kondizioak agertzen ditu.

B. O. del E., 1-7-1971

Klasifikazioa nola eskatu behar den eta Oinarri Hezibiderako ikastetxe bat osatzeko elkarreak nola egin behar diren azaltzen du. (Klasifikazioa eskatzeko "inpreso" berezi batzuk azaldu dira. Delegazioan dagoz).

B. O. del E., 19-7-1971

Oinarri Hezibiderako ikastetxe *berria* irekitzeko jokabidea azaltzen du.

(1) Hona jokabide honek erakutsi ziena; alegia, ikastola batzuek beren elkarrea eratzeko bideetan doazela eta beste batzuek berriz, etorkizuna iluna ikusten dutela. Egia da ikastolen ekintza aurrera eramateko, gero eta ardura eta posibilitade gehiago beharko direla, baina guk, euskaldunok modurik egiten ez badugu, bestek ez du egingo.

B. O. del E., 12-1-1972

Orain arteko ikastetxeak, Oinarri Hezibiderako ikastetxe bihurtzeko behar diren betebeharrak azaltzen ditu.

B. O. del M. de E. y C. 31-1-1972

Lehen atera diren betebeharrak xamurtu egiten ditu.

B. O. del E., 10-2-1972

Estaduaren diru eskaintza batzuk agertzen ditu.

AURRERA BEGIRATUAZ

Lehenagoak ikusi ondoren, esku artera etorri zaigun problemaz jabetuko garelakoan nago. Badirudi, Gipuzkoan batez ere, Estaduak Oinarri Hezibiderako irakankintza lehenbailehen bereganatu nahi duela; hain zuzen ere, azkar eta presaka ikastetxe mordo bat egitera doa; etxe dotoreak eta bertan irakaskintza debalde eskainiko da noski.

Eta gure ikastolak?; izango ahal dute irakaskintza dohan eskaintzeko laguntzarik? Noiz eta zein kondiziotan?

Bitartean, gure eginbeharrez euskaldunok jabetzen ez bagara, ikastolen etorkizuna iluna izango da; baina hemen ez goaz soziologia azterketa bat egitera, Oinarri Hezibideak guretzat dakazkien ondorenak azaltzera baizik.

IKASTOLA, GEROAREN HABE luis haramburu-altuna

Motza da. Eta are bihurriago, Euskal Herriko ikastolaren kondaira tipi eta laburra. Baina luze eta funtsezkoak dira bere historiaren esanahi eta ondorioak. Egun Ikastola, oraindio ere bere haseran datza. Ordea, bada zenbait dato eta froga bere etorriaz zuzen ihardukitzeko gairik ematen digunik. Agian, ikastolaren geroaz eta etorriaz arduratzetik datorke egungo Ikastolaren arazo eta eztabaiden argi eta soluzioena.

Euskaldunoi geroa zaigu ardura, eta gero ilun eta goibel honen ikuspegirik zinezkoena ikastolaren geroaz saiatzetik datorke. Ikastoletan ditugun haurrak, egungo euskaldunon umegai ditugu eta beraz eta beraietatik itsetsiko da biharko Euskal Herria.

Gauza klara eta segura deritzat, egun, Ikastola Euskal Herriko kontradizio edo kontraesan nagusien agerpide dela esateari. Ikastola, Euskal Herriko kontraesanen ispilu eta inurri da. Kontraesan politiko, ekonomiko, erlijioso eta, batik bat, kontradizio kulturala nabarmen eta klarki azaltzen zaizkigu Ikastolan. Esanen nuke, Ikastola Euskal Herriaren "laboratorio" eta proba-toki apartekoa dela. Halaber diot: Ikastola, Euskal Herriko eite eta

saiaerarik jatorren eta garrantzizkoena dela. Ikastola, Euskal borrokaren buru eta aintzindari da. Euskogintzaren primezia denez, Ikastola, azterketa sakon eta zehatz baten beharrea aurkitzen da. Eta egungo, ene saioak, azterketa horren bide urratzea izan nahi luke.

Hemen esanen ditudanak, haur tipi edo heziketaren lehen mailako haurrez burutuak ditut. Baina hemen argitara emanen ditudan oinarriak, zehaztuaz gero, handien heziketara ere aplikatu daitezke.

KULTURA, KONTRAESAN DOMINANT ETA ERAGILEA

Asko da, euskaldunok bizi ditugun kontraesanak. Gure egundadea, eguneroko bizia, kontradizio tipi eta konkretuaz jositakoa da. Kontraesan horiek batzuk besteekin loturatuak agertzen zaizkigu. Baina, nolabait ere, kontraesan horiek denak hontara bil daitezke, kritika mailan bederen: Gu euskaldunak gara eta egitura deseuskaldun batean bizi gara.

Geure Herrian egunero jasaten dugun deseuskalduntasun honek ikuspegi eta antz desberdinak eta bereziak ditu. Euskaldun =/= Deseuskaldun; kontraesan hau beste zenbait kontradizio nagusietan xehe daiteke. Hain zuzen ere Ekonomia, Politika, Erlijio eta Kultura alorrean kaketzen da bortitzen eta nagusiki, aipatu berri dugun Kontraesan nagusia eta lehena. Kontraesan hauen arteko zerikusia eta harremana honela tankera daiteke eskematikoki: egitura deseuskalduna =/= egitura euskalduna (ekonomia—»politika—»kultura (ideologia)).

Euskaldunok jasaten dugun egoera deseuskaldun honi bestetaratze molde bat deritzat; zeren eta, ekonomia, politika eta kultura alorretan ez gara geure baldintza eta nortasunaren jabe.

Kapitalista sistimak bere dituen kontraesan nagusiak dira

gureak ere. Baina gure egoera deseuskaldunak berezkunde nabarmenak erasten dizkio euskal gizarteari. Euskal Herriko kontraesanen maila guzietan, erdibituak aurkitzen gara, geuk asmatua ez den egitura baten mendean bizi garenez.

Mendebaleko gizarte kapitalistan errotuak gara euskaldunok. Beraz, gizarte honen historia gure historia da. Baina han honela esanik, egia arruntegia da. Kapitalismoaren egituraren barnean garenez, Euskal Herriak badu zenbait berezgarri eta zehaztasun aparteko, eta berezkunde hauk Euskal Herria hesi berezko batean ifintzen dute. Hargatik mendebaleko gizartearen kontraesanak Euskal Herrian errotuak direnez gero, Euskal Herriaren kontradizioak aparte eta bereziki ikuspegitu beharrekoak dira. Adibidez bilinguismoa (bihizkera) fenomeno ezaguna da, gureaz beste diren Herrietan ere. Canada, Belgika, eta abar hizkuntzabitasunaren arazoak arduratuak dabiltz, eta halaber gu ere, baina euskal bilinguismoa berezia eta bereziki ikuspegitu beharrekoa da. Hizkuntzabitasunaren arazoak badu alderdi psikologiko eta pedagogikorik, baina badu, baita ere, alderdi gizartezko eta ekonomikorik. Eta Euskal Herrian alderdi hauk berezten dute hizkuntzabitasunaren arazoa, eta berezgarri berauk erasten diote hizkuntzabitasunari "euskal" izena. Hizkuntzabitasunaren arazoa adibide izanik, zera eman nahi dut aditzerat: alegia, ez daitekeela euskal problemen soluzioea lor eskema eta soluzione "standar" batzuk erabiliaz; aitzitik, euskal arazo bakoitzari bere analisia jatorra egin behar diogu, eta soluzioek ere arazoaren araura euskaldunak izan beharko dute, hots, errealidadean errotuak.

Inork, serio denik behintzat, ez du ukatzen egun, ekonomia egiturak duen indar eragilea eta oinarrizkoa. Azken finean, ekonomiak eragiten duela gizarte ororen abiadura, gauza frogatua da. Ekonomia egitura konkretu bati, egitura politiko eta kultural berezkoa dagokio. Ekonomia da, azken finean, beste giza egiturak determinatzen dituen. Errealidade hau hain dugu jaso eta

beraz hain gara jabetuak, ezenez axioma eta dogma bihurturik dugu.

Baina axioma hau kritikatu beharrean gara. Alegia, esatean: "Ekonomia egitura bati ideologia egitura jakin bat dagokio". Edo berdin dena: "Ideologia (kultura), produkzio moldetikan bat-batean eta xuxen-xuxen hitsesten da". Hau egia bada ere, egia larriegia dugu. Ene aburuz, Euskal Herrian ohi ez den bezalako sinkronismoa dute egitura bi hauek, hots: egitura ekonomiko eta egitura kulturalak.

Azken finean, beti da "determinantea" ekonomiaren indarra. Baina izan daiteke beste giza egitura bat une eta toki konkretu batean "dominantea" izan daitekeena. Hain zuzen ere Euskal Herrian, ekonomia beti, determinantea izanik, kultura egituran datza kontraesan dominant eta eragilea. Euskal Ekonomiaren egitura dugu "matriza", baina kulturagintza da dinamika eta indar eragile gehiena duena. Fenomenu honi, guziz jakingarri eta argigarri deritzat, batik bat, geroaz estrategia bat burutzean. Eta hemen nator ikastolaren arazoari heltzera, eta bere baldintza eta geroaz ihardukitera.

Euskal kultura mendekoa eta ezosatua (sous-développé) da. Argi dakusagu nola euskal ekonomia osatzean (oker bada ere) ez dela bat batean eta parean gure kultura ere osatu. Zozokeria deritzat euskal kulturaren ezosatua izatea ekonomia kapitalistaren ondorio soil bezala ikuspegitzeari, zeren hau zabalki haurtuz gero egia izan badaiteke ere, klarki sumatzen dugu zehatzean besterik ikusmiratu behar dugula. Ene baitan (eta ikus I. Sarasolaren "Euskal literaturaren historia") euskal kulturaren ezosatua izatea, euskaldunok izan dugun jokabide berezian datza. Euskal kulturaz arduratu direnak, apezak izan dira gehien batean. Euskal Kulturaren indar dominantea erlijioa izan da bai gizonei eta bai ideologiari begiratzuz gero. Eta gauza frogatua da erlijioa izan dela

feodalismoaren kultura moldeen berezgarririk nabarmena, eta feodal produkzio moldeen euskarririk tinkoena.

Bestalde, Euskal Kultura nekazari gizarte moldeetan finkatua datza, gehien batean. "Gehien batean" diot zeren, egun bada Euskal Herrian zenbait kultura mota desberdin. Nekazari kultura eta industri kultura batera bizi dira Euskal Herrian. Bater a bizi dira, bai, borrokan bederen.

Ikastoletan, bi kultura molde hauk ausnar daitezke, hain nabarmen ere, azken urte bi hauetan berezi dira, kultura molde desberdin hauk, erlijio arazoa dela ta.

Kontradizioak nagusiak eta tipiagoak dira. Eta beraz ikastoletan, bi kontraesan gisa hauk nabari dira. Batetik kultura euskaldun eta deseuskaldunaren artekoa (kontraesan nagusi eta dominantea); eta bestetik nekazari-klerikal kultura eta industri kulturaren artekoa (bigarren mailako kontraesana).

Kausa eta arrazoin hauk direla eta euskal kultura ezosatua dugu, beraz; baina kultura hau gora jasotzeko ez diegu so egin behar inguruetak bertako kulturei, zeren hauk okerrak direnez, bestekeria arnegarrian jausiko ginake. Euskaldunok geure kultura berezia taiutu behar dugu. Dagoeneko kultura bat badugu, beraz, kultura hori *azaldu* eta berikasi behar dugu. Eta aztertu behar ditugu egoera ezosatu honen iturriak zeintzuk diren. Batik bat psikologia-koak, lehen denboretan kutsatu genituen fede, irudimen eta beste burutazio desegoki.

Besteenganatze mental bat sofritzen dugu euskaldunok, eta lehenik geure baita askatu behar dugu, zeren geurok geurez garbi izanaz lortuko dugu Herriaren aske izatea. Besteenganatze mental honek Herria ixiltasunera eramán du. Geureganatze honetan datza Ikastolaren eginbeharra. Ikastolatikan erne daiteke Herritasun osatu bat. Ikastolak, gizona ixiltasunetik hitzegitera eramán dezake. Eta bere pedagogiak honetara zuzendu beharko du, baldin gure jendearen ikastola izan nahi badu.

Euskaldunok ekonomia desegoki baten pean gaude, baina uztarri hori astintzea ez dugu aski izanen, aitzitik, giza askatasun oso bat lortzeko geure oharrenak ere askatu egin behar ditugu. Baldin ekonomiaren egitura jatorri eta oinarri bada ere, izpirituen askatasunak zer ikusirik handia du, ekonomiaren askatasunarekiko ere.

Zenbait euskaldunen ideologia desegokiak berau lotu eta zanpatu egiten du eta gainera begiak estaltzen dizkio, bere kondizione menpetuaz jabetzeko ere. Eta areago, ideologia alienatu hori du bere etsipenaren sostengu. Ekonomi mailak ideologia konkretu bat du bere ondorio, baina ideologia horrek berak ekonomi maila desegoki eta ezosatuari bere jarraipena ematen dio. Ezin genezake ahantz, beraz, determinazio bikoitz eta dialektiko honen lotura.

Ikastolaren ekitea egoera honetan sustraitu behar dugu. Eta bere arrerak situazio honetatik endelegatu beharrekoak ditugu. Halaber hemendik asma daitezke bere jokabide eta heziketa moldeak. Ikastolaren ekitea ez da soilik euskeraren bide eta eragile izatea, aitzitik areago jo behar du, euskaldunen izpirituak askatuaz eta, bere nortasuna aditzerat emanik, osatuaz.

Ikastoletan, hurrei emanen zaien kultura heziketak, bere izan behar ditu euskal gizartearen kontraesanak eta kontraesan hauen aurrez borrokatzeko gaitasuna eman behar die hurrei. Ikastolako pedagogia haurren gogoak askatzera zuzendu beharko du, eta beraz eta horren bidez ekonomia eta politika mailako kontraesanak desegitera.

PEDAGOGIA ASKATZAILEA

Heziketa molde eta gisari *pedagogia* deritzat. Beraz, pedagogia neutrorik ez da. Pedagogia orok berekin darama heziketa

era bat edo bestea. Pedagogia ez da irakaskintzaren azal eta forma soila, aitzitik pedagogia konkretu baten bidez, haurrak zentzun batean edo bestean abiatzen dira. Metoduak aldaketa prozesu bat taituzten du, eta finean metodologia eta prozesoa batera datoz. Pedagogiak gizarte molde bat tankeratzen du, eta praktika sozial batera zuzentzen da. Beraz, pedagogia baten aukera, gizarte molde baten aukera da.

Euskal Ikastolak egina dute (?) beren aukera pedagogiari dagokionez, eta lortu bide doaz hiraultza bat pedagogi mailan. Hain zuzen ere azken aldi honetan Freinet-en ideiak izan duten harrera ona iraultza honen agerpide dugu. Baina pedagogia metodologia hau ere oraindik errotu gabea dugu eta guzitara ere bere neurri eta garrantziaz ez gara jabetu, osoki eta funtsean behintzat.

Pedagogiaren garrantzia begien bistan dugularik, esan behar dugu, ordea, pedagogia ez dela irakaskintzarako teknika soil bat. Ez dugu ahaztu behar pedagogi teknikak haur konkretu batzuen aplikatu behar direla eta gainera haur hoik Herri berezi batekoak direla. Hau diot zeren, zenbait euskaldun bada Freinet edo beste pedagogoa aintzindariak harturik, teknikakeria arruntan jausi denik.

Honez gero eta Freinet mentatu dudanez gero, esatera noa non datzan zenbait euskaldunen kontraesan larria, pedagogiari dagokionez. Pedagogia bide bat da, eta bide bati bere jomuga dagokio. Adibidez Freinet-en pedagogia askatasun bide bat dugu. Pedagogi molde honetan abiatzen diren haurrak askatzen eta osatzen, auto-osaketan doaz. Baina, ez genezake ahantz bide honen jomuga eta xedea non datzan eta zer nolakoa den. Euskaldun batzuek amor ematen diote bide honi, baina bildur dira bere ondorioaz. Bidea baiezturik, fina ezezten dute haurren heziketari hesiak eta oztupoak jarriaz.

Ikastoletako pedagogiaren arazoa Euskal Herri guziaren pedagogi arazoa da. Euskal Herriaren kontzientzia isildua da, eta

ikastoletako pedagogi moldeak ikuspegi honetatik taiutuak behar dute izan. Pedagogiari kontzientziazio bide eta heziketa molde derizkiogula esana dugu. Eta egun Euskal Herrian nagusi den pedagogi eta heziketa moldeak ez da ez euskaldun eta ez herrikoi. Pedagogia dominant horrek, ez-heziketa batean abiatzen ditu euskal haurrak, eta egungo egoera aldrebesaren iraupen izateko gai prestatzen ditu. Gizarte guzietan bada pedagogi dominant bat, eta pedagogia hori klase nagusia da.

Klase dominant eta boteretsuak bere jakintza ofiziala erakusten du. Unibertsidadeak, institutoak eta heziketaren beste mailako egiturak bere arabera taiutuak ditu klase dominant honek. Ekonomia alorrean honen produkzio moldeak nagusitzen diren bezala, heziketa alorrean ere honen heziketa molde eta pedagogi teknikak nagusitzen dira. Gizarte-egoera orok bere heziketa moldeak ditu, bere *statu quore*n jarraipen eta sostengu. Euskal Herriko legezko egitura nagusiak bere pedagogia horretan aurkitzen du bere euskarririk irmoena. Beraz, Ikastolen ekitea zera da: "legezko" pedagogiari, pedagogia askatu eta marginal bat oposatzea. Eta oposaturik bestea gailendu.

Burgesak, kulturari ilustrazio modu bat deritza; eta kultura konzetu honek sorketa askatua eta berria, ito eta gaitzetsi egiten du. Ilustrazioak kultura, alorra, zabaldu egiten du, ikuspegi bakarrez ezin jaso ahal izateraino, zabaltzen du. Burges kulturak, mundu eten bat irakasten digu, eta mundu apurtu eta eten honen aurrez gizona penatua eta bakarrik oposatzen du. Nagusien pedagogiak, klaseen arteko tartea baieztuaz, areago darama tarte hori, ezin beste dela esanaz (beren arrazoinak teologikoki egituratuak dira, gehien batean, zeren beren axiomatika bakun eta orokorra da).

Pedagogia apurtzaile eta analitiko honen aurrez, ikastoletan hasiak gara beste heziketa molde bat gertatzen. Heziketa molde honek sintetiko (hots, bateratzaile) izan nahi luke. Euskal kultura

berriak batasuna lortu beharrekoa du. Gizon arteko batasuna, taldeko kontzientzia eta, halaber, mundu apurtuaren osaketa batua.

Indar bateratzaile hau, Hizkuntzan datza eta pedagogia berriak hizkuntzari egin behar dio so. Hizkuntzaren egituran dakusagu nolatan mundua bat den, eta berarengan datza, baita ere mundu horren expresio jator eta batua. Hizkuntzatikan hitsets daiteke dinamika sintetiko eta bateratzaile bat eta dinamika horretan ardaztu beharko du euskal pedagogia berriak. Harrigarri deritzat, nola zenbait pedagogo aintzindarik hizkuntzari lehen mailako garrantzia erasten dion, adibidez P. Freire, pedagogo Brasildarraren pedagogiak hizkuntzan aurkitzen du bere funts eta gairik inportant eta lehena. Haur euskaldunen heziketa jomuga eta xede honetara zuzendu beharko da: gizon euskalduna batu eta osatu, libreki eta hizkuntza bitarteko duelarik.

Zeren gizon euskalduna apurtua eta ezosatua den, dela ekonomia, politika eta kultura mailan heziketaren jomuga berau osatzea eta bere baldintzak baliarazitzea da. Haurrak ere ezosatua eta guztiz apurtua du bere kontzientzia. Beraz, haurren heziketari ekitean ez daiteke ahantz jaio den gizartea, eta bere kontraesanak zeintzuk eta zenbaterainokoak diren. Euskal geroari so egitean nabarmenki dakusagu ikastolaren eitea, zeren inertzia baten gisara gurasoek beren hesi eta traba berak erasten dizkiete haurrei. Ikastola, ordea, izan daiteke inerzi hori haus dezakeena.

Heziketa molde klasiko eta legezkoek haurra pasibu eta harpide soil jotzen zuten. Haurra ontzi bat da, eskoletan ilustratu eta "jakintzaz" bete beharreko ontzi bat. Haurrak ez du expresio biderik, haurra ez doa osatzen, ezosatzen baizik. Bere nortasun berezia galbide doa, eta izaera "standar" bat erasten zaio. Haurra, bere kulturaren katibu da. Besteen historia bat bere egin beharrean. Besteen okerra jasan beharrean. Besteen moralak penatu beharrean. Hitz batean esateko: Heziketa molde zaharrean hau-

rrak kultura jasan eta sofritu egin behar du. Kulturaren pean makurtzen da. Ezjakina dela, bakarrik, ikasten du.

Baina heziketa askatu eta sortzaile batek besterik izan behar du. Lehenik, heziketa kontzientziazio batean datza. Euskal Herriko haurrak, Euskal Herria egiazki ikasi behar du aitzina. Eta hori ere ez du *irakatsi* beharrekoa, *ikusi* beharrekoa baizik..

Gauzak konprenigarriago egitearren, axioma moduzko esaera hau erabil dezakegu: "Haurrak ikasi beharrik ez du. Irakasle eta gurasoen ekitea haurrak berak dakiena, beraki bilatzen laguntzea da. Irakasleak haurraren kide izan behar du, bere saiaeran kide eta bere eginahalean lagun". Haurrari, dakiena esaten utzi egin behar zaio.

Ez pentsa, ez, hitz' hauk esatean Rousseau-ren gisako burutazio utopikoak darabilzkidala nere buruan. Rousseau-ren *Emilio* balizko bakardade batean hezitu zen eta Emilio-ren heziketa, egun, onartzea gauza inozentea eta desegokia litzake (XVIII gizaldiko ideiak dira oraindik zenbait heziketa molderen euskarri, eta hain zuzen ere berauetan hezituak (edo desezituak) izan gara geure jenerazionekoak). Zeren haurrak bere nortasuna aurkitu behar du, baina nortasun hori talde batean aurkitu behar du. Beraz, heziketa sozializatua eta askatua litzake, pedagogia berriek irakasten diguten bidea.

Inork ez du nehor hezitzen. Nehor ez da berez, bakardadean, hezitzen; haurrak beren artean eta kidetasunean hezitzen dira, mundu (gizarte) bat bitarteko dutelarik. Eta mundu hori Euskal mundu kontraesankorra eta ezosatua dute. Gisa honetara haurrak jasotzen duen "jakintza" kritiko eta problematzaile izanen da. Eta gainera, jakintza hau praktiko izanen da, ekintzetatik datorrena eta ekintzara doana. Jakintza praktiko-teoriko honen bidez haurrak bere burua askatuko du, eta halaber bere ingurua, sorketa berri baten bidetik abiatuaz.

Heziketa molde berri honek, hiru bider eta partetan apurtzen du eziketa molde klasikoa:

- 1.—Haurraren aldaketa, prozesu baten gisara endelegatzen da. Haurra bera aldatuz, bere ingurua ere aldatu egiten du. Munduari antz eta izate berri bat emanaz.
- 2.—Pedagogiaren teknikak situazioe ezezagunetan aplikatu beharrekoak izanen dira. Eskola irekiaz, haurren bizi modu eta bizi leku oro eskola bihurtzen dira. Haurrak honela jasoko duen kultura praktikoteorikoa izanen da.
- 3.—Heziketa molde honetan, gizon-emakume helduak ere badute zer jasorik. Alfabetatzea eta ikastola batera datoz, jatorrian eta finean, zeren heziketa molde hau ez da hesi apartekoa izanen, aitzitik eguneroko bizi eta munduarekin lokarritua.

Lehenago eta egungo pedagogia biak, bi praktika maila desberdin osatzen dituzte: Pedagogia zaharra edo legezkoa = Menpetasun praktika; ikastoletako pedagogia berria = Askatasun praktika.

Askatasunezko pedagogiaz, gizonak kontzientizazio berri batez jantzirik eta bere egoera menpetuaz jabetu ondoren, giza-iraultza bat osatzeko gaitasuna egokitzen du.

Orainarte esandakoa pedagogi molde eta teknikari dagokio; baina zer esan heziketaren gai edo materiaz? Pedagogia klasikoak gaiari egiten zion so batik bat, pedagogiaren gai "jakin" batzuen bide izatean finkatzen zen. Nolabait ere esan genezake pedagogia zaharrari heziketa koantitatibua zitzaiola ardura. Egun, ikastoletan osatzen ari den pedagogia berrian, haurraren heziketa koantitatibua axola da. Programazioa, aukeratuagoa eta beti berri beharrekoak dute ikastolek, zeren hauen pedagogi moldeak errealidadearen serbitzuan daude; eta errealidadea aldatzen doa, prozesu bat denez. Heziketaren gaia edo *materia prima* errealidadea da, eta errealidade hori ez da abstraktua, aitzitik konkretu eta egunerokoa da.

Beraz, haurraren heziketa honetan datza: berak bizi duena aditzerat eraman dezan laguntzean, eta bere historiaren lekuko eta personaia dela jabetu araztean. Irakasleak, haurraren espresio arrunt eta argalena ere, arrera onez eta serioz hartu beharko ditu, hizkuntza eta jakinduria jator eta berezko baten agerpide bezala. Haurraren hitza praxis baten agiria dugu eta irakasleari dagokio hitz honen loturatzea, eta haurra reflexio bide praktikoko batean abiatzea.

Haurraren heziketa-prozesoa, kontzientziazio batekin parean eta ados burutu behar du. Eta kontzientziazio honek errealidadeaz ideia zuzen bat eman beharko dio haurrari, eta halaber, euskal gizartearen egituraz ere jabetu arazi beharko du. Hain zuzen ere kontzientziazio hori politiko da.

Norbaitek esan lezake, ikastolek, eta zabalki heziketak, ez dutela politiko izan behar, zeren haurrak, askatasun bidean hezitua behar badu izan, politika bera ere hesi bat litzake haurrarentzat. Baina oker doake "norbait" hori, zeren besteak beste, esan dugunez heziketa askatuak haurra mundu konkretu batean ifintzen du, eta mundu hori kritikatzeko gai osatzen du. Heziketa honen bidez haurrak jasotzen duen kontzientzia ez daiteke inolaz ere neutro izan; kontzientzia hori mundua aldatzeko instrumento denez gero. Heziketak neutro izan behar duela esateari mistifikazio bat deritzat. Baina heziketa neutro ez bada ere, ez daiteke "manipulazio" bide izan. Hain zuzen ere, irakasleak badu aukera politiko bat, eta halaber kontzientzia bat; ordea, irakasleak ez lezake, besterik gabe, bere kontzientziaren araura, kontzientzia berdina bat edo aukera politiko berdina haurrari ezar. Beti erantsiko dio irakasleak halako kutsu bat, hori ezin bestekoa da; baina irakaslearen ekitea ez da *adoktrinatzera* edo *slogan* batzuk haurrari ezartzea, aitzitik irakaslearen irakaskintzak ere kritikoki izan behar du. Eta ez lezake irakasleak bere botereaz, haurrari, zenbait prinzipio onartaraz. Haurrak, botere ooren aurrez kritikoki jokatu behar

du eta haretarako irakasleak berak ere, zenbaitetan, bere bote-reari uko egin beharko dio. Heziketa askatua, ez da *askatasunaz* lezio bat, ez eta ere, reflexio bat, aitzitik askatasunaren praktika bat da. Beraz, heziketa ez da zerbait neutroa. Heziketa orok antropologia bat darama, eta antropologia honek askatasuna babesten badu, eta bere fina gizonaren askatasuna lortzea bada, praktika politiko batera iristen da, eta praktika hori askatua izanen da.

Sasoi honetara heldurik esan beharra dut, hemen pedagogiaz eman ditudan argi (eta itzal) hauk, haurren heziketaz burutuak izan direla. Zeren bigarren mailako ikasleen arazoa besterik litzake, programazio hertsia baten mendean daudelakotz. Bigarren mailako ikasleekiko pedagogia honek kontraesan larri bat agertzen digu, eta kontraesan hori bi heziketa sistema desberdinen arteko kontraesana da. Eta Ikastolaren arazorik larriena hemendik datorke. Alegia, egun, Ikastoletako haurrak pedagogia askatu baten barnean ari dira hezitzen, baina bihar erabat loturatuta eta programatuta dagoen sistema batean jardun araziko dituzte. Eta geroari so eginaz gero, hemen datza ikastolak sortzen duen kontradiziorik larriena. Eta hemendik jaioko den borroka ez da soilik bi pedagogien arteko borroka, aitzitik izanen da bi egitura sozialen arteko borroka. Geroaz bi aukera, eta lehenaz bi interpretazio desberdin borrokatzen dira hemen, heziketa molde desberdinak direla ta. Egoera hau dela ta, bururatu zait, produkzio molde eta heziketa moldeen artean ezarritako ekoazioa.

Produkzio moldetik Heziketa moldea. Azken finean, ikastolaren arazoa, Euskal Herriarena dugu. Eta ikastola dela ta, gure artean sortu diren eztabaidak, kontraesan nagusi baten agerpide dira. Euskal Herriaz osatu diren proiektu desberdinen arteko kontraesan nagusiaren agerpide. Erljioaren arazoa ere hemendik ikuspegitu beharrekoa dugu.

Bidezko deritzat orainarteko esanak eskema batean ifintzea.

Eskema oro, ximple eta arrunta dugu, eta beraz are zehatzegia ez, baina horra: produkzio molde negatibu batetik, desgogotzea dator, eta hemendik esanekotasuna eta, azkenik, kultura deseuskalduna; eta aitzitik: heziketa molde positibu batetik (ikastolatik) askatasuna eta gizarte ekintza eta produkzioaren molde aldaketa.

Eskema honetan lau kontraesan mota aditzerat eman ditugu. Eta eskemaren egitura bi partetan berezia datza. Alde batean dakusagu nola produkzio molde desegokiak, kultura deseuskalduna duten ondorio. Eta bestalde, heziketa moldeen iraulketa bat (kulturazko iraultza batek) produkzio moldeen itzulketaren kausa izan daitekeela, dakusagu. Noski eskema hau, eskema ezik ez da, baina argigarri deritzat berak aditzerat ematen duen bidea.

ZENBAIT ONDORIO

Duela guti, ihaz hain zuzen, argitaratu den *Euskal Herria eta Ikastola* liburuak honela dio: *Ikastolak beste gauza asko bezala, ta ikastolara joaten diren aurrak errikoiak dira, baina ez erriarenak.* (Hor. 71). Eta areago dioenez: *Aurren azken erantzukizuna erriak duala aitortzen dituzten sistimak fazismoaren lerroan daude.* Denok dakigu familiaren gorentzea, fazismoaren ezaugarririk argiena dela, baina ez noa ni hemendik, eta besterik ekinen diot salaketa argal honi.

Norenak dira haurrak? Herriarenak edo gurasoenak? Galdera hauk okerrak dira, eta nabarmenki agerrarazten dute beren ideologiaren hildoa. Jabetasun edo propietade zentzunaz kutsatuak dira galdera hauk, burges pentsakera baten agerpide ditugu, eta halaber arazoaren funtsa estaltzen dute.

Haurrak ez dira ez gurasoenak ez eta Herriarenak ere, guzitara ere esan daiteke ekonomia egitura alienatu batean, produkzio moldeen morroinak direla. Baina goazi areago, zeren Haurrak

herrikoi direla esanaz erantzuten duena ere ez doa zuzen. Haurrak ez dira *herrikoi* eta berez ez dira inorenak. Haurrak berez, *beurenak* dira, eta herriarekiko ez dute osatzen kategoría apartekoa edo hesi hertsia bat. Haurrak *herria* dira, eta *herria* direnez Herri-kide dira, gurasoen-kide, irakasleen-kide. Gainontzeko eraskinak jabetasun gura bat adierazten dute, eta haurren nortasuna gaitzetsi bide dute.

Baina zein da guraso eta irakasleen erresponsabilidadea, haurrarekiko?

Azken urte hauetako gora-beherak aisa frogatzen dute guraso eta haurren arteko lokarria lasaitzen eta askatu bide doala. Gauza segura deritzat familiaren egitura ohizkoaren desagitea areago eta laisterka doala. Familiaren egitura klasikoa krisi larri bat jasaten ari da, eta beste egitura berrien bilaketan arduratuak gabiltz. "Aitarren herioaz" asko eta serio hitzegin da azken aldi honetan; zahar eta gazteen arteko etena (edo jenerazinoen arteko borroka) soziologikoak zer ikusirik handia du arazo honetan. Baina ez du berak ororen oroa argitzen. Gehienbatean "menpetasun" eta "askatasunaren" arteko kontraesanaren bizkarretik ulertu beharrean gara guraso eta haurren arteko eten aipatua. Kontraesan hau sortu ditugutenak baldintza ekonomikoak dira batik bat, zeren ekonomia behe-egituraren aldaketa koalitatibuak, gizarte molde berri baten atarian jazarri gaitu. *Konsumozko gizartearen* ondorioetako bat zera da: aukera bideak zabalduak eta luzatuak izan dira. Lehen, haurraren aukera familiaren mundu tipi eta hertsian finkatzen zen; baina orain haurraren aukera familiaren hesitik at ardatzen da. Baina familiaren menpetik ertetzeak badu beste peril eta alderdi bortitzik ere. Gurasorik gabeko gizartean (ikus: Mitscherlich-en *Vers la société sans pères* liburua) denok neba-arrebak gara. Baina gizarte molde honetan, eta hau argi zekusan Freud-ek, senideen arteko sesio, zelo eta beste ezinikusiak nagusi dira.

Beraz, eta haurra ere *herria* dugunez, senide eta kideko dugu,

eta gurasoak eta irakasleak ere haurren senide eta kideko dira. Azkenaldi honetako eztabaidak ez dira, beraz, guraso eta irakasleen arteko eztabaida soilak, aitzitik herrikideen arteko eztabaidak dira. Eta eztabaida honen oinarria (haurra) Herria da, eta herriaz, desberdin diren bi ikuspegi borrokatu dira.

Freud-ek esana da: *Haurra, gizonen Aita da*. Esaera honi guziz konprenigarri deritzat argitu berri dugun kontexto honetan. Zeren *aita* boterearen arketipo eta prinsipio emankorra denez, haurrak ere bere dituen baldintzaz, gizartearen oinarri eta gizonen ispilu izan daiteke. Haurrak ez dira inorenak. Azken finean norbaitenak badira *norberarenak* dira.

Ene aburuz, begien bistan datza, irakaslea adindunen ordezkari duela haurrak, eta honengandik dakusa adindunaren mundua. Gainera Ikastolan osatzen du haurrak bere bizi soziala, eta Ikastolan sortzen zaizkio bere arazo gehienak. Adibidez, bere sexualjokaeraren agerpiderik nagusienak Ikastolan suma daitezke. Beraz, irakaslearen ekitea ez da ekite tekniko soilak. Irakasle eta ikasleen arteko harremanak estuak dira, eta *intersujetibidadearen* mailan kakotzen dira. Harreman hauk, guraso eta haurren artekoak bezain sakonak dira eta maila berdinekoak. Irakasleak duen erresponsabilidade eta erantzunkizuna handia da, beraz, eta zenbaitetan barkarra. Baina erresponsabilidade hori ez dugu ikuspegitu behar gurasoen ordezkari den alderditik. Haurra eta irakaslea *herri* direnez eta Herrigintza osatzen ari direnez, irakaslearena, erresponsabilidade sozial eta politiko da.

Erljioaren arazoa ere hemendik ikuspegitu beharrekoa dugu. Esan dugunez, irakaslea ez da erakusteko makina bat eta haurra ere ez da bete beharreko ontzi edo kaiku bat. Biak, haurra eta irakaslea, pertsona dira eta maila honetan erantzun beharko diote erlijio arazoari zentzu batean ala bestean.

Haurren heziketari begiratuaz, Ikastola ez da etxeko sukaldearen jarraipen bat, aitzitik etxeak beharko du izan Ikastolaren

jarraipen eta segida. Noski, hau esatean gauza teorikoki frogatzen dut eta suposaturik Ikastola zinezko Ikastola dela, hau da: Askatasunezko praktika baten gordailu eta eragile.

Haurrek bildurtu egiten gaituzte, eta bildur gara, ea zer nolatan erabiliko duten beren askatasun bidea, eta bildur gara gure nagusigoa eta botereak gaitzetsiak izanen ote diren. Tristeia da, eta are arnegarriago gure botereaz segur izateko haurren menpe-tasuna onartu beharra eta beraien askatasunari oztopoak ifintzea. Ezin eramana dugu gu baino gazteagoak edo "beheragokoak", geurok ona deritzagun ordena kritikatzeari. Baina gure *goi balore eta lerroak* zinezkoak badira, kritika eta proba jasan beharko dute. Eta honetarako *pluralista* izatearekin ez dugu aski izanen, lehenik askatasunaren menpean jarri beharko dugu. Eta askatasuna Haurrak dira. Askatasuna *herria* da.

GAI HONTAZ ZENBAIT LIBURU

Bibliografia gisara

- R. LINTON, *Les fondements culturels de la personnalité*. Ed. Dunod. Paris.
- J. PIAGET, *La casualidad física en el niño*. Ed. Espasa-Calpe Madrid.
- S. ABOU, *Le bilinguisme Arabe-français au Liban*. Ed. P. U. F. Paris.
- L. ALTHUSSER, *Pour Marx*. Ed. Maspero. Paris.
- J. PIAGET, *Psicología y Pedagogía*. Ed. Ariel. Barcelona.
- ELKAR-LANEAN: *Euskal kultura*. JAKIN aldizkaria, 34 zenb. Arantzazu.
- K. NKRUMAH, *Le consciencisme*. Ed. Payot. Paris.

- W. S. GRAY, *L'enseignement de la lecture et de l'écriture*. Ed. UNESCO.
- J. FREISSINET, *Le concept de sous-développement*. Ed. Mouton. Paris.
- P. FREIRE, *La educación como práctica de la libertad*. Ed. Icirá. Santiago de Chile.
- E. FIORI, *Aprender a decir su palabra*. Bulletin SEUL. Brusele.
- P. BOURDIEU, *Éléments pour une théorie du système d'enseignement*. Ed. de Minuit. Paris.
- B. MAILHOT, *Dynamique et genèse des groupes*. Ed. L'Epi. Paris.
- P. H. COOMBS, *The World Educational Crisis*. Ed. Oxford University Press. New York.
- N. POULANTZAS, *Pouvoir politique et classes sociales...* Ed. Maspero. Paris.
- LEÇONS DE PEDAGOGIE**. Ed. P.U.F. Paris.
- A. FERRIERE, *L'autonomie des écoliers*. Ed. Delachaux. Paris.

I.—IKASTOLA ETA KATEKESIA

Erlijioa dela eta ez dela Ikastoletan aspalditik darabilgun borroka, oraino erlijio sail honetan Erdi Harotik edo, gutienez, XIX mendetik igaro ez garen seinale delakoan nago.

Irakur ezazue, nire lantxo honen haria hobeki konpreni dezazuen, JAKIN sorta 3garrean Rikardo Arregi zenak *Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu* izenburuz idatzi zuen artikulua. Guziz bat nator artikulua haren mamiarekin. Uste dut Ikastoletarako zuzen zuzenean aplikatu daitekeela.

Ikastoletan erlijioa eman behar dela su eta gar defenditu dutenen argumenduak oso motelak eta azalekoak izan direla uste dut. Eta baita, gehienetan, kontrakoak ere.

Irakurria dut Jose Lasaren liburua, *Euskal Erria eta Ikastolak*. Hor agertzen dira, sail sailean, kontrakoen arrazoinak eta Lasaren erantzuna, arrazoin horiek banaka banaka desegin asmoz. Eztabaida osoa azaleko maila arin batetan ikusten dut eta bide

horretatik ez dut inolako eta inorako irtenbiderik ikusten. Uste dut beste oinarri batetatik abiatu behar dugula. Eta nire abiaduraren oinarria hau izanen da:

- 1) Ikastola haurra lantzeko da, haurra kulturatzeko.
- 2) Ikastola ez da, berez, kredo erlijioso bat irakasteko tokia. Horretarako Katekesia dago.

Bi bide hauek eraman behar duten autonomia frogatu nahi nuke.

1.—Ikastola, haurra kulturatzeko

(Pondu hau oso laburki emanen dut, zuzenean dagokiguna ez bait da, bigarren pondurako gertabide baizik).

Gaurregun gizonaz dugun ideia guziz aldatu zaigu. Ez da batez ere, beti uste izan dugun bezala, arimaz eta gorputzez osaturiko zerbait. Hori baino gehiago eta egokiago, askatasunez eta erresponsabilidadez hornituriko norbait da gizona. Horrek berzten du beste animalietatik.

Hori dela eta, jaiotzez baino hezibidez gehiago hartzen du gizonak. Jaiotzez dakarrena baino heziketaz lortzen duena gehiago da pertsonagintzan. Lehengo ikusmoldeari, ikusmolde biologikoa deitzen diote: geldia, berezkoa, odolezkoa, jaiotzazkoa. Oraingoari, berriz, ikusmolde kulturala. Lantzez, hezitzez sortzen da pertsona, askatasunez eta erresponsabilidadez osaturiko norbait bezala definitu dugunez gero.

Pertsonagintza honetan, haurraren hiru ahalmen landu behar dira: pentsamena, hautamena eta ekinmena. Pentsatzez, hautatzez eta ekitez doa gizona pertsona mailara igoaz.

Hiru ahalmen horiek lantzerakoan, giza balore batzuk lantzen ari gara eta, batipat, honoko hauk izanen dira: erresponsabilidadea, inizatiba, espresioidea edo hizkuntza, langiletasuna,

anaitasuna, egia, esperantza, justizia, elkarkidetza, besteen nortasunaganako begirunea, eta abar.

Ikastolako harreman guzietan, jolasean, hizketan, ikasketan balore horiek mamitzea, ahalmen horiek lantzea, haur hori kulturatzea eta pertsonatzea, hori dela uste dut Ikastolaren eginkizuna. Hori du bere berea. Horretan aritzeak definitu behar du eskola. Gizarte-serbitzu organizatuak ongi eta zehatz mugatzea derriorezkoa dugu, denon kaltetan zeruak eta lurak zeharo nahasi nahi ez baditugu behintzat. Eta Ikastola serbitzu horietako bat da.

2.—KREDO erlijiosoek Katekesi berezi bat behar dute

Lehenik, kredo erlijiosoa esaterakoan zer esan nahi dudan garbi jarriko dut. Niretzat, kristau dotrina, Budaren dotrina, ateismoaren dotrina, marxismoaren dotrina, kredo erlijiosoak dira. *Sinesten dut Jainkoa badela eta Badakit Jainkorik ez dela*, bi biak dira sineste saileko afirmazioak. Bata, baiezko erlijioa; bestea, ezeko erlijioa.

Marxismoari gagozkiola, zenbaitek esanen du ez dela erlijio bat, metodu zientifiko bat baizik. Badaiteke hori horrela izatea teoriaz eta biharko egunez horretara iristea. Baina gaur egun mamitzen den bezala, erlijio bat da, nahiz Jainkoa ukatuz, nahiz gizona jainkotuz. Jainkoa ukatuz baino gizona jainkotuz gehiago. HUMANIDADEA, GIZON BERDINEN PARADISUA, gauza absolutuak bilakatu dira marxistarentzat eta maiuskulaz idazten ditu. Absolutua eta maiuskula sortzen direnean erlijioa ere sortua dela uste dut. Baina hutz dezagun hau, ez bait dator harira.

Bigarren oharra: katekesia irakutzean, ken ezazue burutik parrokia gehienetan gaur ematen den katekesia. Gaurko era ez da posibilitate bakarra. Katekesia emateko izan daitezkeen modu eta molde berriak ez ditugu ezinezkotzat jo behar.

Ateismoa landu nahi dutenek, horretarako bere katekesia sortu behar dute. Berdin marxismoa landu nahi dutenek. Eta baita kristau fedea landu nahi dutenek ere. Erlijio bakoitzekoek esku-bide osoa dute —eta obligazioa ere bai— beren erlijioa publikoki sakontzeko eta bizitzeko.

Baina, zergatik Ikastola alde batetik giza baloreak landuz eta Ketekesia bestetik kristau erlijioa irakatsiz?

3.—Euskaltzaileen Jainkoa eta Bibliako Jainkoa

Erlijioa espresuki eta dotrina mailan Ikastolan sartu nahi dutenak oraindik ere *euskaldun fededun* eskema horrekin bizi direla uste dut. Fedea euskaldun gizartearen euskarri eta justifikatzaile bezala ikusten dute. Horrela, Jainkoa Euskal Herriko sokari loturik gelditzen da. Ondo domestikatua, guk eraiki nahi dugun euskal etxearen oinarri.

Euskal kulturaren baitan derriorezko elementu bat bilakatzeko da. Horixe da, hain zuzen ere, deitzen jainkoa, eta jentilen jainkoa eta euskaltzaileen jainkoa, derriortua, kulturatua. Hitz batez, Euskal-kultura-jainkoa, sasi jainkoa, eta ez Kristo, ez Bibliako Jainko librea eta libratzailea (Ikus JAKIN sorta, 3, Joseba eta Rikardo Arregiren artikuluak).

Askotan entzun izan dut: “haurrari kultura nahi eta nahi ez eman behar diogun bezala, fedea ere nahi eta nahi ez eman behar diogu”.

Horrela pentsatzen dutenek kultura eta fedea maila berdinean ipintzen dituzte, *beharrezkoaren mailan*. Eta hortxe sortzen da okerbidea. Kultura beharrezkoa du gizonak, lehen ikusi dugun bezala, kulturak pertsonatzen bait du gizona. Baina ez fedea, fedea ez dezakegu derriorearen mailan ipin. Fedea derriorearen mailan ipintzean, honen izatea itotzen dugu. Fedea giza esturturen barnean beharrezko bezala sartzea fedeari bi tiro ematea da. Horrela

bere debaldetasuna, bere graziatasuna, dohaintasuna galduko luke. Eta fedearen muina debaldetasun hori delarik, inoiz ere ezin dugu kulturaren mailan ezarri.

Horregatik, fedearen eta kulturaren arteko nahasketarik eta identifikaziorik gerta ez dadin, oso komenigarri ikusten dut bi gauzok ongi bereztea eta ikasbide oso berezia ematea.

Alde batetik, *Euskal Herriak behar duena*, hemengo gizonari dagokion kultura. Bestetik, *Euskal Herrian talde batzuek nahi dutena*: fedea. Lehena, *beharraren mailan* dago; bigarrena, *hautapenaren mailan*.

Hori horrela delarik, bata eta bestea nahasketarik gabe eman ahal izateko, bi bide, bi estruktura berezi, bi organizazio izatea oso komenigarri ikusten dut. Ez dut esan nahi derriorrez bide ezberdinak behar direnik, baina bai hori oso egoki litzakeela.

Eta Euskal Herriko egungo erlijioa ikusirik, are gehiago. Izan ere, erlijio soziologiko baten menpean bizi gara. Fedearen askatasun eta sakontasunetik baino ohituraren azaletik gertuago dagoen erlijio moldetan.

Langilegoaren baitan eta gazteriaren artean erlijio mota hau ia lur jorik dago. Laborantza sailean oraino oso finkatua. Badu horrek bere arrazoina. Eta arazoina hauxe da funts funtsean: laboraria, lurrarekin harremanetan bizi delarik, azaleko aldaketa batzuk gorabehera, gauzak beti lehenean irauten duela ikusten du eta iraupenaren eta aldagaiztasunaren legea onartzen.

Gure burgesia mailak ere ez ditu gaurko erlijio molde soziologikoak hautsi nahi. Euskaltzaleen jainko domestikatuarekin oso konforme bizi da. Horrek ere badu bere arrazoina eta ez da zail ikustea. Arrazoin hori dirua da, hondo hondoan. Gure burges euskaldun fededunek, Jainkoak nahi bezalako Euskal Herria nahi dute. Baina aurrez, bada ezpada ere, heurek nahi bezalako Jainkoa asmatzen dute.

Eta esan beharrik bai ahal dago burgesen semeak direla,

hiri handietan batez ere, egun Ikastolak betetzen dituztenak? Horregatik, oso zail gertatuko zaigu gure artean erlijio estrukturak aldatzea, erlijio saileko interesen artean beste interes bortitzago batzuk sarturik dabilzelako. Interes horiek zenbatetan sartzen diren oharbidez eta zenbatetan ohargabe, besterik da. Ez naiz horretan sartzen.

Dena dela, berezi behar ditugu ongi eta garbi, kulturaren maila eta fedearen maila. Euskal Herriak *beharrezko du* euskera eta euskal kultura. Euskal Herriak fedea *ez du beharrezko* Euskal Herri izateko. Hau onartzen ez duenak Batikano II-ri usainik ere ez dio hartu.

Eta horrek ez du esan nahi fedea kulturak baino inportantzia ttipiagoa duenik gizonagan, inportantzia ez bait doa beti beharrari lotua. Horrek esan nahi du, bakar bakarrik, bi errealidade diferente direla eta bi tratamendu diferente eta berezi behar dituztela.

Ez du esan nahi, ezta ere, fedea bizona konkretutik kanpora atera nahi dugunik. Edo eta Estadia eta Eliza ongi bereztea eta bakoitzari autonomia osoa ematea Eliza mundutik ateratzea ahal da? Oso bestera, memento horretantxe hartzen du Elizak sail konkretu denetan sartzeko askatasuna. Berdin berdin fedea ere.

Hamaika aldiz entzuna: "Ikastolan dotrina irakastea gurasoen eskubidea da". Esan duguna esan eta gero, arrazoin horri ez diot oinarri sendorik ikusten. Egia da gurasoen eskubidea dela beren haurrei erlijio bat ala bestea ematea. Baina *Ikastoletan ematea* ere bai? Ikastolek eginkizun berezi bat badute, beren berea dutena, gurasoek izango ahal dute eskubiderik eginkizun hori beren nahira moldatzeko?

Eta fedea kulturaren katetik joan behar ez badu, eta kultura irakasteko tokiak eta fedea irakasteko tokiak bat eta berdinak izanik fedearen mamia desegiteko arriskua badago, gurasoek ba ahal dute eskubiderik fedea itobide horretara eramateko?

II.—FEDEAREN ZENBAIT MEMENTO

Orainarte, erlijio hitza erabiltzerakoan, dotrina bat, kredo bat esan nahi izan dut. Kristau dotrina, kristauaren kredo, gure kasoan. Fedea esaterakoan, berriz, bere osotasunean hartu dut. Alegia, Munduaren askatasun guzizkoa Kristorengan finkaturik dagoela, Kristok, bere eta gure piztueraren bidez, gizonari salbazio osoa eskaintzen diola sinestea.

Baina fedea ez da monolito bat. Fedea, enunziado bezala, bat da, zerbait osoa, baina bere espresio bidea erlatibua da. Dimensio bat baino gehiago ditu gizonaren bizitza konkretuan. Batzutan, edozein zirkunstantziagatik, dimentsio bat bestea baino gehiago azalduko da.

Hori dela-ta, fedearen analisi labur bat egitera noa, bere baitan dituen dimentsioak ikusita, horietatik Ikastolari eta haurrari zein dagokien ikus dezagun.

Fededun izatea zer den galdetzerakoan, nahi haina erantzun ezberdin entzun daiteke:

- a) Bizitza jator bat eramatea, konpromisoa, justiziaren alde lan egitea, besteentzat bizitzea, eta abar.
- b) Absolutu den zerbait badela sinestea.
- d) Kristoren heriotza eta piztuera onartu eta horietan parte izango dugula sinestea.
- e) Kristau dotrina jakin eta betetzea.
- f) Kristo pertsonagan konfiantza osoa izatea.
- g) Sakramenduak hartzea, otoitz egitea.

Bakoitzak izan duen heziketak, inguruan duen giroak eta jendeak, barnean duen psikologiako konstituzioak eta bizitzan izan ditzakeen *interesak* horietako erantzun batera nahiz bestera bultzatuko du. Baina errealitatea ez da hain xinplea. Hain aurpegi

batekoa ez dela esan nahi dut. Erantzun guzi horiek dute zerikusia fedearen mamiarekin.

Eskema klasikoetatik ahal dudan neurrian irtenik, terminologia eta klasifikazio berri batzuk erabiliko ditut fedearen gorputz osoa nolabait adierazteko.

Fedearen baitan bost memento —maila, alderdi— ikusten ditut nik:

- 1.—Praxis mementoa.
- 2.—Interpretazio mementoa.
- 3.—Sistematizazio mementoa.
- 4.—Trazendentzi mementoa.
- 5.—Ospaketa mementoa.

1.—Praxis mementoa

Zer da fedea? Gaurko gazte fededun —fededun ala fede bilatzaile?— askoren erantzuna: giza-baloreen lantzea, nortasuna bilatzea, askatasun eta justiziagintza, pertsonagintza, konpromisoa.

Nire iritziz —eta lehen esan bezala— erantzun hau ez da aski, erantzun hori bere horretan osoa dela uste bada behintzat. Fedearen mamia gehiago zehaztu eta mugatu beharra dago. Baina hala ere, uste dut horixe dela mementorik nagusia eta definitzaileena. Ekintza, hots, erresponsabilidadez eta askatasunez pertsonagintzaren alde mamitzen den ekintza askatzailea da gizabizitzan memento aberatsena.

Marxek ongi esan zuen (beldur naiz Marx aipatzeaz, gizon honi fobia eta nazka neurrigabea dioten katoliko eta erromaniko zenbait lepotik etiketatxoaz ezartzen hasiko bait zait): *Folosofiak orainarte mundua interpretatzen ibili dira; mundua aldatzen has-teko ordua heldu da.*

Hori egia da, ez gizarteak eskatzen duen zerbait delako bakarrik, baita psikologia aldetik begiraturik ere. Oso heziketa

aproposa hartu dugu gure mundualdi hau munduaren interpretazio polit bat ematen pasatzeko. Alegia, mundu hau nola den, zergatik, zertarako, eta abar. Baina gizarteak finkatuak dituen baloreak, ordenak, ohiturak eta mailak diren bezala uzteko kondiziotan beti.

Gaurregun ongi xamar jabetuak gara gizonaren ekintzatasunaren balio definigarriaz. Hori dela-eta, praxis mementoak lehen mailan behar du, bai giza aldetik eta bai fede aldetik. Askatasungintzako praxia da fedearen benetakotasun ordua. Nik beste gizon horri zergatik, nola, noiz lagundu behar diodan *jakitea*, pertsonari dagokion eta pertsona osatzen duen zerbait da. Baina beste gizon horri *laguntzea* da egiatzko mementoa. Memento horretan askatzen dut bestea eta bestea askatze horretan askatzen dut nire burua.

2.—Interpretazio mementoak

Alde batetik:

Zorionekoak pbreak.

Zorionekoak justiziaren gose-egarri direnak.

Horietako bati egiten diozuena, neri egiten didazue.

Eta Kristoren jokabide osoa, bere *besteentzat izatea*. Bere bizitza besteengatik ematea. Eta abar.

Bestetik:

Elkarkidetzaz, elkarlana, pobre izatea, injustiziak salatzea, barkatzea, eta abar. Hitz batez, Ikastolan haur batek landu behar dituen giza balore jatorrak.

Eta lotura:

Balore hauek ebanjelioko pentsamolde eta Kristoren jokabidearekin bat datozen. Balore hauek, jokabide hau, laguntza hau, besteetatik arduratze hau, Kristoren ideologia eta jokabidearekin bat dator. Lotura hori ezartzea litzake bigarren mementoa, interpretazio mementoa.

Lotura edo interpretazio hau egiteko ez dago fede oso eta heldu beharrik, ez da Kristoren jainkotasunean edo trazendentzian sinetsi beharrik. Aski da ikustea Kristo horrek ideologia askatzaile bat ematen duela, bere bizitza besteen alde eman zuela, historian zehar eragin handia izan duela eta gaur ere baduela.

3.—Sistematizazio mementoa

Edo dotrina mementoa. Kristau fedearen egiak, Kristoren dotrina eta bizitzaren ikuspegia ematea izango litzake. Kristoren dotrina eta ekintza klasifikatzea, azaltzea eta interpretatzea.

Gaurko Kristau Ikasbideak hortik hasten dira. Lehen mailan memento hori ifintzen dute. Dotrina edo egia sistematizatu horiek emanaz hasten dira, gero, behar bada, bizitza mailara aplikazio-bidez jaisteko. Nire iritziz, oso bide okerra da eta haurren siko-logiaren kontra kontrakoa.

4.—Trazendentzi mementoa

Kristo ez da gizon soil bat. Haren ekintza ez da ekintza iraultzaile eta askatzaile soil bat. Haren bizitza eta ekintza ez dira oraingotasunaren menpe. Haren *nortasuna* ez da heriotzean bukatzen. Bere burua *betirako du libre*. Horretan datza Haren *nortasunaren osasuna*.

Gure aldetik, berriz, Haren borrokan eta heriotzean parte hartuz Haren nortasuna gureganatzen dugu eta, heritoza menperatuz, *geroaren jabe egiten*. Ekintzako memento latzean, esperantza honek ematen digu arnas. Trazendentzi memento hau oso da inportantea niretzat. Baina, batetik haurraren siko-logia, eta bestetik trazendentzia hau ikustearen zailtasuna kontuan izanik, ez dugu presarik izan behar memento hau haurrari eta gazteari

agirian jartzeko. Ez dugu indarpetu behar, ez haurraren desarroi-
loa, ezta fedearen naturaleza.

5.—Ospaketa mementoa

Otoitza eta sakramenduak. Batez ere Eukaristi ekintza. Os-
paketa honek ez du sentidurik trazendentzi mementoa ikusi eta
onartu arte. Kristoren trazendentzian sinesten ez badut, otoitz
eta sakramenduen bidez Harekin harremanetan sartzea, zentzu
gabeko zerbait da.

Hemen ere, sakramendukeria batetan heziak izan gara. Siko-
logiaren eta fedearen pausoak batere errespetatu gabe, teilatutik
hasi dugu etxegintza. Giza heldutasun eta fede heldutasunaren
espresio bide eta indar bide izan behar zukeena, haurren jostailu
eta jendeen lobelar bilakatu da gehienetan. Izan ere, teilatutik
hasten den etxeak ez du inoiz taxurik izango.

6.—Ikastola eta Katekesiaren berezketa

Hauek honela direlarik, zer dagokio Ikastolari eta zer Ka-
tekesiari?

1.—Fedearen lehen mementoa, hots praxis mementoa, Ika-
stolak eman behar duen zerbait da. Kulturagintza, pertsonagintza,
askatasun eta justiziagintza, giza baloreak lantzea, gizon berriak
sortzea da Ikastolaren egitekoa. Praxis humanista hori fedearen
praxis mementoarekin identifikaturik gelditzen da. Memento hori
beharrezkoa du haurrak. *Ikastolari eta haurraren adinari dago-
kiona da.*

2.—Interpretazio mementoa Ikastolak, nahi eta nahi ez, eman
behar duenik ez dut ikusten. Kristorekin lotu beharrean beste
batekin lot daiteke praxis hori. Dena den, eta gaurko Euskal
Herri honetan guraso gehienek eta andereño gehientsuek interpre-

tazio hori onartzen dutelarik —eta denak interpretazio hori ematera behartu gabe— ez nuke gaizki ikusiko Ikastoletan. Kontuan izanik, gainera, praxisa indartzen eta sendotzen duen zerbait dela, eta ez muntadura artifizial bat bakarrik.

3.—Sistematizazio mementoari ez diot ikastolan sentidurik ikusten. Ez da, nire ustez, haurren adinari dagokion mementoa. 6-7-10-12 urtetan egia mordo sistematizatu bat haurraren buruan sartzea oso kaltegarri dela uste dut. Dena den, lehenago esan bezala, katekesiaren lana izango litzake bereziki.

4.—Trazendentzi mementoa ez da, berriz, ez haurraren adinari dagokiona eta ez Ikastolari dagokiona. Giza baloreetan eta konpromiso bidean heldutasun bat eskatzen du, alde batetik, eta *hautapenezko* zerbait da, bestetik. Uste dut ez dagoela esan beharrik, gizonak gizon izateko fededun izan beharrik ez duela. Memento honen mailan, fedea opzio bat da, hautatzen den zerbait, ez beharrezkoa.

5.—Ospaketa mementoa aurrekoarekin hain loturik dagoenez gero, hor esan denarekin aski dela uste dut.

Ondorenez:

Ez dugu esango, inolaz ere, Ikastolan erlijiorik edo federik eman behar ez denik, baizik eta, fedeak memento asko duela jakinik eta kontu emanik, memento horietarik Ikastolari eta haurraren adinari dagozkionak emango direla. Fedearen naturalezeta eta haurraren desarroiloa haintzat hartuz, hori dela uste dut zintzo jokatzea.

III.—ELIZA ETA IKASTOLAK

Ihesbidea. Pobretasun falta. Hona bi akusazio gure arteko Elizaren kontra, Ikastolekin duen jokabidea dela-ta.

Alde batetik: 20 urtetako gazteari fede planteamendu berri eta sakon bat eskaintzea baino Ikastoletako haurrei dotrina ematea errazago da. Elizak ausardia osoa galdu du, imajinazio gabe gelditu da.

Bestetik: Elizak indartsu izan nahi du. Ez du aski Kristoren eta ebanjelioaren indarrarekin. Jabetza pribatuen egarria ase ezinik dabil.

Pondu hauetaz autokritika ausart eta serio bat egitea ez ote zaigu komeni? Horretara noa, eskematikoki bada ere.

I.—Eliza, askatasun bide?

Zein da Elizaren helburua? Batez ere eta hitz laburrez: pertsonaren kristau askatasuna anunziatu eta hori realizatzen saiatzea.

Elizak anunziatu behar duen pertsonaren askatasuna Kristorengan zentratua dago. Bego hori argi. Elizarentzat, Kristo gabe ez dago egiazko askatasuna lortzerik.

Baina pertsonaren askatasuna da. Ez arimarena. Eta ez gero-koa. Oraingoa eta betirakoa. Gizarte konkretuko pertsona konkretuarena.

Pertsona zirkunstantzia konkretu batetan bizi da beti. Eta ez dago zirkunstantzia neutralik. Zirkunstantzia guztiak pertsonagintzaren aldekoak ala kontrakoak dira. Zirkunstantzia hau kultura, politika, zientzia, ekonomia, etnia, familia, konsumoa eta abar dira. Errealidade horietaz arduratu behar du Elizak, askatu behar duen pertsona zirkunstantzia horietan bizi delako eta horie-

taz formatua nahiz deformatua. Horrela, pertsonagintzaren kontra doazen zirkunstantziak salatzen eta aldekoak mamitzen ahalegin-
du behar du.

Maila jeneral honetan irakurle guziak konforme samar izango dira. Gauzak konkretatzen hasten garenean izaten dira kontuak.

Zeintzuk ditu Elizak bere helburua betetzeko behar dituen indarrak edo bideak? Kristo eta bere hitza bakar bakarrik. Horrek behar luke Elizaren jabetza pribatu bakarra. Eliza pobrea, beste jabetzarik gabea.

Kristo eta bere ebanjelioa ahazturik beste bide eta indar mundutar batzuez baliatu delako Eliza, orain honela ikusten dugu gehienbat:

- a) Jende bataiatuak gehiena herri aberats eta kapitalistetan bizi da.
- b) Horrek esan nahi du, Elizak zapaltzaileekin harreman hertsia goak izan dituela zapalduekin baino.
- d) Ondorioz, bere helburu askatzailetik saihestua dagoela.

Henri Fesquet-ek, Erromako Sinodoari begira, (Le Monde, 28-9-71) honela zioen:

Comment, en effet, l'Eglise retrouverait-elle sa "fiabilité" si elle s'avérait incapable, d'une part, d'arrêter l'hémorragie de ses cadres et, d'autre part, de définir clairement ses responsabilités à l'égard d'un monde schizophrène dont les deux tiers sont victimes de l'âpreté des pays possédants pour la plupart composés, comme par hasard, de baptisés... Le glas de la "chrétienté" pourrait être inscrit dans l'histoire du capitalisme contemporain et dans l'enflure de la civilisation de consommation... De l'Eglise le monde attend non pas des paroles, mais des actes de justice, d'intelligence du monde moderne et un "supplément d'âme". La jeunesse souffre d'une absence de spiritualité authentique et

espère plus ou moins inconsciemment que le christianisme cessera de "confisquer" Jésus Christ.

Kristautasunak Kristo *konfiskatu* du. Beraz, Kristorengana eta bere ebanjeliora bihurtu behar du. Pobre izan beharra, hitz batez, ondoren ikusiko dugun pobretasunez.

2.—Eliza, mundu aparte bat?

Eliza pobrea. Elizak "bere mundua" sortzen duenean, mundua bigarren mailaratua gelditzen da. Elizak *bere* Herria, *bere* organizazioak, *bere* kultura, *bere* euskera, *bere* Ikastolak eta abar baditu, lehenik berea den hori zaindu nahiko du. Horrek horrela behar du, nahi eta nahi ez. Bazter ezineko lege psikologiko bat da lehenik eta batez ere nork bere burua maite izatea.

Orduan, erremedio bakarra hau da: Elizak bere bururik ez dezala izan. Elizak bere *intendentziarik* ez dezala sor. Erdi Haroko *cristiandad* delakoa zokora dezala beldur gabe.

Elizaren Aberririk, Elizaren kulturarik, Elizaren euskerarik ez dugu nahi. Ez da horretarako sortua.

Guziok dakigu Elizak garai batetan gerra santuak defenditzen zituela. Uste dut hori superatu dugula gure artean. Geroago —eta oraino ere— lur *santuak* ba omen ziren. Eta gurea batez ere. Lur santu bat, Jainkoak emana. Hau ere bagoaz superatuz. Orain, ikuspegi geografikoak ez du etorkizunik eta, ikuspegi kulturala doakigu nagusituz. Hori dela-ta, —eta munduko martxari eta modari jarraiki— orain kultura *santua* defenditzen hasia da Eliza. Eta gure kultura sakratuaren gordailu sakratuagoa euskera delarik, bere euskera sortu eta zabaltzeko gertu dago, bestena gordailu ez ezik galbide izango den beldurrez.

Gerra sakratuen ondoren lur sakratuak. Eta orain, kulturaren haroan, kultura sakratua, euskera sakratua. Beste jantzi batzuekin

Erdi Haroko *cristiandad* delakoa berriz ere. Eliza bere buruarekin, bere buru handiarekin. Eta, nahi eta nahi ez, mundu horretaz arduraturik eta "kanpoko" munduaz ahazturik. Jabetza pribatuen egarriz.

Elizaren egitekoa ez da *bere burua* salbatzea, mundua salbatzea baizik. Ez berak sortu duen mundua, herriak sortzen duen mundua baizik. Herriak —kredo batekoak nahiz bestekoak, nahiz kredorik gabeak— egiten duen askatasungintza bultzatu behar du, askatasungintza horri fede oinarriak eta fede motibazioak umilki eskainiz eta askatasungintzaren kontrako jokabideak salatuz.

Elizako ateetatik kanpo giza askatasungintzarik egiten ez denik ez dezala pentsa Elizak. Giza baloreak erro errotik berak sortu behar dituenik ez dezala pentsa. Horretantxe dago Erdi Haroko *cristiandad* delakoaren funtsa eta gaurko Euskal Herriko Elizaren tentazioa.

Nagusitzaren eta jabetzaren grina bortitzegi errotuak dituela uste dut gure Elizak. Ba ote da ahalmenik eta Jainko indarrik, nagusitza eta jabetza gabeko serbitzu-jokabide bat hartzeko?

Eliza pobrea bakarrik izan daiteke askatzaile. Pobre diruz, ethez, lege indarrez, organizazioz. Pobre mundu honetako indarrez. Aberats Jainko hitzez, Kristoaz, izpirituz.

Estados Pontificios direlakoak galdu zirenean, askok eta askok pentsatu zuen Elizarenak egin zuela. Gaur, berriz, uste dugu, galdu ez baziren egingo zuela Elizarenak.

Egun, askok uste du Elizak beharrezko duela duen organizazioa eta duen hainbat propietade. Segur naiz, oraino ikusiko dugula Eliza larru gorritan eta orduan izango dela libre eta libratzaile.

Indarrak ematen dizun babesaren ez da babes, babeskeria baizik. Elizak hartu behar duen bidea hau da: mundu honetako propietadeek ematen dioten indarra galdu, indargabe bilakatu,

esku hutsik, defentsarik gabe. Memento horretan hasiko da Eliza askatzen.

Babeskeriak bere esku dituen harmak hauek dira:

- a) Agintaritza.
- b) Jabetza.
- d) Kontrola.
- e) Epaia.

Eta konforme ez denari jipoia.

Bada gaurregun ideia nagusi bat, ebanjelioaren eta teologiaren barnetik beretik dariona eta egungo teologilari sakonenak lehen mailan ezartzen dutena. Eta zera da: munduko erdibiketa nagusia zapaltzaileen eta zapalduen artekoa dela.

Besterik entzun eta ikasiak gara. Fededun eta fedegabeen artean zen guretzat amildegirik handiena. Horregatik, fedea defenditzea lehenago zen zapaldua defenditzea baino, kredoa esatea lehenago zapalduarekin bizitzea baino, elizkizuna lehenago justiziagintza baino.

Egun ere, *euskaldun fededun* mitologiaren erreinua lantzen ari diren mugimenduentzat zatiketa nagusia fededunen eta fedegabeen artekoa da. Eta mentalidade honek izugarrizko ondoren makurrak sortzen ditu. Orduan, erlijioaren eta fedearen aldeko kanpainak eta frentek sortzen dira. Erlijioa absolutizatua gelditzen da eta pertsona zeharo erlatibizatua. Orduan, Jainkoaren izenean, erlijioaren izenean, zapalduaren eta behartsuaren alde lan egingo da, baina zapaltzailea eta honen sistema buru gainetik kentzeko bide efikazik inoiz hartu gabe. Hau da noski munduan, Elizari diru-elkarteak ezar dezaiokeen tranpa-biderik okerrenetakoa, baita gure artean ere.

Euskal Herriko Eliza ahalegin honetan ikusi nahi nuke: erdibiketa nagusi hauek argitzen eta ondoren praktikoak ateratzen. Ikastolaren inguruko egungo mila eztabaida eta borroka arinkeria huts dela laster ohartuko litzake, beharbada.

IKASTOLAKO ERLIJO ARAZOAZ

felix garitano

Ikastola da euskaldunok oro begirune berezi batekin begiratzen dugun instituzio bat, zeren horren baitan ikusten bait dugu gure Herriak izango duen zutaberik sendoenetako bat. Baina, ikastola hortaz ditugun beldur eta oztopoak ez dira tipiak. Kanpoko eta barruko oztopoak, alafede. Gure ikastolarekiko eginbeharrak ez dira errazak, eta zailenetako bat erlijio arazoa dugu. Hauzi honetan lehiaturik ditugu gurasoak, andereñoak, Elizbarrutia eta beste zenbait jende, batzutan ikastolarekin zuzeneko zerikusi handirik ez dutenak. Eta, azkenean, lehiaketa honen alderik okerrenak jasan behar dituen haurra bera da.

Nere apaiz lanak eramanda, arazo hau hurbildik bizi izan dut, eta, ikusi ditudanak ikusita, irtenbide bat aurkitzen saia gaitezen, nere hondartxo eskaini nahi nuke hemen. Ez dut noski soluziobide behinbetirakorik, eta ez noa horrelakorik eskaintzera ere. Aski litzake hemen, erlijio problematika horren ingurumarian gogoeta lagungarri bat ematearekin.

IKASTOLA ETA ERLIJO DIMENTSIOA

Bestetara pasa aurretik *heziketa* hitzaren esanahia mugatu beharko genuke, geuk ere geure nondinorakoaren berri ukan dezagun.

Zer da heziketa

Heziketa hitzaren esanahia hartzen dut hemen nere irtenune bezala, hitz honen inguruan aurkitzen bait da arazoaren ardatz bat. Vatikanoko II-ak eman duen gazteen kristau heziketari buruzko deklarazioan honela hitzegin du:

Egiazko heziketaren betebeharra giza pertsonaren eratzea da, bere azken helburura eta gizartearen beraren onera zuzen dadin, izan ere gizona gizarte-lagun bait da eta, pubertaroaz gero, gizarteko erantzukizunetan parte hartzera deitua izanen da (1. zenb.).

Nahiz eta Kontzilioaren definizio hau gazteriarren problematikara mugatua egon, ez dugu heziketa arazoa haurtzarora eta pubertarora bakarrik zabaldu behar. Kontzilioak berak dioenez, edukazioak giza pertsonaren eratzea nahi du, eta giza pertsona horrek berekin daramazkien balore guziekin eratu ere. Hauxe da *giza pertsonaren heziketa osoa (educación integral)* delakoa, alegia). Haur bakoitzaren gaitasunak posibletzen duen neurrian bultzatzen da umearen eboluzioa, honela gizarte barnean norberak geroaren erantzukizuna har dezan. Heziketaren ardatza, beraz, edukagaia da, haurra, eta ez besterik. Libre den pertsona baten aurrean aurkitzen gara, libre eta eskubide-obligaziodun den norbaiten aurrean. Heziketari ekitean, haurrarengan ukan ditzakegun eskubideez mintzatu baino lehen, harekin ditugun betebeharez hitzegino nuke; konkretuki esateko, daduzkan balore denak osatzeko laguntza zor zaio haurrari. *Kultura ez da asko jakitea, gizo-*

naren dimentsio eta izanbide denak bizi izatea baizik: kulturadun gizona, *osorik* izaten diharduena da. Haurrari nahiz gaztetxoari dimentsio horiek bizitzen erakustea ez da, ba, behinere gainerazpen, inposizio bat, geroko heldutasun batetarako bidea irekitzea baizik. Gizonaren pertsonalitatea hezi nahi baldin badugu, dimentsio oro hezi beharko da, eta heziketak haurragan daduzkagun posibletasun guztiak iratzar behar ditu, inolako izankizunik ukatu gabe. Hezibiderako tresna den ikastolak kultura bat eman behar du, hau da, gizonaren izanbide denak ireki behar ditu. Erlijiozko izanbidea edo dimentsioa da horietako bat eta funtsezkoenetakoa izan ere, erlijio dimentsio honek gizonaren izatea bera argitzen eta interpretatzen bait du.

Haurraren askatasuna

Gaurregun, zenbait edukatzaile erlijio dimentsioaren aurrean behar den askatasunaz benetan obsesionaturik ari da lanean, eta honelatsu esan ohi du: Jainkoaz hitzegitean, ez ahal dugu haurra erantzunbide jakin batera bortxatzen? Ez ote litzake hobe, esate baterako, hemezortzi urtetaraino Jainkoaz ez hitzegitea, orduan gazteak berak erabaki dezan?

Egia, Fedea erantzunbide libre bat da: gizonak libreki erantzuten dio Jainkoak ere libreki egin dion deiari; baina gogora dezagun haurraren gainerako aukerabideak ere askatasunean eskaini behar zaizkiola. Hain zuzen, hautapenerako dugun ahalmenak ematen dio giza askatasunari bere berezitasuna. Ez dago giza balore absoluturik. Egon, Absolutu hura bakarrik dago, eta Haren aurrean ere libre baldin bagara, areago beharko dugu libre gainerako balore guztien aurrean, izan ere erlatibuak bait dira balore soziologiko, kulturazko eta politikoak...

Libertadeaz ari garela, askatasunak mailak dituela pentsatzen dut. Ezin berdin izan haurraren eta berrogei urteko gizon larria-

ren askatasuna. Eta desberdintasun hori gorabehera, biak dira benetako askatasun. Heldutasun oso batetara iritsi ez dadin artean, pertsonari legundu egin behar zaiola esango nuke. Askatasuna landu egin behar da. Haurra ez dezakegu utz bakarrik, giza dimentsio desberdinen artean berak bakarrik hautaketa egin dezan. Giza dimentsio desberdin horiek bizitzearaino eraman nahi baldin badugu, hezitzean ez gaitezke geldi informazio hutsa eskaintzen, ezta giza heldutasunera iritsi arte itxadon ere, noizbait giza balio desberdin haietan hezitzekotan. Ene aburuz, gizarteak berak eta gurasoek ere (lehenen arduradun direnez) beren ondasun eta baloretatik baliozkoenak eskaini egin behar dizkiote haurrari. Honela, gurasoek berek duten giza-jokabidea eskainiko diote semeari, eta konkretuki kristau gurasoek kristau edukazio baten posibletasuna emango diote haurrari. Eta heziketa hau ez da maila informatibu huts batetan eginen, lehen esan denez, edukazioa ez bait da zinema gisara pertsona larriari eskaini dakiokeen ikuskizun hutsa. Haurrari eskutik helduta lagundu beharko diogu; hori da eman dezaiokegun laguntza. Hazieraren pausoan, aldi bakoitzean giza dimentsio haiek bizi izateko lain diren erara biziari beharko zaie haurrei. Pubertaroaz gero haurrak *beretu* egiten ditu ordurarte *besteengan*-edo bizi izan dituen bizipenak (*vivencias*). Gaztea bere etorkizuna eskuetan hartzen doan gisara, gure laguntza piskaka-piskaka baztertzen joan behar dugu, pubertaldi hori gainditzean, gazte horrek esistentzia dinamika konzientzidun, libre eta jator batetan bizi dezan.

Zer pentsa, beraz, erlijio arazoa edade batetaraino ez litza-keela aurkeztu behar dioen iritzi hartaz? Hontaz pondu hauekin emango nuke ene aburua:

1. Pertsonak haurtzarotik bertatik bizi behar ditu bere dimentsioak, beti une bakoitzeko eta bakoitzaren posibletasunak kontuan izanaz. Et haur-bizipen horiek ere benetakoak direla esan beharko.

2. Ez dugu eskubiderik, haurrari hain funtsean dagokion erlijio izanbidea ukatzeko, dimentsio hori ere desarroilatu egin behar bait du. Gure aldetik jokaera makurra litzake hori, pertsonaren haziera oso baten eskubidea bait du haurrak.

3. Freud eta Erikson-en pareko psikoanalistek esan digute: ukaezina da bizitzako lehen urteen garrantzia, biziari honetantxe sustraitzen bait dira giza pertsonaren geroko erlazio oinarrizkoenak. Harremanak aipatzean, ez dezagun ahantz gizonaren Absolutuarekiko harremana.

Galdera eta kezka hauen azpian, badirudi Jainkoak askorentzat lehen zuen inportantzia hura galdu egin duela, hau da, gaurregun ez dela Jainkoa lehenago bezala gizonaren balorerik bikainena. Balore haren paregabeaz zihur baldin bagina —hala pentsatzen dut—, gizonarentzako balore harek duen esanahiaz seguru baldin bagina, ez gintuzke aipatutako dudamuda harek hainbeste kezkatuko. Ez genuke Jainkoa haur-gogoaren zanpatazaille denentz hainbestetan galdetuko, eta erlijio-heziketarako edadeaz ere ez litzake jendea hoinbeste larrituko, Jainkoa askatazaille bezala emango bait genuke.

Irakurlearentzat, arazoa oraindik airean datza, ikastoletan arazo honek zer-nolako harrera izan behar lukeen ez bait dut honainokoa konkretatu. Erlijio dimentsioak ikastoletan bere lekua duela aitortzen dutenen artean ere, badira ondorengo planteamenduak egiten dituztenak:

- a. Ikastola, zenbait giza balore (ondrautasuna, egia, justizia, libertatea, etab.) bizkortzen ari denez gero, ikastola kanpotik, geroago emango litzakeen ebanjelizatzerako oinarri premiazkoak tinkatzen ari da. . .
- b. Erlijiozko fenomenuaren errealitatea eman beharko lioke ikastolak haurrari. Gizona, historia zehar erlijiodun agertu zaigu eta hau era askotara. Gizadiaren kondaira-altxorreko aberastasun bat bezala aurkez-

tu behar litzake hori. Erlijioen Historia bat bezala behar litzake hezibidearen adar hau.

Pondu hau argitzeko berezketa bat egin beharko genuke: *gauza desberdinak dira erlijio fenomenuaren ezagutzea eta erlijiozko esperientzia jakin baten sakontzea*. Fenomenuaren ezagupideak badu bere lekua noski haurra hezitzean, gizadiaren kondairari dagokion fakto bat bezala. Honegatik, fenomeno bezala eta politika historia nahiz geografia ezagutu ohi dugun bezala, gertakizun haren ezagutzea beharrezkoa da ikastolan. Hala ere, ezagupide hau ez da posible izanen pubertarora arte, adin honetan bait du haurrak honetarako lain heldutasun.

Beste zera bat da erlijio bizipenaren edo sakontzearen esperientzia jakin bat. Arestian esan dudanez, giza baloreen heziketa ez daiteke informatibuki bakarrik burutu. Balore horiek haurrari biziari egin behar zaizkio, esperientzitu egin behar ditu umeak. Gizon-emakume larriek, eta baita gaxteak ere beharbada, zenbait balore ezaguera osoz eta libreki bizi ditzakete. Ez legoke holkotan balorerik ezarri beharrik, ezta zuzenean eskaini beharrik ere. Jakina, jakinbide bat eman lekieke, bakoitzak pertsona larriari dagokionez delibera eta erabaki dezan. Baina hau ez da posible haurragan. Honen erlijio izanbidea hezi nahi baldin bada, bere erlijio esperientziaren sakontzea posibletu behar diogu. Ez da beste ekinbiderik. Ikastolak, erlijio dimentsioaren heziketa posibletu behar duela esatean, aipatuak ditudan bi ikuspegi horiek presente eduki behar ditugula esan nahi da. Hau da:

—Erlijio fenomenuaren ikasketa (pubertaroz gero).

—Bere erlijio esperientziaren sakontzearen posibletasuna. Beste zeregin bat da hontaz erabakiak nork hartu behar dituen, hau da, haur bakoitzari erlijiozko esperientzia aurkeztu behar zaion ala ez erabakitzea nori dagokion.

Hemen egiten dudan planteamendu honek badakartzi gero, praktikan, bere zailtasunak, izan ere ez da arazo erraza hauxe, baina ezta irtenbiderik gabea ere:

- a. Nor izanen litzake ikastolan erlijio dimentsio horren edukatzaile? Irakasle edo andereñoa ez litzake horretara behartua, ez luke berak derrigorrez haurraren alde hau zuzendu beharko. Irakaslearen askatasuna onartzean, ikastola beste hezitzaileei ere ireki egin beharko litzaielike: eginkizun honetarako beste arduradunak nahiko lirake, beraz.
- b. Azken finean nork erabaki zeinena den, haurra erlijio jardunaldira bidaltzeko eskubidea? Funtsean, gurasoena eta haurrarena berarena. Esaten nuenez, haurraren askatasuna baldintzapetua da, kondizionala; libertadeak landua eta erabilia izan behar du, mailaka-mailaka. Honegatik uste dut haurraren askatasuna gurasoen norabideari lotua dagoena.
- d. Nola elkar, ordea, ikusbide hau gaurko pedagogia berriarekin? Izan ere, oraingo haurrak berehala hartzen du berari atsegin zaion lan-modua, unean-unean derizkion erara hautatuaz. Haurraren gogoaren etorriari jarraitzen dio pedagogiak, eta baita erlijio arazoan ere. Hona zenbait ideia idarokizun bezala:

- Lehenik, erlijio alorra askatu egin behar da orain dugun programaketa behartu horretatik.
- Erligioarekiko alorra, erlijiozko dimentsioa hezi nahi den momenturako gordeko litzake, gainerako programaketatik kanpo utziaz.
- Erligiozko heziketa, ikastolari dagozkion dinamika eta pedagogiaz emanen litzake, eta heziketa osoak arduraz bizkortu behar dituen gainerako edukazio-hesparruak aherentzi gabe.

IKASTOLA PUBLIKOA — IKASTOLA PRIBATUA

Planteamendu honek beste pondu bat ukitzera narama eskutik, ikastola publiko eta pribatuarena alegia. Garrantzizkoa arloa noski eta gaurregun eztabaidakizun dena. Hemen aipatzen baldin badut, arazoak erlijio bizitzarekin ukan dezakeen zerikusiatatik da.

Heziketa, gizartearen eginkizun

Heziketa, gizartearen eginkizuna, egintza, dela esanaz hasiko naiz, eta gizarte guziaren eginkizuna gainera, Herriarena esango litzake gure artean. Baina hau argitzeko galdetu egin behar: Zer da, ordea, Gizartea? Nork osatzen du Gizartea? Itzulimitzuli batean esango dut: Gizartea, bitarteko (*intermedio*) giza elkar-teen osatzen dute. Eta Gizartearen erantzun-eramailea Estadia edo Agintea da. Bitarteko gizarte hauetako bat, eta oinarrizkoenetakoa, Familia da. Edukazioa Gizartearen eginkizuna baldin bada, eta Gizartea bitarteko gizarteez osaturik baldin badago, bitarteko gizarte hauek eraman lezakete heziketa lana. Gizarteko gizon guzientzat heziketa bat iristea eta agindu-erreglamendu batzuen bidez hori lortzea, izanen da Estadiaren lana, bera baita Guziekiko Ontasunaren (*Bien Común*) gordetzailerik.

Heziketarako familiaren lehenengotasuna

Bitarteko elkar-teen heziketa lana aurrera eraman dezakeela esaten nuen. Familia, Gizartearen osagarri garrantzizkoena denez, eginkizun hortaz ardura daiteke, areago oraindik: gurasoek horretarako duten eskubide-lehenengotasuna irmoki baieztatu behar da, honetan ere Izadiaren legegari men emanaz (*Ikus Kristau Heziketarako Kontzilioaren Dekretuan*, 3. zenb.); ondorengo baieztapen hauetan finkatuko nuke esandakoa:

1. Familiaren lehenengo eginkizuna ez da semeak edukitzea bakarrik, seme-alabak hezi ere egin behar ditu. Familiari dagokio hau. Betebeharra eta eskubidea da heziketa. Haurrak munduratu dituenari, haiek hezitzea dagokio, beren buruaz egin behar hau betetzeko kapaz ez diren bitartean behintzat.
2. Familiaren bidez gizarteratzen dira haurrak, eta familia dute gizarterako bide.

Badakit askok muxin egingo diela azken errenkada hauei, ez dira esandakoarekin bat etorriko. Izan ere, askorentzat bestelakoa izango litzake egia: hauen iritziz, komeni da gurasoen eginkizun hura baztertzen joatea, haurra —hala esan ohi dute pondu hontaz— familiarekiko zerikusi handirik gabe pasako litzake Gizartera zuzenean. *Haurra Herriarena da, ez gurasoena*, esaten da holakotan. Honetaraino iritsiz gero biribil-biribil aitortu beharra dago: *Haurra ez da inorena, haurra bere buruarena da*, eta gurasoek nahiz Herriak nahiz Gizarteak bera, bere buruaren arabera izaten lagundu behar dio. Haur honek, beste zenbaiten artean, ondoko jatorrizko eskubide hauek ditu:

- Gizartearen bere giza-helburuak bete eta pertsona izateko gaituko duen heziketa egoki bat (maisua on, metotu aukeratu, etab.) hartzeko eskubidea.
- Heziketa pertsonatu, banakatu, baten eskubidea, eta baita bere heziera hautatzeko askatasuna ere. Haurra, ez da beregan edozer idaz daitekeen harbel bat.
- Gerora bizi izan beharko duen mundurako prestamen bat emango dion heziketa baten eskubidea. Ez dezaiokegu heziketa estatiko bat ezarri, igaroaldiari lotuta dauden nahiz orainaldian bakarrik finkatuta dauden baloreak emanaz; haurragan izpiritu kritiko askatzaile bat jaiotarazi behar dugu, eta izpiritu honetxek

gaituko du beste kultura batetarako, berak pertsona larri izatean bizi eta serbitu beharko duen mundurako, esan nahi da.

Honegatik, haurraren gain izan daitezkeen eskubideez mintzatu baino nahiago nuke Gizarteak, gizaki berri bat agertzean, bereganatzen duen betebeharrak hitzegitea. Gizarte osoak —eta norbaitek beste inoren aurretik—, gizaki berri bat jaiotaraztean haurrarekin hartu diren beharkizunak bere gain eraman behar ditu. Honetan gurasoak dira lehenen erantzuleak, beste edozein Gizarteren aurretik eskubide lehenengoena dutenak; bizitzarako hezitzeko jatorrizko dretxo jatorra dute. Eta jakina, eginkizun hori betetzeko beharko dituzten medioak ukaiteko eskubidea ere bai. Historikoki, bestalde, zenbait herrialderi buruz zerbait esan liteke: familiei haurrak kentzeko sistema onartu zutenek ere —horrela, Gizartearen altzora zuzenean zetozela uste izanik noski—, gaurko, jokabide horren kontrako iritzietara itzulirik ditugu. Familiaren kontrako korrante hau, Euskal Herrian beranduxko ez ote datorkigun galdetzen diot nere buruari. Aipatu dudan honekin ez dut ukatu nahi mendebaleko kontsumo gizartean izan den familiarekiko ikusmoldearen eboluzioa, herrialde handietan gertatzen ari denak nahiko erakusten bait digu aldaketa horren sakona. Egiazki familiarekiko ideia aldatzen ari da eta pentsaera berri bat sortzen; baina, hala ere, ni lehengoan nago: *haurra, familiaren bitartez sartzen da gizartera*. Tamalez, esan ditudan familikontrako egoera horiek jaio diren bakoitzean, historikoki ikusten denez, ia beti sistema totalitarioen menpean gertatu da. Honegatik zera zioen Pio XI-ak *Mit brenner Sorge* haren bidez Elizak nazismoaren azpian jasan behar zuen egoera epaituaz:

Ikastola arazoan gurasoen borondatea kontuan ez dadukaten lege eta antzeko beste deliberamenduak, edota borondate hura alferrikako egin dezaketenak, amenazoz nahiz bortxaz dela, eskubide naturala kontraesaten

dute, eta barne-barnetik eta esentzialki dira moralgabekoak.

- Gurasoek duten eskubide-lehenengotasun hau, ikastola jakin bat aukeratzean eta edukatzaileak hautatzean mamitzen da, eta inork ez dezake gurasoen eskubidea eragotzi. Eskubide honetantxe finkatzen da Estaduari heziketarako behar diren bideak eskaini ditzala eskatzeko dretxoak.
- Hala ere, aitortu beharrekoa da Gizarteak, familiaren gainetik, edukazioa Guzien Ontasunera zuzentzeko duen gorengotasuna. Estaduaren helburu propioa da Guzien Ontasuna. Estaduak, Gizartearen eta, bide batez, Guzien Ontasunaren zaintzaile denez, heziketa hirigizon guziengana irits dadin arduratu behar du. Eta bienbitartean edukazio lanean ari diren gizarte bitarteko guziei lagunduko die Estaduak, eta hori, jakina, hauziaz kargudun diren organismoek ezarri dituzten baldintza eta helburuak gordearaziaz.

Planteamendua honela dugula, Gizarteko taldeek Guzien Ontasuna jabetzapetzen (*apropiar*) dutenean agertzen da hauzia. Guzien Ontasuna Gizarte osoak seinlatu eta izendatu behar du, eta pozik onartzen da horrelaxe izatea; baina zenbait taldek nahiz Estaduak berak, ideologiaren izenean, Guzien Ontasun hori beretzat nahi duenean hasten da liskarra eta eztabaida. Baina egin dezagun, onenean, Gizartearen gehientasunak izendatu duela Gizarte horri eskainiko zaion Guzien Ontasuna, orduan ere minoritari itzal bat zor zaio, hain zuzen Guzien Ontasunaren izenean beti. Egin dezagun Herriaren gehientasunak (*mayoria*) Eskola Publikoak nahi dituela; erabaki hori gorabehera, ez luke minoriei Eskola Pribatuaren eskubidea ukatzeko dretxorik.

IKASTOLA, FAMILIA, PARROKIA

Ez dezala inork pentsa, Fedean eman nahi den edukazioa ikastoletan egiten diren eginahaletara mugatzen dudarik, ez. Jasoa dugu Jaunaren agindua: *Joan eta zabal izaki guziei Berri Ona...* Aldarrika teilatuetatik eta enparantzetan Ebanjelioa. Gainerakoak gorabehera, bada zerbait zihurrik: haurrak Fedean egiazki edukatu nahi baldin baditugu, haurraren eta gaztetxoaren bizitzan eraginik handiena duten instituzioak gogoan hartu beharko dira.

Bi elkarte dira bereziki haurraren egun-orduak ia osorik betetzen dituztenak: familia eta ikastola. Haurra, beste zenbait elkartetara ere hurreratu ohi da: lagunartea, kirol-cluben bat... Eta kristau haurra parroki komunidadera ere bai. Zaila da hauetako bakoitzak haurragan duen eragina neurtzea; baina, ene iritziz, hiru dira batez ere haurra Fedean zuzenki hezi dezaketanak: Familia, Parrokia eta Ikastola. Hiruron erlijiozko eginkizuna batbera dela azkenik esango nuke: *Anaien bitartez bizi dezala gazteak Jainkoarekiko bere harremana*; bizipen hau ez da egin behar kristau larrien bortxaz, baizik eta askatasunean egingo den bilaketa izerditsu baten medioz, baitipat pubertaroaren azken urteetaino horretan eginahalak emanaz, izan ere hemendixe iritsiko da gaztea konbentzimendu irmo batetara. Giza askatasunaren hesparrua zabaltzen den berean, Fedeak hedatu egin behar ditu bere askatasunaren hesiak.

Hiru instituzioek, nahiz bestek, erlijioarekiko helburu batbera baldin badadukate ere, bakoitzak betebeharrak berezia emango lioke heziketa lanari. Kristau bizitza esentzialki *bizia* dela gogoratzen baldin bada (hau da, Fedea orainaldi historikoari erantzunaz bizitzea dela), bizitza Hitzarekin argitzea dela eta arrazoibidez eta Bibliaz finkatu behar dugula *bizia* jakinik, instituzio bakoitzari pondu hauetan emango nioke bere eginkizun muina:

Familia. Errealista izan nahirik, nik ez nieke gu-

rasoei beren erlijio sinesmenari arrazoibidez eta Bibliatik oinarriak ematekorik eskatuko. Hobe, noski, horrelakorik egiterik balute! Eta horretaraxe jo behar dugu. Gurasoei eskatu behar litzaiekeena beste zerbait da bereziki: sendian eman dezala benetako Fede giro eta testigantza jator bat: izan dezatela Fede heldua, gizarte bizitzan hitzmana, Fede soziologikoa ez baina heldua eta hautatua. Elkarrekiko itzal eta amodioak ere posibleagotu egingo lituzke Jainkoarekiko joera hauek.

Ikastola. Ikastolari bai, Fedearen arrazoi-bibliazko oinarriak eman ditzala eskatuko nioke. Ikastola heziketarako etxea dugu, eta bertan, ezagupide zenbait ematen den denbora berean, bizitzako joeren zimentarriak eman behar zaizkio gazteari. Lehentxeago esan denez, kristau bizitza Fedearaz argitutako *bizia* da. Honegatik, Testamendu Berrian Fedea esperientziarako emana da. Honegatik, ikastolan erlijio heziketari izendatzen zaion denboraldian erlijiozko bizipen eta esperientzia hori sakontzen da; bizipen horretan jotzen da aurrera. Baina, dena esateko, bizitza hori ere oinarritu egin behar da, izan ere Fedea demostragarri ez bada ere, justifikagarri da, eta honetan ahalegindu beharra dadukagu. Baina erlijiozko heziketa honetarako, gizatasuna ezagutu behar da, berdin erlijio fenomenua eta mezua entzun nahi diogun Jainkoaren Hitza ere. Hau dena ikastolan egin daitekeena da. Badakit, aipatzen den eginbehar hau parroki katekesiaren eginkizuna dela norbaitek esango didala. Bai, izan liteke noski, nahiz eta gaurko egoeran zaila gertatu. Dena dela, lehenik parroki katekesia zer den esan beharko da. Eta kateke-

siaren hau erabat premiazkoa izanen da eta serioki aztertu beharrekoa, hemen egin dudan planteamendua arbuizatzen eta zapuzten den tokietan.

Parrokia. Parrokia (eta ez naiz ari elizetxeaz), gizon-Jainkoen arteko adiskidantza ospatzen den tokia da, hau da, kristauok gure liturgi elizkizunetarako biltzen garen lekua. Eliza eta ikastola elkarrengandik bereztea premiazkoa dela uste dut. Ikastola, ez da elizaren ataria nahiz sakristia. Sakramendugintza eta liturgia ez daude ikastolari lotuak. Parroki komunitatea da Jaunaren misterioak ospatzeko kristauok dugun elkar-lekua.

Bestalde, parroki komunitatean jakiten du haurrak, eta ikusten, Fedearen bere bizipena pertsona larriekin lagunarte batean eskaintzen zaiola. Kristau hauek ez ditu agian ezagutzen, baina elkarrekin batera egiten dute otoitz; elkarrekin zuzentzen, denen erreguak Jaunari.

Azkenik, hala uste dut, komeni da parroki komunitatean adinekoak, gazteak eta gaztetxoak aurrez aurre jartzea. Elkarri begiratzean, bakoitzak Fedearen bere testigantza eskainiko luke, eta honek —hau da nere ustea— elkar aberas lezake. Haatik, kofesa behar dut: asko eta asko falta zaigu oraindik Fedearen elkarriketa honekin belaunaldiek elkar serbi dezaten.

BUKATZEKO

Artikulu honek argi piska bat eman nahi izan dio gaurko ikastola eta erlijioarekiko arazoari. Esandakoak honelatsu labur genitzake:

Heziketak gizonaren dimentsio denak haziarazi nahi ditu. Hauetako bat —eta oinarrizkoa, ene ustez— erlijiozko dimentsioa da. Ikastolak, beraz, aipatzen den hazibide hau aurrera bultzatu behar du. Hala ere, aurre-rabide hau ez dezakegu ikastolak egiten dituenetan muga; ikastolaren lan horrek, parrokiak eta familiak egiten dituztenetan aurkitu behar du bere osagarria.

Tamalgarrria da benetan, ikastolak (gure herriaren bizinahiak sortu duen ikastolak) bizi-irauteko ari duen ahalegin izugarri honetan erlijio arazoak ikastola hori barnetik zauritzea. Eta, hala ere, ezingo dugu ahantzi problema honen azterketa. Alde batetik nahiz bestetik ikastolarekin harremanetan dihardugunok gure zereginean erantzukizun osoz lanegin beharko dugu. Hala nahi nuke behintzat. Eta beti, inor erresponsabilidaderik ezaz salatzen ibili gabe. Elkarrizketarako kapaz izan gaitzela eskatuko nuke: jakin dezagula, ez dela inor egiaren jabe bakarra, eta prest egon gaitzela gure irizpide eta kriterio zaharrak, beste nonbaitetik argi hobeagorik datorkiguneko, aldatzeko. Azken-azkenean, denok biltzen dugu gure haurren ona, Gizadiaren onerako haien haziera oso bat, eta elburu hori gure Euskal Herriatik burutu nahi genuke denok.

ARTEA IKASTOLAN
anjel lertxundi — imanol urbieta

Zenbait arazo teoriko interesgarri iduritzen zaigu oso, eta azterketa jator baten beharretan dela deritzagu. Baina hainbat arazo teoriko sortu dituen Euskal Herria zenbait “praxis” beharrezko ahaztutzen ari dela, hortxe ideia sakonen hurkamen-dietan zintzilikatzen ari garela, dialektika hutsean murgildu gaituztela eta arazo konkretu honi ekin diogu.

Orain artearen eta artearentzat izanen litzakeen heziketaren problema ukitzen badugu, ez da, ez, artista batzuk sortzearen antsiarekin. Utz dezagun alde batera artista egin ala jaio egiten zaigunaren arazo hau: Gure interes guzia nortasun baten lorketa besterik ez da; nortasuna gaur, eta nortasuna bihar, helburu, oinarri.

Ez da artea edo *gusto ona* erakustearen arazoa. Artea ez da asignatura bat. Artearen eta artearentzako den heziketaz idaz-

terakoan, heziketarako forma konkretu, metodu jakin, biziera ezagun, ikastolaren ekintza beharrezko batean pentsatzen ari gara.

Honela, lehendabizi berezi beharko genukeena irakaskintza eta heziketa lirake. Lana luze joanen litzaziguke eta horregatik ideia oso laburrean azalduko dugu: Irakaskintza, gauza asko erakustean oinarritzen da; heziketa, gauzak sakontzean. Irakaskintzaren fruituak erraz neurtzen dira; heziketarenak ez dira neurtzen. Irakaskintza ojetibua da. Heziketa ojetibu eta sujetibua. Heziketa, hitz batean, estilo bat da.

Espainiako Lege Berriak zer ekarriko digun esatea gauza zaila da oraindik; baina orain arte genuen Legea, irakaskintzarako lege bat zen, uniformidaderik gabea. Berez bazuen uniformidatea, guk txikitari ezagutu genuena, gerra ondorengo batasun politikoarena. Baina urteen joanetorrian kolegioek eraman dute aurrera irakaskintza ofiziala, eta erlijiosoei ez zaie gehiegi komeni izan uniformidade politiko hori mantentzea. Honela, azken urteetako irakaskintza ofiziala aseptikoa genuen erabat.

Alderdi askotatik osa genezake heziketa. Uniformidade edo irakaskintza politikoa aipatu dugu. Gogora dakarkizuegu baitare erlijioaren alderditik seminarioetan osatu den heziketa. Baina garbi ikusten dugu alderdi hauek partzial gertatzen zaizkigula eta zerbait usaingarriago, osagarriago behar dugula.

IRAKASLEA ETA ARTE-EKINTZA

Hizkuntza plastikoa desarroilatu ezin dugunean, ikus-moldeetako hizkuntza jaiotzen zaigu, imajinaren kultura. Gizon helduak, bere haurtzaroko hizkuntza plastikoa gelditu den gizon helduak, ez du bere hizkuntza hori beste zenbait bizimolderen arauetan mailatu, eta

txundituta gelditzen zaigu paper zuri baten aurrean, zer egin behar duen ez dakien antzerkolari bat bezala (1).

Saint-Exupéry-k ere errealidade berdina dakarkigu:

Zenbakiak laket zaizkie gizon helduei. Lagun bati buruz hitzegiten ari direnean, ez dute ezer berezirik galdetzen. Ez dute behinere **zein abots du?** edo **zein joku gustatzen zaizkio?** edo **tximeletak maite ahal ditu?** galdetzen. Galdetzen dutena, **zenbat urte ditu?**, **zenbat anaia?**, **bere pixua?**, **zein da bere aitaren irabazia?** Dirudienez, galdera hauen bitartez bakarrik ezagutuko dute laguna. Gizon edadetuekin hitzegiterakoan, **Etxe polit bat ikusi dut; ladrilo gorriak, loreak leihoan, uxoak teilatuan...** esaten badugu, ez dute etxea nolakoa den ezagutuko. Esan behar duguna: **Miloi bat balio duen etxea ikusi dut.** Orduan bakarrik erantzuten dute: **A ze zoriona!** (2).

Heziketa artistikoaren oinarri zuzenena *espresio bideen kultura* datzala uste dugu, R. Gloton-ek baieztatzen digun bezala (3).

Baina espresio bideen kultura hau ezin da ordu konkretu batean eraman, ezta goitik aginduta antolatu ere. Honek esan nahi duen bakarra, irakasleak espresio bideak ongi menperatu behar dituela, sensibildadeaz erabili behar dituela, eta bere eta haurren nortasunerako behar dutela izan. Beraz, heziketa artistikoa ez da asig-natura bat edo erabateko teknika bat, espresio askatu eta pertsonal baten bilaketa, ikastola ekintzaile baten ondorea baizik. Heziketa artistikoa ikastola askatu eta aktibu batean bakarrik eraman liteke eta ikastola askatu baten arau eta irekitasunean sakontzen da (4). Horregatik ikastolaren bizitzarekiko eta gizartearen ekintzare-

(1) D. WIDLOCHER, *L'interprétation des dessins d'enfants*, Bruxelles, Charles Dessart ed., 1965, 266 h.

(2) O. FULLAT-ek alpatua, *Reflexiones en torno a la educación*, Barcelona, Nova Terra ed., 1966, 61 h.

(3) R. GLOTON *L'art à l'école*, Paris, Presses Universitaires de France, 1965, 85 h.

(4) R. GLOTON aip. lib., 85 h.

kiko irekitasunak espresio-bilaketaren lan luze eta sorketa personal bihurtzen ditu ikastolaren orduak.

Irekitasuna: Ikastolak bere ateak ireki behar dizkio zenbait gauza berriri, eta lehendik hartua dugun zenbait gauza eraberritu behar dugu. Gizartea aurrerabide denez gero, ikastola ere ezin lege honetatik at gelditu. Baina honetarako, lege berri baten premia oso urrutikoa da, ez dugu ezta ere espezialisten beharrik, nahiz eta bi gauzok oso garrantzizkoak izan. Beharrezkoena, irakasle buru argi baten lana, nora doan, zein helburu duen, zein bide aukeratu behar dituen dakien irakasle baten lana.

Beraz, orain arteko irakaskintza pentsamoldeetan haurra zen lana egin beharrekoa, baina egun konturatuak gara batezere irakasleak egin beharko duela lana.

Foulquie-k honela laburtu du Ikastola Berria deritzan europar zenbait irakaskintza molde berri:

- 1.—Heziketa da garrantzizkoen.
- 2.—Pedagogiak psikologian oinarritua behar du izan.
- 3.—Heziketak haurrak behar ditu izan ardatz (Ez politika, ez erlijioa...).
- 4.—Haurrak askatasun osoa behar du lanerako.
- 5.—Haurrak giro naturala behar du. Berea. Ikastolak ez du behinere aparteko gauza izan behar, "hor" dagoen eta beharrezko duen zerbait, berea orduetako zerbait naturala baizik.
- 6.—Banakako heziketa prestatu behar dugu talde-giro batean.

Konturatzen gara arau hauek oso jenerikoak direla, baina giro berri bat aurkitu beharrean gara. Eta giro berri hau "askatasun" hitz zailean laburtuko genuke. Batak beste, tekniko bakoitzak oso era ezberdinetan laburtzen ditu bere "agindu" nagusiak, baina denak konformatzen dira ideia sakonenetan. Hona hemen, baitare, Françoise Chätelin-en laburpena:

- 1.—Ondo ezagutu behar da haur bakoitza. (Gaurko Lege Berriak test oso sakonetara behartzen gaitu).
- 2.—Haurraren ekintza-bideak esnatu, iratzarri, behar ditugu. *Ekin arazi.*
- 3.—Irakasleak gidari izan behar du eta ez zaitzaile.
- 4.—Irakasleak ez du bere interesetan oinarritu behar, haurraren interesetan baizik.
- 5.—Ikastolak bizitzari ireki behar dizkio bere ateak: Ez dugu *behinere* liburutik hartu behar haurrak bere bizitzan erraz aurkitu lezakeena.
- 6.—Haurra ez da modelu batzuetara jarri behar. Ez da uniformatu behar.
- 7.—Irakasleek abentura-zale behar dute izan, gure giroa bizitzeko meriorik sakonena abentura-prestasuna bait da.

Azken arau hau irakasleentzako eta gurasoentzako emandako araua da (5).

Haurra benetan askatzea da heziketa artistikoak proposatzen duen bakarra. Haurrak sorketa mailan ibeni behar ditugu, errealidadearen bideak ireki behar dizkiegu haurrei.

Haurra horregatixe ezagutu beharko da ongi eta ezagutu beharko bere interesak, interes horien oinarri eta ondorenak.

Halare, kontuz ibili beharra dadukagu: Irakaslearen erru handiegia litzake interes horiek berez sendotuko direla pentsatzea. Haurraren nortasuna errespetatu behar dugula ez du baztertu egin behar dugula adierazten, bere laguntzarako prestatu behar dugula baizik. *Irakasleak gidari behar du izan eta ez zaitzaile.* Haurraren nortasunaren heziketak sortzen duen arazoa ez da irakasleak parte hartu behar duen edo ez jakitea. Irakasleak parte hartu behar du. Arazoa, parte nola hartu izanen litzake.

(5) RENZO TITONE *Metodologia didáctica*, Madrid, Rialp ed., 1969, 25 h.

ERAGOZPENAK

1.—Programa ofizialari amor eman behar zaiola, eta arteari eskainitako orduak hutsean gelditzen zaizkigu. Hau zenbait irakasleren ustea. Baina, eta geroago ikusiko dugu, ez da orduen arazoa, metoduarena baizik.

Ez da posible —**esaten du R. Gloton-ek**— ekintzaren batasunik gabeko heziketa. Heziketa-sistema ez da behinere mosaiko bat edo arlekin baten jantzia. Heziketari multzo batu eta koerentea deritzagu (6).

Garbi dago, beraz, orduen arazo hau metoduen programazioarekin zuzendu beharko genukeela. Guk proposatzen dugun heziketa hau ez da orduen bidez salbatzen, programazio konkretu eta metodo jakin batzuen bidez baizik.

2.—Teknikeria.

Halare, garbitu beharra dadukagu: Guk artea ez dugu helburutzat jotzen, hezikeratako meriotzat baizik.

Beharrezkoa zaigu teknika bat artean hezitzeko. Ezinezkoa da giza-ekintzetan teknikarik gabe aurrera jotzea. Baina teknikak bideak ireki behar ditu, teknikak ez du behinere helburu izan behar. Teknikak —arteak—, metoduari eta helburuari serbitu behar dio; kasu honetan, heziketari serbitu beharko dio.

Beraz, heziketa-moldeen barnean artearen programazio sakon bat proposatzen dugunean, ez dugu asignatura bat proposatzen, izpiritu eta biziera konkretu batzuk baizik. Nolabait adierazteko:

Jakintza praktiko eta espresio-ekintza pertsonalak sensibilitate biziago eta sakonagoaz hartu. Haurrak ikas dezala ahal dugun neurrian bere beharrak sakonki ezagutzen eta bere barren-barrengo interesak betetzen (7).

(6) R. GLOTON aip. lib., 79-80 h.

(7) BRIAN M. FOSS *I nuovi orizzonti della psicologia*, Torino 1968, Borin-ghieri ed., 179 h.

3.—Utilitarismoa.

Heziketa artistikoak ondo ezagutu behar du gure mundua. Alegia, ez dadila gure mojetxetako piano-ordua izan. Industrial irakaskintzak ez du material edo denboraren galerarik onartzen. Halare, gure industrial irakaskintza ez dago gizonaren serbitzuan, produzioaren serbitzuan baizik. Gogoratu beharra dadukagu Euskal Herriko *Escuela Profesional* delakoetan gertatu dena.

Pertsonaren serbitzuan jartzeko proposatzen dugu heziketa artistikoa. Artearen bidez oso zail jarriko gara produzioaren menpean. Halare, irakaslearen lana izanen litzake gure munduko utilitarismoaren ondore onak hartu eta haiek mantentzen erakustea. Adibidez, orduak eta materialak probetxatzeko unean.

4.—Agintekeria.

Gure haurrak ekitera ohitu ditugu eta ez sortzera, nahiz eta euskeraz *ekin* hitzak *sortze* hitzaren sentidu berdintsua ukan. Gure haurrek ezin dute ezer berririk eman guk ematearen bideak histen badizkiegu.

Hau gertatzen denean, haur geldiak, jaso bakarrik egiten duten haurrak, bere inguruan parte hartu nahi ez duenaren obedientziaz jantzitako haurrak osatzen ditugu.

Irakasle honak haurrak lanean jarri beharko ditu; eta ez du bere lana kritikatu. Haurrari gauzak berez jasotzen erakutsiko dio; ez dizkio gauza horiek **eginak** eman behar. Proposatu, agindu beharrean. Haurrak ulertu eta bere mailan ibeni, haurrak bere programazioan duen maila batean jarri gabe (8).

Artearen heziketa batek izan ditzakeen eragozpenen laburpen bat egiterakoan, A. J. Cropley-k bere *La Creativité* liburuan ikastola ofizialei egiten dien kritika hau azaltzen du:

(8) PH. MALRIBU, *La construction de l'imainaire*, Bruxelles, Charles Dessart ed., 1967, 171-172.

1.—Exitoaren menpean jartzen den ikaslearen ondoreak izaten dira onartuenak. Ikasle honek, halare, ez du ezer sortuko. Eginen duen bakarra, ematen zaion guzia jasotzea izanen da.

2.—Kanpoko kriterioez zuzenduta dago horrelako haurra. Liburuak dakarrenaren edo irakasleak esaten duenaren berdina izanen da haurra. Molde jakin batzuetan osatua. (Cropley-k ondo aztertzen du Euskal Herriko egungo zenbait irakasleren arazoa: Gizarteak bere serbitzurako prestatzen ditu ikastolak. Zenbait kasutan gu ez gaude ados gizarte horrekin. Eskubiderik ba ahal dugu gure haurrak guk gorrotatzen dugun gizarte burges baten erantzunean jartzeko? Eta hemendik datorkigu, gure ustez, Euskal Herriko ikastolek bizi duten zenbait eta zenbait arazo).

3.—Sistima hitsi eta logiko batez borobilduak daude ikastola gehienak. Konformismora prestatu eta estandarizatutako modelu batzutura jartzen ditu haurrak. Gelaren portaeratik at dagoen haurra anormaltzat edukiko genuke eta ikastola hitsi honen indar guzia haur diberjente eta "anormal" honen bizkarrean eroriko litzake.

4.—Jokoa eta lana ondo bereztuta daude gure kulturaren eta gure ikastoletan. Lana, serioa, sakona da. Jokoa, arina da, kezkarik gabekoa. Lana eta jokoa ez dira behinere nahasiko. Haurrak, perspektiba honetan, ezin du pentsatu bere imajinazioak, logika guztietatik kanpoko lan askatuak, humore eta bihurkeriak, ikastolaren lan serioarekin zer ikusirik dutenik. Inbestigatzea baztertu eta, lortzen dugun bakarra, jokoa ere molde serioetan sartzea (9).

Honela, haurrak aztertzerakoan, erabat ahaztua dugu diberjentzia. Zenbait eta zenbait haur diberjentea dugu, baina guti kezkatzen gara. Eta ez da hau, prestatzen ez ditugulako bakarrik

(9) A. J. CROPLEY *La creatività*, La Nuova Italia ed., Torino, 1965, 25 h.

ulertzen. Askotan badakigu zelan jokatu, baina haur dibertenteak, zerbait "berria" eman lezaketen haurrak, zailak zaizkigu, estra-baganteak. Ikastolaren ordena —*guk* ikastolan ibenitako ordena— apurtzen dute. Haur bat burua margotzen aspertuta zegoen, eta behin buru hori barrendik margotu zuen. Jakina, zirriboilo bat besterik ez zuen egin. Baina haur harek marrazki orduetako ordena hautsi egin zuen eta zigortua izan zen.

Gure gizarteak ez ditu dibertentziak onartzen. Gure ikastolak ez ditu dibertentziak onartzen. Hippy bat edo burua barrendik margotu nahi duen haurra. Pentsamolde jakin, bizimodu ezagun, jokaera lagun guziak hausten ditu honelako gizaki batek.

Bestez, euskal literaturaz hainbat eta hainbat hitzegiten dugun garai honetan, heziketa aparteko bat beharko dugu gure ikastoletan gure kultura aurrera eramateko. Gu hondoratuta gaude, erdibituta. Gure gurasoen eta gure semeen artean erdibituen gizarte bat osatzen dugu. Eta gure ikastoletako heziketa berezia izanen litzake apurketa honen erremerio bakarra, gure kulturaren eusgarria. Bestez, gizonak osatzerakoan ere, eta Lege berriak ulertua du alderdi hau, hizkuntzak —edozein hizkuntzak— duen garrantzia onartu beharko genuke. Gure ikastoletako arte-heziketa guzia marrazkian eta abestian oinarritzen da. Baina, gure ustez, hizkuntza, hitza, da izan arte-heziketa guzian garantzizkoena. Hizkuntza sorketa mailan hartu behar dugu, eta sorketa mailan hartzen dugunean bakarrik lortuko dugu edozein hizkuntza salbatzea. Oso erraza da hizkuntzaren oinarri teknikoa erakustea. Analisisa. Baina gure ikastoletako haurrak sintesi baten beharrean aurkitzen dira. Zergatik? Sintesi guzia erderaz hartua dutelako. Pentsa haurren hizkuntza —jokoetakoa adibidez— erderaz osatua dutela. Eta pentsakizun hauek heziketari buruz mintzatzen garenean azaltzen baditugu, zer esanik ez politikaren perspektibetan jartzen garenean. Dena dela, eta heziketari buruz berriro ere, berdinak esanen genituzke euskeraren arazorik izanen ez bagenu ere. Hizkuntza da

espresio bide jatorrena, eta badirudi arazo zailegia egin dugula pondu honekin. Adibidez, bilinguismoa aztertzerakoan. Baina jakina da bilinguismoak espresio aldetik dakarkien zailtasuna. Eta, honetan ari garenez, gure ikastoletan arrisku handia dago gehiegi pentsatu gabe erderara jotzeko. Eta zenbait kasutan gertatua zaigu. Programazio ofizial bati begira gaude, eta programaziotik at zenbait gauza egin beharrak bere arriskuak badakazki ere, arrisku handiagoak dakazki gurekin kontatu gabe egindako programazio batekin konformatzeak.

METODUA

Irakaslearen lana da haurrengan agintea bera baino aurreagoko eguzkiari begiratzeko irrikia esnatzea. Arazo guzia, hau nola lortu, gidaritzarik baztertu gabe (10).

Ikastola berriaren —Nuova Scuola— sentiduari dagokionez, bizitza eta jakintzaren arteko lokarriak sendotu beharko ditugu, haurren interesen eta lortu behar diren baloreen arteko eraztuna jantzi beharko, ikastola “heziketarako laboratoriora” izanen litza-keen lan-molde bihurtuaz. Irakasleak isilean, izkutuan lagundu beharko du eta taldeen eta haur pertsonalaren harremanak zuzendu. Honela ikastolak bizitza eta optimismo berriak hartzen ditu, espresio pertsonal eta askatu baten bila dabilen sorketa-lan serio batean murgiltzen da.

Lehendabiziko arriskua: Ekintza hau desorden bilakatzea. Hemen eta pondu honetan batezere ikusten da irakaslearen beharra: Legeak, edozein jokok behar dituen erregelak bezala direla azaltzen ahalegindu behar du irakasleak.

Diziplina ez da haurrak bere lanarekin eta bere lagunekin ekintzarako beharrezko duen tresna besterik. Haurrak lana eta

(10) A. J. CROPLEY aip. lib., 100 h.

lagunak behar dituela dakienean, berak proposatzen ditu jokorako legeak. Lan guzia, lege hauek haurrak berak proposatzen zaitzea izanen litzake.

Honela, diziplina ere sorketa-ekintza bezala hartzen badute, ikastolak giro berezi bat sortuko du eta giro berezi hau *segurantz* *sikologikoa* izanen litzake Carl Rogers sikologoaren hitzetan.

Heziketa honen oinarri eta funtsa, artea gure ikastoletako irakaskintza maila guzian integratzea litzake.

LITERATURA ETA EUSKAL IRAKASKINTZA

joseba intxausti

Ondoren emango ditudan oharrak ez dira berriak; orain bederatzirte Euskaltzaindiaren bilkura batean emanak (Aranztazu, 1963-ko irail-urrietan) eta "Euskera" aldizkariaren horrietan argitaratuak baizik. Geroztik euskal urek ibilaldi luzeak egin dituzte, baina oraindik ere baliagarri gerta daitezkeelakoan nago. Hamalau-hamabost urtetako mutilentzat pentsatua eta berengan frogatua da hemen ematen den teoria eta praktika. Batxileratuko (ordukoa noski) laugarren eta bosgarren urteetakoentzat erabilia izan da; eginahala hauetan oraindik ere gehienbat egiteko dadukagunez, hemen biltzen diren ideiak probetxagarri direla pentsa daiteke.

49 ikaslerekin erabili da metodu hau eta, geroztik ikusi dudanez, ez zen erabat alfer lana gertatu. Honegatik, beldur ximiko batekin bada ere, beste irakasleren batentzat lagungarri izan dadin ausartzen naiz "Jakin"-eko ale honetan argitara ematen.

I. POESIAREN BIDEETATIK

Jakina denez, poesia eta bertso ez dira gauza batbera; bata, bertsoa alegia, jazkia da, kanpotik erantsi den zerbait; bestea, berriz, barneko bizi-jarioa da, literaturaren argia eta ederra, izadiaren gozoa eta lilura, hitzetan elurtu eta isuria. Mintzaira, poesiaren mirariz, eder bilakatzen da.

Literaturaren eder jario hori gizonaren sorkari da, beronen-gandik sortua, eta eder horrek giza-izpirituarekin zuzeneko zerikusia du. Eta, zalantzarik gabe, literatura ikasi eta aztertzean, ikasleak ez dezake inola ere dastatu gabe utz. Irakaslearen egin-kizuna da ikaslea honelako taxugabekeriatik gordetzea. Areago: maisuak iratzarri egin behar du haurrigan lozorroan dagoen edermenena.

Giza-izakia osotasun bakar bat da: adimen—edermen—oroimen—nahimen—zentzumen—barneramen... Guziok giza-osagarri dira eta sakabanaezinak. Honegatik, haurrari hizkuntza gramatika hutsez eman nahi izatea, heziketa lana erabat murriztea eta giza-izpirituaren joera sakonen bati uko egitea da.

Freud-ek (1923) giza-nortasunaren barne-egitura erakutsi zigunetik badakigu, gizatasunaren barrunbea uste genuen baino ugarikoitzagoa dena, benetan konplexua. Denok ikusia dugun irudi batez esateko, pertsonatasunean dantzari-talde baten antzeko zerbait gertatzen da. Doinu bakarrak —kanpotik datorkigun dei bakarrak— zortziamabi gizon jartzen ditu jauzika, elkarrekin eta elkarren aurrez aurre. Bakoitza guzientzat ari da, eta ez dezake inork bere gisarako dantzarik asma; doinu bakarraren deira talde osoak erantzuten du, ez denak berdin, baina bai orok elkarrentzat. Honelatsu giza-izpirituan ere: irudiari jarraituaz esateko, giza-ahalmenak ez dute sekula bakarkako aureskurik. Ideia, sentipen, nahiz irudi batek dena eztenkatzen du eskinera. Holakoxea da giza-izaera.

Ideia baten egunsentiaren xori-xiuntarekin hamaika gogoeta zahar irazartzen da. Gure barneko mendi-zelaietan ehundaka oihartzun datoz hitz-berritze baten ondotik. Heziketak, aberastasun posible eta egiazko horiek ezingo ditu ahantz. Euskera irakasterakoan ez gaitezke gelditu gramatikakerietan. Xori librearen irudiko da izpiritua, libre barnearen zeru ozkarbipean. Heziketa zuzen batek, hizkuntzaren oparotasun osoa haurrari txertatzea eskatzen du.

Hainbat aldiz entzuten ari garenez, heziketak gizatasun bideak ireki behar ditu. Gizagintza da irakaslearen lana, eta hori herri baten barnean, izan ere benetako herritasunak gizagintza bultzatu besterik ez bait du egingen. Gizabanako bakoitzari gizabide bat zor dio heziketak, eta, gizabide hori konkretatzen dugunean, herrikide bilakatzen da haurra. Herritasunak ez du inondik ere giza-jatortasunik ukatzen, *hemen eta orain* bete eta mamitzen baizik. Honegatik, euskal haurra hezitzean, gizabanako honengan gizagintza burutzen ari gara. Eta, goian esan dugunari jarraituaz, euskal heziketak gizona egin behar du eta bere osotasunean egin ere: *euskeraren irakaskintzak gizona sakontasun guzian hezi nahi baldin badu, hitzaren liluraz eder-sena iratzarriaz egin beharko du.*

Sar dezagun euskera behin betirako eta sekula guzietarako edukazio jatorraren bideetan. Haur bakoitzak, bere baitan darman orkesta isil eta aberatsa esnatu behar du edukatzaileak. Betidanik noski, baina hamar-hamabi urtez gero berezikiago oraindik, gramatika-zarpilkerietatik ihesi, eder-bideak eskainiko dizkiogu haurrari. Bestelakorik egitea, literatur eginkizuna ukatzea litzake.

Heziketak, jakitate eta sentipen batera bizkortu behar ditu haurrak, Mme. Staël-ek nahi zuen bezala. Eta eder-sentipena, daki-danez, ez da gramatikaren mandio armiarmatsuetan gordetzen. Gehienbat, handik kanpo agian. Norbaitek esan duenez, penagarria da ederraren edukazio-balioa ikusi ez duenaren itsumena.

Heziketak, haurra bere inguruarekin harremanetan jartzen ahalegindu behar du; baina edermenaren harreman bidea ahazten duenak oinarrizko hezibide bat ukatzen du, inguruarekin nahi den harreman hura deseginaz. Heziketarentzat humanismo eta euskaltasun arrazoizkorik eskatzen baldin bada, ezingo da ederbidea ahantz.

Haurraren izpirituan euskerari halako sakontasunik emateko, gizatiartu egin beharko da gure haurren heziketa. Giza errotik bertatik dator euskalduna euskaltasunez jantzia; euskalduna ez da lehenen gizon eta gero euskaldun, dena batean eta izaki bakarrean baizik. Eta gizatasunari dagokion sakon-zabaleko euskera emango diogu haurrari. Baina ez da gizatasun horren neurriko euskerarik izango, gizon osoa zehar eta giza ahalmen guzien medioz lan egiten ez bada. Giza izpirituaren erdi-erdian, bihotz-bihotzean, zutzer-zutzerrean landatu behar da hizkuntza, hortik aldiaren harian nortasun osora zabal dadin. Honela, landareak gogo osoaren gozoa izango du, edozein gogo-izpi ikutzea euskal zutzer bat mugitzea izango da: euskera gogo-gogoari txertatua geldituko litzaiguke. Gure gizaera euskeraz mamitzen baldin badugu, gizabide hauetatik egin dugulako izango da.

Euskerak, gizatasun osoari begira dela, bete behar du bere zeregina, ez bait dezake gure gizatasunetik fitsik ere arbuia. Eta eder-mundua oso gizatiarra da, geure geurea, nahiz eta zenbaitetan isilarazia izan.

Eta eskuarki aipatu den eder horretatik *hitzaren ederra* aztertera baldin bagatoz, zer? Hitzza beti izan da misterio. Bere baitan giza gogoaren beraren taupada darama, hitzaren erraietan bizia isuri bait du gizonak. *Hitzza* ez da ideia soila, *ideia maitemindua* baizik: ideiarri gizonaren sentimendu, irudipen eta intziriak erantsi zaizkionean, hitza argitara jaio daiteke. Hitzaren ideia atzeman orduko, isilpeko hainitz sentimendu hegadan doakigu gure gogoaren urdin sakonenean. *Ama* entzutean, ez zaigu mundura gizaki

bat ekarri zuen emakumea bakarrik aipatzen. Hitzak hori baino gehiago *nahi* du: honela edo hala maitatu nuena da *ama*; ni neu ere maitatu ninduen; gaiso nahiz triste nengoela, betidanik ondoan izan dudana... Bai, hitza sentimenduz troxaturiko ideia da, eta areago, zenbaitetan sentipen hutsa ere bai.

Gramatika, hizkuntza eman nahirik, arrisku batean eror daiteke: gramatikakerian. Behin egin dut gramatika lan bat; baina amodio-gose zaratenok ez joan, mesedez, hara. Arrazoikeria hutsaren lejiiaz hitza sentipen orotatik garbitzen baldin badugu, azkenean ideia bera ere erre egingo dugu. Unamuno-rentzat hizkuntza izpirituaren odola da, eta odol hau ez dezakegu gure barne sentimenduen lisibarako erabil. Ez. Aintzira batetara bota ahal duzue inoiz harritxo biribil bat? Hara nola joan zen barnera, adimenera ideia bezala, eta ikus nolako uhinak uraren loan, hitzak gure gogoan biztu dituen sentimenduen idurizat.

Hizkuntzak giza-izpiritua darama bere golkoan, eta ez zaigu zilegi aberastasun hori ideia elkor batzuetara herstea, mugatzea. Gaurko euskaldunok denok konprenitzen omen dugu erdera: konprenitu!, baina besterik gehiago? Euskaldunon gogoa konzeptu poligonoz betetzea bakarrik balitza, osatuak ginake; baina hizkuntzak bestelakorik ere eman behar liguke. Ez da aski konzeptua, gizaki osoak izan gaitzen, areago jo behar du mintzairak eta sentipen-bidetik deus guti ematen digu askotan erderak. Eta hori horrelaxe izango da tipi-tipitatiek euskera inausten ez diguten birtartean. Hitzen ideiak maite ditugu, eta baita sentigarriak ere!

Hezitzaileen eginkizunetako bat haurren eder-sena ere euskeraz edukatzea izanen litzake. Haur bakoitzak bere baitan duen euskal artistaren euskaldungoa gorde nahi bada, baitezpadakoa da hau dena. Guk ere, zorionez, badugu euskal haurrengan, beren gizatasunaren osagarritzat, eder-sentimen bat, bere horretan irau-narazi eta bizkortu behar duguna.

Gizonak nonahi idoro dezake ederra, eta ikasleari hori dena

aldez aurretik euskeraz ikusarazten baldin badiogu, edertasunaren indarra eta erakarmena ere geure alde izanen ditugu. Gaizki ez banago, honelako zerbait esan nahi digute *herriaren euskera* erabili beharko litzakeela eskatzen dutenek. Euskera batua behar dugu, baina euskera bateratzaileok ez gara oraindik hizkuntzaren benetako estilista. Eta, honetan, hizkuntza fosilizatzeko arriskuan ari gara lanean, eta bekatu hau gainerako hizkuntzatan ere salbaezina izan arren (guziek behar bait dute mintzaira *standard* bat, eta hain zuzen hori da guri askotan falta zaiguna), ederbi-deak sasipetuko ditugunaren beldurra eta kezka gurekin behar dugu izan, euskeraren batasuna egitean. Euskeraren batasuna ahalik lasterren burutzen ez ahalegintzea hainbateko itsumendua litzake, batasun horren atxakiatan galduta, hizkuntza *oso-osorik eta behinbetirako* standardu nahi izatea. Bide zuzena ez da errazki asmatuko, noski.

Hizkuntza orok du edermen bat, eta euskaldungoari sekulako saldukeria egingo litzaioke euskerari berez duena lapurtuaz. Bide honetatik lanik ez egite hutsa ere oso kaltegarri gertatuko zaigu. Ireki ditzagun leihoak eder-mundu miresgarrira!

Haurren eder-sena euskal literaturaren deira iratzartzen ez baldin bada, begira zer jazo litekeen: mutilik azkarrenak eta argienak herbesteko giro batetan jaioko zaizkigu literatur mundurako. Eta honelakorik gertatzen den bakoitzean, irakasleak pentsa dezala noraino den bera errudun... Eta honelakoak askotan gertatu dira, eta honelaxe galdu ditugu gure artean asko eta asko.

Haurraren gogoan oinarrizkoa da eder-sena, eta gizalege honen kontra ari denak ez du heziketa zuzenik egiten. Euskeraren eta ikastola lan guziaren ekinak hemendik jo behar dute, azkenean izan ere mundu guzia konprenitzeko erosotasunik gozoena bait da. Agian, mistika-une zenbait salbu, nekez idoro liteke eder-sentimenduak baino giza ahalmen gehiago ekintza bakarrean bultza-

tzen dituen deus. Baina gure poesia gramatikan —hizkuntzaren kalaberaz eginiko presondegi horretan —ito nahi badugu, eta ikasleak elkorkeria honekin lotzera erabakiak baldin bagaude, beste nonbaitetik helduko zaie poesiaren ederra —edo okerrago: ez zaie iritsiko—, eta bestek eramango ditu gure urak bere errotara.

Eder-sena munduaren beraren osagarri da eta ez genezaiokie gure haurrari sentipen hori uka. Sartre-k nahiko poliki agertu du munduaren eskasia: *Gauzak, bide-erdia bakarrik egin duten ideiak dira*. Mendia, zuhaitza, ilargia, ihintza, gizona bera, guziok ez bait dira izan ere beren izan-goseak, izan-gura hizkuntzak nahi lukeen hainbat, eta guk, geuk, sentipenez osatu behar ditugu, izanearan diren neurria gainditu dezaten. Osa-behar honetan (izadia atzeman eta osatzean alegia), estetika sentipenak betekizun hauk ditu:

- Irakurleak jaso dezala olerkariaren mundu antzaldaturako objektutasun eta sujetutasun osoan.
- Izadia bizipen unibertsalista batetan atzeman, artea guziona eta guzientzakoa bait da.
- Ikaslea askatasun ekintza batetara eztenkatu, artea bere izaeraz zeharo librea bait da. Honela, gaztearen libertade eskeari ere irtenbide bat ematen zaio.

Lehenen bi pondu horiek ez daitezke beste medioz ardiets, eder esperientziaz ez bada. Izadiaren bizipena, eta horretarako ederraren bidezatasuna, premiazoak zaizkigu gizonoi, eta eder esperientziara bultzatzen ez dugun haurrari eta gazteari izaerazko egarri hau ase gabe uzten diogu. Eder-sentipenak munduaren esperientzia berri bat ematen du: *estilo bat*, izan ere estiloa munduaren eta bizitzaren ikusbide berezi bat bait da. Honegatik, estilorik gabeko gizona eskasa da, pobrea bere pertsonaren sakonean.

Munduaren poesitasuna, hizkuntzaren ederra, literaturaren

olertia beharrekoak ditugu gizaera oso batetarako. Ederrak halako erakarmen berezia du gaztearen —nexka nahiz mutiko— gogoarentzat, eta lehenbaitlehen erakutsi behar zaie gure poesia. Txunditurik geldituko zaizkigu euskal poesiaren oparotasuna ikusita. Hemendik hasita erakus dezaiokegu ikasleari euskerak sortu dituen estetika balioak. Jakin dezala gure herritasunetik ere horrelakorik sortzen ekin daitekeela. Ez da hau beti ongi eta behar bezain argi ikusi.

Orain hogeitau urte, genuen zenbait ikastetxetan ikusia tamala da. Orduko giroak ez zuen gaurkoak hainbat laguntzen euskera sakondu eta aurrerago ere jo genezan. Bazen orduan ikastetxe barnetako aldizkaritxo bat, erderaz eta euskeraz idatzia. Erderaz egitera ausartzen ez zirenak euskerara ahalegintzen ziren... Ikaslerik eskasenek egiten zuten euskeraz; ez genuen lortu oraindik euskerarentzat halako gizarte-itzalik, eta, uste dudanez, askotan gramatika hutsetan genbiltzelako.

Pedagogia aldetik ez da batere egoki hizkuntza hizkuntzarentzat berarentzat erabiltzea, eta euskeraren narzisismo arriskua aldentzeko aipatzen den metodologia aproposa litzake haurrentzat. Eder-mina euskera bidez bizten baldin badugu, hori ere gure alde izanen dugu. Eta gutien espero denean egokitzen zaigu holakorik; barka bezait irakurleak oroitzapen bat, adiarazi nahi dudana ager dezaiodan.

Oraindik gogoan dut une hura. Hamasei-hamazazpi urte nituen. Hazitxoa, beraz. Zenbat izerdi ordurarte, nonbait bizi zen ederra ikusi eta ikutu nahirik, hauxe bait da sarri askotan mutikoaren nahi-eta-ezinaren borroka ikastaro bakoitzean. Ni ere ezinak ninduen gatibu: beti haruntzaxeago zebilen ikusiezineko ilusioa. Eta, hara!, bapatean eskuratu: bera etorri zitzaidan, ez nintzen ni mogitu, eta neure eskuetan nuen edertasuna! Udaberriko (betikoa...) arratsalde ozkirri bat izan zen, eta egun haretako azken ikas-ordua. Errigoiti aldetik zetorren argia, hilbera eta gozo.

Mutilok ikasten geunden. Badakit oraindik eserita non nengoen. Leihoak zabalik zeuden. Urte haretan bezain misteriotsu ez dut sekula sentitu izadiaren udaberrietako iratzar-ordua. Ikas-gela aurreko udare zuhaitzak orduanfxe ari ziren lora-edurak urturik, horriz jazten... Instant haretantxe ikusi nuen nik hitzaren ederra eta liluramendua. Harrez gero, nere ustez, badakit nora jo behar dudan idaztean; gehienetan ez naiz helduko, baina norakoa barnean daramat. Sentitua eta atzemaña izan da ene baitan.

Euskera, heziketari lagunduko dion zerbait izan dadin, hauxe da gure eginkizuna: une hori eta ondokoak haurrari euskal lanean etor dakizkion ahalengindu. Nonbaitetik ematen zaigun eder-lorategi hau euskal amantalean eskain dezaigun. Esan dezala mutilak nahiz nexkak: *hau duk nere mundua, euskal idazle izango nauk!* Agian, maila apalago batetan geldituko zaigu; baina jakin dezala, jakin, euskerak ere eder-mundu oso bat duela berarentzat.

II. IRAKAS METODUAK

Hamaika eta erdi era eta modu badira edertasuna zabaldu eta aztertzeko, baina horietatik denak, edo gehienak, hiru hauetara erakar litezke. Bide hauk ez dira noski euskerari bakarrik dagozkionak, hizkuntza guzienak baizik.

A) Edermenaren heziketarako hiru helburu

Edertasun-bidean irakasbide denak ez dira maila berekoak. Eta komentario denek ez dute zeregin ber-bera. Eman ditzagun hemen horietatik hiru:

- a) *Eder-gosea biztu*, ederraren zastada sentiarazi. Arestian aipatu den eder-sentipen horretara heldu. Hau agitz inportantea dela uste dut, eta gero etorriko direnetarako

lehenen maila. Une unkigarri hura gudan suma bageneza, ederrerako deia gure baitan dukegu betirako.

- b) *Ederra sortzeko teknika*: ez eder-etorria lotzeko, aurkezpen-erosotasunak emateko baizik. Betebehar honetarako egokia da benetan Correa-Lázaroren liburuska. Ez da derrepenean ongi eta nahi bezala erabiliko, baina erabiliaren erabiliz laster menpera daiteke. Bai egoki etorriko litzaiekeela holako zerbait euskal atalei ezarria.
- d) *Izadia ezagutu eta hizkuntza aberastu*. Rizzi-ren jardunbidea aproposa da honetarako; baina, aurrera eraman dezagun, ez daduzkagu gaur-gaurkoz Euskal Herrian beharreko genituzkeen hiztegi eta liburuak, eta zahartu ere egingo gara dena ardietsi arte.

Honera heldu garenez gero, ikus ditzagun hiru eginbehar hauetarako erabil litezkeen metodoak. Lehenik, xehetasun gutirekin, metodo bakoitzaren teknika emango dut; ondoren, hori bera komentario batean erabilia izanen da. Ez dago zeresanik: hirurok, goiko poesi urrats horiek (a,b,d) emateko hartzen ditugu.

B) Hiru irakasbide

Hiru eginkizun horietarako tresnak eskaini nahi genituzke hemen hiru metodo hauekin. Ez dakit onenak diren eta, uste dudanez, akats eta hutsuneak izango dituzte; baina bere egunean irakaskintzan frogatuak izan ziren eta fruitu onak eman dituztela esango nuke.

Edermenaren iratzarbidea

Gizon bakoitzaren baitan dagoen eder-sena iratzartzeko pentsatua da metodo bide hau, ikasleen aurrean bertan eder-izadia jaiotaraziaz. Lan honek irakasleari berari eskatzen dizkio lehenik

halako koalidade egokiak, olermen bat esan nahi da, poesi-jarioa. Dena dela, hemen ere —beti ez izanarren— ibiliaz ikasi beharko du irakasleak.

a) **MUGARRIAK:** Lau unetan osa daiteke metodo hau:

1. **Irakurri:** Geldiro irakurri behar zaie mutilei. Arreta guziz. Sentidu guzia gordeaz. Beharbada ez dira guziaz jabetuko, baina hutsune hau hurrengo ponduan beteko da. Hemen aski zaigu ongi irakurtzearekin.
2. **Ulertarazi:** Ez du fitsik gelditu behar ilunbetan. Dena, oso osorik, atzeman behar da: hitzak, esaerak, etab. Ez da esan nahi derrigorrez, literatur irudien zergatia ikusi behar denik. Aski da poesi atala bere literaltasunean konprenitzea.
3. **Sorbide:** Komentario honetan hau da mementorik garrantzizkoena. Hemen jarri behar ditu irakasleak gogo osoa, bere etorri eta ahalmen denak. Eskutik eraman behar ditu izpiritu gazteak, bere bihotzaren eder taupadak sumaraziaz, edertasuna ikutzeraino. Komentario-une hau da bereziki ikaslea eder-izadian esnarazteko berebizikoa. Zeregin hau betetzen badu (ez noski lehenen ahaleginarekin), lortu du nekezena.
4. **Berriro irakurri:** Irakaslea nahiz ikasle bat deklamatzaille ona balitz, hainbat hobe. Irakurri ondoren, deklamatu egin dezake orduan. Ez du olerkiak eta edertasunak deus galduko, asko irabazi baizik. 3-gn. ponduko komentarioaren ondoren, askozaz ere kapazago dugu ikaslea olerkiaren ederbaltzea dastatzeko: orain, ideia eta sentipenak bat-bat eginik, beren osotasunean ikusiko ditu.

b) **SAIAKERA BAT:** Gandiaga poetaren **Elorri** liburutik (77 horr.) jasotako olerki bat hauta genezake jarduketa hau egiteko.

1. **Irakurri:** Begiratu dot, ta, ixiltasunak
bakartasunez bildurik nauka.
Klaustro mortuan gelditasuna:
haize gabeko ur lo bat dago.
Ez dagi arnas aide argiak
ezta zirkinj mututasunak.
Noizik-behineko pausoak, praile bakarra.
gereiza dira... gauza baino.

Sortzen ez diren berbak badeutsa begirunerik zerraldo datzan aide zuri eta santuari.

Begiok hemen. Begiok, dinot, eta arimea jabetu jataz, entzumen hutsez, amestu nitun bazterrak baino harutzagoz.

Eta bihotzak
komentutzar hau, neurea, dino,
gogobete ta nagusikiro,
berekaxa.

2. **Ulertarazi:** Eman dezaizkiogun ikasleari behar diren hitz eta esaeren esanahiak. Hona adibidez: **Mortu** = desierto. **Zirkin** = movimiento. **Gereiza** = sombra. **Zerraldo** = yacer largo. **Datza** = etzanda dago, yace. **Jabetu** = adueñarse. **Entzumen** = oído. **Komentutzar** = komentu handi. **Gogobete** = satisfecho. **Nagusikiro** = como dueño.
3. **Sorbide:** Hitzez hitz joango gara aintzina, eta pauso bakoi-tzean, eder-jauregi honetan, ate berriak irekiko zaizkigu. Poesia honen gaiak eskatzen digunez, klaseko isiltasuna urratu beldurrez mintzatuko gara:
Begiratu dot: Begiak zabalik, dena begi, ikusmin, begi mi-restuak arima-begietan. Gogo kristalezko begi egin zait. Klaustroan ez naiz gorputz, izpiritu hutsa baino.
Ta: Gogo gorpuzgabetuak bihotzaren taupada mundura luzatu du.
Ixiltasunak: Isila ez da ezer, ez da zerbait. Astratua da hemen, eta deusezaren isila gainera: isila ezerezean mur-gildua.
Bakartasunez. Ezerezaren jantzia. «Bakarra» Urlia hegada geldian bizi da soilik. Luma ikusiezinezko dama da bakartasuna.
Bildurik: Haize gozo-biguna bailitzaxe, maitasunak bihotza bezalaxe, bururakizun epel batek gogoaren gisa. Bakartasuna jantzi bihurtu da.
Nauka. Eta hortxe naduka eduki ere isiltasunak bere bakartasun-sehaskan.
Klaustro: Horra klaustro hutsa, kristalezko kupulapean. Argi-makutsean dena.

Mortuan: Ez dago ezer, ez da deus ageri, desmateriatua oro: izakiak argi-labetan desegin dira.

Gelditasuna: Hitz luzea, eroria, astratua. Mortuan bada zer-bait, bada norbait: gelditasuna argitan.

Haize gabeko: Haizea uraren (ikus ondotik) lagun zen, baina desegin da arrunt, erabat: bere baitan gelditu egin bait da haizea.

Ur lo bat: Tantoka-tantoka gelditasun gardena (hitzak ere tanto eta apur dira beren silababakarrean); dena bakan ezerez argitsuan. Haizerik ezak loa eman dio urari, giroari.

Dago: Haizea hil egin bait da.

Ez dagi arnas: Aidearen zirkinik kaskarrena arnasa izan liteke, eta hori ere eskas du: aidea hil egin da.

Aide argiak: «Aide» eta ez «haize», gelditasuna adiaraziaz.

Argiak: argia bakarrik bait da zer eta nor klaustruan.

Ezta: gelditasunaren geldia lerropetuz.

Zirkinik: Mogimenduetan tipierna da hori (ia beti ezezko esaeratan erabiltzen da: ez du zirkinik egin...). Onomato-peia-balioa: i horiek izkribu-eraz bezain hertsiaik bait dira hotsez ere.

Mututasunak: Hitza luzea, aldenik aldekoa, eta u horiekin betetasun oparo eta jausia duena.

Noizik-behineko: Pausoak ez datoz jarraian, ttiki-ttaka bizian, holakoek gelditasuna hautsiko bait lukete. Aldian-aldian datoz, banaka-banaka.

Pausoak: Hitzak bezain materiatasun guti. Bokal asko, eta konsonanteetatik s goxo bat.

Praile bakarra: Bakartasunaren mortua, norbait agertzean, nabarmenagotu egiten da, sentigarri bihurtzen bait da mututasunaren dardara.

Gereiza dira: R bigun horien neurriko gereiza. Gereiza ezin hunki eta pausoak berdin. Pauso-hotsa desmateriatu egin da berriz ere.

Gauza baino: Pausoek ez dakarte ezer, desgauzatuak datoz banan-banan.

Aide zuri: Aidea argi eginik: zuritiesun dirdaitsu bat erori da zerutik.

Santuari: Zerutik bait dator, eta garbia da: komentuko santutasuna hantxe baretu da...

Zerraldo datzan: Aidea geldi, zabal, hilda, gorputz: hor datza herio-zuritasuna.

Begirunerik: Santutegian gaude; hildako santu baten ondoan... Bertsoa biziki luzea da, hilak luze bait daude beti.

Sortzen ez diren berbak: Hildakoaren aurrean isiltzen goaz beti, ez da hitzik sortzen. Berba izan ez direnak, gorpuzgabeak ere, isilik daude, begirunez. Nolako begirune santua ote lukete jaioko balira hitz horiek?

Begiok hemen: Hasierara gatoz berriro. Begien tokia da hau: begitegia. Begiak ase-asetzeko lekua hauxe!: argi handi eta betea...

Begiok... harutzagoz: Arima, begi bihurtua, hemengo materiaren axala eten-zulaturik harutzago joan da: bere amesgurariak hautsi ditu, entzumenak kizunik, atzemangarririk, ez duen giroa atzean utzita. Materia mehetu denean, ametsak berak ere gainditu egin dira olerkariaren bihotzean. Hemengo mundu-argia igaro, amets-izadia pasa, eta horra olerkaria «hirugarren» mundu misteriotsuan.

Eta bihotzak...: Dena beterik, ametsen muin gozoa dastatu ondotik, komentuak bete du olerkaria: barnean du dago-neko mundu zoragarria. Gogobete dago komentuaren handia bere baitan duela. Arima ere argiz bete da, eta dena beretzat du (berekaxa).

4. **Birrirakurri:** Berriro irakurriko da poema; oso geldi, kasi letraz letra eginaz. Ongi deklamaturiko balitz, askoz hobe.

Ederraren teknikabidea

E. Correa Calderón eta F. Lázaro-rengandik jaso da hau. Ikus autore hauen *Cómo se comenta un texto en el Bachillerato* (Ediciones Anaya, Salamanca) liburua. Hemen labur-labur ematen dut azterbide hau eta gauzak borobildu nahi lituzkeenak liburura bertara jo beharko luke.

- a) **MUGARRIAK:** Sei une ditu bigarren bide honek. Metodu hau

erabiltzeak baditu bere izerdiak, baina agian gogor ekinez gero ez litzake hain aldapa gora gertatuko. Nik neuk ez dut sobera erabili, eta barka bekit hemen zehaztasun handirik gabe aurkeztea.

1. **Irakurri:** Pauso hauk eman behar ditugu hemen:
 - ezagutzen ez ditugun hitzen esanahia bilatu,
 - hitzak zenbait esanahi balu, gure honetan egoki letorkeena hartu,
 - interpretaziotan sartu gabe, izkribu atala ongi konprenitu.
2. **Atalaren nondikakoa:** Zatia literatur kondairan kokatu behar da:
 - zattia da ala testu osoa?
 - zein literatur jenerutakoa dugu: poesia (epika, lirika, dramatika), oratoria ala didaktika.
 - Testu osoa balitz**, autorearen obra guzian duen lekua idoro beharko zaio.
 - Atala balitz**, hiru kasu gerta litezke:
 - 1) Irakurria den obrakoa izatea. Holakotan, autore horren gan obra honek duen zerikusia agertu behar da. Eta ondoren: zein leku dagokio testu honi obra horretan?
 - 2) Kapitulu nahiz obra ezagunekoa da. Idazlearen obraren barnean zein leku dagokio. Obra honen esanahia. Ager dezagun kapitulua eta hemen atalak duen tokia.
 - 3) Obra ezezagun batekoa da. Kursoko ikas-liburua mia dezagun eta gero 1) ponduan bezala jarrai gakizkion. Deus aurkituko ez balitz, laga dezagun eta goazen aurrera.
3. **Muinaren bila:** Orraz dezagun gure atalaren asuntua xehapen guzietatik. Ez dadila izan deus sobranterik, ez eta ezer eskasik ere. Labur-labur dena. Bila dezagun zatiaren hitz-bihotza, sintesi-hitza, laburpen-hitza. Honetan hutsegitea, komentario osorako bidea galtzea da: hau da hemen zereginik inportanteena, eta zailena.
4. **Barne-moldadura:** Esan-bideak badu noski hor estructures bat. Ikus, ba.

- Metrika-neurri eta moldadurak azter ditzagun, atala ber-tsotan balego.
- Temaren hara-honakoek daramazkiten zatiñoak ikus ditzagun. Ahapaldiek ez dute beti holakorik erakusten. Badaude gainera honelako zatigabeko atalak ere.
- Zatiño bakoitzean gain-hegadan dator tema.

5. **Formaren azterketa:** Benetako komentarioa orain egin behar da:

- Oinarria.** Testuaren tema beti ageri da testu beraren forman.
- Analisia.** Hauxe erakutsi behar du: testuaren forma-era bakoitza temaren beraren halabehar batek bultzaturik jaio dela. Hitzak, joskera, metrika, erretorika-irudiak, etab.: orok tema barnean aurkitu behar dute beren izan-arrazoia. Azterketa astun honetarako ikas-liburuek lagunduko digute.
- Idatzi.** Seigarren eta azken pondura pasa aurretik, orainartean ikusiak garbi-garbi idatziko dira.

6. **Amaiera:** Atzera begirada batean, erakus dezagun eskuarki, xehetasun gabe, oinarri legea nola bete den, eta ikasle bakoitzak eman beza bere iritzia: egiatia, apala, baina irmoa, hitz neurtuz emana.

b) **SAIAKERA BAT:** Ongi ezaguna den atala hartu dut nere jarduketa honetarako.

1. **Irakurri:** 1 (H)ura gizona, (h)ura!
 2 Zazpi oin ta erdi bai luze, makal-zugatza bezain zuzen,
 3 pagorik lodiena baizen zabal,
 4 arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel.
 5 (H)orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.
 6 Sendoak zeuden oraindik artzai za(ha)rraren beso zaintsuak,
 7 txit azkarrak bere oinak, zindoak bere bularauspoak.

Makal=chopo. **Zugatza**=árbol. **Bezain, baizen**=tan... como

Pago=haya. **Arte**=encina. **Bezela**=legez. **Trinko**=denso, mazi-
cizo. **Gorosti**=acebo. **Zimel**=enjuto. **Zaintsu**=nervudo. **Az-
kar**=vigoroso, ligero. **Zindo**=sano, firme. **Bular-auspo**=pul-
món. **Aristi**=roble dal. **Jaurti**=lanzar, arrojat.

2. **Atalaren nondikakoa:** **Garoa** nobelaren hasiera da atal hau; liburuaren lehenen kapitulutik jasoa, bezaz. Izkribu honen egile Txomin Agirre (1864-1920) dugu. Gainerako bere obretatik **Auñamendiko Lorea** eta **Kresala** ditu aipagarrienak, eta biok ere nobelak dira.

Garoa honek Zabaleta baserrikoen gora-beherak jaulkitzen ditu, eta bertako nagusi den Joanes da eleberriaren ardatz-pertsona, protagonista. Eleberriaren lehenen horrialdeetan horixe ematen zaigu: **Joanes gorputz-arimaz**, zabal-zabal, irakurlearen irudimenarentzat. Biziki ikusgarria zen artzain zaharra, eta benetan miresturik aurkezten digu idazleak. Mendian idorotzen du honek bere gizona eta txundituta gelditzen da haren gorputz-bikaintasunaz. Hementxe, lehen-biziko lerro hauetan, azaltzen zaigu Joanesen gorputz irudia. Ohar hauekin, badakigu honez gero, ataltxo honi euskal-literaturan dagokion eser-lekua zein den.

(Nahi izanez gero irakaslea mintza liteke Tx. Agirre idazleaz, honen izkribuez, baita euskal-nobelaz ere).

3. **Muinaren bila:** Idazleak zerbaitetarako izkribatu du hau. Asmo jakin bat bete nahi zuen noski. Zein da, ba, atal honen ideia-ardatza? Honatx: **Joanes zaharraren gorputz gazteak izkribatzaileagan sortu duen mirespena deskribio-bidez ematea**. Ideia honi begira, epaitu beharko dugu orain atal osoa: aukeratu duen bidetik helburu horretara iristen bada, idazleak lortu du nahi zuena.
4. **Barne-moldadura:** Atal hau ez dugu bertsoz egin, eta oraingoan behintzat bazter ditzakegu neurtitz-legeak. Agian, hala ere, egin liteke banaketaren bat, pentsamendua ez bait dugu bapatean ematen, mailaka baizik. Berriro irakurriaz, berehalakoan ikusiko dugu badela hor zenbait zatiño:
- a) Amirazio-esaera bat (1 lerroan).
 - b) Artzainaren gorputz-aurkezpen orokorra (2-4).
 - d) Epifonema bat (5).
 - e) Joanesen presentazio xehetua (6-7).

5. Formaren azterketa:

a) Zatia: (H)ura zan gizona, (h)ura!

Mirespen-irudi, amirazio-figura batekin hasten da. Temari zegokion erarik egokiena agian. Hiru balio eder aipa ditza-gun hemen:

Amirazio apropos bat deskrizio baten ordeko izan daiteke. Bere bidez ez zaigu ezer berezirik esaten, baina idazlearen gogo zehar zerbait ikusi dugunaren susmoa izango dugu. Ondoren etor daitezkeen zertzeladei aurea harturik, aintzinetik sentipen beroz ematen zaizkigu.

Mirespen-irudiak irakurlearen jakin-gurea iratzarri egiten du. Ondotik letorkeena benetan jakingarri bihurtzen da guretzat. Eta galdera xuxenean datorkigu mingain-punttara: zer zuen, ba, gizon horrek?

Esaeraren jatortasuna ere ongi euskalduna da. Erderara itzuliezina da hori. (H)uradun esaera oso gurea da, eta birresanez gehiago nabarmentzen da bere jatortasunean. Lorezko euskal arkupe honetatik garamazki protagonista-ganaino izkribatzaileak.

Temaren bihotz-bihotzean dago amirazio hau: egoki bait dator bai mirespena agertzeko, bai deskriziorako.

b) Zatia: Zazpi oin ta erdi bai luze, makal-zugatza bezain zuzen, pagorik lodiena baizen zabal, arte gogorra bezela trinko, gorosti ezearen antzera zimel.

Zer eta nolakoa zen, ba, holako amirazioaren iturria?, galdetzen diogu gure buruari. Hona!, erantzuten digu orain idazleak. Baina bere mirespenak bultzaka daramala, ezin dizkigu xehapen denak bertanbehera zabaldu. Temaren bi ideia-uneen (amirazioa eta deskrizioa) artean tiraka bat sortzen da: deskrizioa behar du, eta amirazioak begirada lausotu egiten dio idazleari.

Honegatik, gizandi haren aurrean, lehenbiziko «O!»-aren ondotik gorputz osoko erretratu bat emango digu Txomin Agirrek bigarren zatifo honetan, mirespenak ez bait du bestetarako betarik utzi. Beraz, argi dago hemen temaren bertakotasuna, presentzia.

Aukerakoa da deskrizio hau, baita bere gonbarazioengatik

ere. Izan ere, artzaina izanik Joanes, mendiko semea eta tontorretan hezia, inguruan zuen bizi-girotik jaso beharko zituen bere giza-edergailuak. Bere bizitzari dagozkion tasunak, kalitateak, ditu gure gizonak.

Joanes euskalduna ere bada. Honegatik, bere giza-tankera Euskal Herriarena da: Euskal Herriaren azala bere jantzia. Nolako arbola, halako ezpala. Zatitxo honetan hiperbolea gain-hegadan dabil; eta beti euskaltasun sirimiria dariola.

Ikus ditzagun epitetuak eta gonbarazioak. Zuhaitzetatik, gonbarazio-helburutzat, geureenak aukeratu ditu, maiteenak: makal-pago-arte-gorosti. Eta lerrotxo bat gehiago ekarri bagenu, geurekin izango genuen haritza ere. Eta epitetuak? Binaka ematen zaizkigu: gonbarazio-helburuari izaeraz dagozkion epiteturik aproposena ematen zaio (Pago **lodi**, arte **gogor**, gorosti **heze**) eta zuhaitzen kalitate horiek neurriagotu egingo dira Joanesgan gizatasunez jaztean (makala, **zuzen**, pagoa, **zabal**, artea, **trinko**, gorostia **zimel**). Ez ahal duzue inoiz holako gizonik ikusi: nik bai Kanpion'en **Narraciones Baskas**-eko apaingarri batean: Aitor bera zen... Eta guk, nola goraiapatuko genituzke guk euskal-artzain baten gorputz-bikaintasunak?

Esan dugu, zati honetan ez dago deskribio-xehetasunik. Badakigu zergatik ere. Ez dakiguke, beraz, plastikotasun handirik eman, zerbait handiren susmapen miretsia baino. Gonbarazio asko, baina denak arras diferenteak dira. Artzainari ematen zaion pintzelada bakoitzak tonalitate berezia darama gonbarazio-lokarrian ere: **bezain - baizen**, **- bezela - antzera**. Zinema-travering bat dela esan liteke: hara honako honek gauza berari higidura bizia ematen dio teknika-mogimenduaren bidez.

Ikusten dugu, ba, honaino esan direnekin, zein artezki eman digun Agirrek bere amirazioari zegokion deskribio-jantzia, temak berak eskatzen zuen parekoa.

d) Zatia: (**H**)orrela zan Joanes nik ezagutu nuanean.

Amirazioz beteriko epifonema bat da. Ez dezala, gero, inork zalantzarik ukan, holakoxea zen gure gizona-ta. Honez gero irakurleak eskatzen dituen xehetasunetarako ate ire-

kia dugu afirmazio hau. Behin eta berriz tema begi-bistan da.

e) Zatia: **Sendoak zeuden oraindik artzai za(ha)rraren beso zaintsuak, txit azkarrak bere oiñak, zindoak bere bularauspoak.**

Sendotasuna erakutsi nahirik (hori bait da lehenago ere adiarazi izan nahi digun tasun bat), hasiera-hasieran jarriko da «sendoak», inkiridu-legearen bortiztasuna zorrotzago tuaz. d) Zatiaren arrazoi-oinarria argitan jartzen du hemen: mirespena ez da batere harritzeko. Hitzak berak ere baduela eufoniak ematen dion sakontasun bat esan liteke: «s» hori gezi bat bait da, eta «n» eta «o» horiek sendotasunaren barreneraino garamazkite.

«Zeuden» aditzak iraupena ematen digu, aldakaiztasuna. Urteek ez dute ezer ikutu, lehengoan dirau sendotasunak. Ez ahal da hau biziki txundigarria. Joanes, bere haretan egon dago: ez dio «sendoak ziren»-ik, «zeuden» baino. Temaren uhinak honaino ere heldu dira. Eta ondotik datorren «oraindik» hori gogoan baldin badugu? Iraupen horren harrigarria!

Artzaina zaharra da. Datu honek kontraste-balioa du bereziki, deskriziorako beharrekoa dela ere, mirespen-arrazoa hor bait dago. Sendotasuna besoetan ikusi ohi dugu gizonok, eta Agirrek beso zaintsuak aipatzen ditu, arestiko pago lodia ezin ahazturik behar bada. Ez dira xamurrak beso horietzek! Urteek eta lanek zaildu dituzte, bai! Zain gogorrez zertuak dira. Hona, ba; Joanes-i eman zekiokeen kalitaterik preziatuena: honen gain doaz, zankarteka, mirespena eta deskrazio-errealismoa.

Bigarren esakunean elipsi bat dadukagu: «zeuden» kendu egin da, ideia arin-arinari esaeran bertan ere lagunduaz. «Txit» aberbioak ere ez dirudi eufoni asmorik gabe dabilenik, hitza bapatekoa bait da, bizkorra: onomatopeia? Ez ahal da gelditasuna, eta geldotasuna, zahartzaroaren penarik samingarriena: ba, gure artzain zaharrak ez du honelakorik ere. Miragarria zinez!

Hirugarren begirada batean ere bada Joanes-gan zerbait

berririk. Ez zen bera itxurazko gaztea bakarrik, egiazkoa baizik. Kanpo eta barne, bere gaztetasuna gorputz guzira isuria zuen. Ez zen harengan zaharren arnas hestukarik, bular-zindotasuna zuen barrutik.

Hona hiru datu laburretan oso-osorik gizona: beso-oin-bular. Gorputzeko gazte-bikaintasunik nabarmenenak hor izan ohi dira. Berezi hemen ageri da nabarmen-nabarmen ataltxo honen tema: deskrizio-amirazioak. Esaeraren hara-honakoak beti du gainera, zerbait berririk, betiko egoera eta ibilera berdinak utzita: **sendo... -txit... -zindo...** esaera bakoi-tzak du bere hitz-ordenamendua. Artzainaren mendi-ibilaldien antzera, frasea ere ibiltari da.

6. Ondorenak.

Agirre beti izan da maisu bere izkribuak euskal-arnasez biltzen, eta hemen ere bizi-bizi daduka bere balio handia: gogora lehenen zatiñoa, hor bait dago nabarmenen hizkeraren euskaltasuna; berdintsu bigarreanean ere. Agirre erromantikoa dela esan da, eta lehenengo zatiñoan horrelakorik suma dezakegu, zerbait galduaren tristura alegia: **ura... ura**, esango digu. Gaurgero honelakorik ez dela, esan nahi zaigu nonbait: nostalgja, lehen-mina du izkribatzaileak bihotzean. Eta bihotz-samin hau nobelaren muina da. Laburki erakusten zaigu gizaki miresgarri hori: gonbarazio ames-arazlez eta zehaztasun baliotsuz. Atal honi edonondik darizkio idazlearen amirazio eta lehen-ametsa. Deskrizio dena bihotz-hunkitu honekin ondua dator.

Izadian barna

Hirugarren metodu hau lehenengoan osagarri eta bikaingarri da. Ez dut uste euskeraz gaurregun erabil dezakegunik, eta ez noski komeni ez zaigulako, behar genituzkeen liburu eta tresnak falta zaizkigulako baino. Rizzi-gandik jasotzen dut eta nahi duenak *Humanidades* aldizkarian aurki lezake (33gn. zenb., 383gn. horrialdean. Comillas-ko Unibertsidadeak argitaratua da errebista). Hemen gainbegiratu bat bakarrik emango diogu denari.

Mugarriak: hiru pondutan eman genezake (errealidadearen analisia, idazkiaren analisia, osakuntza):

1. Errealidadearen analisia.

- Hitz-izadia:** Izaki naturala bere ikusguneetan, aspektuetan, aztertu: ura-elurra... Hitzegian, hitzaren esanahi eta argilunak ikusi: sinonimuak, antonimuak... Esanahi berdintsuko hitzak sailka taldetu: galgai, poil-poil...
- Izpiritu izadia:** Izakiak sinbolu ere badira eta sinbolutasun hori idoro behar dugu. Zein giza-errealidade ematen digute izakiek sinbolupean?: mendiak giza-irrotasuna ukan dezake sinbolutan...

2. Idazkiaren analisia.

Poetak errealidadea hautatu egiten du, eder aldetik garbitu eta bat egin: bere goi-hatsaren eragitez, mundua ederrez baliotsu bilakatzen da. Baina irakurleak gertu egon behar du olerkariak ematen dion izaera berri hori atzeman eta jasotzeko. Honetara, irakurlea prestatzera alegia, zuzentzen da analisi hau.

a) Analisi-atarian:

- Idazkiaren esplikazio literala.
- Idazkiaren asuntu-aurkientza (ojetua: zero izartsua Fr. Luis-en **Noche serena**-n).
- Idazkiaren tema-ideia (ojetuan begiratzen dugun ikusgune apartekoa: zero izartsuaren ederra **Noche serena**-n).
- Idazkiaren ideia poetikoa (poetaren kontenplaerak duen trazendentzi-balioa: mundutar bizitzatik besterako igobidea **Noche serena**-n).

b) Analisia:

- Esaeraren balio-semantikoa: objektuak (zerua, argiak, lurra...), sentimenduak (argiz apaindua, urrats isilez...), ideiak (zein patu gaiztok naduka loturik?... Hau dena **Noche serena**-n).
- Esaeraren gramatika-joskerak: fonologia, morfologia, sintasia... Orain ikusi behar da poesiaren tema-ideiak eta gramatika esaerak elkarri nola laguntzen dioten.
- Esaeraren estilistika: Erretorika-irudiak...

—Esaeraren arkitektura: Nola iruten dira poesia aldiak, pertsonak, objektuak. Osaki bakoitza nola kokatzen da olerkiaren barnean.

d) **Birkreazioa:**

Analisiak, poesia-gorputza zatitu, biziabaki, egin du. Baina gure zeregina burutuko bada, ikusia birsortu egin behar da. Gurekuntzak eta imitazioak mailaka joan behar dute: 1.º hitzak geretu eta imitatu, 2.º gramatika-usarioa, 3.º erretorika-irudiak.

3. **Osakuntza.**

Edozein izakik hamar mila sarrera-ate ditu, eta guziotatik sar gaitzke olermenaren laguntzaz:

—**Literatur hesparruan:** azertu dugun atalaren pareko izkribuak irakurri.

—**Ikus-arteetan:** kuadruak, dokumentalak, telebista...

—**Entzun-arteetan:** musika-saioak, kontzertuak... Dena gure gaiari dagokiona.

—**Naturalezaren, izadiaren, bizipenak:** ibilaldiak, ikustaldiak...

D) **Beste zenbait irakasbide**

Literatur irakaskintzarako bada noski ikasbide egokirik frango, baina hemen emango ditudanak, neuk erabaliak bakarrik dira. Aipatu ditudan beste hiru horiek baino praktikagarriagoak hasera batetan. Dena dela, eginkizun honetan ere, heziketa guzian bezalaxe, haur bakoitzak dakarren barne etorriaren askatasuna eta maisuak eman dezaiokeen idarokizuna elkartu beharko dira: ikusarazi, entzunarazi, sentiarazi egin behar zaio haurrari, baina beti bere erara egin dezala.

Nere esperientzia kaskarrak ezer balio baldin badu, bide erraz eta probetxuz erabil daitezkeenak badirela esango nuke hamar-hamalau urteetako nexka-mutilentzat batez ere. Hona:

a) **Jardukizunak ezarri**

Haurra izadian bizi da eta ezagutzen du izadia; baina oraindik

ez du, eskuarteon, literaturarik: izadia paperean emateko hitza falta zaio. Inguruko izadian gal ez dadin, izaki bat hautatu eta paperean hitzez deskribatzera bortxa genezake.

Zuhaitza, hodeia, argi-printza, errekastoa, xoria, izarra, amaren aurpegia, ilunabarra, teilatua, etab., etab. Euskal poesian badago honetarako, jardukizun hauen osagarri izan daitekeen lan ederrik. Ikus aurrerago luzagarria.

b) Irudi bila

Bi eratara egin liteke lan hau: egindako olerki batetik nahiz hitz lauzko idazki batetik, edota ideia jakin batentzak metaforak-eta bilarazi:

—**idazkiak aztertzen:** hartzen da olerki bat. Hor dago hori bere osotasunean, olerkariak eman zigun bezalaxe. Badira hor erretorikak aipatzen dituen irudiak; eta badaki gazteak zein zaila den horiek sortzea: irudi horiek beren barne ideietara ekarriaz gomentatu behar ditu ikasleak. Esate baterako, Gandiagaren **Xirimiri** olerkia har dezagun. Nere ikasleak badaki nolakoa den lanbroa, askotan jasan bait du Arantzazun.

Olerkiak

Xirimiri txanka meia,
nora barik eta bustia,
baso aldetik agertu da gaur,
artzaiek, tontoz jaurtia.

Komentarioak

Xirimiria muttikoa da, luxe-meia. Ez du seriotasunik, ez gizontasunik. Ez da benetan gizon prestua. Formalidade guti du bere hara-honakoetan, eta Urbiako artzainek, tontotzat harturik, bo-ta egin dute handik.

Horra olerkariak lanbroa irudiz jantzi.

—**irudiak sortzen:** aurreko horren alderantzirakoa da. Orain ideiak eman eta hauei legozkiekeen irudiak bila ditzala eskatzen zaio. Irakaslearentzat lan erraza gerta liteke, berak alde aurretik hauta bait dezake irudiz jantzi nahi den ideia darabilen poesia bat. Ikasleari ideia ematen diogu, irudiz eman dezaigun:

Ideia

Nigan larritasun handi bat dut.
Samingarria benetan.
Goibeldu egiten nau nere barru
guzian.
Dena tristetu zait, eta tristura
denon gain, hor dut oraindik
nahi eta gurari bat.

Olerkariak hala dio

Harkaitzak, elorriak,
biak gorri,
arima emon eutsen
aideari.
Arratsalde guztia
laino busti.
Joran bat zen arima,
mendiz mendi.

d) Olerkiak osatzen

Poesia egoki bat hautatu eta inausi egiten dugu, epitetu, irudi, gonbarazio, etab. kenduaz. Poesia osatzera behartzen dugu orduan ikaslea. Gehienek gustora egiten duten lana da hau, ez bait zaie zaila gertatzen. Lanaren ondoren, aurkitzen dituzten pitxien diztira argitara eman behar zaie espresuki, lehenengo komentario-metoduaren (ikus **edermenaren iratzarbidea**) araberak irakasleok zerbait eginaz.

Lanketa hauek zenbaitetan poetaren lana bera ere hobetu egin dezakete, eta hau ikusteak berebiziko erakarmena du ikasleagan, aurrerago jo dezan. Literaturaren grina sortzeko, metodubiderik erosoenetakoa dela esan liteke. Ikus, esate baterako, ilunabarraren argia olerkariarentzat **more-biguna-fresko-leguna** zen tokian zer eman zuten ikasleek:

1. urtu-goria-epel-makala
2. gozo-txukuna-motel-kutuna
3. legor-joanbera-ilun-hilbera
4. urre-mehe-bigun-bare
5. urdin-iluna-eztitsu-goxoa

III. NOR IRAKASLE?

Hainitz dira bideak, baina guzior bidegurutzean ikasle-irakaslearen arteko harremana. Eta literaturarako eginahaletan maisu onak ukanen du bai biderik. Ardurazkoena eta nekezena, beti bezalatsu, hezitzaile ona aurkitzea hemen ere. Irakasleak lirura-

pen-makilatxoa behar du, sorkari eta kreatura bakoitza eder dezan, edo hobeki esateko, izaki bakoitzaren ederra ikaslearen aurrean argitara dadin. Ikasleak ez du izadia izan larru gorritan ikusi behar; izanaren ederraren zoramena idoro dezala beti. Honetarako ez litzake gaizki etorriko irakasleak haren aurrean idaz-lan zenbait izkribatzen baldin badu.

Lehenen izadiko zerbait erakutsi eta bere ederra bilatzera behar ditzagun gure mutilak, eta ondoren, beharbada ezinean eseri direnean, eder hori, mamiturik, eskuartean erakutsi: hona hemen! Leiho bat ez da gehiago lehio izanen, ederrerako ihesbide baizik. Lorea ez da botanika ikaskizun gertatuko, ederraren muin printza baino. Zelaia ez da belardia izango, edertasun berde hezea izanen da. Eder-mundurako sarrera ez dago asmatu beharrik, inguruan eman zaigu: izadia bera da haurraren hezitzaile onena, gizonon arte-sorkariak baino areago. Ikusaraz dezaiegun mundua, gero izkribuz ere birkreaziora jo dezaten, ederra atzeman duenarentzat gogorra bait da barnean gordetzea. Gure gazteen gogoak eder-zoramenetan blai jar ditzagun, lehenbaitlehen idazle ere bihur daitezten.

Honetarako irakasleak berak egon behar du noski erne, mundu hori *ikusteko*. Nexka-mutilen begiak hara eta hona zuzendu behar dira: atzo, gaur, bihar, orain, han, hemen, basoan, iturrian, karrikan... Beti eta nonahi begiak zabal: leihopeko jolasak, gauaren isila, haraneko terrala, arratseko lehen izarra, baratzeko lora jaio berria, zelai erdiko pinu beltza, kearen gora-nahi neurtua, udazkenaren heriotasuna... Oro da irakaslearen laguntzaile eta ikaslearen hezigarri.

Baina eginkizun hau betetzeko, esan gabe doa, irakasleak berak izan behar du poeta eta ederraren dastatzaille eta asma-tzaile. Hortik izanen bait du maisuak sentiarazteko indarrik. Badaiteke bera idazle ez izatea, baina direnen obrez baliatzen jakin behar du. Norbera apurño bat artista eta literatura emateko

eskolatua baldin bada, ez goaz hain gaizki. Eskolatua esatean, euskal alorretik kanpo ibilia dena ere esan nahi dut. Kultura orokor baten jabe izan behar du irakasleak. Ez da dudarik.

Eta euskal literatura ongi ezagutu behar luke. Literatura eta gramatika ere; dena bait da premiazko. Ikasleak ederra barna hizkuntza menperatzen joan behar du, mintzairaren tresneria eza-gutzekoa bait da eta izan ere artistari bere lanabesa emateko deitua izan bait da irakaslea.

Luzagarrri: **IZKRIBU GAIETARAKO OLERKIAK**

Oharra: Lehenengo ekinaldi batetarako idarokizuna, sujerentzia, da hau. Onaindiaren *Milla Euskal-Olerki Eder* (ME) liburutik jaso dut batezere poesia horien aipamena. Hemen aipatzen ez diren zenbait gogoan hartu beharra dugu: G. Aresti, M. Lasa, Xabier Azurmendi, etab., etab. Hautapena erabat konbentzionala da, eta adibidetzat aukeratuak dira olerkiok. Ez du, beraz, balio antologikorik ere; baina hasera batetan lagungarri gerta daiteke.

ABEREAk: **Erbiak eta igelak** (Oxobi, ME, 963). **Oillaskoa eta axeria** (Oxobi, ME, 969). **Axeria eta mahatsak** (Oxobi, ME, 970). **Igelak** (Mirande, ME, 999). **Katuari** (Kerexeta, ME, 649). **Usoa** (Elizondo, ME, 676). **Mitxeleta** (Jakakortajarena, ME, 811). **Paris-ko txolarrea** (Lizardi: Biotz-begietan, 50).

ABERRIA: **Gernikako arbola** (Salaberry, ME, 984). **Errimiña**, (Azkue, ME, 252). **Eusko-bidaztiarena** (Lizardi: B-B, 116). **Euskaldunen ipuin berriak** (J. Azurmendi: Hitz berdeak, 154). **Manifestu atzeratua** (J. Azurmendi: Olerti-n argitara emana). Ikus G. Aresti-ren **Harri eta Herri**, eta **Harrizko herri hau**. Gai hontaz erruz mintzatu da euskal poesia.

ARRATSALDEA: **Arratsaldeak** (Gandiaga: Elorri, 96). **Ihuntzia** (Babaki, ME, 987). **Argia geldi dago** (J. Azurmendi: H-B, 105).

BAKARDADEA: **Urtetan** (J. Azurmendi: H-B, 141).

- EKAITZA:** Galerna bat mendian (Barbier, ME, 948). Ekaitza (Etxaniz, ME, 873).
- ELURRA:** Goizaldeko elurra (Lauaxeta: Bide Barriak, 122). Edurra (Gandiaga: Elorri, 188).
- GAUA:** Gau eta Ta orain gau da (J. Azurmendi: H-B, 38-39). Zorionaren; Iluna; Gau; eta Iretargia (Gandiaga: E., 186, 178, 100, 107). Gabeko irrintzia (Lauaxeta: B-B, 38).
- HERIOTZA:** Haur hilaren arreba ta ama (Lafitte, ME, 978). Xaubadin (Lafitte, ME, 982). Xabierto-ren eriotza (Lizardi, ME, 770). Otartxo utsa (Lizardi, ME, 773). Herioa (J. Etxeberri, ME, 155). Otoi adiskide (Loramendi, ME, 818). Poema beltzaren arbola eta Aita hil (J. Azurmendi: H-B, 54 eta 51).
- HILETAK:** Biotzean min dut (Lizardi, ME, 774). Aitaren ehorzketa (J. Azurmendi: H-B, 122).
- ILUNTZA:** Iluntzeko (Gandiaga: E., 176). Arrats gorri (Lizardi: ME, 781). Ilunabarra (Arruti: ME, 706).
- IRRINTZIA:** Irrintzina (Barbier, ME, 947).
- ITURRIA:** Iturri-negarra (Lauaxeta: B-B, 40). Ur-xirripa inhar batekin gudian (Lafitte, ME, 977).
- ITSASOA:** Uhainen dantza (Lafitte, ME, 976). Itsasora! (Lauaxeta: B-B, 137). Itsasoa (Iratzeder, ME, 990). Itxasua (Etxeita, ME, 516).
- KEA:** Etxeko kea (Lizardi, ME, 782).
- LANBROA:** Xirimiri (Gandiaga: E., 60).
- LOREA:** Mao Gorri (Lauaxeta, B-B., 28). Lore igarra (Tapia-Pe-rurena: ME, 888). Lora bateri (Errebido: ME, 244). Lore-buru (Gandiaga: E., 52).
- NEGUA:** Bizia lo (Lizardi: B-B., 88).
- UDA:** Baso itzal (Lizardi, B-B., 88).
- UDABERRIA:** Neskatz urdin-yantzia (Lizardi: ME, 772). Sagar-lore (Lizardi: ME, 775).
- UDAZKENA:** Ondar gorri (Lizardi: ME, 775). Udagoena; Udagoen-usaina (Gandiaga: E., 193, 195).
- ZUHAITZAK:** Zuaitez etzana (Lizardi: B-B., 80). Pagoa eta Pinu (J. Azurmendi: H-B., 28, 111).

eraskinak

1937 AURREKO IKASTOLEN EDESTIRAKO JAKINGARRIAK
errezola'tar mikele

OHARRA: *Lan hau dagoen bezalaxe ematen dugu, inolako idazkera aldaketarik egin gabe, r eta l kakodunak rr bikoitz eta l soil egitea ez bada. (Zuzendaritzaren oharra).*

Euskalerrria'k beti izan du bere izkuntzari eutsi naia, bere izkuntza-miña.

XIX'garren gizaldian ere, ikusten degu nola Uriarte'tar Joseba Andoni'k (o.f.m.) eskatu zuan Bizkaï'ko Diputazioa'ri bigarren mailako eskolan (Institutoa'n) euskerazko Katedra antolatu zezatela.

EUSKAL BATZALDIAK

1918'garren urtean, Oñati'n egin zan "Congreso de Estudios Vascos" batzarrean, erabaki auk, beste askoren artean, artu ziran:

Batzar onek erabaki du bere arazoetan lagundu nai dioten guztiak, beti eta era guzietako gizonai, oso edo geienbat euskeraz itz egiteko asmorik sendoena artu dezatela.

Ortik aurrera:

Bai Obispoei, bai-aginpideko gizoneri edo Gober-

nuari, euskerak bear duen laguntza eman dezaiela. Obispoak apaizari eleizetan itzaldiak euskeraz egiteko eskatuaz,, eta Gobernuari berriz, Unibersidadetan toki berezi bat eman daiotela. Euskera izan dedila erakusgarri bigarren mailako ikastoletan. Eta abar (1).

Iruña'n, 1920'garren urtean egin zan bigarren batzarrean ere:

Gure erriak ikastola nagusiak ez ditun bitartean, dituenetan irakasleeri euskera erakus dezatela eskatzea erabaki da. Baita ere, noski, gure erriarentzat Unibersidadea (2).

Urte batzuek igaro dira geroztik, eta lengo tokian gu.

Irugarren batzarra Gernika'n izandu zan:

1'goa. Oñati'ko Batzarra eginda gerotxoago zabaldu zituen Lekarotz'eko "Nuestra Señora del Buen Consejo" deritxon Ikastetxean, euskal-eskola eder batzuek, eta bertan, ordutik aurrera, geure izkuntza gozo-gozoa irakasten dabe.

Euskal-eskola begiko orrek, Lizarra aita kaputxi-noak Gernika'ko Batzarrean irakurririko erreglamentearen bea ari dira euren lan onuratsua egiten.

Gernika'ko Batzar onek, euskerearen zabalkundea bear dan legez egiteko Lekarotz'en egiten diran alegiñak baño aundiagoak egin bear dirala uste dau, eta beraz, Euskalsail oneri txikerrak begitantzen yakoz an egiten diran lanak; baño alan eta guzti bere, eta irakaskintza lege pean arazoa begiratu ezkerro, Irakastetxe orretako euskal-lanak begi onez ikusten dituala agertzen dau. Baita, Eusko-Ikaskuntzari, Lizarra aitaren lan aura argitaratu, ta Euskalerriko eskola ta ikastetxe guztietara bidaldu dagiala eskatzea bere, erabagiten dau Euskalsail onek.

Onez gañera, Eusko-Ikaskuntzak, eskola orretan Lekarotz'eko euskal-ikastaro moduak yartzeko egin dagiala eskatzea bere, erabagiten da.

2'gna. Euskalerriko uri aundietan, eta batez ere,

(1) Primer Congreso de Estudios Vascos pág. 486.

(2) Segundo Congreso de Estudios Vascos pág. 547.

Bilbo, Gazteiz, Donostia ta Iruña'n, ume txikientzako dubako euskal-eskolak ipiñi edo yarri dagiela, Eusko-Ikaskintzari eskatzea erabagiten da. Eskola onek, gaur Donostia ta Tolosa'n dagozanean antzekoak izango dirala.

11'gna. Geure Erriak irakaste gauzetan, azkatasun osoa lortu dagian, alegiñak egin, onetara, beronek bete bear dituen zeregiñei dagokien bideak obeto artuko litzakez ta.

13'gna. Bizkai'ko Aldundiari Auzo-eskoletan ikasti guztiak euskeraz izan daitezela, ta euskerazko liburuekin, erri euskaldunetan, euretan erdera irakasteko ikastaro bat zabaltzen dala; ta erri erdeldunetan barriz ikaste guztiak erderaz, erderazko liburuekin, euskerazko ikastaro bat zabaltzen dala, eskatu. Au guzti au, Auzo-eskola orrek zabaldu ziranean erabagi zana da.

14'gna. Araba, Gipuzkoa ta Naparroa'ko Aldundiei "Auzo-eskolak" izenarekin edo beste edozein izenekin, orrelako eskolak yarri dagiezala eskatu.

Erabaki auetako batzuek aurrera eramanak izango ziran noski. Eta orrela ikusten ditugu Gipuzkoa'n sortutako Auzo-eskolak (3).

Auzo-eskola auek, 1930'garren urtean asi ziran. Ordurako, auzo bat edo bestean, naiz titolorik izan ez, eleizak utzitako gelaren batean, inguruko baserriko aurrak bildu eta idazten, irakurtzen, zenbaki lanak eta al zutena erakusten, asitako gogo onezko gizon-emakumeak ba-ziran. Gerora, erri batzuetan, Ayuntamentua'k eskatu ondoren eta berak eskeifitako lurretan (terrenotan), Diputazioa'k ordaindu eta ikastola politak egin ziran. Irakasleak, euskaldunak izan bear zuten, eta tituloa zeukatenak. Aukera, asterketa baten bidez egiten zan. Bear zituzten liburu, arkatz eta abar, Estaduak zituen ikastolatakoak bezein onak, edo obeak. Irakasleak obeto ordainduak. Urtean bein inspektzioa egin bear zuten jaun-andreak, Diputazioa'k berak izendatzen zitun.

Bañan Gernika'n artutako erabakia etzan oso-osorik aurrera eraman. Liburuak erderazkoak ziran. Etzan euskera erakusten, noski, auzo-eskoletan. Euskera bide zala, erdera baizik. Baiño bein-

(3) Congreso de Estudios Vascos. Gernika 1922, pág. 101 en adelante.

tzat euskalerriko gaiak maiz erabiltzen ziran; eta, bear ba-da, aurrera jarraitu ba-zuten, beste joera bat emango zitzaieten.

Gipuzkoan, 27 o 30 bat Auzo-Ikastola sortuak ba-ziran. Azke-nerako, 1937'garren urtean, "Concierto Económico" kendu zute-
nean, eta beste eragozpen batzuek sortu ziralako, bertan bukatu
ziran gure Auzo-Ikastolak.

Tarte artan, ba-ziran Gipuzkoan zear euskeraz eta euskera
erakusetn saiatzen ziran andre-gizonak. Donostia'n sortuko zan
sortu ere lenengo Ikastola.

"EUSKAL-IKASTETXEA". Donostia. (1917)

Donostia'ko "Euskal-Ikastetxea", Muñoa'tar Mikel Jaunak sor-
tu zun, 1917'garren urtean, Karmelitarren Lekaime Etxean, eta
Egino'tar José jauna —gero Santander'eko Gotzaia izango zana—
buru zala.

Orain agertzera goazen berriak, aita Zabala-Arana'k Klare-
tiarra, "Anales de la Congregación"-en (769/775 orrialdetan) ida-
tzitakoetatik artuak dira:

Maria'ren Biotz-Semeak (Klaretarrak).—Zuzendaritza bearrez
eta irakasle egokien urritasunak eraginda, Muñoa'tar Mikel jau-
nak, Maria'ren Biotz-Semeen ardurapean utzi zun "Euskal-Ikas-
tetxea", 1920'garrengo maiatzaren 13'n.

Zuzendaritza ta Irakasleak.—Agirre'tar Jon Antonio M.B.S.,
izendatu zuten Zuzendari, eta Irakasleak: Uriarte'tar Ziriako, Za-
bala-Arana'tar Joseba, Egia'tar Gregorio eta Bikandi'tar Eustakio
apaizak; eta Arsuaga'tar Jon eta Esturo'tar X anai-laguntzaleak.
Danak Maria'ren Biotz-Semeak.

1922'garrenean, Lekaidiko Nagusiak, aita Agirre'ri garrantzi
aundiko beste zeregin bat jarri zioten, eta "Euskal-Ikastetxea"-ren
zuzendaritzan aita Egia gelditu zan.

Irakasleak.—Maria'ren Biotz-Semeak "Euskal-Ikastetxea"-ren ar-
dura artu zuteneko, ordurarteko ikasle talde urria, berealakoan
ugaldu zan. Laster izan zitun 120 ikasle, eta 200'etik gora gerokoan.
1920'garrengo maiatzatik, 1924'garren jarraierarte, 300'en bat ikas-
lek ikasi zuten "Euskal-Ikastetxea"-n. Muñoa jaunaren esku-zabal-
tasunari zor, utsean ematen zan irakaskintza.

Irakaskintza.—"Euskal-Ikastetxea"-ren zuzendaritza berriak lau

ikastarotan zatitu zun irakaskintza, Len-Maila'ko Irakaskintza osoa sarturik.

Iñazio deunaren egunean —uztailak 31— bukatzen zan urtero ikastaroa, jaialdi polit eta erriarentzat oso atsegingarri batekin. Jaialdi ontan egiten zan ikastaroko sariketa ere.

Agindutako izkuntza.—“Euskal-Ikastetxea”-n aginduta zegoen izkuntza euskera zan. Eta ikaskizunetako bat, kastelera zan.

Ikas-liburuak.—“Euskal-Ikastetxea”-k etzun ikasteko liburu egokirik; eta euskal elertian ain ezaguna degun aita Zabala-Arana'k antolatu zitun bearrezkoen ziran idazti batzuk: Lutelestia (Geografia), Daneurtiztia (Geometria), Eliztia (Gramática), Zenbakiztia (Aritmética), Edesti Deuna (Historia Sagrada). Geroxeago argitaratu zun idazle bikain onek bere “Gramática Vasca Gipuzkoera”, euskalzaleak ain arrera ona egin dioten euskal-ikasbidea, boskarren argitaldia izan bait du. Kristau-bidean ikasleak ezitzeko, aita Zabala-Arana Irakasleak beste liburuxka batzuk ere antolatu zitun; auetako bat oso apain txukun irarria, “Aste Gurena” izan zan; lateraz eta euskeraz idatzia.

Ikasleen diru-elkargoa.—“Euskal-Ikastetxea”-ko eziketaren osagarri bezela, “Ikasleen Diru Elkargoa” eratu zuten. Aita Uriarteren ardurapean zegoen, eta 200 ikaslek jartzen zituzten beren dirutxoak elkargo ontan. Irugarren urtebururako ba-zituzten jarrita beren elkargoan 11.000laurleko. Elkargo-lagunen (Mutualidad) artean, ba-ziran ingandetan “Kristau-Ikasbidea” ikastera biltzen ziran neska-mutilak ere; lan au ere, “Euskal-Ikastetxea”-ko irakasleen ardurapean baitzegoen.

Itunben ezeztapena.—“Euskal-Ikastetxea”-n ematen ziran irabaskintza ta eziketa kristauak, beti izan ziran oso atsegingarriak Muñoa'tar Mikel jaunarentzat eta Ikastetxearen Nagusi Batzarrentzat. Era berean, Gipuzkoa'ko Len Maila'ko Irakaskintza'ren begiratzaille-buruak Irakastetxea ongi ikusi ta zeatz azterkatu ondoren, txosten oso goresgarria bialdu zien bere Nagusiei, Donostia'ko Eusko-Ikastetxea"-ren alde.

Baña, Muñoa jaunak beretzat nai zun mugagabeko zuzendaritza “Euskal-Ikastetxea”-n. Eta jakiña, ezin batera etorri bere zuzendaritza nai au, Ikastetxearen arduradun Lekaidi bat izateaz. Beraz, Muñoa'tar Mikel jaunak garaiz itunbena zalatu zun, orta-

rako onek bi alderdiei ematen zien eskubidearen arauz. Ala ere, zindoki aitortu zun "Euskal-Ikastetxea"-ren alde.

Orregatik, 1924'garren jorrailaren 12'an, Maria'ren Biotz-Semeak utzi zuten "Euskal-Ikastetxea", Muñoa jaunarekiko adizkidetasun zintzoa galdu gabe. Elosegitar Karmele andrearen esku-zabaletik artutako Ategorrietako "Karmen-Enea" etxaldera aldatu ziran. Geroago eraiki zuten Avda. Nabarra'n Maria'ren Biotz Ikastetxea"; baña, bitartean, bai "Karmen-Enea"-n, bai S. Frantzisko kalean, euskeraz irakasten saiatu ziran Maria'ren Biotz-Semeak, batez ere Aita Zabala-Arana.

"KORU'KO ANDRE MARIA'REN IKASTETXEA" (1924)

Klaretiarrek uztian, 1924'garren urtean, "Koru'ko Andre Maria'ren Ikastetxea" izenarekin jarraitu zun "Euskal-Ikastetxea"-k.

Iru Ikastetxeak

Iru Ikastetxe ziran:

- Ikatz-Kalean (Juan de Bilbao), mutil eta neska aurtxoentzat, 6 urte arte.
- Zubigain-Kalean (Campanario), mutilentzat, lenengo ikastaroak emateko.
- Udal-Plazan (Plaza Constitución) neskarentzat, lenengo ikastaroak emateko.

Atezaia, Irakasleak, liburuak, etxegarbiketak eta apainketak; sortzen ziran gastu guziak Muñoa'tar Mikel jaunak ordaintzen zitun. Ari zanean, bertako gastuak ezezik, auzokoak ere: Ikastola'ko mutil koxkorrak inguruko etxeko telak autsi zituztela ta... Don Migel'engana; aietako batek galtzak txikitu zitula pretiletik salto egiterrakoan ta... Don Migel'ek traje berria erosi...

Ikatz-Kalean, 60/70 bat aurtxo izaten ziran. Zipitria Andereñoa zan azken aldean ango Irakasle.

Zubigain-Kalean, iru taldetan ematen ziran lenen mailako gaiak. 80/100 ikasle biltzen ziran. Erakusle bezela: bi Irakasle ta laguntzaile bat: Etxeberria'tar Eli, Bereziartua'tar Ander, eta Jauregi'tar Jon.

Udal-Plazan, 30/40 bat neskatz ibiltzen ziran. Agirre'tar Konsuelo zuten Irakasle.

Eusko Langileak, Euskal Irakasleak zun Baztuna, Euskal Ikasleak, eta euskal usai zun guzientzat, arrera onena arkitzen zuten gure Muñoa jauna onen Ikastetxean.

Igandetan euskal ikasle aiek nora joan euki zezaten, Morlans auzoan etxe polit bat, "Tolaretxe" izenekoa, prestatu zun Muñoa jaunak. Futboleko-toki, bola-toki, kolunpio eta beste jostatze-ko leku bereziak egokituaz.

Zubigain-Kale'ko Etxean ere, club antzeko bat ba zuten; ping-pong, bilar eta abar. Ikastolako eleizatxoan egunero meza izaten zan; igandetan berriz, meza nagusia eta besperak; elizkizun aue-tan Gregoriano abesten zutela. Lan ori, Sistiaga jaunaren ardu-rapean zegoen.

Lenengo kapelaua D. Nikasio Larrea izandu zan. Geroztik, D. Migel Oa, D. José Arrue, D. Fernando Sesé, eta bear ba-da beste batzuek.

Erakusketa guzia euskeraz. Orduan etzan Kristau Ikasbidea, Euskal Edestia, Xabiertxo eta Loredun beste libururik. Eguneroko bileretan Nomenklator Tékniko egiten saiatu bear izaten zuten erakusleak. Izen oiek Euskal Akademia'k ontzat artu ondoren era-biltzen zituzten.

Urte bukaeran asterketak. Asterketa oietan Akademikoak etor-tzen ziran. Ayen artean ba zan bat, D. Ramón Inzagarai, beifere utsegin etzuana.

Andereño Elbira Zipitriak izaten zitun txikiak. Beregandik azitzean, mutilak gizonezko erakusleengana; neskak berriz, Agir-re'tar Konsuelo'rengana pasatzen ziran.

Aurrak etzuten ezer ordaintzen. Geientxoena kai aldekoak ziran, naiz beste auzokoak ere batzuz batzuk izan.

Gau ikastaldiak eta beste

Inguruko erri txikietako langile ta nekazariantzat ere, ilun-tzetan, klaseak ba-ziran. Bere lanetarako egokien ziran erakuske-tak, bai matematikas edo dibujo lineal, edo Kontabilidade errexak. Tartean ba ziran noski ez idazten ta ez irakurtzen etzekitenak;

aueri, lenengo mailako erakusketak, ondoren besteekin batera jarraitu zezaten. Zintzo jokatu zuten: piperrik etzuten egin.

Erderazko ikastoletan, eta Escuelas Nacionales'etan, erakusleak euskaldunak ba ziran, beren erakusketa ondoren euskera erakutsi nai ba zuten Euskal-Esnalea'k laguntzen zien.

Euskera aldeko lan auetan zebiltzen guzien ardura, erakusketa egoki bat erabiltzea izango zan noski. Ala agertzen da Lekuona'tar Martin Jauna Lovaina'ra joan zala Pedagogia'ri buruz lanean zebiltzaten gizonekin artu-emanetan jartzera joan zanerako.

Garai artan, Erriko Etxean lanera sartu nai zutenak, euskaldun izatea beartu edo beintzat eskatu egiten zitzaaien. Artarako, gure Euskal-Ikastola onek ageri bat ematen zien beren ikasleeri, an ikasiak eta euskaldunak zirala agertuaz.

Loiola kaleko Ikastola

Loiola Kalea sortua izango zan beste Ikastola bat: Doña Elena Gametxo zan irakaslea, bere etxean aurrak artzen zitualarik. Andik, Etxaide Kalera joan ziran, ordurako Manuela Arteaga Gariari buru zala. Bitorene Arzelus ta Subijana laguntzaileak artu bear izan zuten 20 edo 30 aur bildu ziralako.

Urtean bein, urte-nuruko jaia, zariketa ta guziz, "Novedades" teatroan izaten zan. Bein gertatu bear da orduko Gobernadorea euskalduna izaki, eta bere aurrean egin zan jaia. Oso gogokoa izandu omen zun.

Antiguoan

Donosti'ko Antigua Auzoan ere, Sistiaga'tar Pacita'k bazun bere Ikastola. Etzuan noski euskera bakarrik erabiltzen bere ikastaroako. Auzo-Ikastolaren antzera, aurrak euskaldunak —geienak baserritarrak— izaki, eta euskera bide zala erderazko gaiak erakusten zitun. Kristau-Ikasbidea euskeraz, nai zutenentzat.

60'en bat neska-mutil, 7 urte bitartekoak, iru talde osatuaz, artu zitun bere gain. Bein 7 urte bete eskeroz, mutilak beintzat menderatu ezin eta apaiz batengana joaten ziran beren ikasketa bukatu arte.

Aur bakoitzak bost peseta ileko ordaintzen zuen; beste la-

guntzarik etzeukan, eta bearrik ere ez: barrenak agintzen zion eran, pozik eta gogoz jarduntzen zion lanari.

* * *

Donostia'n ezezik, Bergara'n, Tolosa'n eta Errenderi'n ere ba ziran Ikastolak.

Bergara'ko Ikastola (1933-36)

Bergara'ko Eusko-Ikastola'n berriak, 1933-1936. Bertako Anderefiok bialita:

Berrogei neska-mutil, 5 urtetik 14 artekoakin asi nintzan. Ezin izan zan berestasun aundirik egin, bakarra ta lenbiziko saioa zalako. Urte ingurukoakin taldeak egiñaz, txandaka artzen nituan, 8 urterarte euskera utsa erabiliaz.

Erakusketa: Irakurtzen ikasteko norberan moldaketak. Martin Txilibitu, Xabiertxo, Loretegia eta orduko, euskal liburuak ibili genitun esku artean.

Kristau-Ikasbidea: Eliz Barrutikoa.

Geometria: Aita Zabala'na.

Lutelestia: Iturriotz'ena: Emendik itz eta izenak artuaz, lur, belar, ur, arri eta orrelako gaiakin, oso erreze ikasten zuten, begietatik sarturik lur azaleko gaiak.

Zenbakiztia: Zumarraga'ko Hermanos de las Escuelas Cristianas'en babespean "Ediciones Bruño"-k atera zuan, amarreko sistema asmatuaz, amar, beramar, iramar, laramar eta abar. Sistema onekin erderara pasatzen ziranean ez ziran nastutzen naiz izkuntza batean edo bestean kontuak egin. Errikoia ez izan arren, ikastola barrurako eta geroko denborarako oso egokia iruditzen zait, bestela batian ogeitik ogeira kontatuaz eta erderaz amarretik amarrera nastu egiten ziran.

Edesti edo Kondaira: Aita Estela'rena erderaz izanik, euskerazko berriketaldietan Euzkadi-ko egite garrantzienak ikasten zituzten.

Elizti edo Gramatica: Ez genduen egokirik. Nola-

nai, ikasle guztiak euskaldunak ziralarik, esaerak apaindu, aditz-jokoak erabiliaz, esanalak idatziaz, euskeraz landua ikasi zuten.

Euskal-Ikastola'ko ikasleak, 100% euskerea erabiltzen zuten beuden artean.

Garai artan esan niteke Bergara'n mutil artean 110'dik 80 euskeraz mintzatzen zirela; neskak ordea, 100'dik 30. Gaur, zoritxarrez, mutil artean 100'dik 30, eta neskak berriz 100'dik 6.

Bailera ontan Bergara'n besteik ez zan Euskal Ikastolarik.

Euskaltzaile batzuek eratuia izan zan. Marqués de Villalonga zabaldu zuan, eta D. Arturo de Narbaiza izan zan azkenengo lendakaria.

Ikasle bakoitzak 30 peseta ordaintzen zuan, baño gero laguntzaileak ere ba-zituan ilean edo urtean onenbesteko bat izendatuta zeuzkatenak. Erriko agintarien laguntasuna ere ba-gendun, eta beudak izaten ziran ikastolako batzordekoakin maiko egiten zutenak, ikastaroan bukaeran.

Azkenengo urtean, Bilbao'ko Eusko-Ikastolekin alkatu zan, **Asmoz ta Jakitez** elburupean.

1908'garren urtean lenengo Euskal Ikastola Bizkaia'n. Zer dala ta asiera onek jarraipena izan etzuen ez jakin.

Bigarren aldiz 1932'garrenean Portugalete'n noski. Urte berean Sondika'n, Getxo'n, Bilbo'n; eta urrengo urtean Ondarreta'n, Barakaldo'n, Bilbo'n berriz, Elorrio'n. Guziak 8; 800 ikasle, 17 Irakasle'ren itzalpean.

Tolosa'ko Ikastola (4)

1921'garren urte aldean, Gorriti Plazan ikastola bat zabaldu zuten, musiko ospetsu bizi izan zanaren etxe berean.

Lenengo Irakaslea, Dolores Arbila, bost aurrekin asi zan; gero, laguntzaile Pilar Sansinenea ta J. Goikoetxea andereñoak izan zituan.

Primo de Rivera'ren nagusitza etorritakoan, eragozpenak sortu

(4) "Aránzazu" errebistatik artua, Labayen'dar Antonio'k idatzia.

ziran, eta eskolatxo itxitzeko agindupean egon zan. Nola edo ala, iraun zuan ordea, bolara txarra pasa arte. Indar berritzeko euskal ikastolak euskerazko ikaskai ta liburuak bear zituan. Egin-kizun au bere gain zuan gizon jakintsu Isaak Lopez Mendizabal jauna izan zan. Beronek gertu ta argi jarazi zituan oraindik gure ikastoletan darabiltzkiten "Martin Txilibitu", "Umearen Laguna" eta "Xabierto" liburuxka zoragarriak. Liburuak bizirik ba daude, egilea ere, zorionez osasuntsu dago bere 92 urteekin.

Tolosa'n, Errepublika etorritakoan, bi ikastola aundi zabalik zeuden. Bigarrenaren buru Iñazi Munita, gaur Erroma'n Jesus'en Alaba Lagundiaren agintaritako bat dalarik, andereño laguntzaille Isidore Mokoroa zuala. (Orain gutxi zerura igoa degu).

Ikastola bietan, 200'dik gora aur ibiltzen ziran. 1936'garren urtean, lenengo jaunartze gogoangarria ospatu zuten, meza-emaile orduan Guam'eko Obispo agurgarri zan Mr. Olano, txit agurgarria zanik. G.B.

Errenderi'ko Ikastola

Dorotea ta Faustina Ayerbe aizpak (Irakasleak tituluakin) zuten eskolan, 50 edo 60 inguru aur ibiltzen ziran, neska ta mutil, bi izkuntzetan jardunaz. 1934/1936 urteetan.

"Hijas de la Cruz"-eko Sor Lucia Dolores ta Sor Laura lekai-me Irakasleekin, 20'en bat neska aritzen ziran baita, euskera landuaz, 1935 ta 1936 garrenean.

Auetaz gañera, Emakume Abertzale Batza'k eratuta, Batzokian, gauez, euskera erakusten aritzen ziran Monika Arrillaga, Ayerbe aizpak, ta Arantxa Jauregi. 50'en bat lagun biltzen ziran.

Garai artako aurrei erakusteko, euskal liburuak, Lutelestia, eta abar erabiltzen zuten.

Beste zenbait erritakoak

Eta Ikastola oien mailara irixten ez ba ziran ere, euskeraren alde lan egiten saiatzen ziran onoko auek:

Oñati'n. (Jausoro'tar Felipe'ren eskutitz au, eskuratu bezela azaldu nai izandu det jakingarria dalakoan, nere ustez).

Agur. Zure idazki atsegiña artu dut. Ez dut atsegi-

nik zu nor zeran ezagutzeko: baña aurrena eta lena zoriondu bear zaitut, nere izate txikiari, nitzaz oroitu eta gauzari eman diozun garrantziagatik.

Egia da, bai, Irakasle izana natzaizu. Izana baño geiago izena. Gaztetan gutxi sakolatua izan nintzan eta gutxi dakienak asko ezin erakutsi.

1924'an, ogei ta lau urterekin Uribarri'ra joan nintzan irakasle izenarekin eta sakristau egiteko agindua-kin. Len esan dutan bezela, gutxi dakienak asko ezin erakutsi. Asi nintzan nekiena eta alnuetxua erakusten. Nik ba nuen nere barrenean alako griña txiki bat, umeeri zerbait euskeraz erakusteko; baña gauzak gaizki irten ziran. Aldi artan giro txarra ere ba zegon, eta oso gaizki artu ninduen. Sangurruarena egin bear izan nuen: atzeraka. Eta eskerrak emaztea auzo bertakoa neukala, bestela, oso gaizki arkituko nintzan. Baña nere griña nerekin neraman. Ba nuen kalean Agustin'dar lekaide bat euskera arasoan oso jatorra zana; izatez ere, Irakaslea zan. Eskondu eta urtietara kalera josten nintzan jaun orrengana. Arek ipiñi zizkidan nik ikastolan erakutsi bear nituan gauzak euskeraz eta erderaz. Urteak joan, eta urteak etorri, gauzak giro obegoro etorri ziran. Auntzak larrara bezela, nik ere nere barruko griña berriz agertzen asi nintzan; Kristau-Ikasbidea euskeraz, beste danak euskeraz eta erderaz:

Luteleztia: erriko mugak, ibaiak eta abar. Probin-tziakoa, erri nagusia, ibaiak, mugak eta abar.

Zenbaki kontuan: lau arauak (cuatro reglas); lain araua (regla de tres); zatikiak (quebrados); diru kon-tuan ere, zerbait.

Daneurtiztia: lerroak, irukiak, lautuak, lauzearrak, lerrabila eta abar nola egiten ziran eta nola neurtzen ziran.

Irakurri eta idazti ere, bietara. Astean bein idatzi bear izaten zuten idazki bana, aste batean euskeraz, eta bestean erderaz.

Nik egiten nun ikasi eta erakutsi; erakutsi eta ikasi. Baña ni baño azkarragoak ziran neskatila-mutikoak; nik

baño aixago ikasten zituzten nik ematen nizkien gauzak.

Urtean bein, Auzo-Ikastoletako denok jeisten giñan errira: Udaleko batzordearen aurrean egin bear izaten genduen emearen asterketa. Ni bakarrik izaten nintzan elebitzan agertzen nintzana.

Ogeita amarretik berrogeira bitarte izaten ziran aurrak. Udar gutxiago neguan geiago. Amabi urte egin nituan, ogeita lautik ogei ta amaseira bitartean. Sortu zan matxinadagatik erritik aldendu bearrean arkitu nintzan. Azken aldira giroa ere obeago eta ongi ikusiago nintzan. Baña nere barrenak euskalduna bezela ori etzidan agintzen, eta artu nuen artu bear nuen bidea.

Orra nere kondaira laburra. Zerbait geiago jakin nai ba-dezu, zure aginpidean naukazu.

Segura'n

Etxeberría'tar Josepa, bertako "maestra nacional" zan Irakasle. Etzegin ikastolarik, bañan bera euskalduna izan da, "Xabier-txo erabiltzen omen zuan, aureri euskeraz erakustearren edo euskeraren bidez erdera errexago ulertu zezaten.

Irun'en

D. Felix Urdangarain jaunak, Akademia bat zuala, mutil azi xamarrentzat bertan euskerazko klaseak eman nai izan zun. Ikasle gutxi, eta denbora motxa iraun. Artexe-tar José izan zan Irakasle.

Arrasate'n

Errepublika garaiean, ikastoletatik kristautasuna kendu naiean zebiltzalako sortua izango zan. Markiegi'tar Joseba saiatua lan onetan. Eusko Langileen Alkartasunak berea bezela artu. Erakus-keta, onela zan: Irakurri, idatzi eta Kristau-Ikasbidea euskeraz. Gañeratikoak, bi izkuntzetan, euskeratik erdere. Aur bakoitzak bost peseta ordaintzen zuen. 150'en bat lagun bildu ziran; mutilik danak. Osatzeko bear zan dirua, 250 laguntzaleak ematen zuten.

Bi erakusle ziran: Etxeberria'tar Juan eta Mendizabal'dar Fran- zisko. Apaiz etxean asi eta gero Batzokiko teatroan biltzen ziran.

Lau urte iraun zuan Ikastola onek. Besteak bezela, matxi- nada sortu zan arte.

Irura'n

Bertako eskolan aur txikiak artzen etzituztelako eta kalerik kale ibili etzitezen, Alzueta jaunaren emaztea, apaiz jaunarekin itz egin ondoren, Ikastola txiki bat antolatutzera erabaki zuten. Bertako Irakaslea, Agilar'tar Mari Karmen; euskalduna izaki eta euskera erabiltzen zuan bere eginkizunetako. Aurrak zerbait ordaintzen zuten. Zerbait ori bear aña etzalarik, "Papelera" zuten diru osagarri.

Andoain'en

Erri ontan, Ayuntamentuak ordaintzen zun Irakasle euskal- dun bat, eta onek, naiz erakusketa erderaz egin, euskalduna izanik ikasteak euskeraz agertzen zien bear ba-zan. Erakusle au, oso saiaturia, Inacio Tolosa San Sebastián. Ikastola zanez, bai liburu ta bai bear ziran tresna guziak, Estadoa'k bestea zuan baño askoz obeto ornitua.

Aur txikiak ere, ba zuten, parbularioa; bi andereñoen men- de, ain zuzen, biak euskaldunak.

Tokia, erriarena zan. Etzuten ezer ordaintzen ara joaten ziran 140 inguru ikasleak.

Ba-zan errian garai artan Alkain'dar Juanita euskaldun Ira- kaslea. Etzuan Ikastolan lanik egiten, bai ordea bere etxean. Lar- ramendi'ri omenaldia zala aitzekiz, edo aitzekirik bearrik gabe, an biltzen zun aur mordoxka bat. Bai ipuiak edo abestiak, edo beste gaiak zirala, euskeraz noski erakusten saiaturia zan. Ondoren- goentzat tokiren bat utzia izan bear zuan, Ikastolatako izango zalakoan.

Lan auek, 1924 inguruan sortu ziran; eta beste denak bezela, 1936'garrenean bukatu noski.

* * *

Beste erri batzuetan ere, Deba, Ordizi eta abar, monja esko- letan zerbait euskera erakusten zan, ezer gutxi ba zan ere.

HIZKUNTZABITASUNAZ INKESTAGAIAK
joseba intxausti

Ondoren doazen galderak erderaz egin eta zabaldu behar izan ditugu, hain zuzen inkestatuetatik zenbaitek horrelaxe behar zituelako. Dauden bezalaxe ematen dira hemen.

Galdera sail bakoitzak ibilbide desberdina izan du: batzutan berehala erantzun zitzaion inkestari (Maria Pla aipatu beharko nuke hemen); bestetan, hilabete batzuen buruan, lan eder batekin erantzun da; eta azkenik, kasuren batean, ez dugu deus jaso.

Inkestatuak hauk izan dira: Claudi Esteva i Fabregat (Kultur Antropologia), Maria Pla (Pedagogia), Antoni M. Badia i Margarit (Linguistika), Ana Maria Etxaide (Linguistika), Miquel Siguan (Psikologia), Sabin Ayestaran (Psikologia).

Esteva, Pla eta Ayestaran-en lanak argitaraturik dira liburu honetan; Siguan-en iritzia Aduriz-en artikuluak jasotzen du.

Eraskin hau argitaratzeko arrazoi bakarra hau izan da: hizkuntzabitasunaren problematika aztertzeke pentsatua den galdera zerrenda hau, hemen eman direnetatik hasirik aurrerago jotzeko, pentsabide baliagarria delakoan inprimatzen da. Hizkuntzabitasunaren zenbait arazo gogoratzen dizkigu eta nabarmentzen.

EL BILINGÜISMO DESDE LA ANTROPOLOGIA CULTURAL

1. Comenzamos aludiendo a la Antropología cultural. Sería conveniente describir el contexto en que vamos a examinar el bilingüismo. ¿Qué es exactamente la antropología cultural?
2. Bien. Consideramos, por tanto, el idioma desde su valoración sociocultural? En caso afirmativo; ¿qué peso específico representa la lengua en el cuadro general de una comunidad cultural?
3. Las etnias (las podría definir?) históricamente se han definido también por sus idiomas: ¿qué relaciones interdependientes o intercondicionantes se han dado entre etnia e idioma?
4. El idioma naturalmente es un código comunitario de comunicación social que relaciona al individuo con su comunidad: ¿qué valor de inserción comunitaria se le asigna comúnmente al idioma en la Antropología cultural?
5. Parece que el bilingüismo podría alterar las fórmulas "normales" de integración del individuo en su comunidad: ¿qué interferencias perturbadoras de esta inserción puede observar la Antropología cultural en las sociedades primitivas o modernas? ¿Cómo salvar dificultades?
6. ¿Qué relación guardan en el individuo etnia, cultura e idioma?

EL BILINGÜISMO DESDE LA PEDAGOGIA

1. ¿Qué es una escuela bilingüe?
2. ¿Qué problemática plantea la organización de las escuelas bilingües?
3. ¿Qué es la planificación de la escuela a partir de la lengua materna?
4. ¿Qué se hace aquí para la preparación de los maestros para la escuela bilingüe?
5. ¿Qué realizaciones conoce de América?

EL BILINGÜISMO DESDE LA LINGÜISTICA

1. Breve bibliografía sobre el bilingüismo considerado desde la lingüística.

2. Caracterización socio-lingüística de la comunidad bilingüe de los Países Catalanes.
3. ¿Qué condicionamientos sociales operan sobre el bilingüismo catalán?
4. ¿En qué forma y niveles se da principalmente la contaminación interidiomática de catalán y castellano?
5. ¿En qué sentido y medida la actual hegemonía oficial del castellano pone en peligro la "integridad estructural" del catalán?

1. Bibliografía general sobre el bilingüismo, y monográfica sobre el euskera y castellano en el área vasca.
2. Qué problemática especial ofrece, considerándolo desde la lingüística, el bilingüismo vasco? ¿El rural? ¿El urbano? ¿En los distintos niveles socioeconómicos y culturales?
3. ¿Qué tipo de interferencias euskéricas sufre el castellano del País Vasco?
4. Y viceversa: ¿qué contaminación castellana el euskera?
5. ¿En qué medida estos fenómenos lingüísticos podrían alterar las estructuras respectivas del euskera y del castellano?
6. ¿Cómo se delimitan en los bilingües vascos, desde el punto de vista castellano y euskérico, los varios campos de interés que el idioma debe verbalizar?
7. ¿En qué sentido debería alterarse el actual statu quo de esa "geografía vivencial del idioma", para asegurar la supervivencia y desarrollo del euskera? ¿En qué campos debe afirmar y reforzar su presencia el euskera?
8. ¿En qué medida cree Ud. que el euskera, en su actual estado de desarrollo, frena su propia fuerza de expansión en el mundo cultural moderno?

EL BILINGÜISMO DESDE LA PSICOLOGIA

1. ¿Podría establecer las coordenadas de relación entre el bilingüismo y el desarrollo intelectual? Lenguaje y pensamiento; aprendizaje lingüístico y aprendizaje intelectual.
2. Tipología del bilingüismo comunitario y del individual. Su valoración en función del desarrollo intelectual.

3. Disglosias en las comunidades bilingües. Factores que los provocan; efectos.
4. Incidencia de la comunidad bilingüe sobre el individuo. Posibles frustraciones y vías de superación para el individuo, miembro de una comunidad bilingüe.
5. ¿Caracterización de la comunidad bilingüe catalana?

1. ¿El lenguaje como factor de integración de las experiencias pasadas en el presente?
2. El inconsciente como conjunto de experiencias no verbalizadas y, por lo mismo, no integrables en la consciencia.
3. El bilingüismo, ¿en qué sentido puede ser factor de ruptura dentro de la dinámica de la personalidad?
4. ¿Qué dificultades origina el bilingüismo en la comunicación interpersonal?
5. Caracterización de la comunidad bilingüe vasca.
6. Opciones para superar las tensiones psíquicas de los bilingües vascos.

Goitik

Ezkerretik

Gure
iKastola

Eskuinetik

Behetik

j. a. aduriz
i. aizpurua
a. allur
j. ansa
s. ayestaran
m. errezola
c. esteva
f. garitano

l. haranburu
j. intxausti
i. laspiur
a. lertzundi - i. urbieta
e. osa
m. pla
j. m. satrustegi
j. urrutia

bildumetatik kanpo

Elkar-Janean: EUROPA

Elkar-lanean: FILOSOFIAREN KONDAIRA (I)

L. Villasante: KRISTAU FEDEAREN SUSTRAIAK:
JAINKOA

J. Goitia, P. Mendizabal: LAU EBANJELIOAK

J. Intxausti: EUSKAL-ADITZA. LAS 7 LECCIONES DEL
"EUSKAL-ADITZA"

B. Gandiaga: ELORRI

I. Omaetxebarria: EUSKERA. GRAMATICA Y MORFO-
LOGIA DEL VERBO VASCO

jakin sorta

1. **Elkar-lanean:** IPAR EUSKAL HERRIA (Aitua)

2. **Elkar-lanean:** SALBATORE MITXELENA

3. **Elkar-lanean:** RIKARDO ARREGI

4. **Elkar-lanean:** KULTURA ETA FEDEA

5. **Elkar-lanean:** ERLIJIOA HAUZIPEAN

6. **Elkar-lanean:** GURE IKASTOLA

jakin liburu sorta

1. **F. Zabala:** EUSKAL HERRIAREN HISTORIA.

1. Lur Ekonomia

2. **J. Hiriart-Urruty:** MINTZAIRA, AURPEGIA: GIZONI

3. **J. Intxausti:** IRAULTZAREN HILDOTIK

4. **J. Hiriart-Urruty:** ZEZENAK ERREPUBLIKAN

Hemen barnean bertan duzu liburu hauen eta laister argitaratuko direnen berri zehatzagoa. Ikus azken horrialdeak.